

# FONTES LINGVÆ VASCONVM

stvdia et  
docvmenta



SEPARATA

Año XLIII • Número 113 • 2011

Erro monosilabikoaren teoria eta  
aitzineuskararen berreraiketa: zenbait  
alderdi eta ondorio

JOSEBA ANDONI LAKARRA

# Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio

JOSEBA ANDONI LAKARRA\*

SARRERA<sup>1</sup>

Ejemplo típico de las actividades de reconstrucción proseguidas en el escalón más alto, conocido o restituído, que aspiran no sólo a penetrar en el pasado, sino también a comprender mejor las relaciones que entrelazaban los términos –cuyo número es siempre indeterminado en las protolenguas– son las investigaciones acerca de la “forma canónica” de morfemas o raíces; su configuración muestra curiosas limitaciones en semítico común que delatan las afinidades de los fonemas en el sistema, o en indoeuropeo, etc. De aquí teorías generales, como la de Benveniste sobre la constitución de las raíces indoeuropeas (Mitxelena 1963: 40).

Lakarra (1995) eta ondoko lanetan erakutsi nahi izan dut –euskararen historiaurrearen berreraiketari dagokionez– Mitxelenak ‘50eko hamarka-

\* (UPV/EHU-JUMI).

<sup>1</sup> EJ-ren “Lingüística histórica e historia de la lengua vasca” [GIC07/89-IT-473-07 eta GIC.IT486-10] ikerketa talde kontsolidatuaren eta MICIN-eko “Monumentae Linguae Vasconum (I-II-III)” [=BFF 2002-03132, HUM 2005-0847, FFI2008-04516] ikerketa egitasmoen barnean kokatzen da honako lan hau.

Honen lehen bertsioa –askozaz laburragoa– “Koldo Mitxelena Katedraren” II. Biltzarrean (Gasteiz, 2007ko urria) irakurri nuen. Geroztik alde askotatik hazi az joan da eta, horrenbestez, orain inprimategian diren Biltzar haren Aktetarik (Lakarra, Gorrotxategi & Urgell, arg.) kanpo utzi behar izan dut. Hemengo gai zenbait, modu batera edo bestera, erabili izan ditut azken 10 urteotako Lizentziatura, Mastergo edo Doktoregoko eskoletan, eta badute haietako ikasle askorekin –batez ere azken bost urteotakoekin– euren uste baino lotura eta zor gehiago. Zorretan nago, orobat Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua, Julen Manterola, Mikel Martinez, Céline Mounole, Javi Ormazabal eta Blanca Urgellekin hainbat urtetako ohar, galdera, zuzenketa eta eztabaidarengatik eta Borja Ariztimuñori azken orduko irakurketa bikainagatik. Eskerrak batzuei eta besteei; esan gabe doa akats guztiak neureak direla.

dako lan bikainetan lortu eta oraindik estandar den aitzineuskararen eredia (Mitxelena 1957, *FHV*) heda eta sakon litekeela eta hizkuntza egoera zaharrago baterantz eraman ahal dela<sup>2</sup> erroaren azterketaren bitartez.

Alorreko maisuek esan ohi diguten legez (cf. Mitxelena 1963 edo Fox 1995), berreraiketan anomalia historikoak direnez gero interesgarrien –horiek soilik lehenagoko erregela eta baldintza zaharragoetarik abiatuaz azal daitezkeen neurrian–, begibistakoa dugu euskarazko erroaren egiturak, historikoki dituen irregularitateak kontuan izanik, iraganean urruti eraman ahal gintzakeela irregularitateon azalpenik emateko gai izanik, bederen. Kontrako aukera –hitz solteen etimologien eta erro eredu sailkatze eta zerrendatze hutsa– metodologikoki erosoago, ustez seguruago eta are zehatzago bide litzateke; zalantzarik gabe, ez ginateke bakarrak hortik jo bageneza eta euskara ere ez litzateke hizkuntza bakarra zeinarentzat forma kanoniko anitza edo orotarikoa proposatu izan den. Baina, bai hizkuntza horien historiaurrearen garai zaharragoen berreraiketarako, eta baita euskararenetakako ere, bide erraza bide agorra gertatu da behin eta berriro; nire orain arteko lanetan zein honetan ideia horren aldeko frogak ugari bildu ahalko dugu<sup>3</sup>.

Erro teoriak eta honen barnean erroaren forma kanonikoak<sup>4</sup> eta horren bilakabideak edozein berreraiketa eta konparaketatan zein hizkuntzaren –bere

Laburdurak: C = edozein kontsonante, V = bokala, D = diptongoa, T = leherkaria, R = ozena, S = txistukaria; AEZ/AEB = aitzineuskara zaharra/berria; gainerakoak testuan bertan azalduko dira. Lan honekin ia batera idatzi ditudan (2008c) eta (2009d)-n aurkitu ahalko du irakurleak hainbat gai komun eta osagarri; saiatu naiz errepikapen alferrak saihesten baina bata-bestearen oihartzun ezinbestekoak ez eze inoiz berariaz bilatuak ere badira ere.

<sup>2</sup> Cf. “Lakarra (1995) has chosen to attach still more weight to the verbal facts: he suggests that, at some exceedingly remote stage of the language, all lexical morphemes were monosyllabic, and that the dominant polysyllabic form of nouns and adjectives results from extensive compounding aided by a certain amount of reduplication. He has enjoyed a certain amount of success in identifying some ancient morphs which perhaps recognizable meanings, but it is too early to evaluate his research programme. If there ever was such a stage, it must have been *long, long before the Pre-Basque of some 2.000 years ago reconstructed by Michelena*” (Trask 1997: 178-179; etzana nirea [JAL]).

Izango bide dira frogak eta urrats gehiago urteotako lanetan nahiz argitaratzeaz ditudan edo prestatzen ari naizen enparatuetan (ikus xehetasunak bibliografian), baita inorenetan ere, Igartua (2002) eta Martínez Areta (2006b)-n bezala. Nolanahi ere, paradigma berriak bere ahal guztiak ez ditu agortu. Trasken nire lanaz goiko ahalpaldian aipatua idatzia (kontuan izanik nire 1995eko hasikina baino ez zuela ezagutzen) oso kilikagarri baino ezin izan zitezkeen; halere, lan horretan aditz askotako (ez guztietako) CVC erroa ez zen oinarri, frogak erantsia baizik (ik. 131. oh. eta horko testua). Ados baino ezin nagoke nirea Mitxelenarena baino berreraiketa zaharragoa litzatekeela dioenean; zorigaitzez, ez hark eta ez nik ezin oraingoz “long, long before” hori baino zehaztasun gehiago eman ahal horren dataz; bilakabideaz eta kronologiaz lan honetan bertan eta bestetan (Lakarra 2008c) aurkitu ahalko zukeen zerbait gehiago, ez azken berbarik, jakina.

<sup>3</sup> Oin prosodikoko eta forma kanonikoak ez ote zuketzen zerikusirik eta egitekorik Martineten eta Mitxelenaren aitzineuskarako azentuaren kokaguneari buruzko eztabaida famatuan? Ikus §6 eta §8 eta hor aipatu bibliografia.

<sup>4</sup> Hara Martineten definizioa: “Hizkuntza bateko lexemen forma ohikoari forma kanonikoa deitzen zaio inoiz. Txineraren forma kanonikoa monosilabikoa da eta hizkuntza semitikoa hiru kontsonantetako, tarteko bokalekin nahiz gabe” (1978: 124-125).

E. M. Uhlenbeck-ek (1995) dioskunez “Probably in all languages position and sequence of the phonemes are constant properties of the overall structure of the word forms” (258), “I have to refrain from going into further details and into the statistical aspects involved, for which I refer to Uhlenbeck (1949 and 1950), but there is no doubt that morphonological structure, at least in Javanese, is a reality, which for its description requires distinguishing between: what is never allowed, what is preferred, what is admitted in special cases, and what is simply allowed apparently not falling within the scope of any preferential rule” (260) edo “For morphophonology we need, as far as our present knowledge goes: 1) rules to account for absolute structural restrictions as to the sound shapes of radicals and words allowed to occur in a language; 2) statistically valid preference rules, supplemented by an exhaustive list of deviating radicals and words, together with a synchronic or diachronic explanation of the reasons of their deviating position” (264), besteren artean. Antzera, dagoeneko, Uhlenbeck (1950)-eko sarreran.

sistemaren muineko hainbat ezaugarri larriren– eboluzioan duen betebeharrak garrantzitsuaren aldarrikapenean datza nire lan honetako eta aspaldiko enparatuetako gogoeten oinarria. Gainera, aurreko berreraiketa-paradigman tiratu ez ziren hariak eta haiei kanpotik –beste tradizio batzutan egindako lan aberatsez hornitutako sail emankorretarik– erantsiek, soka lodia egiten dute, erroaren bilakabidearen azterketak lehen baino urrutiago, bizkorrago eta azkarrago jotzea ahalmentzen eta zilegiztatzen digutelarik<sup>5</sup>.

Hara lanaren laburpena:

§1. AE-ren berreraiketa estandarraz; §2. Arrazoiak eta bideak berreraiketa-eredua aldatzeko (2.1. Adibide bat: Erro teoria IE-z; 2.2. Beste adibide bat: Erroa semitikoz; 2.3. Mitxelenaren etimologiez; 2.4. Euskal erroaren azterketak); §3. Hurbilketa berri bat AE-ren berreraiketarako: Erro teoria monosilabikoa (3.1. CVC-rantz; 3.2. Erro teoriaren lehen emaitzak; 3.3. Erro teoria eta konparaketa); §4. Erro teoria eta etimologia formala (4.1. Erro eredueta sail etimologikoak; 4.2. CVC eredu monosilaboa; 4.3. Erro eredu bisilaboak aztertuz; 4.4. Erro ereduak: iragazkiak eta irizpideak); §5. Forma kanonikotik tipologia holistiko diakronikorantz; §6. Forma kanonikoa eta tipologia: aditzaren berreraiketa (6.1. Aditz erroak, irregularitateak eta hedadurak; 6.2. Erro hedaduren historiaurreaz: multzo aditzak; 6.3. Euskal aditz sintetikoaren urritasun eta modernotasunaz); §7. Forma kanonikoa, hitz familiak eta AEZ-aren fonologiaren berreraiketa (7.1. Hitz familiak; 7.2. Erroa, kokaguneak, fonemak; 7.3. Azentua eta erroa; 7.4. Morfologiaren fonologizazioaz; 7.5. Fonosinbolismoak eta forma kanonikoa; 7.6. Erroa eta beste aztergai fonologiko zenbait); §8. Forma kanonikoaren aldaketaz (8.1. Erro ereduaren aldaketak beste hizkuntza batzuetan; 8.2. Hasperena eta erroa; 8.3. Forma kanonikoaren aldaketaren aztarna fonologikoak; 8.4. Forma kanonikoaren aldaketaren aztarna morfologikoak; 8.5. Bisilabismoaren berritasunaz); §9. Ondorioak eta egitekoak; §10. Bibliografia; §11. Eranskinak. (11.1. Erro ereduaren azterketa taulen bidez; 11.2. Hainbat etimologia berri).

## 1. AITZINEUSKARAREN BERRERAIKETA ESTANDARRAZ<sup>6</sup>

Ezaguna denez, euskararen historiaurrearekiko bibliografia oraintsu arte hizkuntzaren egitura edo bilakabidearekiko beste edozerekiko baino ugariago izan da; zehatzago, badira bost mende zaleen artean gure hizkuntzaren (ustezko) jatorri hurbilekoen edo urrutiagokoan gaiak arrakasta zabala lortu zuenetik eta ez jakin inoiz galduko duen ere. Ez dut esan nahi, horrenbestez, gai edo gai-sail zail horrek merezi ez duenik: soil-soilik adierazi nahi nuke gure artean hizkuntz konparaketa oso modu xeblean burutu (ohi) dela gehienbat eta, bereziki, ez duela bete –ez eta horretarako gogo bizirik agertu ere– hizkuntzalaritza historiko estandarren barnean aspalditik duen eta guri hain egokiro letorkigukeen helburu nagusia (cf. Thomason 1993). Hots, euskararen historiaurrearen azterketak edo hortaz agerturiko interesak ez duela aitzinhizkuntzaren berreraiketaren bitartez hizkuntza familiaren edo bakanaren bilakabidea eta egitura azaltzea erdietsi eta ezta hori noizbait egiteko bidean jarri edo jartzen saiatu ere, hizkuntzalaritza tra-

<sup>5</sup> Pozgarria da arestian –beste fonologo eta morfologo askoren artean– Downing (2006)-k eta Vihman eta Croft-ek (2007) forma kanonikoaren garrantzia aztertzea; haien hurbilketa, ordea, urruti da oraingoz edozein asmo diakronikotatik.

<sup>6</sup> Atal honetarako ikus Lakarra (1997a), (1997b), (1998a), (2006a), (2008c) eta (2011d).

dizio garatuetan ikus eta ikas genezakeenaren aurka, hain zuzen. Bestelako helburu eta metodoen pean gobernatuak, ez dazagut euskal fonologia, gramatika zein lexikoaren egitura nahiz historian jatorriekiko mito eta usteek zein nola-halako konparaketa genetiko hauek argitu duten benetako arazorik; ez dute, beraz, gainerako hizkuntza eta hizkuntz-familiatan legezko etekin eta onurarik, eta euskalarientzat izan dezaketen interesa hutsaren hurrengoa, anekdotikoa edo historiografikoa da, izatekotan, ... Ilillura, alperreko oztopo edo atzerapen garbi-garbiak ez datozkigunean bertatik, noski (cf. Lakarra 2010c eta 2011a euskara-iberiera erkaketatik datozen adibide batzuetarako).

Euskararen iraganaren ikerketan bi aro nagusi ditugu, ezagun baino ezagunago den legez: Mitxelena aurrekoa eta Mitxelenaz geroztikoa<sup>7</sup>. 1950-64 bitarteko haren lanek erabat aldatu zuten euskararen egitura zaharraz eta historian zein historiaurrean hizkuntzaren bilakabidez genekiena. Egia esan, *genekikeena* genekiena baino gehiago, aurrekoarekin batera, ezagutzaren oinarriak eta metodoak ere aldatu baitzituen. Lehengo azterketa atomista eta estrukturalismo-aurrekoaren ordez, estrukturalismo diakronikoa fonologian, maileguren azterketa sistematikoa<sup>8</sup> –ez anekdota etimologikoen anabasa, kasu hoberenean– eta horren aplikazioa barne berreraiketan... Filologian eta dialektoen ezagutza eta azterketan, artean nahiz ondoren inork izandakoaren aldean maisugo eta ezagutza zabala eta, batez ere, *Lenguas y Protolenguas*-en eta bestetan antzematen den ofizioaren oinarrien, helburuen eta mugetan berebiziko eskarmentua. *FHV*-n, “Las antiguas consonantes”-en, *Sobre el pasado*-n, “De onomastica aquitana”-n edo *Textos arcaicos vascos*-en gauzatutako euskararen iraganaren azterketarekiko paradigma aldaketak berarekin ekarri zuen euskarak konparaketetan zuen ohiko (ik. Trask 1997ko azken atal bikaina) erabilera barregarri eta penagarriaren amaiera ere, ofizioaren artean bederen: geroztik Mitxelenak berreraikitako AE-rekin beharko du kontatu bide horretatik abiatu nahi duenak eta ez, Bouda batek lehenago bezala (cf. Mitxelena 1950), batean Lekeitioko *irizigi* eta bestean *m-otz* baina *ma-ts* “analisiekin” bere erkaketa bitxietarako, noiz kartvelikoren batekin, noiz Kaukasoko besterekin, noiz hizkuntza paleosiberiarrekin, nahiz enparatuko edozerekin<sup>9</sup>.

*Aitzineuskara* oso berba modernoa da eta baita bere kideak ere ingelesez eta inguruotan gehien erabili erdaretan; horrelakorik nekez aurkituko XIX.

<sup>7</sup> Irakurtzekoak dira *FHV*-ren bi edizioei egileak jarritako sarrerak; nabarmena da Gavelekiko ezberdintasunak hor adierazi baino are sakonagoak direla, Mitxelenak markatu nahi izan ez arren; erka bitez, esaterako, bataren eta bestearen liburuko hasperenari buruzkoak. Gavelen hasperenarekiko atalaren ahuleziak mintzatu naiz (2009c)-n; han esan bezala, “odolik egin gabe” baina sistematikoki erantzuten zaio *FHV*-n eta balegoke ihardespina hedatzerik, noski.

<sup>8</sup> Ikus, adibiderako, Mitxelenak behin baino usuago aipatzen duen Jackson (1953) zeltikoaz; lehen eta gero, historikoki errumesago diren hainbat hizkuntzaren historia gainerako aberatsagoetarik hartutako maileguren gainean eraiki ohi eta behar da, hein batean: hara Greenberg (1947, 1960) hausaz, Casagrande (1954-55) komantxeaz edo Sagart eta Xu (2001) txineraren inguruetako hizkuntzez. Lan modu honek ez du zerikusirik hizkuntza hartzaileen kutsadura-salaketekin ez hizkuntza emailearen indar eta egokitasunaren laudorio amaigabeekin, urrutiegi joan gabe horrelakorik abondo aditu izan bada ere. Are gehiago, noiz hizkuntza emaile erraldoi horietako zenbaitek ere on du apaltasuna: hara, esaterako, ingelesak latinetik eta frantsesetik hartutako maileguak edo latinak berak grekeratik hartutakoak; bada bietan hizkuntza hartzaileen historiez berri jakingarriak. Orobat tibeto-burman txinarentzat, nahiz suomieran germaniko zahararentzat.

<sup>9</sup> Ikus Bouda (1950) edo (1950-56), beste askoren artean; azkenotan Boudaren askaziko edo dugu Jean Braun; ikus de Alonso (2007) haren bi lanez. Kasta horretakoa da Morvan ere; ikus 25. oh. eta Campbellen (1997)-ko hizkuntz-familien “zerrenda beltza” nahiz Campbell (2007) euskararen izaera isolatuaz eta haren kideez.

mendearen amaieran ez XX.aren hasieran euskalaritzan. Gero ere, Gavelen liburuan (1920), demagun, sistema fonologikoaren taularik ez bilatu; azkenik, *aitzineuskara* hitza bera ez da batere usuko Uhlenbeck edo Tovarren lanetan, eta ez halabeharrez, poligenesiaren aldeko baititugu aitortuki Trombetti eta Schuchardt aitzindariak bezala (cf. Lakarra 2008b)<sup>10</sup>.

Dakigunez, Mitxelenak Martinetek 1950ean euskaroaren leherkarietzat proposatutako bortitz/ahul oposaketa argudio berriekin indartu eta kontsonantismo osora (*ia* osora, gogora /h/) hedatu zuen. Sistema horretatik landa gelditu ziren [m], [f] eta sabaikariak, eta baita Martinetek proposatu \*/mb/ eta \*/nd/ ere gramatika konparatuaren oinarritzko legea beteaz: ez da berreraikiko horretarako arrastorik aski utzi ez duen soinurik (/mb/, /nd/), ezta kognadoak azaltzeko beharrezko ez den ezer ere (gainerakoak)<sup>11</sup>. Bere azken lanetan (cf. *FHV*<sup>2</sup>, Mitxelena 1979) (C)V(W)(R)(S)(T) silaba egitura proposatu zuen iberikoarentzat, euskara zaharrari ere ongi zetorkiola erantsiaz. (C)-z gaztigatu zuen ezin izan zitekeela edozein, batez ere hitz hasieran, eta orobat, silaba eta kokagune molde guztiak ez direla inoiz bete ere segurki<sup>12</sup>.

Morfologia diakronikoan Schuchardten eta Lafonen izenak ezinbestean aipatzekoak dira, nahiz lehendabizikoaren kasuan hots-aldaketa legez zituen ikuspegi eta jokabide bereziek euskalaritzarako Mitxelenak behin baino usuaigo aipatutako ondorio gaiztoak izan hamarkada luzeetan. Hain ezagun izan ez arren, bada gero zabalago aurkeztuko dugun Uhlenbecken 1942ko lan bat euskal lexikoaren sailkapena helburu zuena<sup>13</sup>: Mitxelenak baditu han-hemen morfologiari buruzko hainbat ohar interesgarri, atzizkien formaz edo postposizioez, demagun; horren lekuko dira “Toponimia, léxico y gramática” eta “Verbos compuestos vascos” gogoangarriak, esaterako, eta berariaz morfologiakoak ez diren, *FHV* eta *Apellidos Vascos* nahiz toponimiazko zenbait edo *RS*-i buruzkoak ere. Alabaina, ene gustuko, Trasken 1977ko aditzaren egitura eta sintaxiaren historiari dagokiona izan liteke garrantzizkoena azken 60 urteetako morfosintaxi diakronikoari buruzko saioetan, bai azaltzen duenagatik eta, are gehiago, azalkizun ugaritarantz ireki bideengatik<sup>14</sup>. Ikusi nahi

<sup>10</sup> Ikus saio horretan aipatu Touratier (1990: 29) Martineten eta Mitxelenaren lanek berreraiketa metodo klasikoari barneberreraiketa eranstea egindako ekarpenaz. Zehatzago eta esan beharrik balego, Touratier ez zen bereziki arduratua euskalaritzaz eta, beraz, Martineten eta Mitxelenaren ekarpenak maila orokorrean iruditzen zitzaizkion garrantzitsu, ez euskalaritza bezalako eremu labur eta estu baterako.

<sup>11</sup> Hatsarri berari narraio §7.2-n AEZ-erako bi txistukari eta hiru ozen baino ez berreraikitzean. Azenuari dagokionez aurrerago (§7.3) gehixeago esango denez, aski izan bedi gogoratzea bataren eta bestearen helburu nagusia ez dela azentua bera berreraikitzea, horren bitartezko beste zerbait baizik; norbaiti hitz-joko huts edo ezinezko begitandu arren, baliteke arakatu ezkerreko biek arrazoi sakonik izatea ere.

<sup>12</sup> Ikus Arriagoitia (1990) eta Jauregi (2007). Lan horietan eta bestetan (1977b-n bereziki) konposatuak –orain ere iberikoz bezala– /bisilabo + bisilabo/ egiturakoak zirela baieztatu zuen Mitxelenak: “Tales elementos por ahora últimos [los elementos más simples a los que pueden ser retrotraídas las formas complejas] no siempre son monosilábicos; ni siquiera lo son, al contrario de lo que ocurre en caucásico del noroeste, en la mayoría de los casos. Hallamos, por lo general, bases bisilábicas. Si se prescinde de algunos temas nominales (*su* ‘fuego’, etc.) y de raíces verbales como *-gi* ‘hacer’, *-go* ‘estar, permanecer’, son los sufijos de derivación y de flexión los que suelen ser monosilábicos” (PT 312). Iberikoaz ez naiz inoiz berariaz aritu; alabaina, ezin eutsi eta Lakarra (1991), (2010c) eta (2011a)-n zenbait puntu bildu ditut horren inguruan garrantzizko izan zitezkeelakoan. Ikus hemen 74. oharra.

<sup>13</sup> Horren zergatiak –hizkuntza orenen poligenesia ikertzea, euskararena barne– ez zaizkit orain axola, ezta hor aldarrikatu bizkaieraren eta gainerako euskalkien arteko sortzezko ezberdintasun, ustez, erabat ezabatu gabea ere (ikus Mitxelena 1964, Lakarra 1986, 1996b eta 2002d eta hemen §2.4.).

<sup>14</sup> Pena da ikertzaileek behar bezainbat ez irakurria eta egileak berak ondoko mende laurdenean gehiago ez aitzinatua eta are atzera egina; erka bitez 1997ko testu nagusia eta 1998ko artikulua, bate-tik, eta 1977ko artikulua eta 1997ko gramatikazko atalxo “espekulatiboa”, bestetik.



duenarentzat argi gelditu zen hor *d-* (hobe, *da-*) ez zela noizbait ez pertsona-, ez aldi-marka, aspektu-marka baizik<sup>15</sup>; garbi behar luke, orobat, marka hori ezker zela, ez eskubi, eta, beraz, ez hizkuntza eransleei dagokien SOV egituraren baizik eta oso bestelakoei legokiekeen VO baten alde mintzo dela, egoera zaharra gordetzen duen neurrian, bederen<sup>16</sup>. Horrezaz landa, artikuluan datiboaren berankortasuna eta ergatiboaren jatorri-aukerak ere argitzen dira<sup>17</sup>, ondorengo edozein morfosintaxiren abiapuntu bilakatuaz; ikus Gómez (1994) eta Gómez & Sainz (1995) bide berri horien hedadura interesgarri baterako. Sintaxiaz, hitz edo osagaien hurrenkera hutsera mugatuta ere, ez da asko aurki genezakeena berreraiketa lanean segurtasun minimo batez; ez gaitzen nahas, ordea: edozeinek daki gure urrunago joateko ezintasun edo alperkeriak ez dakarrela “azken zazpi mila urteotan” harako hark zioenez –bide batez: zergatik ez zazpi bider zazpi mila?– aldaketarik eta are aldaketa oso larriarik ere ez hor izatea (ik. Lakarra 2006a, 2008a); aurkituko ahal da horren frogarik ondoko orrialdeotan (cf. 113. oh.).

Watkins (1990, 2000) eta alorreko berezilarientzat (cf. Blust 1995 austro-nesioarentzat, Matisoff 2003 tibeto-burmeraz edo Klimov 1998 kartvelikoaz) benetako hizkuntzalaritza historikoa etimologiaren garapenarekin hertsiki loturik da:

Language change is a fact. I will not consider here the possible or probable causes of language variation and language change. For our purposes I prefer to stay with the simple Saussurian notion that all things change over time, and there is little reason why we should expect human language to be any different. *The study of etymology represents a pivotal dimension of the response of the science of linguistics to the empirical fact of language change* (Watkins 1990: 167; etzana nirea da [JAL]).

Gure artean hori, inon ikustekotan, Mitxelenaren lan erraldoian ikusten dugu: ehundaka eta are milaka hitz edo aldaeraren azalpenak aurreko ia beste hainbaten azterketa, dozenaka eta ehundaka etimologia eta aitzinforma zahar dira bere AE-ren fonologi-sistema berreraikiaren oinarrian eta horren emaitza gisa (ikus Arbelaiz 1978). Hainbatekoa zen Mitxelenak zekarren aldaketa euskararen diakroniarekiko ikerketetan, non geroztik –eta dagoeneko igaro dira 50 urte– “euskal etimologia” eta “euskararen berreraiketa” deitura bi-biak Mitxelenaren lanarekin lotuak baitira erabat; gutariko gutxik zerrendatu ahalko bide luke beste inoren dozenardi etimologia berebiziko (harako Watkins 1990-en etimologia “lieutenantak” edo “mariskalak”). Eta berreraiketari egindako kritikez edo aurkeztutako alternatibez aski da esatea Trask bere 1997ko liburuan berriro bihurtu zela esplizitoki esparrura –hasperenaren ingurukoak salbu, bere zorigaiztorako– 1985eko saioaren ondoren; cf. Lakarra (2008b)<sup>18</sup>.

<sup>15</sup> Antzera gertatzen da beste hainbat hizkuntza eransletan, ispilu-irudi gisa bada ere: cf. “Stem + tense +  $\emptyset$  agreement > Stem +  $\emptyset$  tense + agreement” (Kuznetsova 2004: 155).

<sup>16</sup> Gogora bitez Comrie-k Givon-i egindako kritikak; ikus, esaterako Comrie (1989). Halere, esango nuke ofiziokoan artean Givonen hitzak emankorragotzat jo ohi direla.

<sup>17</sup> Cf. gero Lakarra (2006a) Silverstein eta jarraikiak eta, bidebatez, euskal morfologia, fonologia eta sintaxi azterketen arteko etena beratuaz.

<sup>18</sup> Lan horretan markatu bezala, ez Martinetek lehen (1950) ez Trask (1985, 1997) eta Hualdek (1997a, etab.) gero, ez zuten etimologiarik bildu –ia bihirik ere– beren berreraiketa alternatiboan oinarri edo abiapuntutzat, ez eta emaitza gisa ere.

## 2. ARRAZOIAK ETA BIDEAK BERRERAIKETA-EREDUA ALDATZEKO

### 2.1. Adibide bat: Erro teoria indoeuroperaz (IE)

Hizkuntzalaritza historikoan aurreko berreraiketa bat aldatzeko lau arrazoi mota edo lau bide izan ohi dira (cf. Haas 1969: 46): (1) hizkuntza ahaide bat aurkitzea, (2) aitzinhizkuntza ahaide bat aurkitzea, (3) mailegu zahar aztertugabeak erabiltzea, edota (4) lanabes erantsirik gabe, lehendik ezagun zirenak modu ezberdin batez erabiliaz edo azertuaz teoria edo interpretazio berriren bat erdiestea. Euskalaritzan (1) eta (2) ez dira gertatu azken 45-50 urteotan eta gehiagotan ere –Luchairek akitaniera euskararekin duela ia mende t'erdia lotu zuenetik edo– eta (3)-ri dagokionez, gutxi da aurreratu dena nahiz aurrera litekeena ere Mitxelenak horietaz egindako azterketa eta erabileraren ondoren<sup>19</sup>; (4) da, beraz, eta horrela dateke etorkizunean ere paradigma-aldatetarako bide eta arrazoi bakar AE-ren ikerketan.

Zalantzarik gabe, laugarren arrazoibide hori zen Benvenistek bere 1935eko tesian garatu zuena, IE hizkuntzalaritzaren hurrengo hamarkadetakoa ikerketa osoa baldintzatu duen erro teoria aurkeztean. Liburuaren hasieratik bertatik dator aurreko IE hizkuntzalaritzarekiko kritika:

L'objet essentiel de la grammaire comparée, depuis une soixantaine d'années, a été de poser des correspondances entre les langues indo-européennes, et d'expliquer, en partant de l'état que définissent ces correspondances, le développement des dialectes attestés. On met donc au compte de l'indo-européen tout ce qui semble hérité dans chacun des dialectes, avec la conviction, implicite ou avouée, qu'on ne saurait sans danger pousser la restitution au delà du prototype immédiat. Depuis le *Mémoire* de F. de Saussure, le problème de la structure des formes indo-européennes elles-mêmes a été presque complètement négligé. Il paraît communément reçu qu'on peut analyser l'évolution de l'indo-européen sans se soucier de ses origines, qu'on peut comprendre des résultats sans pousser jusqu'aux principes. De fait, on ne va guère au delà de la constatation. L'effort, considérable et méritoire, qui a été employé à la description des formes n'a été suivi d'aucune tentative sérieuse pour les interpréter. Là est sans doute la cause principale du malaise actuel de la grammaire comparée: si la recherche proprement comparative tend à s'éparpiller en travaux de plus en plus menus, c'est qu'elle a oublié les questions fondamentales; et si bien des linguistes se détournent de la comparaison, c'est pour s'être laissés aller à croire que l'on n'avait plus de choix qu'entre le connu et l'inconnaissable (Benveniste 1935: 1)<sup>20</sup>.

<sup>19</sup> Cf. "... los préstamos, de linaje latino-románico en último término en la inmensa mayoría de los casos; queda mucho por aclarar, pero es más bien cuestión de detalle y de precisión. En otras palabras, no iremos mucho más lejos del estado actual, salvo por lo que respecta al rigor y a algún que otro descubrimiento aislado que todavía pueda hacerse. En la inmensa mayoría de los casos, esto convertiría presunciones en certezas, pero las presunciones están ya presentes" (Mitxelena 1970: 308). Alabaina, 100 mailegu berriatik gora aurkitu uste dut (cf. Lakarra prest.-1, 2011c)-n, artean zenbait zaharrak: ikus batzuk §4.2-n, 86. oh. eta dagokion testuan; orobat, 2. Eranskinean.

<sup>20</sup> Benvenisteren teoriaren garrantziaz ikus Watkins (1984), zeinetatik atera den lan hau ixten duen eta ahapaldi hauok zuzenki ukitzen dituen aipu luzea. Bestalde, askok gogoratu ohi du (cf. López Eire 1971) IE-ren erro-teoriak eta Benvenistek berak hizkuntzalaritza semitikoarekiko duen zorra.



Jucquois-en ustez (1966, 1970-72), Benvenisteren liburu horren eskaintzako Meillet maisuari<sup>21</sup> dihoakio kritikaren zati handi bat. Izan ere, Meilletek sarri esan zuen kognadoen arteko egokitzapenak, konkordantziak, zirela linguistika konparatuaren egiteko bakarra (cf., esaterako, Mitxelena 1963: 41); harentzat hizkuntzalaritza konparaketa hutsean agortu ez arren, litekeena da haren ospe eta jardun erraldoiak –Benvenistek azaldu nahi dituen bezala– jarraitzaileak berezko egitekoak eta metodoak (berreraikitzaile eta aitzinhizkuntza-gramatikalarri-gaiak) hartzetik atzeratzea eta, maisuaren ikuspegi orokorrik ez izanik, usu erkaketa txikikerietan gauzatzea eta desbideratzea.

Hau zen mende herena igarotzean aurki zitekeen egoera, oro har. Morfologia diakroniko estrukturalistatzat jo daitekeen azterketa batez, Benvenistek ez du bilatzen soilik artean erdietsi gabeko indoeuropearen lehenagoko garai batera iristea, baizik eta, era berean, aitzinhizkuntzaren barnean eboluzioa eta bilakabide diakronikoa ezartzea. Azken finean, Jakobson baino lehen ere bazen aitzinhizkuntzak benetako hizkuntza gisa ulertzen zituenik, historikoki lekukotutako hizkuntza naturaletako ezaugarri, murriztapen eta izaerarekin, alegia:

La tâche la plus urgent est donc de restaurer la notion d'indo-européen, en l'arrachant à cette conception empirique et au fond négative: est indo-européen tout et cela seulement qui, postulé par la comparaison, ne résulte pas d'une innovation. Dans l'ouvrage dont voici le premier volume, l'indo-européen, sera considéré, non comme un répertoire de symboles immuables, mais comme une langue en devenir, offrant dans ses formes la même diversité d'origine et de date qu'une langue historique, et permettant à son tour, quoique restituée, une analyse génétique<sup>22</sup>. (...) Peut-être apparaîtra-t-il ainsi que la fixation d'une chronologie devra être la préoccupation dominante des comparatistes (Benveniste 1935: 1-2).

Saussureren IE bokalismoaren teoriak eta fonema hitita zenbait hark proposatu koefiziente sonantikoekin elkartzean Kurylowiczek egindako aurkikuntzak lagundutako IE-aren morfologiaren azterketa baten ondoren, Benvenistek definizio orokor batean biltzen ditu IE erroaren eta haren ezaugarriez analisi katea luze batean lortutako ondorio guztiak:

1.a. Erro IE monosilabikoa eta trilateroa da, bi kontsonante diferente eta *e*, oinarritzko bokala, konbinatzen dituelarik.

<sup>21</sup> Alabaina, honek “*Ça se tient*” zioen “Benvenisteren tesi handia” aztertu ondoren (ik. López Eire 1971: 273). Hor bertan ikusgarria da Benvenisteren liburuaren iruzkingileen zerrenda: Lejeune (*REG* eta *REL*-en), Vendryes (*BSL*), Debrunner (*IF*), Machek (*AO*)...

<sup>22</sup> Erka bedi orain –75 urte geroago!– Teil-Dautrey-k aitzinbantuaz proposatzen duena:

Un des objectifs de la linguistique historique concerne la reconstruction des proto-langues. Quel que soit le principe méthodologique adopté, le cheminement s'effectue dans une direction imposée par les fondements même de la reconstruction; il part des données recueillies dans les langues pour remonter le temps et atteindre une hypothétique langue mère. Ce scénario a fonctionné pour le domaine bantou dès la fin du XIX<sup>e</sup> siècle; des études comparatives ont conduit aux premières reconstructions de la protolangue, puis au fil des années, les données synchroniques se sont améliorées en nombre et en qualité ce qui a permis aux bantuistes de poursuivre et d'affiner cette recherche sur le proto-bantu pour aboutir aujourd'hui à un ensemble de reconstructions fiables.

Dans cet article, je propose de considérer le proto-bantu sous l'angle de la structure phonologique de ses unités lexicales (Teil-Dautrey 2008: 55).

Bitxia iruditzen zait [frantziar!] hizkuntzalari honen bibliografian Benvenistez eta bantuaren berreraiketarako beste familia batzuen historiografian aurki zitzakeen eredu ez edo paralelismoez (IE-renean inon baino lehenago, jakina) hitz bat ere ez esatea... *Diachronica* deritzon aldizkari batean argitaratua izaki, bidenabar.

2.a. Eskema iraunkor honetan kontsonanteak zeinahi izan daitezke beren artean diferenteak badira eta ahoskabe bat eta ahostun hasperenduna konbinatzen ez diren bitartean.

3.a. Atzizki alternante baten bitartez erroak bi txanda-enbor lortzen ditu:

I. Erroa gradu betean eta tonikoa + atzizki azentugabea zero graduan:

II. Erroa zero graduan (azentugabea) + atzizkia gradu betean eta tonikoa.

4.a. Atzizkiari soilik luzapen bat gehi dakiok, dela I. enborrekoari, dela erroaren eta II. enborreko atzizkiaren artean (infijazioa).

5.a. Lehendik luzaturik edota atzizki bat harturik den enbor bati beste luzapen edo atzizki bat gehitzea soilik izenki huts diren oinarrietan gerta liteke (Benveniste 1935: 170-171)<sup>23</sup>.

## 2.2. Beste adibide bat: Erroa semitikoz

Fezko Hayyudj-k X. mendean horrela aldarrikatu zuenetik, uste erabat orokorra izan da erro semitikoak hiru kontsonantez osatuak zirela (Lipinski 1997: 201); hara gramatika konparatu famatuena hamar mende beranduago horretaz dioskuna:

The Semitic languages present a system of consonantal roots (mostly triconsonantal), each of which is associated with a basic meaning range common to all members of that root: e.g. *ktb* 'to write', *qbr* 'to bury', *qrb* 'to approach', etc. These roots (root morphemes) constitute a fundamental category of lexical morphemes (...). The linguistic reality of consonantal roots is shown not only by their lexical implications but also by the laws governing the compatibility or otherwise of radicals (which do not concern the vowels) (...) and in the transcription of foreign words. Only the pronouns and some particles lie outside this system of roots (Moscati 1964: 71).

Tradizio semitikotik landa ere hizkuntzalaritzan aspaldi hartutako ideia dugu:

En hebreo, lo mismo que en otros idiomas semíticos, la idea verbal en cuanto tal se expresa mediante tres consonantes características (con menor frecuencia dos, o cuatro). Por ejemplo, el grupo *sh-m-r* expresa la idea de 'guardar', el grupo *g-n-b* la idea de 'robar', el grupo *n-t-n* la idea de 'dar'. Naturalmente, estas series de consonantes son abstracciones de las formas que se emplean en la realidad. Las consonantes están vinculadas entre sí, en formas diferentes, por vocales características que varían de acuerdo con la idea que se desea expresar (...) (*El lenguaje*, FCE México 1977, 7. berrarg., 71-72. or.).

Moscatik (1964: 72) adierazten duenez, historikoki erro trikontsonantikoek gehiengo handia osatzen dute; askozaz gutxiago dira bi edo lau kontsonanteko erroak eta oso urriak batekoak edo bostekoak eta hiru kontsonante baino gehiagokoetan bigarren graduko eraketak aurki daitezke (ikus 37. oh.,

<sup>23</sup> Ezin luza naiteke hemen edozein eskuliburutan aurki litezkeen IE erroko C-konbinaketa zilegi eta ezinezkoak zehazten edo zerrendatzen, ezta horiek Gamkrelidze eta Ivanov (1984) eta beste askoren teoria glotalikoaren sorreran izan duten garrantzia erakusten. Halere, aipatu nahi nuke Iverson & Salmons (1992), zeinetan ozentasun eskalaren laguntzaz modu bikain eta ekonomikoan –eta teoria glotalaren beharrik gabe– azaltzen diren hertsapen horiek.

Sabar 1982-z). Badira, ordea, erro-kontsonante bi amankomunean izaki, esanahi bera edo bertsua dutenak ere. Horrela, adibidez, hebraieraz *prđ* ‘to separate’, *pr̄m* ‘to tear’, *pr̄s* ‘to split’, *pr̄ṣ* ‘to break down’, *pr̄q* ‘to pull apart’, *pr̄r* ‘to dissolve’, *pr̄š* ‘to distinguish’, etab. Aditz hauek guztiek komunean dituzte *pr* erro-kontsonanteak eta ‘banatu’ oinarritzko esanahia. Lexikoi semitikoan hedaturik den fenomeno honek erro trikontsonantiko asko ez ote den bikontsonantikoetarik eratorria galdetzera garamatza, eta are sistema bikontsonantikoa ez ote zen semitikoan nagusi trikontsonantikoa baino lehen (Moscati 1964: 73)<sup>24</sup>.

Konparaketak ematen zion laguntzaz landa, Frajzyngier-ek (1979: 3-5) azterketa sinkronikotik eta barne-berreraiketatik jasotako argitasunak erabili zituen bikontsonantismoaren alde egiteko. Hasteko, segidan diren bi kontsonante (dela  $C_1$  eta  $C_2$  zein  $C_2$  eta  $C_3$ ) ezin izan daitezke homorganikoak; alabaina, bada salbuespen garrantzitsu bat,  $C_2$  eta  $C_3$  erabat berdinak (geminatuak) zilegi egiten dituena, alegia.  $XY\bar{Y}$ -erroak azaltzeko ez erro singleak baizik eta eratorriak direla eta goiko erregela soilik oinarrian betetzen dela –baina ez eratorrian– litzateke azalpen naturala eta bestelako (inflexio zein deribaziotiko) lekukotasun askea duena, gainera. Bestalde, Frajzyngier-ek argudiatzen duenez, erregela soil batez iturri beretik atera daitezke erro guztiak: hots, geminatuak ez lirateke jatorriko, lexikoian soilik erro mota bat dugularik, gainerakoak erregela batez sorturik. Honela  $R_1R_2 > R_1R_2R_2$  eta  $R_1R_2R_3 > R_1R_2R_2R_3$  gehi bokalizazioa aski litzateke hizkuntza semitikoetan agertzen diren erro-sail guztiak azaltzeko. Norbaitek deribaziorako beste forma edo erregelaren bat suposatu arren, geminatuak eratorriak lirateke eta ez oinarritzkoak edo soilak.

### 2.3. Mitxelenaren etimologiez

Arbelaizen (1978) liburuan, Mitxelenaren 1200-1400 bat etimologia aurki litezke eta, zalantzarik gabe, hori da oraingoz dugun euskal hiztegi etimologiko hoberena eta are jendaurrean aurkezteko moduko bakarra ere<sup>25</sup>. Horri gehitzen badiogu *FHV*, *Sobre el pasado de la lengua vasca* eta egilearen beste hainbat lan (“El elemento latino-románico”, tartean), begibistakoa da badela hor euskararen historiaurrearen eta historiaren azterketa bikain baten sintesia eta, baita, azalpen horretan jarraitzeko bidea ere. Horrela aitortu dute diakronista guztiek azken 50 urteotan eta oraindik hori da paradigma estan-

<sup>24</sup> Moscatiren erantzun ezaguna ezezkoa da. Nahiz eta aitortu (a) adierazten dituzten kontzeptuengatik (cf. *dam* ‘odol’, *yad* ‘esku’ edo *yam* ‘itsaso’) izenki bilitero zahar eta trikontsonantikoetara ezin eramanak badirela hizkuntzotan eta (b) aditz ahuletan hainbat erro trikontsonantiko direla non gehiago diruditen –bereziki beste bilitero batzuekin semantikoki bat datozenetan– beranduko hedakundeak ezen ez antzinako kontrakzioak, eta nahiz eta honi guztiari lotu lehen erakutsi hainbat erro ustez trikontsonantikoren zati bikontsonantikoetan jazotzen diren berdintasun semantikoak, hara bere ondorioa:

There is, however, no sufficient reason for maintaining, as some have done, that the entire Semitic stock of roots was originally biconsonantal. It is a more likely supposition that originally there existed roots with either two or three consonants (as well as a smaller number with one only or with more than three) and that at a certain stage in the development of the Semitic languages the triconsonantal system prevailed –extending by analogy and thus bringing into line biconsonantal roots through the adoption of a third radical (Moscati 1964: 73-74).

<sup>25</sup> Geroztik Traskena, Morvanena eta Forni delako batena (gutxienez!) zabaldu dira sarean. Pena da lehenbizikoa egileak ia hasi baino ezin egina; beste biak hain dira barregarri eta baldar non hemen aipatze hutsa aski eta sobera den.

darra aitzineuskaraz, euskararen historiaurreaz eta beranduagoko bilakabide fonologikoaz.

Alabaina, lehendik ziren paradigmaten behar eta akats ezagun zenbaiti –Benvenisteren duela ia 75 urteko tesiaren ondoko pasartetik abiatuaz– berri batzuk erantsi ahal dizkiogu orain:

Ce qu'on a enseigné jusqu'ici de la nature et des modalités de la racine est au vrai, un assemblage hétéroclite de notions empiriques, de recettes provisoires, de formes archaïques et récentes, le tout d'une irrégularité et d'une complication qui défient l'ordonnance. On enregistre des racines monosyllabiques (\**bher-*) ou dissyllabiques (\**g<sup>w</sup>eyə*); des racines bilitères (\**dō-*), trilitères (\**per-*), quadrilitères (\**leuk-*), quinquilitères (\**sneigwh-*), des racines à voyelle intérieure (\**men-*) ou à diphtongue (\**peik-*); à voyelle initiale (\**ar-*) ou à voyelle finale (\**pō-*); à degré long (\**sēd-*) ou à degré zéro (\**dhək-*): à diphtongue longue (\**srēig-*) ou brève (\**bheudh-*), à suffixe ou à élargissement, etc. On serait en peine de justifier et même d'énumérer complètement tous les types de racines qui sont attribués à l'indo-européen. Il y a ici un abus de mots qui trahit une doctrine indécise. On n'obtient pas de l'indo-européen en additionnant les diverses formes indo-européennes d'un thème verbal ni en projetant dans la préhistoire des particularités d'un état de langue historique. Il faut essayer, par de larges comparaisons, de retrouver le système initial sous sa forme la plus simple, puis de voir quels principes en modifient l'économie (Benveniste 1935: 147-148).

Esan bezala, hor Benvenistek bere aurreko aitzinindoeuropeeraren berre-riketaz zioena hein handi batean Mitxelenaren lanari ezar dakioke; hara, esaterako, haren etimologiekkin Arbelaizek (1978) egindako bildumatik hartutako adibideok:

\**anai-(k)ide* (> *ahaide*), \**anal-gabe* (> *ahalge*), \**anan(t)z-* / \**enantz-* (> *aha(n)(t)z-*), \**bat-gu* (> *bakhu*), \**ba-ahal-dadi(e)n* (> *balain*), \**(a)bari ba(ga)-ko egun* (> *bariak*), \**barren-e-* (> *barne*), \**bade* (> *bat*), \**egaz-ki* (> *egazti*), \**egu-(ren) egun* (> *eguen*), \**e-nezu-n* (> *entzun*), \**gaitz-ko* (> *gaitzo*), \**gau-haur* (> *gaur*), \**gaztanal-e* (> *gazta*), \**ge-ro* (> *gero*), \**ibar-Ci* (> *ibai*)...<sup>26</sup>

Arazoa edo akatsa, begibistakoa ez dakit, baina ez da antzematen zail ere: horko aitzinformen artean badira bisilaboak nahiz monosilaboak eta are polisilaboren bat ere, halaber, C- zein V-z hasiak, diptongodunak edo gabeak, silaba irekiz nahiz itxiz bukatuak, ia edozein fonema konbinaketa eta ordena...<sup>27</sup> *Fonética histórica vasca*-n ere (batez ere lehen argitalpenean) eta gainerako lanetako erroarekiko edo morfema mailako erregelekiko ezaxola argia da; ozenetan edo txistukarrietan, demagun, maila horretan kontsonante homorganikoen ezintasuna

<sup>26</sup> Eta berak arreta zeri jartzen dion ikusteko hara iruzkinetarik laburpen hauek: “como dudoso en el grupo en que V[asco] com. -n- da -h-”; “puede restablecerse antigua -n-“ (hainbatetan); *oa* > *a*; “disimilación”; “la *m* es secundaria”; “doble metátesis, nasal por lateral y lene por fuerte y viceversa”; “de ser así, se trataría de una contracción más antigua”; “El paso de *u* > *i* ante consonante labial puede sostenerse con ejemplos vascos seguros”; “debilidad de -d- entre vocales, acentuada por disimilación”; “caída de sibilante ante sonante”, etab.

<sup>27</sup> Aitzinhizkuntza ezberdinetako osagaien garaikidetasun-falta ohiko erru eta arrisku dugu ikerketa tradizio orotan; cf., esaterako, uralikoan: “The set of morphemes reconstructed in UEW is methodologically inhomogeneous. This means that, first, several chronologically adjacent periods –or levels, in terms of the family tree model– of the proto-language are included...” (Bakrò-Nagy 1992: 7).

erakusten da, baina ez atal batean aipatzen da bestea, ez inon erroaren garrantzia analisi-unitate bezala, nahiz eta ondorio hori zalantza gutxiokoa izan<sup>28</sup>.

Hortik ez dut inolaz ere atera nahi Mitxelenak ez zuela Benvenisteren lana ezagutzen eta estimatzen; inorena baino areago, dakigunez, bere maisu bakartzat baitzuen, behin baino gehiagotan aitortu bezala: haren teoriak eta forma kanonikoaren garrantziaz gogora *Lenguas y Protolenguas*-en esaten zaiguna ere (ikus lan honen hasiera-hasierako aipua). Ez bide da harrigarri garai hartan euskararena bezalako tradizio diakroniko aitzinatugabeen ikerbide hori gerorako uztea: Benveniste maisuak bere IE-zko erroaren azterketaren aldeko aldarrikapena, Saussure-ren *Mémoire* bikaina [1879] eta bestelakoetarik ia 60 urtetara egin zuen; ikerketak oso aitzinaturik ziren ordurako eta Jakobson eta Trubetzkoyrekin estrukturalismo diakronikoa bere hasikinak jartzen ari zen fonologian, IE morfologiaren berreraiketaz Kurylowiczen lan garaikideak ez aipatzearren...

#### 2.4. Euskal erroaren azterketak

IE-z<sup>29</sup>, semitikoz<sup>30</sup>, edo austronesioz<sup>31</sup>, oraintsuago uralikoz (Bakrò-Nagy 1992<sup>32</sup>, Redei 1972), bantuz (Teil-Dautrey 2008), dravidikoz (Krishnamurti 2001, Andronov 2003)<sup>33</sup>, kartvelikoz (Gamkrelidze 1966, Harris 1990, Vogt 1958), nahiz txineraz (Karlgrén 1934, Lee 1976, Feng 1997) edo tibeto-burmeraz (Matisoff 2003) zein beste zenbait familia eta hizkuntzatan gertatzen denaren aurka, ez da erroari buruzko lan samaldarik euskal linguistikazko ikerketetan, ez sinkronia ardatz hartzen dutenetan eta ezta diakronikoetan ere, egitura honen hizkuntz analisirako garrantzia argiro gutietsirik.

Esaterako, –eta adibide esanguratsua begitantzen zaigu–, Azkueren ehundaka orritako morfologiako lan mardulean dozenerdi lerro dira erroari dagozkionak. Egia da hitzurrean azaltzen duenez, euskaltzain lagunek eskaturik afijoei buruzko aurkezpen luze-zabala prestatu zuela eta horretaz, aldiz, ohartxo bat

<sup>28</sup> Cf. *FHV*-n aipatu *sasoi* < *sazón*, Etx. *cinhexi* > mod. *sinetsi*, etab., baina cf. *sasoi*-z eta *sinetsi*-z, etab. Orobat, ez da hor dardarkari homorganikoen aurkako erregelaren (\*\*r – R) aipurik nahiz eta batzuen eta besteen ezarpen-eremua berbera izan: erroa, alegia. Erroa(ren bilakabidea) eta hasperena(aren) arteko erlazioaz, ikus Igartua (2002) eta hemen §8.2.

<sup>29</sup> IE-ren erro teoriak bibliografia amaiezina da; aski da edozein eskuliburu begiztatzea azken garapenez jabetzeko. Interesgarria da López Eire-ren (1971) historia, Benvenisteren aitzindarietako loturak (Saussurerekiko zuzen-zuzenez landa) zehaztuaz. Halaber, Jucquois (1966, 1970-72) eta Iverson & Salmons (1992) ikuspegi ezohiko pare baterako.

<sup>30</sup> Ikus Moscati (1964), Appleyard (1979), Bohas (1997), Diakonoff (1970, 1975), Frajzinger (1979), Greenberg (1950), Sabar (1982), etab.; lehen gramatika arabikoetarik (XII. mendean) erroarekikoak hain garrantzia handia hartzen du semitikoaren barnean non –horregatik beragatik– familia horretan gramatika konparatuak aitzinamendu larriagorik egin ez duela uste duen hizkuntzalaritzaren historialari batek baino gehiagok; hau da, erroaren azterketaren bitartez edozeinentzat garbi zen familiako hizkuntza guztien (are arabiera eta hebraieraren) arteko lotura hertsia, lege fonetikoaren eta beste-  
ren premiak izateko.

<sup>31</sup> Ikus Blust (1988), Nothofer (1990), Potet (1995), Zorc (1990). Dagoeneko Brandstetter (1910)-en bada erroaren, enborraren eta hitzaren arteko bereizkuntza saio interesgarria –erkaketa eta barne-berreraiketa erabiliaz–, lehendabizikoaren deskribapen luze eta sakon batekin.

<sup>32</sup> Honen helburua lehenago Chrétien-ek austronesioarekin (1965) edo Teil-Dautrey-k (2008) banturekin bezala, hotsen konbinaketa ahalmena eta hutsuneak eskema bisilabikoetan antzeman eta hortik inferentziak egitea litzateke: cf. “This article aims to define the phonological structure of Proto-Bantu lexical units on the basis of frequencies of reconstructed consonant co-occurrences. Starting from the main reconstruction given in BLR3 [= Bantu linguistic reconstructions-3], I present evidence for the presence of unexpected frequencies indicating imbalances in two directions” (Teil-Dautrey 2008: 54).

<sup>33</sup> “§157. In Dravidian the root of the word is monosyllabic. This thesis, first put forward by Caldwell (...), has been universally accepted as an axiom which needs no proof” dio bigarrenak.

baino ez dugu eriden ahalko, interesgarria halere: Azkuek (1923-25: 40-41) antzinako izenkietako erroa monosilaboa zela suposatzen zuen, –kasu guztietarako frogatuezintzat bazuen ere– eta oinarriak edo enborrak erroa gehi atzizkiaz osaturik zirela uste zuen, jatorrizko euskal hitzetan hainbat disilabo aurkitzea horrela azalduaz.

Uhlenbecken euskal erroarekiko hurbilketa (1942, 1947) euskarak omen lituzkeen estrato-osagai ezberdinak erakusteko ahaleginaren barnean kokatu behar da<sup>34</sup>. Egileak argiro aldarrikatu bezala, euskara “hizkuntza mixto” tzat hartzea ez zen apartekoa harentzat... Trombetti, Schuchardt, Boas edo Tovarrentzat ere ez zen bezalaxe (ik. Lakarra 2008b). Sinetsirik euskara Kaukasoko hizkuntzetarik ezin bereiz zitekeela alde batetik, eta, bestetik beranduagoko eragin iberikoari zor omen zitzaizkion Afrika iparraldeko elementu lexiko eta gramatikalak zituela bere barnean, –eta (kaukasieraren fonetika konparatuaren peitu) euskara-kaukasierazko konparaketa sistematikoa iritsi bitartean–, interesgarri zeritzon euskarazko izen- eta aditz-erro analisatugabe ugariak sailkatzeari, ondoren haien artean Auñamendi-mendebaleko zaharrak eta, eliminazioz, atetiko eraginez (kaukasikoa, hamitikoa, zelta, ilirioa, latinetikoa, etab.) azal zitezkeenak banatzeko<sup>35</sup>.

Bere arrazoi, helburu eta metodoak egun onargarriak begitandu edo ez, kontua da luzaz izan dugun euskal erroen sailkapenik osoenetarikoa eman zigula. Hara hemen laburturik:

a) erro monosilaboak:

- 1) bokalez amaituak: *khe, lo, so, su*, etab.;
- 2) diptongoz amaituak: *gai, gau*, etab.;
- 3) kontsonantez amaituak, “askozaz ere ugariagoak”: *har, gar, hil, lan...*;
- 4) afrikatuz amaitu ugariak: *haitz, antz, hartz, hats, gaitz...*;
- 5) forma erreduplikatuak, “ez oso ugariak”: *konkor, gogor, garagar*; etab.

b) erro bisilaboak<sup>36</sup>:

- 1) VCV eta CVCV, “ohikoak eta euskarak berezkoago dituenak” (Uhlenbeck 1942: 559): *habe, aho, ale, harri, begi, behi, beso, xori, eme*, etab.;

<sup>34</sup> Famatua, ezagun denez, B eta gainerako euskalkien arteko jatorrizko ustezko etenagatik dugu (cf. Mixtelena 1964 eta Lakarra 1986); halere, gai horrek orrialde erdi exkax edo hartzen du haren 40etarik. Aldiz, lan aski luze honen ia %98 betetzen duen euskarazko erroen sailkapenak ez du inondik ere antzeko osperik lortu, seguruenik alderantziz izan beharko lukeen arren, Lakarra (1998a)-n erakusten saiatu nintzen legez.

<sup>35</sup> Beste nonbait da etimologia garaikidearentzat Uhlenbecken hurbilketaren interes nagusia:

Pour le moment, il m'est indifférent de savoir si tel élément lexical –mot ou racine– possède ou non une parenté caucasienne plausible. Si pareil élément lexical correspond à un type ancien, il devra passer pour pyrénéen occidental ancien, sauf la possibilité qu'un élément non originellement pyrénéen occidental ancien d'importation ultérieure –mot ou racine– se soit rallié secondairement à un type pyrénéen occidental ancien. Mais cette question est sans importance pour mes investigations, puisque *je recherche non pas des étymologies, mais des types*. Des éléments d'origine étrangère secondairement assimilés à d'anciens types indigènes contribuent, eux aussi à affirmer l'existence de types anciens (Uhlenbeck 1942: 567); etzanak neureak dira [J.A.L.].

<sup>36</sup> Uhlenbeckentzat (1942: 65) bada sail disilabiko bitxi bat, oinarriaren bi silabetan bokal bera duena, hain zuzen: *adats, apal, arrats, azkar... bele, xebe, eder, elhe... bibi, idi, mihi... mo(s)ko, odol, olo, oro... buru, sudur, zuhur*; aditzen artean ere badakuski eredu fonologiko bereko erro zenbait: *ahantz, ihintz, atzar, ethen, isil, leher, nahas*. Bokalismo bereko eredu hau hizkuntza uralo-altaikoetan ematen den harmoniaz oso bestelako omen eta –Sapir (1921-23) aipatuaz– Kalifornia eta Oregon aldeko (“Penutian” macrophylumeko, zehatzago) hizkuntzekiko paralelismo osokotzat du eta on deritzo behin-behinekoz “Auñamendi-mendebal zaharreko” gisa sailkatu eta hizkuntza kaukasierrekiko erkaketetan oso kontuan hartzeari.



- 2) VCVC eta CVCVC “usukoak oso”: *abar, adin, behor, behar, gizon, sagar*, etab.;
- 3) VCCV eta CVCCV “usukoenetarik”: *albo, argi, garbi, zaldi*, etab.;
- 4) VCCVC eta CVCCVC “ohikoak, orobat”: *argal, azkar, bazter*, etab.;
- 5) diptongoarekin (DCV, CDCV, DCVC, CDCVC, VCD, CVCD, VCCD, CVCCD, VCDC, CVCDC, VCCDC, CVCCDC): *aita, leiho, oihu, aihen, leizar, etsai*, etab.

c) erro trisilaboak:

Arrarotzat du bai VCVV zein CVCVV: *egia, herio, lehia*<sup>37</sup>.

Uhlenbeckentzat (1947: 67) eredu disilabikoa euskal hiztegiaren estrato oso zaharra genuke, errazki banatzen diren atzizki bizi eta emankorrez eraturiko aditzetako izenki-eratorriak ez bezala. Azkenik, euskal lexikoiaren muinean, “esentzian”, barneratzeko bidea behin eta berriz agertzen diren amaierena dugu harentzat<sup>38</sup>.

Lafonek euskal erroari buruz argitaratu zituen ohar laburretan (1950) bere tesian (1943) eta aipatu Uhlenbecken bi artikulu garrantzitsuetan esana gogoratzen bazuen ere gehienbat, erro hori zehazteko oztupoak gainditzeko, –berarentzat *ultima ratio* zen konparaketa euskara-kaukasikoaz (cf. Lakarra 1998a) landa–, bada bertan arretaz miatu beharrekorik. Aditzetan legez, *ur, su* edo *gogo* bezalakoetan (1950: 305) erroa ezagutzen zail ez dela deritzo. Beste kasu batzutan esanahiz lotutako zenbait hitzetako zati komuna bana omen daiteke: horrela bide dagokio *\*bel-i bele, beltz, belatz* eta *harbel*-en (ibid.). Zailago, baina egin litezkeenak deritze *\*bar* ‘fond’, *\*aun*<sup>39</sup> ‘abundance, grandeur’, *ber* (cf. *berrogei, bertzelbeste, berrri*) edo *go-ri* (cf. *goi, igo*). Bada, azkenik, historikoki lekukotutako euskara hutsez ezin aska litekeenik (Lafon 1950: 306-308): *irazi, ihes* eta aldaerak, ahaidetasun izenetako *-ba-z* amaituen forma eta esanahia, *aun-*, *ahun-* ala *a-(h)un-* ahuntzaren izenean, gorputz zati askoren izenean *b-* aurrizkia den ala ez...

Lafonen ustez, metodo konparatua –hizkuntza kaukasiarrekiko erkaketa, alegia– izan omen daiteke euskararen barnean analisa ezin daitezkeen hitzak argitzeko bidea:

Un nom basque, s’il ne contient aucun préfixe ou suffixe connu et dont la valeur soit nette, ne se laisse généralement pas analyser; ou, plus exactement, on ne possède aucun moyen direct de l’analyser. Mais on peut essayer de recourir à un moyen indirect, qui consiste dans l’emploi de la méthode comparative. Il faut chercher des mots appartenant à la même racine dans des langues apparentées génétiquement à la langue basque, c’est-à-dire dans les langues caucasiennes (1950: 508).

<sup>37</sup> Hein batean gonbaragarri dira hizkuntza semitikoetako “quadriradikalak”: “One of the most typical features of the classical Semitic languages is the triradical root at the basis of most of the verbs, whereas quadriradical and biradical roots are much less common” (Sabar 1982: 149). Enbor-laukoitz horiek neo-aramaikoan –eta, pensatzekoa da, gainerako hizkuntza semitikoetan– hiru sailetan sartzen dira: eratorriak, maileguak eta fonosinbolismoak (Sabar 1982: 150); cf. hemen §2.2.

<sup>38</sup> Artean aztertugabeko alorrean sartzen dela eta ezagun direnak ez dituela aipatuko aurreratuaz, ondoko amaiera hauek zerrendatzen ditu: *-tz / -ts, -ar, -er, -or, -ur, -el, -il, -an, -en, -in, -un, -rri(?)* eta *-ba*. Azkena (ahaidetasun-marka) alde batera utziaz, esango nuke bat bakarra ez duela asmatzen hala-beharrez ez bada; ez da harritzekoa, ondoren ikusiko dugunez, atzizkiok isolatzeak erroak leherkariz eta bestelako hots edo hots multzo onartezinez amaitzea baitzekarkion. Boudaren “colliers” delakoetako pitxien fonotaktikaz ikus 67. oharra.

<sup>39</sup> Ohar bekio bai *b-* faltari, bai zaharizat emandako diptongoari; bigarrenaz ik. *FHV* eta Mitxelena (1964). Bi gaiak konbinatu dira euskara eta iberieraren erkaketan (ik. Lakarra 2020c).

Erroaz mintzo denean, Lafonek AE-koaren forma kanonikoaz zuen ikuspegia ere ez da egokiegia. Aditzetako aurrizki eta atzizkiak baino ilunago izanik izenkietakoak, –horietako zenbait baino, esan beharko orain (ikus behe-rago)– horiek argitzeko metodo konparatura jotzea aldarrikatzen du, ikusi dugunez. Baina euskal erroari buruzko bere lanaren gailur gisa aurkeztu duen adibideak ez du bi hizkuntz familien ahaidetasuna sendotzen, batean eta bestean erro eta atzizki berberak eta konbinaketa berekoak direla erakutsiaz hark uste eta behar zuen legez: euskarazko *g-/kider*, *-ar* georgierazko *kid* ‘suspendre, saisir’ (mingrelieraz ‘prendre dans sa main, saisir, se saisir de’) eta svanoko *ked* ‘prendre’ erroarekin erkatzean eta euskarazko formarentzat, Uhlenbeckek beste izenki batzuetan aurkitu uste zituen *-ar*, *-er* atzizkien bitartez, “on peut penser qu’il en est ainsi dans le mot précédent et que la racine est *kid*-, *gid*” (Lafon 1950: 307) ateratzen zuen: hots, euskaraz silaba eta erro akabuan ezinezko den herskaria proposatzen du, baina ez berreraiketa erraza eta gainerakoen bermeko, nahi bezala, baizik eta, alderantziz, teoria osoaren ahuleziaren erakusle bilakatuaz<sup>40</sup>.

### 3. HURBILKETA BERRI BAT AITZINEUSKARAREN BERRERAIKETARAKO: ERRO TEORIA MONOSILABIKOA<sup>41</sup>

#### 3.1. CVC-rantz

1. Uhlenbecken sailkapenera bihurtu eta astiroago miatzean ez guke zeresanik faltako<sup>42</sup>: (1) nabarmena da erro-eredu guztiek ez dutela garrantzia ez kopuru bera sail eta azpisail horien artean; (2) orobat, nekez pentsa liteke erro ereduak oro datozela AE-tik; (3) ez zaigu ezer esaten euskara historikoan eta AE-n ezin izan zitezkeenez. Azken bide honetatik abiatuaz (cf. Lakarra 1995),

<sup>40</sup> Labur-beharrez (eta aspalditik interes historiografiko hutsa baino ez dutelako) ez naiz hemen Charencyk, Darriarrere eta bestek euskal erroez esandako urriaren inguruan arituko; ikus arestiko Gómez (2008) interesgarria Aizkibelen erroarekiko gogoetak eta haren iturriak ezagutzeko.

Lan hau amaitu eta gero irakurri ditut Holmer (1970a) eta (1970b); lehenaren –handienaren– zati nagusia aditzari buruzko azterketak betetzen duelarik eta azterketa hori aspaldi aski zaharkitua gelditu zelarik, ez da harrizko lanok euskal hizkuntzalaritzaren bibliografian oihartzun aipagarrik, dakidanez, ez lortua. Alabaina, ondoko ataletan zenbait oharretan hango ideia batzuen –labur eta garapen apartekorik gabeko– isla eman nahi izan dugu euskarari buruzko ikuspegi tipologiko tradizioaletik kanpora kokatzen baita, dela erroarekiko arduraren aldetik, dela –bereziki– hurbilketa holistikoarenetik. Euskara haren “Type I”-ekoa dugu, Kaukasoko hizkuntzekin eta Ameriketakoekin batera; horietan erroa laburra omen da, 2-5 fonematakoa edo (1970a: 14). Azentuz ari, silababakarrekotzat duela dirudi, “The nucleus or “root” is the second syllable (...) which syllable would then in the same way logically require the main stress” (1970a: 10). Etzana neurea [J.A.L.]; ikus 189. oharra Donegan eta Duamuren antzeko baieztapenez.

<sup>41</sup> Aurrerantzean Potet-ek (1995: 346) tagaloarentzat –eta beste askok hainbat hizkuntzatan– erabili erroaren definizioari lotuko naitaio:

I have consistently used the word “root” (Fr. *racine*, Ger. *Wurzel*) as in Indo-European studies. A root is generally defined as a monosyllabic morpheme obtained after all additional items have been eliminated (Marouzeau 1951: 194). This definition has been adopted by most Austronesianists, with the exception of Dyen and Nothofer, who propound “radical” instead. A radical (Fr. *radical*, Ger. *Stamm* [eusk. *enbor*]) being built on a root, I think it advisable not to use the latter for the former and vice versa. Of course a root constitutes a syllable when isolated. Whithin a word, it may be either kept as such or split between two syllables, depending on the phonotactic of the language, as for example Lat *ac* ‘sharp’ > Eng *ac-cent*, *a-cid*, *a-cute* (1995: 346).

<sup>42</sup> Boudaz ikus §3.3.ko oharra.

zergatik ote euskara modernoan izan litezkeen 900 TVTV-etarik (6T x 5V x 6T x 5V) benetan askozaz gutxiago lekukotzea eta horietarik guzti-guztiak bi multzotan banatzea? Alegia: (a) maileguak (*bake, gudu*<sup>43</sup>, *katu, bike*, etab.) eta (b) eratorri-konposatuak (*b-egi, ba-da, da-go*, etab.). Zergatik silaba irekia unibertsal bakarra delarik eta horko bokal eta leherkariak sistemako fonema-sailik ugariak? Areago dena, alderantzizko monosilaboetan morfema lexikoe-tan ispilutzat balio duten morfema gramatikalez eta fonosinbolismoez at, ez dugu ia ez V- ez -V, eta ezta -VV-, CC- nahiz -CC (ikus §7.5en akabua) baina bai, aldiz, CVC erruz: *bits, gor, gar, har, hel, hor, hotz, lats, zil, zor*, etab.

Hots, lehenago Artiagoitiak (1990) silabaren egiturarekin erakutsi legez<sup>44</sup>, orain eskuartean dugun kontu honetan ere bada erro-sailen zerrenda mugatzerik<sup>45</sup>.

2. 1995ean \*\*TVTV erro-eredu honen falta lehenagoko erro bisilabo (eta gainerako polisilabo) guztienarekin lotzen nuen zuzen-zuzenean, euskal erro zaharrak gehienbat bisilaboak zirela zioen aspaldiko ustearen aurka. Oraindik orain ez dut aurkitu arrazoirik ondorio hori aldatzeko AE zaharrenarentzat –ikus §8 ondoko garaientzat–: etimologia-lanak hasiak baino ez badira ere, bisilabotzat edo polisilabotzat genituen hainbat orain monosilabo konbinaketaren bitartez (*\*sa-mur, \*gi-bel, \*(d)a-dar, \*ze-zen...*) edo mailegu gisa (*\*enazur, bigun, \*organa*) azaldu ahal dira; ez guztiak, eta nekez baino ez dirateke izan ere, baina lehen ez genuen ikerbide emankorra garatuaz doa eta, hobeagoa dena, teoria berriak hainbat galdera eta hedadura ezezagun sortuaz, garapen habororen iturri.

Australiako zenbait hizkuntzatan (cf. O’Grady 1987, Dixon 2002), txameraz (ik. 69. oh.) edo austronesioz gertatzen denaren aurka, euskaran ez dut aurkitu eta, dakidanez, inork ez du deskribatu bibliografian bisilabo > monosilabo aldaketa prozesu orokor zahar eta zabalik: badira, bai, *bart* < *barda*, *bat* < *\*bade*<sup>46</sup>, *dut* < *\*duda* eta enparatuak baina gutxiegi eta garbiegi –eta, beraz, modernoegi– ezertarako itxura guztien arabera; gogora, esaterako, *daminda* eta *dikeada* (-*da*-rekin) RS-en direla oraindik. Halaber, leherkariak dituzte amaieran monosilabo moderno horiek, zalantzarik gabe (cf. dagoeneko Artiagoitia 1990) -T ezinezkoa izanik AE-z, eta baita beranduago ere<sup>47</sup>. Ez di-

<sup>43</sup> Ikus Corominas-Pascual, s.u. *acudir* eta *OEH*, s.u.; fonetika eta morfologiarekikoez landa, ez baztertu egileek “bitxitzat” duten Argentinako “atacar a golpes”.

<sup>44</sup> Mitxeleneri dagokionez, ikus 12. oharra. Trasken (1997: 172hh) badu hainbat gogoeta interesgarri AE-ren fonotaktikaz eta morfema egituraz; horietako zenbait (euskarazko V- aniztasuna, esaterako) Lakarra (2002a) eta (2004a)-n ikertu nuen eta prestatzen ari naizen lan zabalago batean (Lakarra prest.-3) ukitu gogo ditut gainerakoak hobeto. Nolanahi ere den, uste dut Trasken (1997: 176) erro kanonikoaren formula  $-(C_1)V(C_2)C_3V(C_4)$ – Uhlenbecken zerrendak baino murriztago bada ere, zabalegia dela eta haboro zehaz daitekeela eta murriztu ere.

<sup>45</sup> Gonbara bedi uralikoaren (cf. Bakrò-Nagy 1992) eta Australiako hizkuntzen egoera (Dixon 2002) nahiz txinera (Sagart 1999), bantuaena (Teil-Dautrey 2008), etab. eta ikus Austerlitz (1976: 8; hemen §5) hizkuntza eransleen definiziorako. Hizkuntza eransleen eta erro bisilabikoen arteko lotura behin eta berriro aurkitzen dugu Austerlitzek aztertu zituen euroasiatikoez landara ere: japoniera, munda, australiarrak, etab.; esanguratsua da alde horretatik tani hizkuntzek isolatzailetik eranslera igarotzean erro bisilabikoa –besteren artean eta horrekin bat datozen hainbat ezaugarriekin batera– hartu izana (ik. Post 2006 eta haren ondoko lanak eta hemen §8.1.).

<sup>46</sup> Zenbakien berreraiketarako eta horien azalpen eusko-iberista zenbaiten kritikarako ikus Lakarra (2010c) eta (2011a).

<sup>47</sup> Cf. lehen aipatu Iverson & Salmons (1992) IE-rako; lan hau garrantzitsua izan zen Lakarra (1995)-ean silabatik erro monosilabikorako bidean.

rudi *ke* ~ *eke* eta beste zenbait bikotek ere bisilaboen monosilabikoekiko lehentasuna ezartzen lagun gaitzakeenik: kasuak urriak dira benetan, (Nafarroako) esparru are laburragokoak eta azentu mota jakin –eta berankor– bati lotutako arrazoi ezagunekoak (cf. *FHV* 157)<sup>48</sup>. Hori guztia aski ez balitz ustezko forma kanoniko bisilabikoaren monosilabikoranzko lerradura deuseztatzeko<sup>49</sup>, bide beretik doaz esparru-eskasia, berankortasun eta azalpenari dagokionez *torri*, *kusi* eta gainerakoak ere: ezin, bada, bisilabo ~ monosilabo alternantziatzat aurkeztu, are gutxiago euskalki guztiak edo gehienak ukitzen dituen alternantzia orokortzat.

Zehaztasun eta sakontasun gehiagotara jo aurretik<sup>50</sup>, oinarrien segurtasuna areagotzeko aurrean zenbait beharrezko genuen (cf. Lakarra 2002a, 2003, 2004a): hasteko, AE-ko (eta geroztiko) **\*\*TVT**-ren ezintasuna guztizko bihurtzeko euskara modernoan azken bi mila urteotan izan diren bilakabideen ondorioz (AE-n ez legez) T fonema-sailekoen kide ditugun eta 1995ean aztertu ez nituen /f/ eta /m/ hotsez –dela T<sub>1</sub>, dela T<sub>2</sub> kokaguneetan– osatutako segidak, edota /h/-rekin izan zitezkeenak. Halaber, nahiz T- ahostunez (hasieran hartu bakarrak) nahiz ahoskabez osatuak (*f*-, *m*- nahiz *-f*-, *-m*- eta *h*-) hartu behar euskara modernoko egoerarako, forma kanoniko horretan gauza zitezkeen erroen kalkulurako, alegia.

Bigarren urrats legez **\*\*TVT** hertsapen hori sendotzeko ikertutako erro-sail guztiez landa, CVCV-ko ororen azterketa burutu genuen 2002an gauzatutako erro guztien azterketaren bitartez edo, –horretara iritsi ez ginenean– portzentaia larri eta esanguratsuko laginak erabiliaz; **\*\*TVT** azaltzeko **\*\*bisilabo** eta **polisilabo** hertsapenak proposatzeak berarekin zekarren **\*\*CVCV** eta baita (cf. Lakarra 2003 eta 2004a) **\*\*CV(C)CV(C)**-ren ezintasuna ere. Bildutako datuek gure alde –hots, 1995en AE-ko erroarentzat proposatu CVC egituraren alde– egin zuten berriro: zehatzago, RVRV, RVSV, RVTV, SVRV, SVSV, SVTV, TVRV eta TVSV **\*\*TVT**-ren lagunak eta are hVRV, hVSV, hVTV eta RVhV, SVhV, TVhV ezin genituen AE zaharrene-

<sup>48</sup> Besterik da, oraindik-orain ere hitzaren lehen kokagunea zailenatarikoa izatea ikertzaileentzat (ikus Lakarra 2009d). Horrela gertatzen da tibeto-burmeraz eta Asia-Ekialdeko hainbat hizkuntzatan ere; beharbada, hemen aurrizki zaharren aldeko argudio berri bat dugu fonologia hutseko azalpenaren aurka (cf. dagoeneko Lakarra 2004b), Sagartek (1999) aitzintxinerarako erakutsi bezala (ikus §7.4). Gehi bekie orain “The irregular evolution of presyllables is the main difficulty encountered in the study of the phonetic correspondences across Sino-Tibetan languages, as well as in the reconstruction of morphology” (Jacques 2006, apud Michaud 2009: 5) eta hiru ohar gorago esanak.

<sup>49</sup> Ikus Blust (2007) eta aspaldiko Gondaren lanak; kontrako joerarako (seskibilabiko > monosilabiko) ikus Sagart (1999) txinerarentzat eta Michaud (2009) –Haudricourt, Matisoff eta Ferlus-en lehenagoko bikainen ondotik– Asiako Hego-Ekialde osorako, batez ere mon-khmer eta vietnamerarentzat. Hara azkenak monosilabiko bilakatzeko bideez dioskuna:

Systematic monosyllabification can take place through three processes: (i) loss of the presyllable without any traces; (ii) loss of the presyllable after it has resulted in the spirantization of the medial consonant; and (iii) creation of initial consonant clusters, then of geminated consonants, leading to the development of a tense/lax contrast between former sesquisyllables and former monosyllables (2009: 5).

Lanaren akabuan (14. or.) Michauden monosilabizazioa soilik egitura seskibilabikoko hizkuntzetan gertatzen dela diosku, polisilaboek –hizkuntza “altaikoe”, esaterako (cf. Vovin 2005 “familia” horretaz)– horrelakorik pairatzen ez dutelarik; kontua da euskararik zaharrenaren berreraiketarako ere, dakidalarik, ez dela proposatu egitura seskibilabikorik.

<sup>50</sup> Lehengo eta oraingo azterketak hertsapen eta orokortasun gehiago eta 1995ean aipatutakoez landako haboro erakutsi zezakeelakoan nago, lan hartan ohartu edo garatu ez arren; hemen ere ez dira guztiak agortu eta ondokoetan bada bere txanda itxaron beharko duen adabakirik (ikus Lakarra prest.-2, prest.-3, prest.-4).

ko –ezta AE berriko nahiz beranduagoko (cf. Lakarra 2009b eta hemen §8)– forma kanoniko bisilabadunekoaren oinarritzat hartu. Izan ere, erro-eredu horietan “5” (azken) sailean batu diren hondar etimologia ezezagunekoak monosilaboetakoekin erkatzean oso urri agertzen dira, hainbat non nekez izan litezkeen ustez askozaz urriago behar luketen forma kanoniko monosilabikoak baino zaharrago; aldiz, erro-eredu bisilabiko horietan franko sarri baino sarrigago berrikuntza gisa (mailegu, aldaera zein eratorpen-konposatu) azaldu ahal izan ditugu eta etorkizunean ere are gehiago bide dirateke, –horretara jarriaz–, eredu horietarik ezaba ditzakegun (5)eko kideak.

Susmatzen genuen bezala, TVTV-ren ezintasunak eta monosilabismoak jatorrizko lexema-erroek –hots, partikula gramatikalak, onomatopeiak, mailegu eta gainerakoez at– silaba-buru (*onset*) zein silaba-buztan (*coda*) -T sailleko hotsez landakoa beharrezko zutela erakutsi genuen<sup>51</sup>. CVC zen, beraz, eta dirudienez hertsia-hertsian gainera, aitzineuskara zaharraren erro kanonikoa, ez indoeuropearaz edo, batez ere, kartvelieraz legez (cf. beheago §3.4) C-, -V- zein -C horien aldaera eta ugalketa ugarirekin. 1995eko lanean ere nahikoa argi geratu zen C- horren beharra are monosilabo modernoetan eta, zehaztasun gutxiagorekin, –orduan -CC bikoitza ere onartzen baikenuen (*hortz*, *bortz*, etab.)–, baita isatsekoarena ere: -T ezinezko delarik, horrenbestez, edozein -TV (bai TVTV eta baita RVTV, SVTV zein hVTV ere) ezinezko dira -V atzizkiarekin; izan litezke, ordea, CVR-V eta CVS-V, \**barr-u* eta agian \**larr-u* zein *hez-i* edo *gaz-i*, -V horiek mozterakoan dakusagunez. -TV atzizkia proposatzen bada, orduan erro monosilabikoak CV, silaba ireki hutsez osatua beharko du izan. Euskara modernoan, ordea, ez da horrelako errorik, esateko moduan, eta ez da ikusten kontrakoa berreraiki beharrik historikoki fosildurik gordeko ziratekeen goragoko garaietarako<sup>52</sup>.

Honek guztiak ez soilik \*\*TVTV eta \*\*bisilabo/polisilabo erro kanonikoarekiko hertsapenak baizik eta baita \*\*CVCV, \*\*V- eta \*\*V-, eta are \*\*CC ezartzera garamatza, –ezagutzen genituen \*\*CC- eta \*\*T kanpo–; zehazki, CVC aldarrikatzen genuen 1995ean AEZeko errotzat hitz lexikoetan eta hori bera berretsi du ondoko lanak (ikus §4 eta II. Eranskina).

### 3.2. Erro teoriaren lehen emaitzak

Gutxi-gora-beherako azalpenen aurrean metodologikoki hipotesi garbi eta ausartei –eta, hortaz, Uhlenbeck eta ondokoetan erro ereduak mugatzera letozkeen azalpenei– eman ohi zaien lehentasun edo hobespenaz haratago, 1995eko lehen lan hartan bertan edo berehalakoan agertu ziren arrazoi zehatz garrantzitsuak esateko CVC erro-eredu hori zela eta ez besterik AE zaharrek lexemena. Monosilabismoaren antzinatasuna eta bisilabismoaren modernotasunaren ondorio larri eta itxuraz desegoki hori zehaztera eta aztertzeraz jo baino lehen, ikus ditzagun zein izan ziren AEko erro monosilabikoaren teoria berriaren lehen emaitzak (cf. Lakarra 1995, 1998a eta hemen §§4, 8.5):

<sup>51</sup> Hortik dator kodadunak erro-eredu zaharragoak izatea (cf. §8 eta I. Eranskina) eta hauen artean (C)VCCVC [konposatua] eta –bereziki– (C)VVCV [eratorri aurrizkiduna]; alderantziz, (C)VCV edo (C)VCCV.

<sup>52</sup> §3.2.ean esan bezala, CVC > CV- aukera ezkerreko osagaian ez da lekukotua Erdiaroan baino lehen eta argudio oker hori AE-ren berreraiketan erabiltzea aurrizkiak ez onartzeko gogoan baino ez dela aitortu behar.



- 1) Isolatutako erro berriek edota lehen baino item gehiagotan ezagututako zenbait errok (*\*bel*, *\*dur*, *\*ger*, *\*zen*...) erakusten du, ene ustez, hipotesi berriaren interesa. Zenbat eta zehatzago jokatu erroaren forma kanonikoarekin, orduan eta CVC gehiago sortu dira: CVC izanik proposatutako erroa, ezin onar zitezkeen *hortz* eta *ez pertz* ere, esaterako, erro zahar horien artean: lehen kasuan *hor* ‘zakur handi’ dugunez (cf. *can-ino*), zatiketa erraza da edozeinek ikus lezakeenez; bigarrenean ez da horrelakorik, baina -RS onartezin hori ez denez erro-gai honek duen arazo bakarra (cf. *p-*), ez litzateke ideia txarra *perz* mailagutzat hartu eta *percha*-rekin, demagun (cf. *motz* < *moch*) erkatzea.

CVC forma kanoniko horretatik gora direnak –edozein azterketa kanonikotan ohi legez (ikus Mitxelena 1963)– jatorrizkoetan soilik eratorri-konposatu izan daitezkeenez, erro eta afijo zahar ihartuak ez eze mailegu ezagutugabeak edo ezkutukoak ere agertzen dira gure azterketan. Gogora Mitxelenak (1964: 33) arrazoi formalengatik zenbait hitz (*abagadaune*, *dollor*, etab.)<sup>53</sup> mailegu gisa markatu zituela aspaldi; orain Mitxelenaren inkognita horietako batzuk argitu eta zenbait berri (*zemai* < *menaza*, adib.) erants diezaiokegu zerrendari<sup>54</sup>.

CVC eredutik at gelditzen diren hitz soil monosilabikoak –dela CCVVCC<sup>55</sup>, dela CV-erako zenbait morfema (*lo* eta *ke*, adibidez) (CVC zaharrago baten aldaera ez diren neurrian, cf. *su* ~ *sur-tan*) nago onomatopeia edo fonosinbolismo fenomenoekin lotuak direla, beste hizkuntza batzuetan bezala. Bestalde<sup>56</sup>, \*\*CV eta \*\*VC erro hertsapenak lotuak bide dira konposatu bisilabo kodagabeen –goiko \*\*CVCV-ren eta baita \*\*CVCVC zein \*\*CVCCV lagunen– ezintasunarekin ere<sup>57</sup>.

- 2) Forma kanonikoaren azterketak, lexikoaz landa, gramatika zaharra argitzeko laguntzarik ere eman zuen eta are emankor jarraitzen du oraindik egungo egunean; ikus Lakarra (prest.-1) eta hemengo II. Eranskina:

<sup>53</sup> Ikus Lakarra (2008b) *abagadaune* eta *dollor*-ez; azken honen jatorri zehatzaz, cf. Corominas-Pascual, s.u. *tollo-II* [*trollo* aldaera zehazki]. Aurrekoaren ordainetan, jokabide honen ondorioz esan liteke “etorki ezezagun baina kanpotikoa” dutenak asko gehitu direla edota gehi litezkeela, bederen. Cf. Appleyard-en aipua §4.1.ean.

<sup>54</sup> Inoiz *\*ardano* ere mailegu izan zitezkeen pentsatu dut, hiru silaba zatikaezinetako erro gisa hartuaz; are gehiago *arándano* > *\*ardano* bilakabide errazaren aurrean. Alabaina, hasieratik bertatik nabarmena zen bilakabide horretan (formalki arrunt egokia izan arren), esanahiaren aldetik urruti zirela bata eta bestea. Orain (cf. Lakarra 2010d) *\*ardano* –*arraultza*, *inaurri*, *arrano*, *arrain* eta beste legez– ez dugu zatikaezintzat (cf. *\*e-*, *\*da-*, *ra-* aurrizkiak eta *-dan-* erroa, §6 eta II. Eranskina); forma kanonikoan oinarritutako analisiaren beste aukera alternatiboa (→ eratorria) dugu.

<sup>55</sup> Hautatz ikus §7.5 fonosinbolismoaz.

<sup>56</sup> Bibliografian ugari dira egitura fonologiko arruntetatik ateratzen diren kasuak mundu osoko hizkuntzetan; Lakarra (prest.-5)-en bildu dira hainbat adibide. Are gehiago, badirudi hori fonosinbolismoen joera eta are oinarritzko izaeraren ezaugarri dela.

Hala ere, orain uste dut *lo* < *\*do(n)*; cf. *nagusi* < *\*daduntzi* / *jauntsi* < *\*edaduntzi* *e-* / *o-* txandaketaz (ik. Lakarra 2006c eta 2008e) eta *eman* / *iramo*, *\*edin* / *ediro*, etab. *-n* / *-o* delakoaz.

<sup>57</sup> Orobat, gure erro-hipotesiaren barnean zenbait arazo errazki argitzen dira, esaterako 1) zergatik ez den CVT ez sCVRT edo CVST aitzineuskara eta euskara zaharrean, 2) erroa monosilabikoa izaki, gehienez ere CV(R)(S) erakoa, orduan TVTV ezinezko egiten dela, baina ez aldz TVR + TV(R)S edo TVS + TV(R)S; hortik *\*baga* konposatua –ez eratorria!– falta izana, baina ez *berdin*, etab. eta *garden*, *bazter* edo *beldur*-ek hain “jator” edo “arrunt itxurako” izana.



2.a. Berehalakoan (1995ean bertan) erreduplikazioak aurkitu genituen, lehen ezagut zitezkeenak baino hagitzez ugariago: *adar, adats, eder, odol, zezen*, etab.

2b. *samur, sakon, samin, labain, labur, labur, labain, gihar, gibel, gizen* hartzen baditugu, *sa-, la-* eta *gi-* aurrizkiak ateratzen zaizkigu, *\*bel, \*bur, \*zen, \*bin* eta gainerako erro ezagun edo ezagutuberrien aldamenean. Hasiera batean (Lakarra 1998a-n, demagun), aurrizkien aurkako aurreiritzi batengatik funtsean, *\*sa-, \*la-* eta *\*gi-* ere erro gisa azaldu nituen. Alabaina, erroen tamaina ez dutelarik –eta -C erorke-tarik askozaz beranduago arte ezin aurki genezakeelarik, batetik, eta, benetako erroen autonomia ez esanahirik ez izaki, bestetik–, aurrizkiak eta preposizioak ditugu hor ezer izatekotan<sup>58</sup>, artean IS-an inork aurkitu ez dituenak, gainera.

Aurreko ondorioetara iristeko etimologiagintzan ohiko den triangulazioaren bitartez jardun genuen. Zorc-ek austronesioarentzat (1990: 179-180) proposatua gure aztergaiari egokituaz honelako zerbait izan liteke:

1. CVC sekuentziarik ez da errotzat onartuko baldin eta oso antzeko edo erlazio zuzeneko esanahiko sekuentziak hiru morfema etimologikoki ezberdinetan aurkitzen ez badira. Gainera,

a) erro-hautagaia goiko mailan (aitzineuskaran) berreraikitako morfema batean aurkitu beharko da eta, era berean, hiru morfema etimologikoki aske edo gehiagotan, azken hauek dialekto edo azpitalde bereko izan edo ez.

b) erro-hautagaiak (a) baldintzapean berreraikitako hitzen distribuzio bera izan behar du, baina ez du zer azaldu berreraikitako morfema batean ere. Aldiz, dialekto edo hizkera talde batera mugaturiko erro-hautagai bat ez da kontuan hartuko.

2. Materialak aipatzean ukitutako dialekto orotako hots aldaketa esanguratsu guztiak kontuan izango dira, hau da, egokitasun fonetikoaren kontrol erabatekoa gorde beharko da, horren barne delarik aldakortasun morfofonemikoa edo/eta alofonikoa.

3. Morfema kognadoak lekukotasun bakartzat hartuko dira.

4. Erro-aldakortasuna eredu horren lekukotasun garbia denean baino ez da onartuko.

5. Gainerako morfemak isolatzeko prozesua erroak egitekoak betetzen dituen metodologi-kontrol berdinei lotuko zaie<sup>59</sup>.

<sup>58</sup> Hemen gramatika-tradizio nagusitik –baina gogora Trask (1977) aditzaz– eta geure aurreneko lanetarik (cf. Lakarra 1998a, esaterako) aldentzen gara. Aurrizkiez edo preposizioez beren-beregi aritu bitartean bada zenbait ohar (2006a) eta (2006c)-n ere; ikus hemen §§5-6.

<sup>59</sup> Egia esan, hurbilago gara, kontuan hartzekoak diren Poteten ondoko gogoeta eta jokabidetik (1995: 349):

The existence of the root *tay* ‘death’ is confirmed by other words that contain the syllable *tay* and convey a meaning related to death: *patáy* ‘dead’, *bitáy* ‘hanging’, *himatáy* ‘swoon’, *dátay* ‘bedridden’. Hence my definition: a root is a syllable that appears with the same meaning in a minimum of two words. The greater the number of words, the more consolidated the value determined for the root under consideration, and the fewer the chances that it might be a coincidence. Doubt as to the veracity of a given root is, however, always legitimated. It is impossible to determine a number of manifestations beyond which it may be decided that a syllable is definitely a root. It is nonetheless reasonable to assume that a root is evident from the moment it is found in three words, as for example *lat* ‘treebark > record’: *aklát* ‘book’, *súlat* ‘writing’, and *úlat* ‘report’ (Potet 1995: 349).

Honenbestez, *gizarte*, *gizaldi*, *gizontxo*, etab. hartzen dugularik, edo *Basauri*, *basarte*, *basotxo*, etab., edozeinek daki *gizon/giza*- eta *baso/basa*- + *arte*, *aldi*, *-txo*, *-uri*, etab. dugula<sup>60</sup>.

*Goibel*, *harbel*, *horbel*, *ubel*-en aurrean ere nornahik ikusten ditu *goi*, *harri*, *horri* eta (*h*)*ur* hasierak eta baita amaierako *-bel* horrek baduela *beltz* kolore izenarekin zerikusirik; euskaraz *-tz* > *-ø* erregelarik ez delarik, pentsatzekoa litzateke noizbait erroa *\*belzela* –ohar bekio konposatueta bokalismoa bera dela mendebalean ere–, gero adjektiboak egiteko *-tz* gehitu zitzaierarik, *hor-tz* ‘can-ino’-k zein *bor-tz*-ek [cf. lat. *quin-que*] lekukotzen dutelarik<sup>61</sup>. Halaber, *barru* eta *barren* *\*bar*-etik badatoz, *bular* eta *ibar* *\*buru-bar* eta *\*hur-bar*-etik eratortzeko ezintasun larririk ez zen, jakinik *buru*-tik *burhezur* eta *hur*-etik (*h*)*i*- ateratzen dela<sup>62</sup> eta, bestalde, *burar* lekukotzen dela *bular*-en aldamenean, *erur* eta *berar* diren legez, hurrenez hurren, *elur/ledur* eta *belar/bedar*-enean.

Ez da maila gehiegi igo behar ikusteko *orpo*-n *oin* + *-bo* (cf. *albo*, *alde*) eta *ortuts*-en *oin* + *huts* baditugu, *oker*-en *oin*-en *or*- konposizio aldaera izan genezakeela; alabaina, hori aukera hutsa da *-ker* hori azaltzen ez dugun bitartean edo, gutxienez, zenbait kide formalki aprapos bildu artean: zorionez, hor dira *puzker* eta *muker* bederen (baita *a-kher* eta *ezker* ere), lehenaren ezkerreko CVC oraindik erro eta hitz autonomoa delarik eta bigarrenaren *mu*- hori beste hainbat hitzetan agertzen den aurrizki “adierazkorra”, *FHV*-ren arabera.

Kontuak zaildu egiten dira goiko *-bel*-en taldekoen harira *gibel* eta *sabel* badakartzagu, *\*gi*- eta *\*sa*- ez baitira erro edo morfema ezagunak euskararen historian. Oraingoz, bada, lehengo *\*bel* erro ezaguna eta bi hondar ezezagun (*\*gi*- eta *\*sa*-) ditugu hauetan, ez hiru erro edo erro bat eta bi morfema. *\*Gi*- horrentzat kontuak erabat aldatzen dira *gihar* eta *gizen* jartzen ditugunean *gibel*-ez gainera; orobat, *\*sa*- ki-dearentzat *samur*, *samin*, *sabai* edo *sakon* kokatzean *sabel*-en alboan: hots, lehen hondar ezezagun zirenak orain aurrizki bilakatzen zaizkigu beste hainbat CVC-ren ezkerrean agerturik; aurrez isolatugabeko CVC horiekin jarraitu behar lanak<sup>63</sup> aurrerantzean.

*gizen*-en bigarren zatiaz ere bada zer esanik: ez dugu *\*zen* erro be-gainik historikoki; alabaina, hor dira *zekor*, *Zezeaga* eta *zezen*, de-

<sup>60</sup> Zailxeago bide litzateke *arrain*-i dagokionez (< *\*arrani* Mitxelenaarentzat); alabaina, amaierako *-i* (cf. gazt. *pesc-ado*) partizipioa izanik, enborra ez hiru silabatakoa baizik eta, gehienez ere –mailegua izan litekeela defendatu duenik ere baita (cf. Agud & Tovar, s.u.)–, bitakoa zela jakin genezakeen 1995ean. Etimologiaren aitzinamendu berriek hitz honekikoak nola aldatzen dituzten ikusteko, cf. §6 eta han aipatu bibliografia.

<sup>61</sup> Ez naiz hemen sartuko akitanierazko BELEXCONIS-ekin; (aitzin)euskarazko formak azaltzeko nahikoa da *\*bel-tz* horrekin. *-tz* honek ze erlazio zuen aditzetakoarekin (cf. *ahantzi* < *\*na-nan-tz-i* edo *hertsi* < *\*her-tz-i*) besterik da; ikus Lakarra (2006c) *-tsi* atzizkiaren jatorriaz, lehenagoko Trask, Azkue eta De Rijken lanetan sakonduz.

<sup>62</sup> Orain ikus Lakarra (2008d) eta (2009c) *ibar* eta *idor* baina (*h*)*ibai* eta (*h*)*idoi*-z: *\*hur*- izanik guztiek, azken bien *h*- ez da, noski, ezkerrean sortu. Ohar bekie *h*-gabeen *-CVC*-ari eta *h*-dunen *-CV[n]i*-ari; ikus 187. oh. eta han aipatu erreferentziak /h/-az.

<sup>63</sup> Cf. “I call ‘complementary item’ what remains once a root has been removed from a disyllabic radical. Identified roots being eliminated, there remain several lists of sundry items (...) My impression is that an item with a high frequency rate should be an affix, whereas a low frequency rate should indicate that the radical has undergone deep transformations and that its original components are partially or totally hidden under its present form” (Potet 1995: 355).

Gogora lau ohar goragoko haren hitzak ere.

magun. Lehen bien osaketa ezaguna delarik, ordea, ezin esan beste horrenbeste *zezen*-i dagokionez; halaz guztiz, (zatikazko) erreduplikazioaren aztarnak baditugu *gogor*-en eta, aldeak alde (hasierako *\*d* > *ø*-z ari naiz), baita *adar*, *eder* eta *odol*-en, bederen<sup>64</sup>.

Dagoeneko 1995ean garbi zegoen erro teoria berria, –metodo konparatuaren ohiko hatsarriak eta euskararen aldaketa-lege ezagunak beteaz–, emankor ageri zela etimologian eta berreraiketan, iraganeko lexikoaren eta gramatikaren alderdi ezezagunak argitzeko. Geroztik ere hurbilketa berriaren ahalmenak ez dira agortu.

### 3.3. Erra teoria eta konparaketa

Lexiko eta gramatika zaharraren azalpenaz landara, Lakarra (1998a) eta (1998b)-n aipatu nuen erro-teoriaren hirugarren emaitza eta ondorioa hizkuntza konparaketaren aldetiko aitzinamendua zela. Ikerketa eta zehaztasun asko merezi dukeen puntua izan arren, baieztu liteke erroa konparaketarako unitate bilakatzeak kognadoen luzerarekin eta, horrenbestez, erkaketaren segurtasun edo halabeharriari zuzenean loturik dela. Hots, CVC egiturek, batez ere hiru osagaiak berberak izanik kognadoetan, CV edo VC txikiagoek baino segurtasun handiagoa erdiesten digutela ezagun izanik, areago dateke edozein CVC ez baizik eta erro osoak eta erroaren inguruko bestelako zertzeladak –ablautak, erregela fonotaktikoak, erro horren konbinaketa baldintzak...– erabil bagenitza konparazioan (cf. Bender 1969 eta Campbell 1973). Boudak euskara eta hizkuntza kaukasikoekin egindako erkaketetan, oro har fonema bakarrak darabiltza –eta eurok ez euskarazko berberak ere beti!– eta erroaren zein edozein morfema-egitura eta morfema-baldintzaren aurkako analisiak suposatzen dituzten zatiketa/erkaketak aurkeztean, ez dio errazkeriari eta halabeharriari biderik ixten, eta are zirrikitu guztiak irekitzen edo erakusten ditu, horrelakoren beharrea bagina legez<sup>65</sup>.

Mitxelenak (1950) Bouda eta gainerako ikertzaileen euskara-kaukasiar etimologiaz (neurri batean euskara-kartveliarraz)<sup>66</sup> egindako iruzkina berriak dezanarentzat, begibistakoa gertatuko zaio kritikatuak AE-ren erroaz (zein aitzinkaukasikoarenaz) teoria garbi bat ez izanak dakarren ondorio gaiztoa. Izan ere, etimologia asko ez dira onartezin soilik –dela euskaraz, dela kaukasikoz– elementu mailegatuak jatorrizkotzat ematearren edota lege fonetiko *ad hoc* zenbaiten bitartez zuzitzearen, salbuespenak erabiliaz zein legegaren testuinguruak aldatuaz. Arrazoi hauen aldamenean, eta inoiz horiekin batera, Mitxelenak (1950: 440) analisi morfologiko desegokiak edota etimologia jakin baten alde egiteko asmo hutsez proposatuak aurkeztea aurpegi-

<sup>64</sup> 1995ekoez landako CVC > CVCVC eta C- > *ø*- gehiago aipa liteke, *\*dVC*-etarik kanpo (hurbileko *\*nVC*-en, alegia): *ahantz* (< *\*na-nan-tz*), *ohol* (< *\*no-nol*), *ihintz* (< *\*ni-nin-tz*), etab.; ikus Lakarra (2006b) eta (2006c). Gainetik, *adar* erreduplikazio sare aski zabalean sartua delarik, batetik, eta baita bestelako zenbait saretan *\*d* > *l*-, *\*edV*- > *ja*-, *d*- > *-d(VC)* bigarren osagaien, etab.: cf. *larri*, *jarri*, *indar*, etab.– beherago [§7.1] ikusiko dugunez, nekez izan zitezkeen mailegua, usuegi aldarrikatu izan denaren aurka (cf. Lakarra 2008b).

<sup>65</sup> Alderdi horretatik ez da inolako aurrerapenik Morvanen saioetan (ikus Gorrotxategi & Lakarra 2001).

<sup>66</sup> Cf. Klimov (1991), Schmidt (1987), (1989). Mitxelenak 1950eko lanean erabil zitzaizkeen zuriak alde batera utzi zituen Boudaren lanez Holmerri 1954an idazterakoan (ik. Lakarra 2008c: 4. oharrean aipatu gutun-zati adierazgarria).

ratzen dio Boudari: hori da *motz*-en kasua; hortik, esaterako, *m-otz* baina *ma-ts* edo *i-rizi-gi-z* (cf. *irazeki*) baliatzea, §1-en aurreratu legez<sup>67</sup>.

Lafonek euskara eta Kaukasoko hizkuntzen arteko “konkordantzia morfologiko” ugari aipatu zituen: 35 bere 1951-52ko lanean; alabaina, konkordantzia horien balioa epaitzeko indoeuropeoz, “uralo-altaikoz” edo “hamito-semitikoz” gertatzen zenaren aurka, benetako tipo morfologiko kaukasikorik ez zela edo ez zuela eskuratu ahal aitortu zuen (1951-52: 92). Egileak berak onartu legez, kaukasikoan ez egitura eta ezta adabakiak ez dira berdinak hizkuntza batetik bestera; zenbait elementu morfologiko ez ditu hizkuntza bakar batek baino, eta horietarik bat ere ez da ezer frogatzeko modukoa (1951-52: 94). Ikusi izan da, gainera, euskara eta hizkuntza kaukasikoak biltzeko omen ziren froga morfologikoak fonologikoak bezain ahul zirela. Mitxelenak gogoratu zuen marka gramatikalak oro har (eta baita Lafonen saioko gehienak) laburrak direla oso, hala-beharrari aukera zabalegia utziaz, Meilleten irakatsiaren aurka; horrelakoetatik dator, esaterako, belarea izatea “komunean”<sup>68</sup> IE hizkuntza baten (armenieraren) zein euskararen pluralgilean. Besterik zatekeen desinentzia hutsak beharrean txandakatzeak edo morfema egiturari buruzko legeak berberak izan balira; ordea, ez da honelakorik Lafonen lanetan.

Erlazio genetikoak frogatu edo deuseztatzeko erroa zuzen-zuzenean erabiltzea (ez honetan edo hartan biltzen diren korrespondentzia multzo legez) ez dugu errazki lortuko: egokitasun materialak dira helburu horiek erdiesten lagun gaitzaketenak eta ez formalak. Gogotan har bedi, ordea, erroak konparatzean –horien forma kanoniko abstraktuenean ere– materialtasuna ez dela konparaketatik landa gelditzen, ez berreraiketa sintaktikoan edo morfologikoan gerta litekeen graduan inondik ere, eta hortik erroaren azterketa eta berreraiketak hizkuntzarenari ematen dion sakontasun diakroniko begibistakoa: erlazio genetikoak frogatzeko edo deuseztatzeko balioko ez badu ere, erroaren forma kanonikoak diagnostiko gisa baliorik izan bide dezake<sup>69</sup>.

<sup>67</sup> Mitxelenak 1950eko lanean oraindik ezagutzen ez zuen Boudaren urte bereko bat izan daiteke egilearen metodoak eta baita hutsuneak ikusteko, –AE-rentzako erro-teoria baten falta ezer baino lehen– tokirik egokiena, “j’enfile ici les plus belles perles de mes observations qui ont établi l’unité linguistique du groupe euscaro-caucasique et présente ce collier” (207. or.) baitiosku bertan egileak:

*ih-i*, *eh-i* ‘facile’ (209), *lab-ur* (211), *garb-i* (214), *e-rh-i* (ibid), *oke-l*, *oke-la* (216), *ag-eri* (ibid), *eg-ur* (217), *nag-i* (ibid), *i-gord-i* (ibid), *ud-a* (218), *(h)ord-i* (219), *e-rd-i* (ibid), *e-tse* (221), *a-tso* (222), *i-tsa-so* (ibid), *sabe-l* (ibid), *e-tsa-i* (ibid), *i-tses* ‘bouleversement, cataclysmé’ (223), *sat-arri* (ibid), *a-tz-o* (ibid), *e-zk-ur* (224), *e-zte-n* (ibid), *zab-ar* (ibid), *uzk-i* (ibid), *e-z-ii* (225), *ze-ze-n* (ibid), *uzt-a* (226), *zita-l* (ibid), *z-ar* (227), *a-tze* (ibid), *e-zpe-l* (229), *i-zpi* (ibid), *o-zpi-n* (ibid), *i-zpor-tu* (ibid), *e-zpa-ra* (ibid), *e-zku-tu* (ibid), *a-zku* (ibid).

Euskal formak morfemetan banatzean hauen eta erroaren inguruan egiten diren proposamenak beren fonotaktikaz dakigun guztiaren aurka doaz eta ez du bakar bat asmatzen; hara begirada arin batean kausitutakoak: herskari ahostun zein ahoskabeak erro akabuan, txistukari likidoak hasieran, bokalik gabeko erroak, ozen hutsak desinentzian, afrikatuak erro hasieran (inoiz gertakari hauetariko bat baino gehiago erro berean),...

<sup>68</sup> Sarkisian jaunaren eta beste zaletu zalapartatsuen kalterako, gainera, hasiberriek ere badakite –edo jakin behar lukete, bederen– bi *-k* horiek nondik datozen.

<sup>69</sup> Erro-isomorfiak erabili izan dira hizkuntzen eta hizkuntz-familien arteko lotura genetikoak zein hizkuntz-elkarteak bilatzeko. Ezin harritu prozedura honetaz erro-egituraz hainbat hizkuntzatan dakigunaren arabera iraupen luzeko ezaugarria baita. Erroaren azterketa eta berreraiketak hizkuntz elkarten sorrera eta bilakabidea aztertzeke baliatu dira. Txameraren azterketak, esaterako (Alieva 1991, Thurgood 1996, 1999), hizkuntz-elkarreke erroaren inguruko hainbat ezaugarri zenbatean alda lezaketen erakusten digu. Bere familia austronesikoaren jatorrizko disilabismoa utzi eta inguruko hizkuntz familien (vietnameraren eta austroasiatikoaren) seskibilabismoa eta izaera isolatzailea hartu ditu, erro aurretiko eta akabuko C alternantziekin batean.

“Antzekotasun” hutsak korrespondentzia fonetikoetan bezala, ez dira aski eta IE eta kartvelieraren (K) erkaketan legez –ikus Harris (1990), Gamkrelidze eta Ivanov (1984)-ren aurka–, ezin da errazegi jokatu eta hizkuntz elkartek onartu arrazoi pisukorik gabe. Eremu- edo elkarte-linguistikoaren bitartez azaldu nahi izan diren ezaugarrien artean ozenen sistema, ablaut ereduak, erroaren egitura eta morfema konbinaketa, sintaxi aktiboa eta beste zenbait aipatu izan dituzte ikertzaile batzuek. Alabaina (cf. Harris 1990), bi familietan erroaren ustezko formula beraren benetako gauzatzea aski diferentea izan daiteke: esaterako, “C” kontsonante talde “harmonikoa” izan daiteke K-z, nahiz morfema hasieran, nahiz morfema akabuan; IE-az ez da horrelakorik. Halaber, egia da IE-k morfema aitzineko *s* likidoa izan lezakeela, baina hori ez da inolaz agertzen morfemaren gainerako guneeetan K-z gertatu bezala, ozenen eta glotalen distribuzioan ere diferentzia larriak dira... Harrisen aburuz (1990: 86) ez da antzekotasun handirik K eta IE-ren erroetako ustezko CVC formularen artean ere, dela “C” bakoitza gauzatzeko aukera anitzengatik, dela formularen salbuespen ugariengatik. Orotara, K erroak eta IE-renak oso ezberdin ditugu eta, beraz, ezaugarri “partekatatu” horretan oinarrituriko baieztapenak berrikusi beharko.

Lakarra (1998b)-n aitzin-yukia eta wappoaren kasua laburtu nuen lotura genetikoaren azterketan erroaren teoriak duen garrantziaren argudioaren aurkezpenarako: beren arteko azterketa gramatikalaren eta barne-berreraiketaren bitartez fosil morfologiko zenbaiten jatorrizko balioa antzeman zuen Elmenendorf-ek (1997) eta, ez mailegu gisa, baizik eta bien etorki litzatekeen hizkuntza baten hondar eta lekukotasuntzat hartzea zuzenago litzatekeela ikusi. Kasu honetan erroaren azterketak erakutsi dituen isomorfismo eta murriztapen eta txandaketa paralelismorik ez da –ezta hurrik eman ere!– goian aztertu K-ren eta AE-ren artean<sup>70</sup>: sustantzia fonikoa (fonema inbentarioa eta konbinaketa)<sup>71</sup> oso diferentea izateaz landa, ez da ageri bataren analisiak bestearen historiaurrea (morfema ihartuen funtzio eta distribuzioa) argi lezakeenik edota, gutxienez, nolabaiteko oihartzunik izan lezakeenik ere.

Harrisek (1990) K-ren eta IE-ren erroen artean burututako erkaketan oso diferentzia garbi eta sakonak aurkitu bazituen, are larriagoak ageri dira K-rena eta E-rena (batez ere AE-rena) erkatzean: AE-z ez da K-z ugari den talde harmonikorik, edo *s* likidorik, C-ozen-C edo C + w talderik; AE-z CVC-ren salbuespenak askoz urriago dira eta IE-zko partikula gramatikaletako CV-tik gertuago; E-z ezin da TVT eman erro gisa; ez da kontsonante glotalik eta, beraz, haien distribuzioari buruzko murriztapenek ez dute inolako garrantziarik; eta Harrisek IE eta K-ren artean ikusi bezala, hain dira ugari CVC formula ustez komunari buruzko salbuespen eta diferentziak non ezer gutxi partekatzen duten benetan K-ko eta AE-ko erroek. Honi guztioni, atzizkien forman den ezberdintasuna eta aurrizki K-en ugartasun eta garrantzia gehitzen badizkiogu, norbaitek noizbait bi hizkuntza familia hauen erkaketara jo baleza –aitzindari zenbaitek baino metodo konparatuari buruzko atxikimendu

<sup>70</sup> Ikus hiru ahapaldi gorago Lafonen beraren aitorra.

<sup>71</sup> Cf. Vogt (1958) georgierarenaz; ez da harritzekoa egile hau oso eszeptikoa izatea (cf. Vogt 1940, 1955) konparaketa euskara-kartvelikoez.



gehixegorekin, hori bai-, zailtasun handiak bide lituzke bien artean inongo erlazio sistematikorik frogatzeko<sup>72</sup>.

Hizkuntza hamito-semitikoen azterketak –besteren artean– erakutsi liezaguke, alabaina, erroaren erabilera hizkuntzalaritza konparatuan ez dela nahita nahiez diagnosis negatibo gisa izan behar. Ikusi dugu (cf. § 2.2.) Moscati-*ren* erantzuna ezezkoa zela semitiko zaharrean erroa biliteroa ote zuten galdetzean, nahiz eta horren aldeko frogak sinkronikoak eta barne-berreraiketarik eta –atal honetan aurkeztuko ditugun– konparaziotik datozenak izan. Hain zuzen ere, semitikoz *qtl* ‘er(h)o’ edo *pl* (*f’l*) ‘egin’ bezalakoei kutxitikoz *qal*, *fal* dagokie, eta gainerako hizkuntza kamito-semitikoekiko erkaketak hipotesi bikontsonantikoa laguntzen du argiro. Erro semitikoaren ohiko ikuspegi trilatero hau Diakonoff (1970, 1975, Frajzyngier (1979) eta beste hainbat egilek berrikusi dute azken hamarkadetan, dela barneko argudioetan, dela konparaketarik jalgietan oinarriturik<sup>73</sup>.

Erabat barneratua zen ikuspegi aldatuaz joan da, halako moduz non Lipinski-k zein Bohas-ek aldarrika dezaketen ezen “contrary to the traditional opinion, the basis stock of the Semitic vocabulary appears to consist of monosyllabic root morphemes (...) that can be extended by affixes, which are either lexical morphemes” (Lipinski 1997: 202-203) edota “nous croyons être parvenus à justifier une position diamétralement opposée à celle de la majorité des chercheurs, laquelle s’est imposée comme une *doxa*, depuis le début du siècle et prétend que les racines triconsonantiques sont des primitifs” (Bohas 1997: 193).

Txadikotik, egipziera zaharretik, bereberretik eta hizkuntza kutxitikoetatik atera dezakegun lekukotasuna bat dator semitikoan (cf. §2.2) ikusitakoarekin; hots, azken honetan egundaino gordetako erro bikontsonantikoen geminazio erregela aitzinhizkuntzatik guztiek jaso eta gordea genuke. Frajzyngier-ek erakutsi duenez (1979: 5), hizkuntza guztietan bilakabide horren bitartez aditzaren intentsibo-ohiko-pluraleko formak sortzen dira, eta hori litzateke aitzinhizkuntzan forma erreduplikatuek zuten balio orokorra, oraindik talde bakoitzak zer gorde eta zer berritu duen erabat argitu ez den arren.

Hizkuntzalaritza kamito-semitikoaren (eta afroasiatiko osoaren) barneko arazorik arazotsuenetakoa semitiko eta kamito-semitikoaren erroaren interpretazioa dela erakutsi zuen Diakonoff-ek zenbait lan garrantzitsutan (1970, 1975, etab.). Egitekorik beharrezkoenatarik ere bada, orobat, zeren eta soilik hori askatzeak erraztuko du hizkuntza semitikoen eta kamito-semitikoen azterketa konparatu hertsia; zehatzago, aitzinformak berreraikitzea ia ezinezkoa da aitzin-semitikoaren mailako erro-egitura ulertu gabe, eta ulerpen eta be-

<sup>72</sup> Vennemannen europera zaharra (EZ) aitzineuskararekin berdintzeko 1994ko saioa aztertu nuen Lakarra (1996a)-n. Kitson-ek (1996), Baldi eta Page-k (2006) edo Polome-k *Journal of Indo-European Studies*-en dagoeneko haren berreraiketera eta erkaketa IE-ren aldetik desegokia zela oso erakutsi dutela (ik. Lakarra 2008d) kontuan hartu gabe ere, nabarmena da haren eta AE-ren artean diferentzia larriergiak zirela jatorri bereko izatekotan: silaba hasierako europera zaharrean kontsonante aniztasuna, koda konplexutasuna (-T ere barne delarik), *a* bokalaren ugaritasuna, laringal erorketak, herskariak atzizki gisa, glide fonologikoak, atzizki bokal-aurretikodunak... Soilik AE-ren erroaren morfonologia ez ezagutzeak eta haren historiarako proposatzen den tipologia betierekotzat akritikoki hartzeak azal lezake honelako berreraiketera baten antzeko izatea. Ikus Lakarra (2006a) ere.

<sup>73</sup> Paradigma aldaketa interesgarria, nolanahi ere ez osoa, begizta daiteke Chaker hamitistaren bi garai diferentetako pasarteak (1984 [1975]: 238 eta 1990: 177) erkatuaz.



rreraiketa hau gabe ez genuke modurik hizkuntza kamito-semitikoen gramatika historiko eta konparaturik prestatzeko (cf. Diakonoff 1970: 453)<sup>74</sup>.

#### 4. ERRO TEORIA ETA ETIMOLOGIA FORMALA<sup>75</sup>

##### 4.1. Erro erreduetako sail etimologikoak

AEZ-erako CVC erro kanonikoa proposatzeak ez soilik maileguetan edo eratorrietan aurkitu **\*\*TVT**, baizik eta gainerako bisilabo eta polisilabo guztiak bilakatzen ditu ezinezko erro gisa garai hartarako; hots, edozein bisilabo edo polisilabo mailegu edo konposatu-eratorri izan zatekeen. Azken urteotan bisilabo multzo zabalak sailkatu eta aztertu ditut (cf. Lakarra 2002a, 2003, 2004a, 2009b eta I. Eranskinen Taulak) erro soil gisa AE-rako eta EBZeko izan zitezkeen miatzeko eta, astiro-astiro, nabarmenduaz doa –Uhlenbeckek proposatu bidetik– ez etimologia bakanak edo erro soilak, baizik eta erro-sailak behar ditugula hartu ikergai nagusitzat. Honela, erro sailetako euskal lexikoa antolatu eta sistematikoki aztertzeko ondoko bost multzootan koka genitzake euskara modernoko edozein erro-erredutako hitzak<sup>76</sup>:

- (1) maileguak,
- (2) aldaerak,
- (3) eratorri-konposatuak,
- (4) fonosinbolismoak,
- (5) etimologia ezezagunekoak (ikus Lakarra 2008b).

Errazki jabe litekeenez, soilik (5)-ekoek dute aukeraren bat AE-ko erro soil zaharrak izateko; alabaina, aukera duten arren –ez da oraindik beren etimologia ezagutzen eta ez ditugu inoiz AE-ko izango ez diren (1)-(4) sailetan kokatu–, ez da segurtasun osorik eta gure analisisian zehar usu (5)-etik (1)-era edo (3)-ra igaro dira akabuan hainbat eta hainbat forma, gutxiagotan (2) edo (4)-ra; inoiz ere ez alderantziz, ordea.

Sail bateko (5) azpisailean ahalegin guztiak egin ondoren, etimologia gabe gelditu direnak, “horiek bai, horiek aspaldikoak izango dira” pentsa lezake norbaitek, agian. Bada, ez beti eta ezta gehienetan ere: badira oraindik gainditu beharreko beste bi iragazki bederen (fonotaktikoa eta geografikoa), oztopo larriak biak ala biak aurrerago behin eta berriro ikusiko denez. Lehendabizikoari dagokionez, edozeinek onartuko luke, esaterako, ez direla AE-rako erro-eredu hautagaiak –ez egitura horrekin, behintzat– /r/-z edo /R/-z edo /p, t, k/-z hasitako erroak edo /m/ zein /f/-ren bat beren baitan dutenak, edo leherkariz amaitzen direnak... Bigarrenari dagokionez, garbi da *huzi* “(L? [Etchev])” edo *liki* “(B-o)” bikoteak baino askozaz aukera gehiago duela *heze* “(AN, B, BN, G, R, BN, L, S)” edo, are, *aho* “(AN, B, G, R, BN, L, S)” pareak noizbait orokor eta, beraz, EBZ-eko edo AE-ko izateko. Ho-

<sup>74</sup> Ikus Lakarra (2010c) eta (2011a), non jazarri ditudan Orduña (2005) eta Ferrer i Jané-k (2009) aurkeztu zenbaketan oinarrituriko iberikoaren eta euskararen arteko ustezko erlazioekiko hipotesiak (maileguak zein kognatuak). Hein handi batean erro teorian oinarritua da kritika horren abiapuntuan den euskal morfonologia zaharraren berreraiketa.

<sup>75</sup> Ikus Lakarra (2002a), (2004a), (2008b).

<sup>76</sup> Ez da esan beharrik dagoeneko ez direla burutuak egin behar guztiak: diptongodun formak gure azterketetarik kanpo utzi direlarik –baina ikus 211. oh.–, berariaz miatu beharko dira (ik. Lakarra prest.-6 eta 2008c: §6); orobat sabaikaridunak edo leherkari ahoskabez hasiak (ik. Lakarra prest.-4).

nelako iragazkiak gainditu ondoren ere, ezin seguru izan hondar guztiak AE-ko diren.

Hots, labur esateko, (5) sailekoak hor behin-behineko dira –denbora luze edo laburreko, baina behin-behineko–, gainerakoak ez bezala; hara Appleyard-ek antzeko hondarrez dioena amharikoaren lexikoiak egindako saioan:

6. “Unidentified”. The final heading in the list of root origins is in fact a non-statement of origin. Here are included all roots for which a satisfactory etymology on both phonetic and semantic grounds cannot be established. This encompasses both roots whose form is undeniably Semitic-looking (...) and those whose structure is contrary to Semitic norms (...). Of course, because of the phonetic developments involved, the external form of a root in Amharic is not necessarily a reliable indication of a Semitic origin or otherwise. Confirmation on the basis of semantic correlation with a satisfactory formal cognate in another language is required before any statement of origin can be safely made (Appleyard 1979: 80)<sup>77</sup>.

Gure kasuan ere, hasiera batean ez soilik *bazter*, *beldur*, *nigar*, *labur*, *lagun*, *bigun* CVCCVC eta CVCVC erro-eredu zahar-jatorretakoak, baizik eta are *eske*, *esne* (VCCV), *alu*, *ogi* (VCV)... zein bere erro-ereduko “5” sailean (etimologiagabeen artean) zen. Bakarrrik gero, mailegaketaren iturria edo barneko analisisa erdietsiahala, joan da hustuaz sail hori eta “1” (maileguak) eta “3” (konposatu-eratorriak) haziaz<sup>78</sup>; alabaina, erro eredu batzuek besteak baino susmagarriago izan arren (ik. §§4.3-4.4), bisilaboetan bakar bat ere ez da zahartasun eta jatortasun erabatekorik eman lezakeenik. Azkenik, –gogora Benvenisteren §2.1eko esanak– ezinbestekoa dugu (5)-ekoen gramatika eta kronologia eratzea lillura eta halabehar hutsaren gainean eraikiko ez badugu.

#### 4.2. CVC eredu monosilaboa

1995az geroztik AE zaharreneko CVC erro monosilabikoa aldarrikatu dudanez, konpli da eredu bisilaboetan aurkitutako emaitzekin erka ditzagun eta baita, haietaz azterketa ñabarragoa zirriboratu baino lehen (cf. Lakarra prest.-3), euskara historikoan diren monosilaboak laburki.

Garai modernoetan hitz hasieran 13 kontsonante izanik (*p*, *t*, *k*, *b*, *d*, *g*, *f*, *m*, *h*, *s*, *z*, *l*, *n*) eta beste bost (*ts*, *tz*, *R*, *n*, *l*) amaieran,  $13 \times 5V \times 5 = 325$  izan zitezkeen CVC erro monosilaboak; horietarik ia erdiak gauzatzen dira historikoki; aukera gauzatuen portzentai hau erro-eredu bisilaboenarekin erkatzean, askoz apalago aurkitzen dugu: aCCV %38,13, SVRV %36,00, RVRV %20,50, uCVC %12,70, aCCVC %08,37, IVCCV %4,93, bVCCVC %01,43... IVCCVC %0,57; gainera, eredu bisilabikoetarik herena ez da 10 agerralditako kopurura ere iristen (ikus I. Eranskina).

Baina monosilaboen eta erro eredu bisilabikoen arteko ezberdintasunak eta urruntasuna areagotu egiten dira enparatuei zeini bere txandan ezarri dizkiegun iragazki fonologikoak eta geografikoak monosilaboei ezartzerakoan: etimologia ezezaguneko 70 horietarik zenbaitek (11: *fits*, *kan*, *ken*, *kin*, *kin*,

<sup>77</sup> Gure kasuan AE-ren barne berreraiketak egin beharko hor amharikoaren ahaideek egiten duten lana.

<sup>78</sup> Ikus horietako zenbaiten azterketa laburra II. Eranskinean.

*pats, pits, potz, putz, ten, thin*) ez ditu lehendabizikoak gainditzen; alabaina, 59 gelditzen zaizkigu oraindik<sup>79</sup>. Batez ere iragazki geografikoen ondorioetan datza ezberdintasunik nagusia, 59 hondar horietarik gutxienak baitirateke ezabatzeko AE-rako hautagaitzatik: zehazki *has-2* (L-BN-Z), *bits* (B), *gun-e* (L-BN-Z), *hits* (L-BN), *laz* (L), *lor* (B-G), *sats* (B), *sits* (B-G), *zil* (B), *zits* (BN) eta *zitz* (B).

Ondokoak gelditzen oraindik: *har-1, har-2, has-1, hats, hatz, haz, ber, bil, biz, butz, hel, hez, gal, gar, gaz, gel, gen, gor, gur, hil, hitz, lan, lar, lats, latz, ler, lits, lur, men, min, mun, hon, hor, hots, hotz, sal, sar, sen, sor-1, sor-2, hun, hur, hurr, zeR, zin, zor, zotz, zur* (48); cf. Lakarra (2008b) eta (prest.-3). Hortaz, dela lekukotutako erro guztiekin zatituaz (%31,18), dela izan zitezkeen guztiekin (%14,76), monosilaboetan etimologia ezezaguneko eta iragazki guztiak gainditzen dituzten erroak bisilabikoetako edozeinenak baino askoz gorago dira, AE-rako eta hizkuntzaren diakroniaren zati handi baterako hautagai bakar bilakatuaz. Areago dena: I. Eranskinean aztertutako ia berrogeitamar eredu bisilabikoetarik hiru dira (IVCVC, zVCVC, aCVC) soilik –eta ez askogatik (13, 13, 15)– hamar hondarreko gutxieneko hori gainditzen dutenak; gainerakoek hortik behera, eta zazpik bakar bat ere ez.

Nekez pentsa liteke CVC-rako bildu 48 erro horiek –CVC autonomoetariko hondarrak– direnik AE-rako monosilabo hautagai bakarrak. Aurki ditza kegun erro-eredu bisilabo ezberdinetako 3. sailean ditugun berbak astiro miatu baino lehen ere –hor ere eredu honekin lotu behar denik bai baita– hainbat monosilabo zahar biluz dezakegu. Beraz, AE-ko erroen zerrendan ez soilik CVC *gor, hel, har* edo *gal* monosilabo historiko autonomoak, baizik eta monosilabo berreraiki estandarrek ere –FHV baino lehenagokoak (\**ardano*, demagun) edo Mitxelenaren ikerketatik datozkigunak (\**bel*, esaterako)– gehituko bagenitu, Lafon baino lehenagoko *-thor-*, *-khar-*, *-khus-* eta enparatuak atzendu gabe, bikoiztuko edo genuke monosilabo gauzatuen portzentaia, erdira edo gutxiagora jaitsiko bertako maileguena, bikoiztu baino gehiago etimologia ezezagunekoena eta, orobat, iragazki fonotaktiko eta geografikoak gainditzen dituztenekoena: nabarmenki, monosilabo gehienak orokorrak dira eta ez dialektal hutsak, 5. sailetako bisilabo asko bezala.

Eta oraindik ez dugu berreraiketa berriaren (1995az geroztiko erro monosilabikoaren teoriaren) emaitzarik erabili: \**han*, \**ger*, \**dar*, \**dol*, \**der*, \**den*, \**din*, \**zen*, \**don*, \**dul*, \**kats*, \**kots*, \**nan*, \**nin*, \**nol*, \**non*, \**tal* eta gainerakoak gehituz errazki dakusagu AEZ-erako eta, beharbada, beranduagoko ere (cf. Lakarra 2009b eta hemengo §8.5) erro soilaren forma kanonikoari dagokionean hautagai bakar eta bakoitza dugula, CVC monosilabikoa, alegia. Bi ahapaldiotan plazaratuak aurrekoei erantsiz geroz, AE-ko 90 CVC hautagaitik gora genuke, ezartzen zaien geografia-hedaduraren edozein iragazki guztiek edo gehienek gainditzen baitute (cf. Lakarra prest.-9); honenbestez, CVC erro-ereduan izan zitezkeen 325 erro modernoetarik<sup>80</sup> ia bi heren gauzatuak, horien ia %50 (5) sailekoa eta izan zitezkeen guztietarik ia %30 hon-

<sup>79</sup> Horien artean uzten ditut *men, min, mun, m-* ondoko sudurkariaren eraginez izan bailiteke. Bideabar, gonbara iragazki honi dagokionez (4) saileko fonosinbolismoak.

<sup>80</sup> Kontuak 9 x 5 x 5 (\*b-, l- [< \*d-], \*g-, h- [< \*h-, \*th-, \*kh-], \*s-, \*š-, \*n) egingo banitu AE-tik EBZ-ra horiek igaro baitziren, 225 genituzke eta, horrenbestez, hondarren portzentaia ez ia %30ekoa baizik eta %40tik gorakoa bide litzateke. Bisilaboetan aldaketa horren eragina niminoa litzateke, gehienek %0,0 eta %1 bitartean jarraituko bailukete.

dar gisa beren hautagaitza AE-rako aurkezturik dakusagu. Ezin urrutiago eta markatuago beste edozein erro-eredutarik<sup>81</sup>.

### 4.3. Erro eredu bisilaboak aztertuz

Lehen Eranskinen Tauletan ohartzekoa da CVC erro eredu monosilabikoaren eta gainerakoen arteko ezberdintasuna: lehendabizikoak izan zitezkeen erroetarik ehuneko aipagarria lekukoturik du, horietarik mailegu gutxi eta etimologia ezezagun asko, eta azken hauen artean ia guztiek gaintzen dituzte iragazki fonotaktiko eta geografikoak; eredu bisilabiko gehienek oso lekukotasun-portzentai eskasak dituzte<sup>82</sup> eta mailegketa portzentai altuak, batez ere bokalez, kodagaberik, amaitzen direnen artean. Azkenik, beren hondarrak –h.d., iragazki fonotaktiko zein geografikoak gaintzen dituzten “(5)”-eko etimologiagabeak– eta beren portzentaiak urriak dira oso, gehien-gehienak estatistikoki inongo baliorik gabeak, termino erlatiboetan %1etik behera, arrunt apalak, zero absolutoak ez direnean<sup>83</sup>. Hortik gorako gutxiek hain hondar kopuru eskasa dute, non lan etimologikoan izandako edozein aurrerapen txikik eredu horiek kiderik gabe uzten baitituzte EBZ-erako eta AE-rako<sup>84</sup>.

Ezberdintasunak oso larriak eta esanguratsuak izanik eredu monosilaboen eta bisilaboen zahartasunaz erabakitzerakoan, bada analisiaren zertzelada gogoangarri bat, ondorioak are markagarriago egiten dituen: gorago gaztigatu bezala, erkaketarako corpusean euskara historikoko morfemak erabili ditugu, inongo berreraiketarik jasan gabekoak. Alabaina, edozeinek daki berreraiketarik axalekoenean ere hainbat eta hainbat monosilabo isolatzen dela eta isolatu ere dela dagoeneko berreraiketa estandarrean; aldiz, oso bisilabo eta polisilabo gutxi ateratzen zaigu eta bakoitzean monosilabo gehiago eta bisilabo gutxiago, gainera<sup>85</sup>. Ez da errepikatu beharrik berreraiketa lanak aitzinatu-ahala ezberdintasunak zenbatez areagotu(ko) diren, azkenik bisilabohondarren pisua hutsaren pare bilakatuaz<sup>86</sup>.

Azken urteotan erro monosilabikoaren teoriatik abiatutako berreraiketak ehundaka etimologia garatzera eramán gaitu (cf. Lakarra prest.-1). Hauetarik asko aditz erro irregularrak eta erro-hedadura zaharrak ditugu eta, halabeha-

<sup>81</sup> Ez hemen ez bestetan ez naiz ia aritu (3) saileko eratorri-konposatuez, §4.3-ko bisilaboekiko oharrez kanpo; nabarmenki, ezin dira gehiegi izan CVC monosilaboetan, hori baita lexema bati eskatu egitura txikiena. Salbuespen guztiak morfema gramatikalei dagozkie: *ni, bi, gu, zu, al, ote, edo, ala...*

<sup>82</sup> Honegatik beharrezko iruditu zaigu markatzea I. Eranskinen tauletan izan zitezkeenetik %10eko gutxieneko lekukotasunak dituzten ereduak taula lagungarri batzuk emanaz; ik. Lakarra (prest.-3).

<sup>83</sup> Lakarra (1997b) eta (1999)-ko azterketa arin baten ondoren Tovar *et al.* (1961)-eko berebereraren eta euskararen arteko emaitza glotokronologikoak baino are apalago ditugu, hasieran horrela iruditu ez arren.

<sup>84</sup> Hori bera gertatzen da, astiro-astiro, trisilabo eta polisilaboetan, hauek jardun etimologikoaren xede nagusi izan ez arren (inork ez ditu AE-rako eredutzat proposatu): cf. *arerio, sorbalda, jaiio, jario* baina baita *\*enazur* edo *\*ardano* ere (ik. Lakarra prest.-1) eta hemen II. Eranskina.

<sup>85</sup> Bisilabo horiek maileguak ez direnean, *\*enazur*-en lehen zatian (*berna*) eta *sorbalda*-ren bigarrenarekin gertatu legez; jatorrizko lexikokoan erabat analizatutako polisilaboak monosilabo gehiketa ditugu (*\*ardano* < *\*e-da-ra-dan-o*).

<sup>86</sup> Dagoeneko §4.1-en amaieran (eta gero beste atal batzutan) erakutsi dugu bisilaboetan etimologia berriek nola hustutzen duten “5” saila eta loditzen “1” eta “3” (gutxiago, “2” eta “4”); horrezaz landa, “5”-en gelditzen den hainbatek ez ditu irizpide geografikoak gaintzen: hortik “H” (= hondarrak) zutabeen bisilaboek dituzten zifra absoluto nahiz erlatibo eskasak.

rrez, hiztegieta *e-*, *i-* eta *j-* letretako sarreretan biltzen dira, baina baita artean espero ez genituen *a-*, *b-* eta are *u-* letretan ere: *arraultza*, *arrano*, *\*ardano*, *herio*, *herri*, *hego*, (*h*)*erro*, *hebain*, *unai*, *urgatzi*, etab. aditz zaharrak (etimologikoki aurrizki bat, bi edo hiru dituztenak) baitira; ik. Lakarra (2010d) eta hemen §6 eta II. Eranskina.

Baina etimologia berri horien artean badira erro erduz ikasiak salatu enparatuko hainbat mailegu ezezagun ere: *bigun*, *negar*, *ezain*, *eskatu*, *erne*, *orein*, *olde*, *alu*, *hezur*, *oiber*, *bazter*, *beldur*, *belaun*, *hagin*, *bide*<sup>87</sup>, *bizar*, etab. (cf. Lakarra 2011c eta prest.-9) Begirada arin batean CVCVC, DCVC, VCCV, VCV, VrCVC eta are CVCCVC egiturak dakusatzagu; hau da, CVC erro baten atzizkitze bitarteko hedadura hutsetarik (\*\*CVC + -CV) bestelakoak dira hor, zaharragoak seguruenik. Halaber, aipatu hitz gehienek hedadura geografiko zabala dute eta baita sakontasun historikoa ere; gorputz-zatiei, adjektiboei eta mailegu itxura gabeko alorrei dagozkie, orobat, eta ez dirudi eurok artean mailegutzat hartu izan direnik. Halaz guztiz, nago AE-ko erroak ez direla, ezta altxor zaharreko erroetarik atereak ere eta *FHV*-tik gehiegi urrundu gabe<sup>88</sup>, mailegu legez ongi azal litezkeela.

Lehen Eranskinen M Taulan erro-eredu ezberdinak miatzean mailegu eta etimologiagabeen sailetan oso kopuru absolutu nahiz portzentai diferentek aurkitzen ditugu eta beren jatorri eta kronologiak ere horrelatsu bide dira: ia ez da mailegurik aurkitzen CVC erroen multzoan (etimologiagabe ugari bai, aldiz) eta alderantziz bisilabo kodagabeetan: RSV %62,5, CVfV %60, RVTV %52,17, fVCV %50, mVCV %50 edo CVmV %45<sup>89</sup>. Hain markatuak ez diren beste batzutan, antzera: SVRV %38,02, SVTV %37,33, TVTV %42,10, TVRV %48,71, etab.

Hondarrei dagokienez, aldiz, CVC %14,76 –baina %25-30-era edo gorago ere igo litezke, dakigunez–, fVCV %0,00, CVfV %0,00, mVCV %0,00, CVmV %0,00, SVRV %0,5, SVTV %1,33, TVTV %0,00, TVSV %0,50, TVRV %0,66 nahiz SVSV %0,5. Eta garrantzitsuago dena: lehen ere euskara zaharrerako hautagai guztiz baztergarri diren erdu bisilabiko hauetako hondarren kopuruek beherantz baino ezin egin lezakete; ez zen, bada, hone-lakorik erdu gisa dialekto zatiketa (estandarra) baino lehen eta ezta gero ere berehalakoan<sup>90</sup>.

Bisilabo kodagabeetarik atereaz, gauzak aldatu egiten dira koda eskubian dutenetan, mailegu portzentaia txikiago eta etimologiagabeen larriagoa dakusagaririk<sup>91</sup>. Kopuru absolutu urriak dituzte bokalez hasitakoek (uCCVC

<sup>87</sup> Honi buruz ikus Mitxelena (1973); arestian, Martínez Egurceguik eta Ariztimuñok (2011) erakutsi dute Mitxelenaren *\*eNalal\*eLana-ri* buruz susmatzekoa zena –hots, mailegua genuela– baina horretara mugatu gabe, aldaera ezberdinen bilakaera ere (eta badira bi famatuenak baino gehiago) emanaz.

<sup>88</sup> Aldaketen artean dira *\*-rm- > -rn-* eta “/r/ - /n/ eskubira”, batez ere (cf. §8.3); alabaina, beren garrantzia gora behera, garrantzitsuago (askozaz hedatuago) da Mitxelenak dagoeneko ezagutu eta aztertu zituen bilakabide-konbinaketen eragina.

<sup>89</sup> Ehuneko hauetan (2) saileko aldaerak barne dira, nahiz eta zehatz jokatzekotan multzo hori kendu beharko genukeen; horrela eginaz beste %10-%15 erantsiko genieke bisilaboetako maileguen portzentaiei. Monosilaboetan, aldiz, maileguk lehen bezain urri jarraituko lukete.

<sup>90</sup> Ikus 97. oh.; han esandakoari gehi bekio zatiketa bitarrak are exkaxagoa eta berankoragoa egingo lukeela edozein erdu bisilabo. SVSV %0,00 mailegurekin agertzen da baina honen lekukotasuna oso zalantzarria eta berrikustekoa da; bestalde, zifra absolutoak hain dira laburrak non mailegu exkaxiaren itxura ez den batere esanguratsu.

<sup>91</sup> Hemen AE-rako CVC erroen aldeko frogak berri bat dugu, AE-n erroa eskubi eta aurrizki, erre-duplikazio edo menpeko erroak ezker zirelarik.



7/23: %30,43, aCVC 33/110: %30, oCV 7/29: %24,13, uCCV 6/45: %20,93, etab.); CVCCV erakoetan –bVCCV 19/96 (%19,79), zVCCV 12/92 (%13,04), hVCCV 9/60 (%15,00), gVCCV 6/84 (%7,14)– antzera gara, baina hauetan izan litezkeen erroen eta erro lekukotuen arteko proportzioak emaitzak askoz okerrago egiten ditu.

Itxuraz hurbil den CVCVC-koarenak askoz hobeak dira: zVCVC 34/106 (%32,07), bVCVC 25/115 (%21,73), sVCVC 14/62 (%22,58), hVCVC 9/31 (%29,32). Ezin izan zitekeen bestela, beren analisi morfologikoak hain ezberdin direlarik: CV-CVC, bata, aurrizkia eta erroa, zaharra; CVC-CV, bestea, erroa eta atzizkia, modernoagoa<sup>92</sup>.

CVCCVC bezalako “erro-eredu jatorrean” ere itxura hutsak ez dira aski: altxor zaharreko CVC + CVC konposatuak espero ditugun arren –horrela nik 1995ean–, miaketarik hertsiena (ohiko “triangulazioa”)<sup>93</sup> beharrezko da benetako CVC<sub>1</sub> eta CVC<sub>2</sub>-ren aurrean garena segurtatzeko. Bestela, *bildur* eta *bazter* bezalako lilluretan eror gintezke<sup>94</sup>: ez *\*\*bil*, ez *\*\*dur*, ez *\*\*baz*, ez *\*\*ter* ezin da hor isolatu ez semantikari ez formari dagokionez eta, horrenbestez, mailegaketa aztergai zilegi ez eze beharrezko ere bihurtzen da.

Latinetiko eta erromantzetiko mailegaketak aspaldidanik duen ikerketa tradizio eta garapena kontuan hartuaz, ezinbestean galdetu beharra dugu nola ez diren hitzok –zenbait, bederen– lehenago mailegu gisa ezagutu<sup>95</sup>: gure ustez, gertakari honek erakuts liezaguke garai historikoetan garaile atera diren erro-ereduetan usuko, arrunt eta “jator” bilakatu direla maileguok, hainbat non hiztunek eta hizkuntzalariek bertakotzat, ondare zaharrekotzat, jo dituzten; banan-banako miaketa zehatzak baino ez du agertzen (ezaugarri fonotaktikoak eta etimologiak barne) haien historia –eta, horrenbestez, beren forma kanonikoena– guztiz bestelakoa izan dela. Are gehiago; mailegu-samalden sarrerak ekarri du berarekin erro-eredu zenbaiten sorrera, garapen eta hedadura eta horien garaipen modernoak, gainerako (eratorri-konposatuak, fonosinbolismoak, bestelako aldaketak) arrazoi guztien gainetik.

Badakigu Uhlenbeck eta Mitxelenarentzat (§3)<sup>96</sup> euskarazko erroak bisilabikoak zirela hizkuntzaren historian zein historiaurrean. Gure analisiak uste hori sendotu egin dute hizkuntzaren azken 500 urteei edo dagokienez: 112 erro monosilabikoren aurrean 1400 bisilabiko gelditzen zaizkigu aldaera eta eratorri-konposatuak ezabatu ondoren; horrenbestez, monosilabo bakoitzeko bisilabo dozena pasatxo dugu, nahiz eta, beharbada, hiztun edo testu batetik

<sup>92</sup> Begibistakoa da bigarren eredu honen hedaduran mailegaketak izan duen parte: zVCCV 30/92 (%32,50), sVCCV 19/63 (%30,13), bVCCV 43/96 (%44,78), lVCCV 19/53 (%35,84), gVCCV 35/84 (%41,66), etab.; alderantziz CVCVC-n: zVCVC 7/106 (%6,60), bVCVC 15/115 (%13,04), gVCVC 10/68 (%14,70), nVCVC 3/24 (%12,50), etab.

<sup>93</sup> Ikus §3.2-n aipatu eta iruzkindutako Zorc (1990) austronesioarentzat.

<sup>94</sup> Horrelako zerbait genuen CV-CVC ereduak *bigun* < *finu* edo *nigar* < (*la*)*grima*-rekin; azalpen zehatzagoak aipatu lanetan aurki litezke.

<sup>95</sup> Ikus 19. oharreko Mitxelenaren aipuak agertzen duen ustea. Bidenabar, formari dagozkion go-goetak ez zitzaizkion arrotz Mitxelenari; cf. 53. oh. eta testua. Bada lanik, jakina, maileguen hedadura eta kronologiari dagokienez ere, hizkuntza osoaren (eta bere forma kanonikoen) kronologia eta periodizazio egokia lortzeko bidean.

<sup>96</sup> Bigarrenarentzat ikus 12. oharreko aipua; bidenabar, atzizkiak monosilaboak badira hor (zuzen) esan legez, *-(k)izun* eta *-(k)eria* ez direla beti soilak izan edo mailegatuak direla ateratzen da, eta horrela gertaten ere da, dakigunez. Hori bera egiten badugu Rejan hainbat agertzen den (eta gero ere jarraipenik duen) *-zaha* bukaerarekin, plurala ez eze (*b*-dun) artikulua ere ateratzen zaigu; ikus Manterola (2006). Bide batez, *-ha*-ren bat bada Nafarroan ere (ikus Manterola 2009).



bestera alde handiak izan bisilabo horiek zein diren zehazki garbitzerakoan. Erakutsi dugu (§4.2) monosilaboak orokorrak direla gehienbat; bisilaboen artean, aldiz, hedadura zabala dutenak, usuenik dialekto bakar bat ere ez dute estaltzen, gutxitan elkarren aldean ez diren bi dialekto, etab. eta franko gutxi dira EBZ-eko lexikoirako hautagaiak, are gutxiago goragorako<sup>97</sup>.

#### 4.4. Erro-ereduak: Iragazkiak eta irizpideak

Bi egiteko izan ditugu bisilabo-ereduetako erro-eredu nagusi gehien sailkapenez landa: lehenik bisilaboetako hainbat sailetako emaitzen eta monosilaboetakoaren arteko erkaketa, bisilaboak AE-ko ez zirela frogatzeko, eta, bigarrenik, erro eredu zahartasuna (edo berritasuna) erakusteko –erro ereduena eta ez etimologia soilena, alegia– irizpideak lantzea. Bigarren alderdi hau da larriena eta oinarrizkoena berreraiketan, AE-ren erroaren garapena eta lexikoaren bilakabidea orokorraren ikerketa argudiaketa horren gainean antolatu beharra baita.

Uhlenbecken gogoeta oinarrizkoak etimologia anekdotiko eta atomista saihestu eta euskararen morfonologia historikoa egitekotan ez hitz solteei baina erro-ereduei so egitera garamatza<sup>98</sup>. Alabaina, erro-ereduak eta beren aldaketak ez direnez zuzenean ikertu ahal, eredu bakoitzean gauzatzen diren (edo ez diren) erroen egitura ezaugarrien bitartez baizen, nahita nahiezko gertatzen da helburu honetarako iragazkiak, irizpideak eta hatsarriak landuaz joatea. Hots, AE-ko sistema “aurkitu” eta zehaztu baino lehen, (edo horrekin batera) AE-koa zer ez den beharko dugu ezarri, gutxieneko segurtasunarekin. Baliteke, gainera, AE-rekiko hurbiltasun edo urruntasuna inoiz gradu kontua izatea –erabilitako aldagarrien araberakoa, demagun– eta, gertakari honetaz baliatuaz, lehen egitekoa (AE-ko erro ereduak bilatzea) zabalago (erro ereduaren historia) bilakatzea etorkizunean, horretarako gaitasunik, lanabes eta azterketarako irizpiderik, bagenu, noski.

Goian aipatu bi motetako iragazkiek (ikus, zabalago, Lakarra 2008b) arazoak dituzte –batez ere bigarrenekoek– baina uste dut, iragazkiok oinarri-oinarrizkoak eta estandarrak izateaz landa, gainerako hizkuntzekin egindako antzeko azterketetan<sup>99</sup> segurantzarik handiena ematen digutenak ere badirela. Hemendik ez da jarraitzen baliatu ez ditudan zenbait irizpide osagarritatik –eredu bakoitzeko maileguen, eratorpen-konposatuen edo fonosinbolismoen azterketatik, demagun– ezer onik atera ezingo genukeenik (cf. §8 forma kanonikoaren aldetatik).

Nolanahi ere, bildutako materialek beren-beregi egindako lanak (eta horiei zukua ateratzeko teoriak) eskatzen dituzten arren, bada guztietan zer ikertu euskararen fonologia, morfologia eta lexikoaren bilakabideak oinarri

<sup>97</sup> Lehen eta orain Bonaparteren sailkapena erabili arren, markatu nahi dut ez dudala uste ez horrek ez Zuazorenak (ez adarreztatze bakarreko zuhaitzek) EBZ ondoko hasierako egoera isla lezaketenik, Lakarra & Urgell (2008)-n eta Lakarra (2011b)-n azaldu arrazoiengatik. “Orokortzat” jo ditut elkarren aldean ez diren bi dialektotan lekukotutako formak, dialekto horietan zati txikiak eta are herri bakar bana izan arren; nahiago izan dut horrela eskuzabal jokatu hautagaitza horietan maltzurki AE-tik edo EBZ-tik ahal dudana (komeni ez zaidan) guztia kentzen nuela inork uste ez zezan.

<sup>98</sup> Hitz familien garrantziaz ikus Sagart (1999) txineraren azterketan eta Galand (1984) bereberarenean (hemen §8.1); gogora §4.1en akabuan aipatu Appleyard-en lana ere.

<sup>99</sup> Esaterako, Meilletek delako hitz bat IE-tzat har genezakeen erabakitzeko orduan; ikus Mitxelena (1964) edo Gorrotxategiren (1987) lanak, latinaurreko mailegaketaren galbaheketan ere zerbait IE edo zeltiko zahartzat emateko ezarri iragazki geografikoez.

sendoagoen gainean aztertzeko. Alabaina, irizpide eta ikergai horien estatusa beharko litzateke zehaztu erroaren ikerketari dagokionez. Hots, gehienok izan gaitezke ados erro-eredu batek mailegaketa ugaria, hitz eratorpen-konposaketa eskasa eta (5) saileko etimologia ezezaguneko kide gutxi baditu, delako erro-eredu horrek –eta bertan diren hitzek, oro har– ez duela aukera handirik oso zaharra izateko. Orobat, baldin eta beste erro-eredu batek puntu hauetan juxtu kontrakoa erakusten badu, orduan bere zahartasuna aldarrikatzeko zalantza gutxi bide genuke. Baina, nola behar dira hartu fonosinbolismoaren eta aldaeren azterketak erroaren kronologiaren arlo zehatzean? Ikerketa gehiago behar horretaz iritzi sendorik izateko.

Zirriborratu diren irizpide horien artean larrien eta esanguratsuen iruditzen zaidana zera da, izan litezkeen erroen eta benetan gauzatuen arteko erlazioa, eta horregatik behin eta berriro aipatu izan dut erredu bakoitzaren azterketetan. Agerian utzi denez, monosilaboek honetan dute aldea eta abantaila gainerakoei buruz, eta hain markatua izan ere, non beren lehentasuna aitzineuskara zaharrerako (eta, beharbada, garai luze eta hurbilagoetarako) erabat finkatua gelditzen den; cf. Lakarra (2009b).

Izan zitezkeen erroen eta benetan gauzatuen arteko proportzioarenaz gain, bada beste zenbait irizpide ezinbesteko argitasunak ematen dizkiguna gure helburuetarako: dagoeneko aipatu mailegu portzentaiena da irizpide negatibo seguru bakarra: hots, CVfV erreduak %60 mailegurekin edo fVCV %50ekin<sup>100</sup> lekukotutako erroen artean ez dirudite AE zein beranduagoko garaietarako oso hautagai onak; orobat TVTV-k %42,18-rekin. Hobexegoak dira aCVC-ren eta bVCCVC-ren datuak %14,54 eta %13,04-rekin, hurrenez hurren...<sup>101</sup> baina hoberenak, berriro, CVC-renak %7,8-rekin; are gehiago, zifra hau %6,2ra jaisten da dagoeneko “biluztutako monosilaboak” kontuan harturik eta etorkizunean, gutxi edo asko, proportzio hori berriz jaitziko da itxura guztien arabera, polisilaboen etimologiagintzak aurrera egiten duen neurrian eta isolatutako erro monosilaboen kopurua franko hazten. Ezin itxaron daiteke honelakorik, noski, erredu bisilaboetan.

Irizpide “positiboan” artean litzateke (3) saileko eratorri-konposatuen ugaritasuna ere: horrela, bVCCVC %38,96 eta 30 lekukotasunekin urruti gelditzen da %0,00 eta 00 lekukotasun dituen CVfV-tik<sup>102</sup>. Aipagarri dira, orobat, %32tik gora dutela uCVC, aCCVC, lvCCVC, uCCVC, bVCCVC eta sVCCVC erredu kodadunek, direla bokalez, direla kontsonantez hasiak, eta baita morfema amaierako kodagabeko SVSV eta hVCV erreduak ere. Alabaina, badirudi irizpide hau kontraesanean dela beste batekin, “erroaren iluntasuna” edo deituko genukeenarekin, alegia. Erroak sortuak eta bertakotak behar dute kiderik izango badute eta, beraz, zenbat eta gehiago ukan, hainbat eta denbora gehiago beharko zuen ugaritasun horretara iristeko. Baina, eta hor kontraesana, gai bagara erro-eredu bateko kideen artean eratorri eta konposatu anitz aurkitzeko, pentsatu beharko dugu gramatika hori orain-

<sup>100</sup> Baina ez dira hobeak RVTV (%52,17) eta RVSV (%62,50); honek hitz hasierako ozenez zer pentsaturik ematen du; ikus Lakarra (2006c) eta (2010a).

<sup>101</sup> Izan, bada oraindik beste dozena bat erro erredu mailegu portzentaia laburragoekin baina badirudi –gainerako irizpideak kontuan hartuaz, esaterako– gertakari hori ez zaiola zor erredu horien zahartasunari, beren kideen urritasun absolutuari baizik.

<sup>102</sup> Ohar bedi aurreko ahapaldian aipatu dugula erredu hau bere mailegu aberastasunagatik.

dik ez dela guregandik urrutiegi<sup>103</sup>. Arrazoi hauengatik “erro ereduaren iluntasuna” adieraziko luketen irizpideei –(a) “Etimologia ezezagunekoak” / “Lekukotuak”, (b) “Etimologia ezezagunekoak” / “Izan zitezkeenak” eta (c) “Hondarrak” / “Lekukotuak”– eman beharko bide zaie lehentasuna irizpide positibo gisa etorkizuneko saioetan (cf. Lakarra 2008b)<sup>104</sup>.

Oraindik zeregin anitz da erro-ereduen bilakabidearen azterketan. I. Eranskinen H taulan CVC ereduak enparatu guztien gaintik duen nagusigoa ezin argiagoa da, hurrengoak (aCVC) halako lauko multzoa duelarik. Are gehiago, tauletan aurkeztutako 49 azpiereduetarik (CVC + 48 eredu bisilabo) 15 (eredu bisilaboen %31,22) %00,00an dira, beste 25 (%52,58) %00,00 eta %01,00 bitartean eta 6 %1 eta %7,05 bitartean; beraz, ez AE-rako benetako erro-eredu baizik eta esangura funtzional handirik gabeko hots konbinaketa halabeharrekoak ditugu<sup>105</sup>: gogora aztergaiaren corpusa osatzera koan monosilaboetan erro askeak baino ez ditugula kontuan izan, eta konposizio edo deribazioen ekoizpenetatik berreskura bagenitza fosildutako gainerako erro zaharrak ia beste hainbeste izango genituzkeela lan handirik gabe. Monosilaboen antzera eredu bisilaboetako hondarren zerrendak hazterik ez da, bai, aldiz, urritzerik eta, seguruenik, CVC-k ez soilik oCV eta aCVC-k halako bi edo lau, baizik eta zortzi edo hamar ere izan bide lezake noizbait.

Lehen Eranskinen M taulari dagokionez, ezer baino lehen uCCVC, nVCCVC, SVSV eta oCCVC-ren ustezko lehentasunaren ahuleziaz beharko genuke jabetu: izan ere, mailegu bakar bat ez izatea ez da azpiereduotako kideen ezaugarri nagusia. Ohartzen bagatzaizkie lekukotasunen kopuru orokor benetan urriei –23, 7, 13 eta 23, hurrenez hurren CVC-ko 152en aurrean– eta izan zitezkeen orenen aurreko horien –1075, 5375, 200 eta 1075– apaltasunari (%2,13, %00,13, %6,50 eta %2,32), aitortu beharko dugu halabehar hutsa dela lekukotutako erroen artean bakar bat ere mailegu ez izatea –edo guk horrela oraingoz ez ezagutzea–, batez ere SVSV-ri dagokionez<sup>106</sup>.

Halaber, taula hori hobeki pisatzeko hemen ere gogoratzekoa da CVC-n erro (historikoki) lotuak kontuan hartuz geroz hondarrak arrunt hazteaz landa, kopuru orokorrak ere aski den adina haziko lirakeela; maileguen sailean, aldiz, gutxi lirake (baten bat ba ote?) erantsion artean eta, beraz, %7,89 hori %5era edo are zifra apalagoetara jaitsiko litzateke berreraikiak gehitzean. Horrezaz landa, ohar bedi nola biltzen diren zerrendaren akaburantz –alegia, mailegu % larriena dutenen artean– eredu kodagabe gehienak: hots, zerrenda honetako azken 19ek ez dute kontsonanterik bigarren silabako kodan –ezin, bada, errorik hor izan (cf. § 3.1) altxor zaharrekoak balira ere– eta gorago diren 29en artean 9 baino ez dira kodagabeak eta 20, aldiz, bigarren silaban koda dutenak.

<sup>103</sup> Hau ez da Meilleten (edo, beste era batera, Sapirren) hatsarri baten hedadura baizik: ezer ez da iluna edo irregularra berez; iluna edo irregularra zaigu gu ez garelako gai horren egitura edo hatsarriak aurkitzeko eta gertakari hau hainbat eta sarriago jazoko da zenbat eta gure sinkroniatik urrutiago izan.

<sup>104</sup> Beharbada, (a)-ri enparatuen aurretik, gainera. Horregatik, dagoeneko 82. oharrean markatu dugun legez, nahi izan dugu I. Eranskinen taulen artean sartu erro ereduak izan zitzaizketen erro kopuru teorikotik benetan %10 gutxienez lekukotua dutenen zerrenda eta baita hertsapen horrek gainerako azterketetan duen eragin (larriari) buruzko daturik ere.

<sup>105</sup> Batez ere oCV edo oCCV-ren kasuan bezala, soilik 29 eta 39 hitz lekukotu eta 6na hondar dituztenekin; antzera aCV eta uCV. 5 kasu edo gehiago dituzte TVRV, IVCVC eta bVCVC-ek; ez horiek ez hortik beheragokoek ez dirudi AEZerako zein modernorako hautagaitza aukerarik dutenik.

<sup>106</sup> Bidenabar, eredu bakoitzean pare bat erro mailegu gisa noizbait bersailka balitez, CVC-k orain duen %7,89 baino portzentai larriagoak hartuko litzukete biek ere.

Lehen kodabikoitza (aCCVC) azken hogeigarrena dugu –zerrenda erdia baino beheraxeago, beraz– baina horrelako gehienak gorengo partean ditugu. Alabaina, ez hori eta ez beste kodadun asko ez dira iristen %10era izan zitezkeen erroen multzoan<sup>107</sup>. Bestela esan, bigarren silaba kodagabea duten erro eredu askoren zahartasunaz zalantzak izan litezke maileguen irizpidearen aldetik ere; badirudi CVC monosilaboetan bestelako eredu batzuetarako (V<sub>1</sub>-V<sub>1</sub> bisilaboetarako) Uhlenbeckek gogotan zuen aukerak<sup>108</sup> egiantza osoa duela, baina ez, aldiz, CVCV (eta, beharbada, CVCCV) gehienetan: hauetan maileguen portzentaia hain da handia non dirudien ereduak eurak izan direla mailegatuak<sup>109</sup>.

## 5. FORMA KANONIKOTIK TIPOLOGIA HOLISTIKO DIAKRONIKORANTZ<sup>110</sup>

A living language is not just a collection of autonomous parts but, as Sapir (1921) stressed, a harmonious and self-contained whole, massively resistant to change from without, which evolves according to an enigmatic, but unmistakable by real inner plan. We will draw on structures and histories of the Munda and Mon-Khmer families of Austroasiatic languages to argue that this holistic organization is far more extensive even than Sapir imagined, linking all levels of linguistic structure –from syntax through phonetics– to each other in the synchrony and the long-term evolution of each language. And we will argue that the inner plan behind this holism of structure and evolution is the *rhythmic pattern* of phrases and words (Donegan & Stampe 1983: 337).

Atal honetan, AE-ren erro monosilabikoaren teoriak eta forma kanonikoaren azterketak tipologian dituen –baina zorigaitzez oraindik ia ukitu gabe diren– emaitza edo ondorio larri zenbait aipatu nahi ditut. Austerlitzek (1976) eta beste askok erakusten duenez –nahiz eta hau beraientzat bigarren mailako kontua izan–<sup>111</sup>, hizkuntza monosilabikoak ez dira eransleak eta, al-

<sup>107</sup> Ikus I. Eranskinetako M/10 eta H/10 taulak. Beste lan batean horietaz aritu gogo dudalarik, ez dut hemen ondorio gehiago aterako baina nabarmena da beren lekukotasun portzentai apalek ez dutela zahartasuna laguntzen, ez morfema soil gisa eta ezta konposatu legez ere.

<sup>108</sup> Alegia, lehenagotik jatorrizko lexikoan zen arren maileguek (gutxiak halere!) ugaltzea erro erdua.

<sup>109</sup> Gogora §4.3. (C)VVCV-k bai CVCV eta baita (C)VCCV eta (C)VCCVC baino zaharrago dirudi: honela balitz, hasiera batean ez atzizkien (-(C)V) eta konposatuena (CVC + CVC) bitartez baizik eta aurrizki eta zatikako erreduplikazioarenetik (CV-CVC) izan zela ondorioztatut beharko bide genuke monosilabo zaharraren hazkundera.

<sup>110</sup> Atal honetaz ikus Lakarra (2005a) eta (2006a).

<sup>111</sup> Cf. “Le terme ‘agglutinant’ sera utilisé pour décrire les langues qui possèdent la plupart des caractéristiques morphologiques suivantes: suffixation (généralement en corrélation avec une absence de préfixation), un système de suffixes possessifs pour le substantif qui, généralement, peut être mis en corrélation avec les marques personnelles du système verbal, une syntaxe dans laquelle le déterminant précède le déterminé, un verbe fini, sorte de barrière à la fin de la phrase, des suffixes comparativement nombreux, des substantifs en fonction postpositionnelle. Tout cela suggère aussi, secondairement, la présence de l’harmonie vocalique, l’absence de groupes consonantiques initiaux et de racines disyllabiques. Ces derniers critères n’ont pas la même importance que ceux énumérés plus haut. En général, on considère que les langues agglutinantes peuvent être segmentées plus facilement dans un radical (ou la racine) qui est suivi par une longue série de suffixes (d’abord) dérivationnels et (ensuite) flexionnels. Cette formule simple doit être présente à l’esprit lorsqu’on utilise le terme ‘agglutinant’” (Austerlitz 1976: 8).

Ikus beherago 213. oharrean Bakrò-Nagy (1992) aitzin-finougrioren lehenagoko geruza isolatzaileago batez.

derantziz, hizkuntza eransleek erro bisilabikoak dituzte: Europa eta Asia iparraldekoak dira ezagunenak (uralikoak, turkikoak, mongoliera, mantxuera, koreera, japoniera...) baina beste asko gehitu ahal dira, tani hizkuntzak arestian (cf. Post-en lanak), esaterako. Horrezaz landa, aitzinuralikoaren edota aitzinfinougrioren hiztegi etimologikoek erakusten digute hizkuntza eransletan erro bisilaboen garaipena erabatekoa dela, ez %51 ~ %49koa, ia %100 ~ %0,00koa baizik; zehazki, badirudi (cf. Bakrò-Nagy 1992) 500 erro berreraikitatik guztiak direla bisilabikoak, salbu eta dozenerdi partikula eta morfema gramatikal; baina hauek, dakigunez, ez dira esanguratsu edota, hobeto esan, oso esanguratsu dira, *baina alde*, ez kontra hizkuntza eta hizkuntz-familia gehienetan lexemen “ispilu-irudi” baitira kontu honetan: cf. Gamkrelidze & Ivanov (1995) IE-z eta euskarazko lehen aipatuak, eta horrelatsu Australiako hizkuntzetan (Dixon 2002), etab<sup>112</sup>.

Euskararen egituraz aspalditik zabaldua da etxean eta kanpoan –gogora Trask (1998: 313, 323)– honela labur litekeen dotrina bat: (1) euskara eranslea da, (2) SOV hurrenkera du, (3) oso aditz aberatsa, (4) hizkuntza ergatiboa da, (5) atzizki ugari ditu aditzean zein izenean, (6) etab. Esan gabe doa, ezaugarri hauek guztiak ez direla aske eta loturagabeak beren artean. Bistan da, bestalde, gauzak horrela direla lekukotasunik dugunetik, azken bost mendeetan, bederen; alabaina, eta lehenago? Euskarak azken bi mila ez eze azken bost (edo zazpi) mila urteetan aldaketa esanguratsurik gabe iraun duela onartu behar ote dugu, enparatuko inongo hizkuntza bizitan ez bezala?<sup>113</sup>

Gainera, ezaugarri horiek %100ean betetzen ote euskara historikoan? Hainbeste pankronismo antihistorikotara iristen ez direnetarik batzuek esan dezakete beharbada aldatu, aldatuko zela baina ez goian aipatuak bezalako ezaugarri oinarritzko eta naturazko horiei dagokienez. Beno, honelakoetan mintza bitez datuak eta azalpenak eta isil bitez aurreiritzi eta alperreko jardunak.

Ezaguna da Traskek (1977) euskara zaharra SVO zela proposatu zuela, aditz aurritzikiak, “dative-flags” direlakoak eta beste zenbait ziogatik. Bidena-bar, SVO sailean hizkuntza ergatiborik ez denez gero, SOV bihurtu beharra zuen euskarak ergatibo bilaka zedin. Gómezek (1994) eta Gómez eta Sainzek (1995) oraindik urrutiago jo eta VSO proposatu zuten garai zaharretarako, zeltarenaren antzera, aditzaren azterketatik abiatuaz. Kasu batean zein bestean, eredu aldaketarako proposatzen ziren arrazoiak oso garrantzitsuak izanik, ez zen froga material handirik eredu berriaren alde eta euskara historikoaren ezaugarriak bata nahiz besteari zegozkionetarik urruti zela zirudien. Esatera-

<sup>112</sup> Blustek (2007: 1) austronesioz “lexical bases” (= enborrak) direlakoak %90ean edo bisilaboak ditugula diosku, hortik gorakoak osagai gramatikalak direlarik (ez lexikoak). “This paper will show that this type of syncope in Austronesian languages, and is motivated by a preference for a disyllabic canonical shape. AAG [= Anti-Anti-Gemination] is one of several methods by which a disyllabic canonical target is satisfied” dio gero (2007: 2); beti ere, uler bedi enborren forma kanonikoaz ari dela eta ez erroarenaz; cf. Brandstetter (1916: 26): “The most striking characteristic of the root, obvious at once even on a cursory inspection, is the fact that it consists of three sounds, arranged thus: consonant + vowel + consonant. All the roots which we have thus far become acquainted with three sounds”. Horrela Potet-ek (1995) eta Zorc-ek (1990) ere.

<sup>113</sup> Ikus Gorrotxategi (2007) “hizkuntz aldakortasunaren dogmaren” inguruan J. Uriagerekak Euskal Herriko egunkari batean agertutako iritziez. Bada NESCATO edo CISON akitanian gogoratu duenik aldagaiztasunaren alde; eta zergatik ahantz *meridianu* > *biao* edo \**abaribagakoegun* > *bariku*? Bidebatez, azken hauek aurrekoak baino (arrunt) berriago dira.



ko, zer gertatu zen horrelako hizkuntzek aditzean zein izenean izan ohi dituzten aurrizki-preposizioez?<sup>114</sup>

Bi bidetarik abia gaitezke –abiatu beharra dugu, ene ustez–, goian aipatutako euskararen egitura moderno horrek diakronikoki duen balioa aztertzekoan eta kasua balitz (nik uste dudana bezala) aurreragoko egitura zaharagoaren berreraiketan:

- 1) batetik, inoiz bibliografian aipatu baina ez aztertu eta ez berreraiketan erabili diren zenbait irregularitate xeheki miatuaz eta diakronikoki azalduaz eta are orain arte ezagun ez diren beste zenbait plazaratuaz;
- 2) bestetik, barne berreraiketa tipologia holistikoki diakronikoarekin osatuaz, Plank-ek eta enparatuek aldarrikatu legez:

Nonetheless, the temptation to link phonological parameters of cross-linguistic variation on the one hand and morphological and syntactic ones on the other has now and again proved irresistible to the more adventurous, perhaps encouraged by the ever popular all-encompassing master maxim that languages are *systèmes où TOUT se tient* (emphasis added) (Plank 1998: 196)<sup>115</sup>.

Aurreko lan batean (Lakarra 2006a) bildu nituen –erroaren forma kanoniko monosilabiko zaharra eta bisilabismoaren berritasunaz landa– euskararen ohiko irudiarekin nekez batera litezkeen beste zenbait ezaugarri<sup>116</sup>:

- 1) Adjektiboa Izenaren eskubitara (V-aitzin duten hizkuntzetan bezala) eta Adjektibo-sail itxia, hots, formalki berezi gabeko kategoriarekin<sup>117</sup>,
- 2) Erlatiboak Izenaren eskubi ordena zaharrean (testuetan eta toponimian); orobat genitibo lokatiboak,
- 3) Postposizio eta atzizki gutxi, konparatiboki, eta berankorrak, gainera,
- 4) IS-eko aurrizki zahar ezezagun berriak (\**la-*, \**sa-*, \**gi-*) eta AS-rako beste zenbait (\**da-*, \**i-*) lehen ezagutzen zirenez (\**ra-*, \**e-*) gainera,
- 5) Silaba irekirako joera modernoa, lehenagoko erroko silaba itxiaren aurka<sup>118</sup>;
- 6) Hasierako bokalen gehiketa eta kontsonante inbentarioaren hedadura baina sistema bokalikoaren iraunkortasuna; gertakari guztiok doaz

<sup>114</sup> Ikus Lakarra (2006a); han biltzen da, besteren artean, Tovar (1997)-ko taula bat euskara eta beste hainbat hizkuntzaren oinarritzko ezaugarri tipologikoen aldetiko eraketarekin. Beste batzuetan legez, euskaraz ere bada “kontraesanik” SOV eredutik abiatuaz; ez Tovarrek ez ondokoek ez dute horrelakorik miatu sistematikoki diakroniaren aldetik, ezta atera litekeen etekinik eskuratu ere, ondorioz.

<sup>115</sup> Antzeko hurbilketa da Rao (1992)-rena, oso bestelako tradizioetik –sobietar dravidologoengandik– badator ere:

It [this paper] analyses diachronic and synchronic aspects of typological changes in the sound sub-system of Telugu, showing that these changes are interlinked with each other and, moreover, they have occurred not accidentally, but are determined by the gradual replacement of morphological type of the language system as a whole, and, of course, the sound sub-system in particular (60).

<sup>116</sup> Zerrenda horretatik landa utzi dut ezkerrean harmonia bokalikoa, aurritzien antzinatasunarekin eta atzizki gabekia zaharrenekin bat letorkeen arren (Lakarra 2005a: § 13); datu garbien kopurua, erreduplikazioa alde batera utzita, murrizta da eta behar luke azterketa zehatzagorik (ikus Lakarra 2009d ere).

<sup>117</sup> Ikus 163. oharra eta testua Stassen-en orokortasunez, esaterako “aditz denboraduna → izenki adjektiboak” eta “aditz denboragabea → aditzetik adjektiboak” koerlazioez.

<sup>118</sup> Cf. Houis (1970). Euskaraz bokal sudurkariaren garapenaren lehen arrastoa Erdi Aroan (Ayméric Picaud) izan arren, horren akaburantz edo Aro Modernoan baino ez ditugu lekukotasun garbiak (Madariaga, Garibai, Kapanaga).



- bat eransletasunaren gehiketarekin, dravidikoan ikus litekeenez, adibidez<sup>119</sup>,
- 7) Aditz jokatuaren izaera berankor eta murrizta<sup>120</sup>,
  - 8) Ergatibo markaren jatorria lokatibo bizidunetako *-ga* postposizioan,
  - 9) Lehenago aditz estatiboak ziren adjektiboan ugaritasuna, dravidikoz bezala eta tibeto-burmeraren alderantziz,
  - 10) Aspektuaren nagusitasun zaharra denbora eta moduaren gainetik aditzean, tibeto-burmeraz legez eta dravidikoaren alderantziz,
  - 11) Marka gehiketaren bitartezko kasu lokatiboan espezializazio progresiboa; lehenago, kasuok orokorrako bide ziren tibeto-burmeraz oraindik diren bezala. Hortik urrunduz eta dravidikora hurbilduz joan da, bada, euskara,
  - 12) Azentuaren berreraiketa berria, azken silaban: erro monosilabikoan.

Horko ezaugarri askok, agian guztiek, arazo ugari izan lezakete eta ñabardura gehiago behar bide lezaketeke, nork esan du diakronia erraxa denik? Baina are azken 500 urteotako eta, oraindik argiago, azken 2000 hauetako hizkuntzan ere badira zantzu eta aztarna garbiak adierazten dutenak zenbait ahapaldi gorago laburtu eta “ad usum delphini” eman ohi denaz oso bestelakoa zela lehenagoko euskara<sup>120b</sup>.

Goiko zerrenda horri, jakina, kronologia falta zaio eta komeni da erlatiboa nahiz (Jainkoari ailiotsa!) absolutoa eraikitzen edo eraikitze bidean jartzea. Halere, hainbat ezaugarri ez dira ez Mitxelenaren AE-rako ez akitanierako seguruena, eta besteren bat –eratorpen atzizkiak, demagun: cf. Lakarra (1997a), Sarasola (1997) eta Bueno (2006)– oso berankorak, euskara idatzitik kanpo eta are bertan ere, gehienbat. Aditzeko 1. pertsonako markaren polimorfia (*-t/-da-*) ez bada Erdiaroa baino askoz lehenagokoa –cf. *RS ikedak ta dikeada, daminda*, etab.–, ez diren bezala *idilit-*, *ogilot-*, *erregel'erret-*, eta beste [*andere/andera*-tarte-an]), orduan ergatiboko *-k* marka ere ez bide da urrundu hori baino lehen horri dagokion *-ga-* alomorfotik: cf. *ama-ga-n-a*, etab. Bokal sudurkariak eta silaba irekiak ere ez dira askozaz lehenagoko: lehendabizikoak bokalarteko *-n*-ren ondorengo dira –akitania ondokoak, nolahi– eta bigarrenaren ugalketa lehenago hasia egonarren, atzizki sistemaren garapenarekin lotua bide da. Deklinabideko inesiboaren gaineko lokatibo markak ere ezin litezke askozaz zaharra izan ahal eta adjektibo kategoriaren ugalketa ere berdintsu<sup>121</sup>: partizipioaren

<sup>119</sup> Antzera Holmerrek (1970a: 7) euskara eta bere “Type I”-eko enparatuz. Hor bertan esaten zaigunez, “as in the latter languages [Kaukasokoetan] the opposition *k* : *g* is not primarily one of voiceless and voiced”. Ikus 40, 177 eta 189. oharrak ere Holmerrek eman hizkuntza ez-eransleen ezaugarri gehiagotarako.

<sup>120</sup> §§6.2-6.3 ataletan eta euskarazko datu hutsak gogoan hartuz susma litekeen ezaugarri honen eta multzo aditzen arteko lotura ezin argiago ageri zaigu Ameka-ren lan argitaragabeen:

While it is true that there are undisputed cases of serial verb constructions in the languages of the West African littoral, the languages vary with respect to the instantiation and manifestation of the features of these constructions (...). It is suggested that *multiverb constructions seem to be prevalent in languages which have a closed class of verbs* (Ameka argitaragabea: “§4. Conclusion”, 19. or. [etzana neurea, J.A.L.]).

<sup>120b</sup> Aurekoei “With-language” (*X-ekin/-egaz Y* = ‘X eta Y’) izanaren azken aztarnak (ikus Lakarra 1983 eta 2008e) gehi dakieke besteren artean, horrek berarekin dakartzan ondorioekin (cf. 163. oharra). Zer pentsatua ematen du tipologia-lanez Stassen-ek gai honetan euskarari buruz dioenak (Saltarellirengandik hartua).

<sup>121</sup> Cf. “In some modern Tani languages, adjectives may be moving closer to verbal status again, particularly in those languages which lack a copula which is not homophonous with the pan-Tani imperfective suffix *-duun* (< PTS *\*dun* ‘sit’). But that’s another story” (Post 2006: 60).

Gogoan izan asko eta hierarkikoki larriak direla Dixonen sailkapenean (1977), partizipio zaharretako *-i* batez amaitzen diren adjektiboak; erants bekio Lakarra (2008b)-n eta hemen (§6) Trasken

bilakabidearekin lotua den neurrian hizkuntza isolatzaileetarik eransleetarako bidean hor nonbait (cf. tani, dravidikoa, etab.)<sup>122</sup>.

Tipologia ezaugarri solteen anabasa loturagabe gisa ez, baizik eta modulo ezberdinetako (fonologiako, morfologiako eta sintaxiko) ezaugarri nagusien sare bezala ulertzeak sinkronian garrantzia badu, berebiziko laguntza eman liezaiguke diakronian berreraiketa zabal eta sendoagoa egiteko orduan eta baita aldaketa kateak aurreikus eta azaltzekoan ere<sup>123</sup>; hara Donegan eta Stamperen lanetik hartutako adibide argi bat:

	<i>Munda</i>	<i>Mon-khmer</i>
Esaldi azentua:	Beheranzkoa (hasieran)	Goranzkoa (Akabuan)
Hitz ordena:	Aldakorra - SOV, AN, Postposizionala	Zurruna – SVO, NA, Preposizionala
Sintaxia:	Kasua, Aditz Komuntadura <sup>124</sup>	Analitikoa
Hitz Kanona:	Trokaikoa, Daktilikoa	Ianbikoa, Monosilabikoa
Morfologia:	Eranslea, Atzizkibera, Polisin- tetikoa	Fusionala, Aurrizkibera edo Isolatzailea
Timing:	Isosilabikoa, Isomoraikoa	Isoazentuala
Silaba Kanona:	(C)V(C)	(C)V- edo (C)(C)´V(C)(C)
Konsonantismoa:	Iraunkorra, Geminatu Taldeak	Aldakorra, Tonogenetikoa, Geminatu Talderik gabea
Tonu/Erregistroa:	Maila-tonuak (korquak soilik)	Ingurune-tonuak/Erregistroak
Bokalismoa:	Iraunkorra, Monoptongoak, Harmonikoa	Aldakorra, Diptongoak, Murriztailea

(Donegan & Stampe 1983: 337; cf. Donegan & Stampe 2004: 3 eta 16)

Egile hauek egindako munda eta monkhmer hizkuntzen arteko erkaketan kontua ez da soilik horiek diferenteak izatea oso; kontua da zehatz eta sistematikoki alderantzizkoak direla, fonologia, morfologia eta sintaxiko puntu nagusienetan Donegan eta Stamperen ustez ezaugarri horien guztien oinarrian den azentuaren kokagunean kontrako bideak hartu zituztelako batzuk eta bestek. Tipologia holistiko diakronikoa horrelako kontrakotasunak eta deribak azaltzeko eta modulo guztien arteko loturak zehazteko gai den unetik, asko da aitzina genezakeena berreraiketa konparatu klasikoa nahiz barneberreraiketa modernoagoa gidatzeko orduan (ikus Donegan 1993: 4-5 ere)<sup>125</sup>.

Horrenbestez, baldin eta mundaren bisilabismoa, bokal inbentarioaren murriztapena eta kontsonantikoaren hedadura, SOV ordena, atzizkien garapena eta

(1977) *da-* inperfektibokoa \**dar* (> *jarri* ‘sit’) erroarekin lotu dela, munduko hainbat hizkuntzatan hedatua den perifrasi gramatikalizazioaren bidetik.

<sup>122</sup> Ikus § 8 eta Lakarra (2009b) forma kanonikoaren aldaketari buruzko zenbait gogoetatarako.

<sup>123</sup> Baina baita dagoeneko Houis (1970) eta Holmerrek (1970a, 1970b) ere. Postek (2009: 2) “indosfera” eta “sinosfera” sailkatzean –hemen munda eta mon-khmer, hurrenez hurren– antzeko ezaugarriak erabiltzen ditu; interesgarria gero ikusiko dugunerako multzo aditzak berari sartzan direla bigarren taldekoetan.

<sup>124</sup> Donegan & Stampek (2004: 9) Greenberg (1963)-ren “if in a language the verb follows both the nominal subject and nominal object as the dominant order, the language almost always has a case systems” osatzen dute gehituaz ezen “And if not a case system, we could add, then subject and object marking on the verb, as in Munda. There is rarely such marking either of nouns or verbs in Mon-Khmer and other languages of South-East Asia, where the verb precedes the object”.

<sup>125</sup> Posten (2009) lan bikainean Asia Hego-Ekialdeko hizkuntzen arteko egitura-loturak, ez sustratoen eta kontaktaren bitartez baizik eta Donegan eta Stampek aldarrikatu deribaz azaltzen dira, funtsean. Sustratoa eta kontaktoa deribaren azalpentsat hartzearen aurka den bezala, Post (2009b: 3) ez da jatorrizko batasunaren bitartez azaltzearen aldeko ere, hots, aspaldiko oinarri gabeko makrofamilien bitartez.

Fortescue-k (2006) wakashan hizkuntza familiaren barneko ezberdintasun larriak azaltzeko –gramatikalizazioaz landa– “internal drift” delakoa ere badarabil (ikus hor 295. orriko laburpena).

aurrizkien galera, aditz-multzoaren emendatzea eta beste hainbat berrikuntza lotuak badira beren artean eta “azentua azken” → “azentua lehen”, sakoneko aldaketa garrantzitsuenari, –horrenbestez euskarak munda modernoarekin partekaturik dituelarik hainbat eta hainbat ezaugarri–, pentsatu beharko genuke noizbait aitzineuskarak ere “azentua azken” izan zezakeela monkhmerrak eta aitzin-mundak legez (→ Mitxelena) eta ez “azentua lehen” (Martinetek nahi bezala), munda modernoak legez. Jakina, kasu horretan –eta hasperenaren azterketak horren alde hitzegiten du– euskara zaharrak atzizki eta postposizio gutxi, aditz sistema sinplea, analitikoa, erro monosilaboak, VO ordena, aurrizkiak eta preposizioak, bokal gehiago, kontsonante gutxiago, etab., behar zituzkeen izan... eta, izan ere, berreraiketak aurrera eginahala horietarik hainbat ezaugarri erakusten digu (cf. Lakarra 2006a eta hemen §§6-7).

Tipologia holistikoak izan du, noski, Donegan eta Stampe baino lehenagoko langilerik, baita munda eta mon-khmerraren erkaketaz landako aztergairik ere: hor dira, esaterako, Houis-en aspaldiko lana (1970) Afrikako hizkuntzez, –zeinetan bide horretan aurretiaz egindako urratsak ere aipatzen diren– edota Holmerrren urte bereko beste bi, ohar interesgarriekin euskararen historiaurreaz. Geroztik ere –eta oso bestelako tradizioetan– ikus liteke gainerako tipologia holistikorik; Riddle eta Stahlke-k (1992) sinosferako hizkuntzak eta kwa hizkuntzak edo Benue-Congo delakoak alde batetik eta ingelesa eta poloniera bestetik erkatzen dituzte haien morfosintaxietan “undespecification” edo “overspecification” (hurrenez hurren) ematen den miatuaz, hots “distinguish[ing] according to their manner and degree of overt specification of relations in surface structure”. Lehen biek komunean dute tonua, morfologia isolatzailea, aditz-kateaketa (multzo aditzak), erreduplikazioa eta konposaketa baina afijazio urria, adjektiboak aditzen azpitalde gisa...<sup>126</sup>; bigarrenekoek erabat alderantziz<sup>127</sup>.

Egia da forma kanonikoaren azterketa hutsak ez gintuzkeela soil-soilik eta zuzen-zuzenean ondorio honetara ekarriko eta tipologia holistikoaren launguntzarik gabe morfemen egituraren “azalean” geldituko bide litzatekeela. Alabaina, erroaren monosilabismoak berak euskara historikoaz oso bestelako hizkuntza (“morfosilabikoa”)<sup>128</sup> berreraikitza garamatza argi eta garbi, pankronistei eta ofiziorik gabeko hizkuntz-historialari amateurrek besterik baderitzote ere. Tipologia holistikoak barne berreraiketaren jarduna gida lezake,

<sup>126</sup> Puntu honetaz ikus Post (2006) –eta hemen lau ohar beherago– eta Lakarra (2006a) adjektibo kategoriak tani hizkuntzetan eta euskarari, hurrenez hurren, duen bilakabidez: bietan aditzetik jalgi eta izenatarantz hurbiltzen da.

<sup>127</sup> Ikus Fenk-Oczlon & Fenk (2004) silaba egitura –kasua– hitzen silaba kopurua eta esaldiaren silaba kopuruaren arteko erregularitatez Europako hainbat hizkuntzetan. Bidenabar, hiru ohar gorago Postek markatu sinosferaren bilakabidean sustratoak izandako paper urria beste alde batetik sendotzen dute beren ondorioetan:

Given that many areal features of Sinospheric languages also cluster in some West African languages, with which there is no question of contact, we suggest that typological pressure as sketched here contributed to the spread of a number of Sinospheric areal features. In other words, this clustering of properties is not purely an areal phenomenon resulting from language contact. Rather, there is a principled basis on which many of these characteristics cluster (Riddle eta Stahlke 1992: 363).

<sup>128</sup> Berba Timothy Light-ek sortu zuen tonogenesiaren teoriaren barnean (Post 2006: 43). Handik kanpo ia ezezaguna den arren, Asia Hego-Ekialdean erabili ohi da “silaba = morfema = hitza” oinarritzko batasuna adierazteko. Hizkuntza horietan morfologizatutako material gutxi eta gramatika analitikoa eta isolatzailea da, aditz multzoen arrasto nabarmenekin. Usu tonu lexikoak dira eta silaba eta segmentu egitura sinplea.

azalpen atomistetarik urrunduaz eta beste hainbat hizkuntzatako antzeko kasuen bitartez aukera ezberdinak aurkeztuaz; hauek murrizteko eta zehazteko hizkuntzaren bilakabideei komeni zaien irakurketa diakronikoa egiteko ditugu metodo konparatua eta barne berreraiketa<sup>129</sup>.

Ondoren, forma kanonikoaren aldaketa eta tipologi aldaketa batera ikertzeak lekarkeen onuraren beste zenbait adibide eman nahi nuke euskal aditzari lotuaz<sup>130</sup>.

## 6. FORMA KANONIKOA ETA TIPOLOGIA: ADITZAREN BERRERAIKETA

### 6.1. Aditz erroak, irregularitateak eta hedadurak<sup>130b</sup>

Ezagun denez, Lafonek aditz eredu ñabar eta ugaria aurkeztu zuen 1943ko liburuan: erro monosilaboak (V hutsa, CV, VC, CVC...), bisilaboak hainbat eratakoak... Orobat, Mitxelenak ere behin baino gehiagotan adierazi zuen zaila zela aditz-erroen itxura zaharra berreskuratzen, era askotako aldaketa ugari pairatuak baitziren. \**e*-aurrizkia noizbait izan zutenak (*ekarri*, *etorri* baina baita *ibili*, *ikus*, *utzi*, *joan*, *jo*, *jakin* edo *jin*) hartu ohi dira aditz zahar gisa, eta are sintetikoki joka litezkeen artean. Horien zerrenda ez da luzeegia –berrehun eta berrogei bat goitik jota nire kontuen arabera (cf. Lakarra 2010d)– eta merezi du, ikusiko dugunez, orain arte izan duen baino arreta gehixeago. Badira bertan zenbait erro CVC argi (*etorri*, *ekarri*, *ibili* edo *ikus*, esaterako), baina beste hainbatek era guztietako irregularitateak ditu aldean goraxeagoko adibideetan aurki litekeen legez: *j*-batekin asko, -C gabeko batzuk, bisilaboak, diptongodunak, kontsonante bakar bat gabe besteren bat, etab<sup>131</sup>.

Lafonek nahi bezala<sup>132</sup>, Kaukasoko hizkuntzek eman lezaketan argitasunaren zain izan gabe, barne-berreraiketak aniztasun hori soiltzen lagun liezaiguke, batez ere edozein erro-teoria soil eta argi –eta hari lotzeko gogoia, ja-

<sup>129</sup> Orain ere aitzinhizkuntzen benetako berreraiketan materialtasunak hurbilketa formalen aurrean duen lehentasuna gogoratu behar dugu (cf. §3.3-n eraketez esana). Aldiz, Post (2006)-n eta, batez ere, (2009b)-n, Donegan eta Stamperen erudia zenbait hizkuntza tibeto-burmatara hedatzen da, zuzen osoz, ene ustez.

<sup>130</sup> AEtik euskarara bidean izan den aldaketa modu eta tamainarekin noizbait erkatzeko izan lezakeen garrantziaz jabetzeko hara Postek taniaren aldaketaz egindako lehen laneko laburpena:

Compounding in Tani appears to have been a process of disyllabification, where monosyllabic forms in Proto-Tani have been lexicalised as compounds. This has resulted in an interesting division in the Tani languages, with nouns and adjectives on the one hand being closely aligned, and verbs on the other behaving quite differently. This division is interesting because of the more usual alignment in Asian languages of adjectives with verbs, not nouns. The story of this division is traced through the lexicon, with evidence from morphology, tone, segmental phonology and syllable structure, all showing a shift towards greater agglutination in Tani languages (Post 2006: 41).

Ikus §§ 7.4 eta 8.4, hurrenez hurren, morfologiaren fonologizazioaz eta forma kanonikoaren aldaketaren aztarna morfologikoez.

<sup>130b</sup> “Aditz hedadurek” bibliografia ugari eta interesgarria sortu dute berreraikitzailearentzat hainbat hizkuntzatan, kutxitiko eta bantuetan bereziki. Ikus, esaterako, bibliografian aipatu Hyman edo Schuh-ren lan batzuk eta baita 147. oharrean Krishnamurtirenak dravidikoaz.

<sup>131</sup> Traskek (ik. goian 2. oh.) nik aditzetik izenerako bidaia egin nuela zeritzon, han segurua zena bestean ezarriaz; uste dut atal honetan (eta bertan laburtzen diren lanetan) ikusi ahalko zukeela aditzean izan zitezkeen segurtasunak ez zirela larriegiak eta, izatekotan ere, IS-tik abiatu nintzela (eta naitzela) aditz zaharretako erro zaharra (hedadurarik gabea) bilatzerakoan; Mitxelenak ere ez du erraztat FHV-n aditz erroen azterketa.

<sup>132</sup> Ikus §2.4 eta §3.3 (Lafon 1950)-z eta haren euskara-kartveliera erkaketa saioetan forma kanonikoa ez erabiliak dituen zenbait ondorioz.

kina– badugu buruan: \**thor* edo \**khar* aditz erro onargarriak dira beren horretan baina ez, aldiz, *jo*, *jin*, *utzi*, *jakin*, *joan* edo *jai<sup>133</sup>*, *jario* eta *herio*. Are gutxiago bidera atera berri zaizkigun *urgatzi*, *unain*, *arrain* eta enparatuak.

Lakarra (2006b) eta (2006c)-n erakutsi dut aditz-erro zaharretako irregulartasun gehienak –ia guztiak– azal daitezkeela pentsatuaz noizbait aditz zahar orok zuela \**e*-(CV)-CVC egitura, hots, \**e*- aurrizki ezagunaz landa, beste bat ere izan zezaketela erro monosilabikoaren aitzinean<sup>134</sup>. Baieztapen hau, berez, ez da asko esatea, *-ra-* kausatiboa aspalditik ezagutzen baitugu... nahiz eta hizkuntzaren historiaurretik fosildua eta ordezkaturia den (A.Nag. + *erazi*, *arazo*)<sup>135</sup>. Alabaina, *-ra-* horrek ezin azal litzake *jausi*, *jakin*, edo *jagon*, *jaurti*, *jazarri* eta beste hainbat (bi-hiru dozena, bederen, ene kontuen arabera). *Joan* edo *jakin* Mitxelenarentzat \**e-oan*, \**e-akin* ziren (cf. *FHV*), ustezko erro soil horietako bisilabo eta hiatoek iruzkin apartekorik merezi ez zutelarik ez harentzat ez besterentzat. CVC erro monosilabikoaren teorian horrelakorik ezinezko izanik, aurrizkiaren ondotik -C- bat erori dela eta [o - a] nahiz [a - k] tartetan morfema-muga bat zela onartu beharra dugu: \**e-Co-Can*, \**e-Ca-kin*, demagun. CV- aurrizkirik gabeko *utzi* edo *jin*-ekin ere antzera egiten badugu \**e-Cutz-i* eta \**e-Cin*-era iristen gara.

Mitxelenak berreraikitako AE-n ez zen *d*-rik hitz hasieran, mailegu, fonosinbolismo eta aditz jokatuatarik landa. Aditz erroen azterketa zehatzak erakusten digu zer gertatu zen haietariko askorekin: bokalarlean –dela \**e*- eta erroaren, dela \**e*- eta beste aurrizki baten mugan– erori egin ziren, jod + V-ak edo diptongoak sortzen zirelarik: \**e-dutz-i*, \**e-darr-i*, \**e-din* > (*e*)*utzi*, *jaurri*, *jin* eta baita \**e-da-don*<sup>136</sup>, \**e-da-dutz-i*, \**e-da-lin-o* > *jagon*, *jauzi*, *jario*<sup>137</sup>. Zenbait \**d*-ren bilakabideez landa, aditzen irregulartasunen azterketak aurrizki berri bat dakarkigu: \**da*. Honen alomorfoak eta funtzio zaharraren azterketa ikusten ditugu *-t* lokatiboan, *la-* aurrizki zenbaitetan, *-da* 1. perts. komunztaduran, etab.<sup>138</sup>: lehen hurbilketa batean \**da* honek aditzari esanahi lokatibo bat gehitzen dio eta pentsa genezake bantuan (ikus Hyman 2007a eta Good 2005 beste askoren artean) edo Australiako hizkuntzetan bezala (Austin 2005, etab.), euskara zaharrak, ez soilik kausatiboak, baizik eta aplikatiboak ere bazituela<sup>139</sup>.

<sup>133</sup> Beharbada, hitz hau izan liteke CVC eredu monosilabikotik urrutien dena: *j-*, *-VV-*, *-jj-*, *ko-* dan nahiz buztanean C zaharrik gabe...; *jaun* eta *jario* (cf. hiru ohar beherago familia bereko *herio*) ere ez dira urruti. Horrelakoak izan ziren Lakarra (2006b)-ko xede etimologikoak, bidenabar horietan den morfologia zaharraren fonologizazioa arakatzen genuelarik; ikus § 7.1. eta § 7.4.

<sup>134</sup> Lakarra (2008a)-n eta hemen §6.2.-ren akaburantz badira ohar batzuk \**i-* aurrizkidun beste zenbaitez.

<sup>135</sup> Bide batez, aski zaila da diakronikoki azaltzen IS-eko *-ra* aditz erazleetako *-ra-* bihurtzea norbaitek inoiz azaldu nahi izan duen bezala; alderantzizko azalpen baterako –somaliaren partikulen bilakabidea lagun– ikus Lakarra (2006c).

<sup>136</sup> Ez \**edagon*, mugimenduko \**da-* hori, besteren artean, bateraezina baita \**gon*-en esanahi zaharrenekin ('guztiz geldirik'); *-g-* tartekatua da, beraz, *nagusi*, *bigun* eta Lakarra (2009b)-n eta hemen II. Eranskinean bildutako hainbatetan bezala.

<sup>137</sup> Cf. *herio* (< \**e-lin-o*); \**h<sub>3</sub>*/\**h<sub>2</sub>* > *h<sub>1</sub>* aldaketarako ikus Lakarra (2008d); Sagartek (1999) *j* > *d* aztertzen du txinerarentzat.

<sup>138</sup> Erka ondokoa: "Patterns in present-day Benue-Kwa languages suggest two general paths for grammaticalization of locative verbs. One direction is from verb to marker of incompleteness. Another is from verb to preposition, proceeding in some cases to prefix and to zero" (Lord 1993: 29-30). Ikus, halaber, Bybee *et al.* (1994: 129-130) eta Aikhenvald (2006).

<sup>139</sup> "It should be anticipated that the causative and the applicative can, and do in fact, co-occur. A particular co-occurrence restriction that Chichewa displays has to do with the ordering of the two



1. [Australian] Languages where there are two or more suffixes: one is used with Type A verbs to form causatives, and the other with Type B verbs to form applicatives. In some languages there are verbs that take both affix patterns with corresponding difference in semantics. Examples (...)

2. [Australian] Languages where is one affix, but it has different syntactic effect (forming causatives or applicatives) depending of the type of verb root (Type A or Type B) to which it is added. Examples (...)

In some of these [Australian] languages the transitivizing affix is also used with transitive verbs to signal the presence of a semantic benefactive (and sometimes also instrumental or locative) nominal in the same clause (Austin 2005: 3-4).

Bada arrazoi gehiago ere hori ondorioztatzeko: aurrera baino lehen, esan dezadan aditz jokatugabeetan izan ez arren, jokatueta *da*- aurritzia ezaguna genuela Trasken 1977ko lanetik. Hartan berak ez soilik *d*- eta ezta 3. pertsona eta, areago dena, ezta orainaldia ere, baizik eta *da*- osoa aspektu marka (“continuous”, “imperfectivus”) bezala azaldu zuen, egoki eta bikain nire ustez<sup>140</sup>.

Adizki sintetikoan –eta horien ingurumariaren alderdi batzuen– jatorria etorkizunean aztertu ahal izateko, zenbait oinarri jarri nahi izan dut; helburu horrekin hipotesi bat landuaz joateko, ezinbesteko iruditu zaigu gure ikuspegi honetan aitzineuskararekin paralelismoak dituzten edo izan zitzaketen sistema horien egituraz eta historiak ezagutzen ditugun datu eta hipotesi arrazoizkoenak aurkeztea. Aditz irregular, ustez soiletan, diren morfema fosilduez aritu (cf. Lakarra 2006b, 2006c, 2010d) eta *\*da-*, *-ra-* eta *\*da-ra-* aurritzien bitartez sortu eratorriak<sup>141</sup> ezabatzean gelditzen den enbor soil laburra eta forma sintetikoan berankortasun eta betidaniko urritasuna gogoratu ondoren, “orainaldiko” (hots, jatorriz inperfektiboko) forma sintetikoek noizbait A.Lag.-A.Nag. (*\*da(C)-CVC*) egitura zutela uste dugu. Orobat, aditz sintetikoan (*\*dar/jarri* inperfektiboetan, *\*eden* perfektiboetan) gehi hainbat markaren –bereziki, alde edo moldez datiboari lotutakoen– gramatikalizazioare-

suffixes. While applicativizing the causative is common, causativization of the applicative is rare” (Mchombo 1998: 507). Bantu hizkuntzetako aditz-hedaduren sailkapen baterako hara Lodhi (2002)-rena: “1. Passive”, “2. Neuter”, “3. Applicative”, “4. Causative”, “5. Augmentative”, “6. Intensive”, “7. Extensive”, “8. Reciprocal”, “9. Associative”, “10. Reversible”, “11. Perfective”, “12. Reduplication”, “13. Stative”, “14. Contactive”, “15. Denominative”, “16. Ideophonic extension” (beste egile batzuek badute enparatukorik).

<sup>140</sup> Bada De Rijken lan famatu bat (1992) non *\*da(n)* hori lehengo aditz-lagun gisa azaltzen den, ‘orain’ esanahiarekin, eta defendatzen aditzen aurrean kokatzean berak omen lituzkeela orainaldiak sortuko. Ene ustez, polita bada ere, akats gehiegi ditu teoria honek: ikus Lakarra (2006c) eta (2010a).

<sup>141</sup> Hara Krishnamurti (1997: 302) aditz dravidikoetako hedadurez: “Caldwell calls the extension elements following the roots ‘formative suffixes’”: “These particles seem originally to have been the formatives of verbal nouns, and the verbs to which they are affixed seem originally to have had the force of secondary verbs, but whatever may have been the origin of these particles, they now serve to distinguish transitive verbs from intransitives and the adjectival form of nouns from that which stands in an isolated position and is used as nominative”. Lanaren hasieran “The monumental work of this century in comparative Dravidian linguistics, the *Dravidian Etymological Dictionary* of 1961, extensively revised in 1984, has scores of entries which lead us to reconstruct primary roots as well as extended stems for Proto-Dravidian (mainly of verbs but also of nouns), in which it is possible to assign some meaning to the monosyllabic roots, but no tangible meaning to the derivative suffixes” (1997: 284). Ikus §8.4.



kiko zenbait hipotesi eskeini dugu aipatu lanotan, enparatuko hizkuntzetan multzo-aditzez (*serial verbs*, cf. Aikhenvald 2006) eta horien bilakabideaz den bibliografiatik abiatuaz, bereziki. Ohi bezala, hizkuntzaren historiaurrea aztertzeke morfemen forma kanonikoan eta hitz familien azterketan oinarritutako analisi etimologikoak berezko duen zorrotasunari lotzen saiatu gara.

## 6.2. Erro hedaduren historiaurreaz: multzo aditzak?<sup>142</sup>

Australiako hizkuntzetan aditz jokatuak urri izateaz landa, ikusi izan da (Merlan 1979) horietan orokor diren erro bisilabikoetako zenbait silaba errepikatu egiten direla aditz eta hizkuntza ezberdinetan. Hots, hasiera batean erro monosilabikoak bide ziren izen nahiz aditzetan (hitzak eurak bisilabo zirelarik), gero baldintza fonotaktikoa hitzetik errora igaroaz, Ken Halek aspaldi iradoki bezala. Bestelako fenomenoak (asimilazio, erorketak, etab.) gora behera, aditzetan australiar hizkuntzalaritzan hain famatua den “tamaina aldaketa” horren arrazoï garrantzitsuenetariko bat lehengo aditz laguntzaile batzuk konjugazio marka bilakatzea izan zen. Egungo egunean, hainbat hizkuntza ez-pama-nyungatan zenbait aditz banaturik eta esanahi bereziarekin ager litezke edota bilduta eta esanahi abstraktuagoarekin (cf. Merlan 1979: 44hh); bada, badirudi pama-nyunga deitu hizkuntzetan ere<sup>143</sup> aditz bisilaboetako silaba bat –edota konjugazio marka– askea zela, laguntzaileari baitzegokion:

4. CONCLUSIONS. Compound structures in early Australian provid an analogical model for the extensive restructuring of monosyllables known to have taken place in Australian languages. The suggestion (Dixon 1980: 418) that this reshaping accounts for some of the modern bisyllables and polysyllables seems incontrovertible; the idea that some of the reshaped verbs may consist of root plus old inflection may be correct but needs to be shown by reconstruction. (...) I suggest that the compound structures of ROOT + AUXILIARY typical of some modern non-PN languages were also found in early Australian. These were (minimally) bisyllabic verbal constructions which served as model for the reshaping of monosyllabic roots, and progressively became frozen at different times in the different languages. Probably a good number of old auxiliary roots can be detected by comparative work, under the assumption of the existence of earlier compound structures (Merlan 1979: 71-72; ikus zabalago Dixon 2002: §6 eta §9).

Afrika, Asia eta Ameriketako beste hizkuntza batzuetan –ikus §8.1 txine-raz eta hizkuntza taniez– multzo-aditzak (MA) izan litezke aditzak “loditzeko” bidea, gero MA egitura horien arrastoak ezabatzen direlarik, dela lexikora igaro diren multzo-aditz simetrikoen, dela –batez ere– gramatikalizazioa pairatu ohi duten asimetrikoen bitartez (cf. Aikhenvald 2006). Hori da, esaterako, gertatu dena lakotaren postposizioekin: Pustet-ek dioskunez, maila sin-

<sup>142</sup> Honetaz ikus Lakarra (2008a), (2008e) eta (2010d). Badaezpada ere, ez bide da mezprezatzeko Carol Lord-en liburuko hasierako pasarte, Amekak (argitaragabea) ere bere artikulua aitinean eman:

The label “serial verb” has been applied to a range of linguistic constructions in a variety of languages. Generalizations about a set of verb phrase sequences in one language do not necessarily apply to superficially similar constructions in another language. Within a single language, one group of serial verb constructions may shown a certain property, while another group may not. This situation has encouraged a blossoming of claims and counterclaims about serial verb constructions.

Esanik gelditzen da, bada.

<sup>143</sup> Hauen familiatasunaren oinarriez eta kontinente hartako hizkuntzen sailkapen genetikoaz ikus Bowerman eta Koch-ek argitaratutako bilduma (2004), Dixonen liburuz landa.

kronikoan bertan hainbat lotura etimologiko aurki liteke postposizioen eta aditzen artean, 45etarik 15 homofonoak direlarik erabat eta beste askotan ezberdintasun fonologiko azalerrazak (2000: 178).

Bada antzekorik –nahiz eta AS-ko atzizkiekin– tani hizkuntzetan ere, monosilabismotik bisilabismorako deribaren barnean:

Of the z-plus derivational verb suffixes attested (...) for Galo and (...) for Mising, between 40-60% can be easily traced to lexical roots (almost always verb roots) with the same segmental phonology and underlying tone (...) Derivational verb suffixes frequently retain many of the semantic characteristics of their lexical source forms, but deploy these productively in the more generalised service of grammatical functions. (...) *There is every possibility that the pan-Tani system of derivational verb suffixes originated historically in verb serialisation* (Post 2006: 57-58; etzana nirea [JAL])<sup>144</sup>.

Aitzineuskarak, geroago euskara modernoak ez bezala, MA egiturak izan bide zituen, batez ere MA asimetrikoak, eta hor dute beren jatorria hainbat eta hainbat gramatikalizazioak<sup>145</sup>. Noan pixkat atzera. Traskek (1977) *da-* aurritzia ezagutu zuen aditz jokatuaren adizkietan eta aspektu markatzat azaldu ere<sup>146</sup>. Horrezaz landa, *da-* hori lehenago aurritziki nahiz laguntzaile ere izan zitekeela zioen, baina bigarren aukera hori ez zuela garatuko eta hala gelditu da garatu gabe gaur arte, dakidanez. Jokabide hau bitxi egiten da egungo egunean: izan ere, gramatikalizazio teoriaren edo teoriaren barnean, ikuspegi diakroniko batetik begiratuaz, gutxienez, Jainkoak edo Urtzik sortu ote zuen aurritzirik? Eta aditz laguntzailerik? Batera zein bestera *da-* horrek lehenago aditz oso edo nagusi behar zuen eta, hortaz, \**daC* behar zuen izan aditz erroren forma kanonikora iristeko<sup>147</sup>.

Gramatikalizazioaren aztertzaileek dioskutenez<sup>148</sup>, *lie* ‘etzan’, *stand* ‘egon’ eta, batez ere, *sit* ‘jarri’ dira mundu mailan era honetako perifrasiak egiteko aditz erabilienak. Euskaraz, -C betetzeko erroaren forma kanonikoak bost aukera baino uzten ez dizkigunez –\**e-dal*, \**e-dan*, \**e-daR*, \**e-dats*, \**e-datz*– zein izango ote lehendabizi multzo-aditz asimetriko bateko (cf. Aikhenvald 2006) elementu bigarrenkari menpeko bilakatua, gero perifrasiako laguntzaile

<sup>144</sup> Postek badu beste lan interesgarri bat (2007) non erkaketa zehatza egiten den txinera eta taianen artean bata eta bestea tipologia bertsutik abiatuaz (hizkuntza “morfosilabikotik”) ikertuaz noraino iritsi diren. Badirudi txinera dela gehien aitzinatu dena aglutinazio bidean eta bietan –hainbat MA gorde arren– badirela nahiz lexikalizazioak nahiz gramatikalizazioak aditz horietan.

<sup>145</sup> Hizkuntza tibeto-burmen artean eransletasunerako bidea hartzearekin batera dator MA egiturak galtzea:

In [Indospheric] languages there is often considerable inflectional morphology, from fully developed case-marking systems to extensive pronominal morphology found on the verb. These languages generally mark a number of types of inter-clausal relationships and have distinct constructions *involving verbal auxiliaries [as opposed to serialization]*. Newar dialects are clearly representative of the [Indospheric] type” (Genetti 2007: 3, apud Post 2009: 6 [etzana nirea, JAL]).

<sup>146</sup> Euskara zaharrak ez denbora baizik eta modalitate-aspektua markatzen zuela iradokitzen du Traskek; berak hori ezaugarri eta datu espezifikogatik badio ere, gure berreraiketari ongi letorkiokeen ezaugarria genuke. Hara zer dioen Amekak Afrika mendebaldeko hizkuntzez: “Languages in the area tend to be aspect and modality prominent languages rather than tense-prominent ones” (argitaragabea: 19).

<sup>147</sup> Bada, goian aipatu ditugun aditz australiarrek miatzen direnean, Merlanek (1979) dioskunez, bisilaboen zatiren bat –lehen zein bigarrena– hizkuntza bereko aditz gehiagotan eta are beste hizkuntza batzuetan ere errepikatzen omen da, morfema aske zein lotu gisa. Hots, oraingo erro bisilabiko horiek lehen monosilabo konbinaketak ziren, dela Nag + Lag, dela Lag + Nag aditz multzoena.

<sup>148</sup> Bibliografia ugaria da eta ugalduez doa; Bybee *et al.* (1994) edo Kuteva-ren lanez landa, ezinbestekoa da Newman-en bilduma (2002) Australia, Amerika, Pazifikoko, Himalaia, Asia Hego-Ekialdeko, Afrika Hegoaldeko edo Europako adibideekin.

gisa eta azkenik aditzaren aurritzki moduan gramatikalizatu? Galdera erantzuteko lagungarri izan liteke jakitea lehendik ere ezagun zela *\*dar – adar – larr(i) – jarri* hitz-familia, *\*dats – adats – lats – jatsi* eta besteren antzera (ikus §7.1).

Ikusi dugu dagoeneko aditz zaharretako enbor (ez erro)-eredua *\*e-(CV)-CVC* ezartzean irregulartasun asko edo gehienak azaltzen direla; ez guztiak, ordea. Duela 30 urte Koldo Mitxelenak (1977b) *jardun/inardun*, *jarduki/iharduki* eta *jaretsi* azaltzeko, esanahi iluneko edo historikoki ezezaguneko *jar* “izenki” bat + aditz arin bat proposatu zuen. Proposamena arazotsua zen: esaterako, nola azal hasierako *j-* hori FHV-n Mitxelenak berak dioskunez (arrazoi osoz lehen eta orain) *j-* horrekin hasitako jatorrizko (ez mailegatutako) hitz zahar guztiak aditzak zirela? Arestian (Lakarra 2010d) erakutsi uste dut *jardun/ihardun* eta gainerakoak ez direla inongo *\*jar* izenkitatik atereak eta ez dela horien osaketan Izen + Aditz konposaketarik. Are gehiago: Mitxelenak aipatu hiru horien aldamenen badira hark markatu ez arren *jarraitu*, *jarrugi*, *jarrekin* edo *inarrotsi* eta are *jarauntsi*, *eroan*, *\*ardan-*, *arbin*, *\*arran-*, *\*arraul-* eta beste zenbait *–arrats* eta *arre(ba)* tarteko, beharbadahoriekin batera azaldu beharrekoak paradigma arkaiko bereko kide baitziren:

<i>edan</i>	:	<i>ja(a)n</i>	:	<i>eradan</i>	:	<i>*ardan</i>
<i>*edin (&gt; jin)</i>	:	<i>*jadin</i>	:	<i>eriden</i>	:	<i>jarrain</i>
<i>*editsi</i>	:	<i>jaditsi</i>	:	<i>eritsi</i>	:	<i>jardetsil/ihardetsil/inardetsi</i>
<i>*edon (&gt; jo)</i>	:	<i>*edadon</i>	:	<i>*eradon (&gt; erro)</i>	:	<i>jarrugi</i>
<i>*edun</i>	:	<i>jaun</i>	:	<i>*eradun</i>	:	<i>jar-lib-/inardun</i>
<i>*edul-ki (&gt; ilki)</i>	:	<i>jaulki</i>	:	<i>irauli</i>	:	<i>arraul(tza/e)</i>
		( <i>jalgi</i> )				
<i>egotzi</i>	:	_____	:	<i>eragotzi</i>	:	<i>urgatzi</i>
<i>*enon</i>	:	<i>joan</i>	:	<i>eroan/eraman</i>		
				<i>erhan/erho</i>	:	<i>arran- (arrano, arrain)</i>
<i>inotsi</i>	:	_____	:	<i>erauntsi</i>	:	<i>inarrotsi</i>
<i>ekin</i>	:	<i>jakin</i>	:	<i>irakin</i>	:	<i>jarrekin</i>
<i>ifini (&gt; ebini)</i>	:	<i>jafini</i>	:	<i>irabio</i>	:	<i>arbin</i>

Labur esateko, hor ez dugu *\*jar* + aditz arinik, *\*e-da-ra-CVC* aditz eratorriak baizik, hiru aurritzikirekin, artean inoiz markatu gabeko *\*e-da-ra*-multzoarekin, alegia<sup>149</sup>. Hau ulertzeko on da bantu hizkuntzetan –AE-koaren kontrako ordenan– azaltzen diren ERROA + KAUSATIBOA + APLIKATIBOA

<sup>149</sup> Mitxelenak (1977b: 53. oh.) *inardun*-ez “todo indica que la nasal es secundaria, procedente de *\*inardun* o algo parecido” dio; ene ustez, ez *r...r... > n...r...* baizik eta *d...r/n... > n...r/n* eman da. Ikus Lakarra (2010d) zehaztasunetarako.

Hara Krishnamurti dravidikoaren aditz-enborraren hazkundeaz:

Proto-Dravidian monosyllabic verb roots became disyllabic and trisyllabic by the incorporation of what have come to be called ‘formative suffixes’ or ‘primary derivatives’. Such derivative suffixes evolved in several stages within Proto-Dravidian: In the first stage they were inflectional suffixes signalling both tense and voice (...) Proto-Dravidian verbal roots as well as extended stems in most cases also occur in nominal function. Such nominals are derived from verbs and therefore originally convey the intransitive: transitive contrast, as attested by many of the south Dravidian languages. There are also nouns which are not related to verbal roots but whose stems are not formally different from the verb-derived ones (1997: 304-305).

multzoak begiratzea (cf. Good 2005)<sup>150</sup>. Bertan ikusten dugunez, hizkuntza horietan usuko dira horrelako egiturak, beti ere ordena horretan, ez \*\*ERRO-APLIK-KAUSAT. Dirudenez, aitzinbanturako ERROA + KAUSATIBOA + APLIKATIBOA bilguma ERRO<sub>1</sub> + ERRO<sub>2</sub> + ERRO<sub>3</sub>-tik atera liteke, erro nagusitik hurbilen den kausatibo-aditza delarik lehendabizi gramatikalizatzen dena: ERRO<sub>1</sub> + ERRO<sub>K</sub> + ERRO<sub>A</sub> > [ERRO<sub>1-K</sub>]-Lag<sub>-A</sub> > ERRO<sub>A11-K-A</sub>]. Eredu bera euskaraz har bageneza <sub>A</sub>ERROA – <sub>K</sub>ERROA – <sub>Nag</sub>ERROA > <sub>A</sub>ERROA – [<sub>K-Nag</sub>ERROA] > <sub>A-K-Nag</sub>ERROA: hots, \*e-CVC-CVC-CVC > \*e-CVC-[CV-CVC] > \*e-CVCVCVC genuke, E<sub>A</sub> eta E<sub>K</sub> delakoek -C bana galtzen zutelarik gramatikalizazio prozesuan eta baita C<sub>1</sub>-ere usuenik bokalarlean (\**jar(V)CVC* / *aR(V)CVC*)<sup>151</sup>. Beste arrazoi bat pentsatzeko nahita-nahiezko zela Trasken goiko bi aukeratarik biak aztertzea eta *da-tor* edo *da-kar* aurretiaz \**daC-thor*, \**daC-khar* izan zirela onartu baino lehen.

Oregik (1974) idatzi zuenez iraganeko adizki sintetikoetan *lehen* aditzlaguna nola edo hala han omen zen. Oraintsu arte baieztapen hori aski naif eta metafisiko begitantzen zitzaidan. Alabaina, *lehen*-ek *l-* bat du eta, beraz, AE zaharreko \**d-* galdu eta itxuraldatu horietarik (cf. Lakarra 2006c, 2010a) izan liteke; bokalarteko *h* hori \*-*n-* batetik ateratzea dugu sinesgarrien eta, beraz, \**denen* (= \**den* + *-en* inesiboa) batera iristea. Ohartuaz iraganeko perifrasietan gramatikalizatu ohi den errorik usukoena “finish” dela eta *amaitu*-k horretarako begibistako arrazoiengatik (ik. *OEH*, s.u.) ez digula balio, zer proposa genezake “finish”-en ordaintzat AE-rako? *FHV*-n eta bestetan Mitxelenak ilun zekusan *atseden*-en akabuko zatia; aldiz, argi eta garbi zen berarentzat –horrelako alternantzia bat argi izan zitekeen neurrian, bederen– *edeki* : *eten*, *ebaki* : *epaite* eta *egotzi* : *ekoitzi*-ren pareko zela. Hots, \**eden* (> \**edeten* > *eten/edeki*) zahar bat bagenuen “finish”-en euskarazko ordaina edota hortik oso hurbilekoa, eta *lehen* ez bide dugu hortik sortutako aditzlaguna baizik<sup>152</sup>.

Kaledonia Berriko hizkuntzetan, Afrika Mendebalekoetan edota txineraz “eman” = “give” aditzarekin egindako multzoak usuko dira eta baita hortik ateratako gramatikalizazioak ere. Lichtenberk-ek (1985) erakusten digunez Kaledonia Berrikoetan aditz hori nagusitzat, laguntzailatzat, datiboko preposizio markatzat, ablatibo edo partitibotzat nahiz datibo etikotzat erabilia aurki genezake.

<sup>150</sup> Goodek dienez (2005), CAUS + APLIC multzo horien gauzatze fonologikoa ia erabat aldatzen da batari eta besteari jatorriz legokiokenaren gehiketa hutsetik; antzera euskaraz ere. Are ulergarriago da desitxuraketa hori gure hizkuntzaren kasuan aspalditik fosildu eta lexikalizaturik direlarik (Good bantuan bizirik diren konbinaketa ugariez ari da bakarrik, ez lexikalizaturiko urriez). Tuttle-k hizkuntza atabaskoez dioskunez, “are predominantly prefixing, often displaying many prefixes together in a *phonologically opaque complex* preceding the stem of the verb” (2008: 439; etzana neurea da [JAL]).

<sup>151</sup> Cf. “I find evidence for complex internal structure in inflected words in Barupu [“Macro-Skoun family from norther New Guinea” (111)], and present data that suggests that what was perhaps once a productive serial verb pattern has already partially grammaticalized to become a set of bound affixes. While grammaticalized to the extent that there is only one word, with the applicative root in most cases no longer being an independent lexical item, for at least some roots this construction ist best analyzed as an unusual morphological relic (driven by a strict adherence to a phonological template) of a previously multiword construction” (Donohue 2003: 111).

<sup>152</sup> CVC + *-(d)en* > *CVC-en*, cf. *ze-karr-en*, *ze-torr-en*, etab.; “finish” multzo-aditza bere semantikagatik egiturako azkena izan ohi da horrelakoak dituzten hizkuntzetan. Zavala (2006)-k olultec hizkuntzarako (Veracruz) erakutsi bezala, euskaraz ere \**den* erro hori bera da 3.pl.eko *-del-el-te* markaren iturburua eta, hau (2008a)-n aipatu ez nuen arren, baita agian, IS-eko-*e* pluralekoarena ere.

Euskaraz *eman* bera ez, baina horren sinonimo zahar bat bai: *\*-i(n)-* [> *\*-nin-*] batekin lotuak dira *indazu*, *iguzu*, *ikedazu* eta gainerakoak eta baita *diguzu*, *dizugu* eta datiboko laguntzailekoak, deklinabideko *-(r)i* datibo marka, partitibo-ablatiboko *-(r)ik*<sup>153</sup> eta hikako *\*i-*: cf. *dago* / *zagok* (< *\*d'agok*, etab.)<sup>154</sup>. Are gehiago: Oregik (1974) arrazoi bide zuen aldarrikatzean *irakin* eta *inotsi* edo *irazeki* datibo-aditzak zirela ergatibo-aditzak baino lehen; *guk-i* hori orain ez dakit nolako analogiaren bitartez edo bestelako truko fonetikoren batez azaldu ordez, hor *\*-i(n)+ \*e-ra-kin/\*e-notsi/\*e-zen-ki* ikus genezake, multzo aditzaren bitartez azalduaz hiruretako aurrizkiak. Abiada hartu dugunez gero, beharbada erants bide genezake hor dela *izan*-ek forma jokatu gabeetan duen irregulartasun handienaren jatorria ere.

Aditz horiek berak Australiako konjugazioak eta han-hemen partizipioak egiteko abiapuntu izan badira, hor izan dezakegu *-i* eta *-n* aditzen sorrera ere: *CVC + Cin > CVC-i / CVn*. Gogoan har *-n* hotsarekin amaitzen diren aditz erroak gainerako hotsekin amaitzen direnak baino askozaz ugariago direla, nahiz eta horrelako desorekarik ez ikusi beste erro edo enbor batzuetan (izentetan demagun); alabaina, bigarren aditzaren lehen kontsonantea ere *n* balitz (*\*nin*) gauzak askozaz errazago ulertuko lirateke. Halaber, *indazu* eta enparatuetako *-n-* azaldu beharrekoa da, ez baita hor sortu (cf. *\*\*dagonkizu* edo *\*\*dungu*) eta bokalarteko *\*n* soilek izan ohi duten eskubiratzea (cf. *artzain* edo *lukainka*) bide dugu azalbiderik errentagarriena. Bidenabar, *\*nin* erro hori ez da berreraiketa-kostu erantsia, ez garestiegia behintzat: baldin eta *ohol* eta *ahal* edo *ahantz-* *\*nol*, *\*nal* eta *\*nan* erro zaharren erreduplikazioak badira –azkena *-tz* atzizkiarekin–, orduan *ihintz*-en oinarrian zera bide genuen: *\*nin*<sup>155</sup>.

### 6.3. Euskal aditz sintetikoaren urritasun eta modernotasunaz<sup>156</sup>

Euskal aditz sintetikoaren inguruan bada ustekizun errotu eta hedatu bat lehenbaitlehen ezabatzea komeniko litzatekeena. Bost mendetan 60 bat aditz jokatuz izatetik dozena edo dozena t'erdira igaroak ez dakar are bost mende atzerago jo eta eboluzio eta proportzio berberak izan ziratekeela aldarrikatzea, nahita nahiez, ezta noizbait aditz guztiak edo gehienak jokatu egiten zirela eta erroma-

<sup>153</sup> Orain Borja Ariztimuñok (2010) partitibo-ablatiboko *-ri(ka) \*edin* [> *\*elin*]-etik azaltzen du; horrela balitz deklinabide mugagabeko *-r-*entzako azalpen berriren bat behar genuke.

<sup>154</sup> Azken hauek, bidenabar, nekez atera litezke orain *\*d-i-a-go-k* batetik *da* morfema soiltzat hartzean.

<sup>155</sup> Lakarra (2008a)-n markatu legez, beste hainbat prozesu eta fenomeno multzo-aditzekin lotuak: “until” (*-raino*), konparatiboak (*ago*, *baino/baina*) mozio aditzetatik, “take”-tik sortutako *\*har* 3. graduko erakuslea, *-tza(t)* prolatiboa, plurala eta *-tze* aditz izena *-tz(a)* “lie” aditzetik... Multzo Aditz > Ad.Lag > Ad.Jokatua bilakabideaz ikus Aikhenvald (2006) eta Anderson (2007).

<sup>156</sup> Arestian Nurse (2007) saiatu da “did the Proto-Bantu verb have a synthetic or an analytic structure?” galderari erantzuten:

§8. General Conclusion. It is likely that the language which gave rise to today's Bantu languages spoken in eastern Nigeria or western Cameroon, maybe early in the third millennium B.C., had an analytic verb structure at an early point in its development, as probably had the several related languages spoken round it. During the following centuries, cliticisation of the several pre-stem components moved it toward a synthetic structure.

Ondoren aitortzen duenez, ezin du segurtatu aitzinbantua erabat sintetikoa zenik eta sintetikotasun hori ez zela garatu aitzinhizkuntzaren zatiketa baino beranduago, nahiz eta berari aterabiderik errazena dagoeneko sintetikoa zela esatea iruditzen zaion. Aurreko atalean Goodengandik ikasi dugunez, aitzinbantuan oraindik baziren multzo-aditzak, gero aditz-erroaren hedadura bilakatuak, eta ez da pentsatzekoa aitzinbantua sintetikoa izan zitekeenik. Nursek ez darabil Gooden lana, ez eta 164. oharrean eta dagokion testuan Stassen lagun harturik egindako gogoeten antzekorik, itxuraz kalterik egingo ez lioketen arren; ikus, halaber, Hyman (2010) ere.



tarren eta beren jarraitzaile ankerren erruz aditz sintetiko zabal-orokor-ederra hondatu eta gure hizkuntza maitea perifrasis josi zela pentsatzerik ere. *Zeniezaizkiguketeen* bezalako pitxiak beharbada politak izango dira baina aukera gutxi dute zaharregi izateko eta, seguruenik, gutxiago AE-ko<sup>156b</sup>.

Aditz jokatuaren zerrenda (cf. Lafon 1943, Mounole 2006) inoiz ez da luzeegi izan –75 edo–, nahiz eta “elkarte lorioso” horretako kide izateko bizpahiru adizki eta inoiz are bakarra (gogora RS-ko *diratan* edo *daminda*) baino ez eskatu hautagaiari hor sartzeko. §6.1.ean azaldu ditugun \**da-*, *ra-*, \**da-ra* eta §6.2.eko *i-* aurrizkien bitartez eratutako enborrak erro soilen zerrendatik baztertu ondoren gelditu zaigun erro<sup>157</sup> soil jokatuaren kopurua bi dozenatik hirutik baino gertuago dela ikus liteke Lakarra (2010d)-n. Inguruko hizkuntzetara so egiteak ez digu laguntzen ez antzeko hertsapenik aurkitzen ez egoera honetara iristeko bilakabidearen inongo eredu edo arrazoirik antzematen. Izan ere, italiko nahiz germaniko, zelta nahiz eslabiar, zenbat aditz sintetiko dute gure auzoek? Ez jakin, ezin-konta-ahala, edota, nahi bada, GUZTIAK, salbuespenak salbuespen. Euskarak, aldiz, historikoki salbuespen urri direnak ditu jokatzen –Harrietek (1741) irregulartasuntzat zituen eta adizki sintetiko guztiak ezabatzeke grina agertu zuen (ik. Lakarra 1995b)– eta \**e-* aurrizkia izan zuten erro soil guztiak forma sintetikoak izan zituztela onartuko bagenu ere hiru bat dozenako salbuespena genuke, goitik jota<sup>158</sup>. Eta ohar bedi ez naizela sartzan adizki jokatuak izan arren sintetikorik aberatsenek ere ez dituzten denbora, aspektu, pertsona konbinaketak eta aldi sintetikoen kontuan.

Inguruko hizkuntzetarik soa pixkat goititu eta urrutixeago joaz, ordea, –dela Ipar-Ameriketara, dela Ginea Berrira edota, batez ere, Australiara–, ugari dira horietan aditz-jokatuaren saila euskararena bezain murrizt edota are murriztazago duten hizkuntzak, alegia, dozenardi eta zenbait dozenaren artean, inoiz 100 pasatxo eta bakarren bat hortik gora igaroaz (cf. Pawley 2006)<sup>159</sup>.

Kopuruarekin batera, formari lotzen bagatzaizkio orain, aski nabarmena begitantzen zaigu adizki sintetikoak jokatugabeen gainean eratuak direla eta, beraz, haien ondoko eta ez alderantziz Schuchardtek eta Lafonek nahi zutenaren aurka:

- (1) Unibokalismoa eta erreduplikazioa izen, adjektibo eta aditz jokatugabeetan ematen da baina ez aditz jokatuetan,

<sup>156b</sup> Ondorio honek euskararekin erkatu izan diren zenbait hizkuntzaren berreraiketan (iberierarenean, esaterako) izan lezakeen garrantziaz mintza bitez adituak; nolana ere, AE-ren berreraiketa ez da – edo ez luke behar– gogoeta horien menpe.

<sup>157</sup> Ez *enbor*, alegia; hots, *joan* eta *eroan/eraman* erro eta familia bakarra dira, \**edin* (> *jin*) / \**jadin-o* (> *jaió*) / \**eradin* (> *eriden*) / \**edaradin* (> *jarrain*) eta gainerakoak bezala.

<sup>158</sup> Hots, klase irekia zen eta horrela mantenduko da erromantzeetan, inoiz are sintetiko berriak sortuz (*amaré* < *amar he*, *amaría* < *amar había*, etc.); hortaz, zergatik pentsa erdaren eraginez galdu zirela sintetikoak euskaraz? Ez al zen justu kontrakoa itxaron beharko? Besterik da perifrasi berriak etengabe sortzea (ikus beherago Mounolen lanen erreferentzia; bidenabar, gogora *dakar*, *dator*, *-karren*, *-torren* ere inoiz perifrasiak izan direla).

<sup>159</sup> Nahiz eta aditz generikoak izatea Ginea Berriko gertakaritzat jo izan den, Australia, Siberia eta Ipar Ameriketako Ipar-Mendebaldean (i.e., Washington, Oregon eta Idaho), Sapir eta Boas-ek chinoka eta beste aipatua. Hara Garrett yurokaz:

I turn finally to the historical implications of the analysis developed above. To reiterate (...) Yurok noninflected verbs are bare VN-stems (initial with any medial suffixes), while inflected verbs consist of VN-stems as well as final suffixes and inflection. If noninflected verbs did not originate via truncation of inflected verbs, then *inflected verbs must be the newer formation*, based historically on noninflected verbs or their ancestors (Garrett 2004: 11; etzana Garrettena da).



- (2) [- '... ] → [-... ] gertatzen da azentuan eta, ondorioz, [h-h-h-\*\*h... ] → [h-h-\*\*h... ] hasperenean; alabaina, *ethor-*, *ekhar-*, etab. baina *dator*, *dakar*, etab. dugu, hasperenik gabe.
- (3) zenbait ezaugarri edo aldaketa berezi lehenik erroetan eta gero handik forma sintetikoetan jazo dira:
- metatesia *\*janon* > *\*johan* eta hortik, *doha* (ez *\*\*dao*); *\*e-da-zun* > *\*ezadun* > *ezaun* > *ezagun*.
  - metatesia eta bokal erorketa: *\*e-ra-san* > *\*e-sa-ran* > *\*e-sran* > *erran*,
  - d-r* > *r-r* eta *r-r* > *n-r* en *jardun*, *ihardetsi*, etab.; *n-rn* > *∅* - *R jarraiki*, *inarrotsi*, eta gainerakoetan (cf. Lakarra 2010d),
  - te-nirteanean* (Lazarraga): *egorte* > *\*eurten* > *eliurten*.
- (4) *da-* aditz lokatibo gisa eta hortik > “inperfektibo”, “bukatugabe”: *jau-si*, *jauzi*, *jakin*...
- (5) *d-* > *l-*, gehi *-l-* > *-r-* eta, beraz, *\*e-da-duz-i* > *jauzi*, baina *\*da-la-non* > *daroa/darama* eta ez *\*\*dahao/\*\*daho*,
- (6) *-kil-tsi* partizipio marken garapena ere forma jokatuaren orokortasun eta zahartasunaren aurka doa (cf. Lakarra 2006c: § 5.2):
- gi* aurrizki batetik dator eta, gainera, forma jokaturik gabeko aditzetan izateaz landa, askozaz zabal eta orokorrage da forma jokatu-gabeetan hauetan baino,
  - tsi* adjektiboak egiteko *-tz* marka zaharrak leherkari aurrean pairatu aldaketa baten morfologizaziora *-i* eranstetik dator; testuinguru hori [-*tz(i)* T-] soilik adizki jokatu gabeetan eman zen, ez enparatuetan.

Jakina, hainbat eta argiagoa dugu frogaz zenbat eta aldaketa aztarna gehiago antzeman adizkietan: *dihardut*, *drugatzula*... Lehen baino datu eta frogaz gehiago bildu dugu orain aditz sintetikoen eta perifrastikoen antzinasunaren dema ezagunean iritzi sendoagoak eta hipotesi oinarrituagoak plazaratzeko. Batetik, forma edo, hobe, forma aldaketen ekonomia: errazago da pentsatzea aditz jokatu-gabeak hainbat aldaketa jasan zituela (*\*e-ra-lun* > *\*erarun* > *\*edurun* > *\*edurin* > *iduri/irudi*; *\*e-da-non* > *\*janon* > *\*jahon* > *jo(h)an*, etab.) eta behin horiek pairatu ondoren sortu zirela *do(h)a*, *zihoan* eta bestelakoak, ez alderantziz. Kontrako bidea oso zaila begitantzen zait paradigmaren indarra kontuan hartzen badugu, eta batere ekonomiarik gabekoa, gainetik.

Sintetikoen azterketak badu zer esanik are forma kanonikoaren ikuspegitik atera gabe ere. Lehen esan dugunez, *\*e-* aurrizkia duten edo izan zezaketenak badira noizbait sintetikoki jokatzeko aukerarik izan duten bakarrak –nahiz eta benetan gehienek ez inolako lekukotasunik izan– ezin onar liteke aitzineuskarak inoiz aipatu 240 bat aditz sintetiko baino gehiago izan zuenik; are gehiago, ezta horiek ere, askozaz gutxiago baizik, franko (cf. 157. oh.) *\*e-∅-* / *\*e-da-* / *\*e-ra-* / *\*e-da-ra-* / *\*e-i-* / *\*e-i-ra-*... aurrizkien konbinaketarik baitator dakigunez: *e-bil-i* / *e-ra-bil-i*, *\*e-don* / *\*e-da-gon*, *e-kus-i* / *e-ra-kuts-i* / *\*ilki* (< *\*e-dul-gi*) / (*arraultza*) (< *\*e-da-ra-dul-(tza)*), *izeki* (< *\*e-i-zen-gi*), *irakatsi* (*\*e-i-ra-*), etab. Eta beste asko are atzizki berriagoen bitartez sortuak: *\*edun* / *\*edun-ts-i*, *\*e-ban-i* / *\*e-ban-ts-i* / *\*e-ban-gi*, etab. Egia esan, erro soil jokatuaren zerrenda hurbilago da bi dozenetarik berrehunetarik baino. Kontua da guk antzeman genezakeen neurrian, euskarak aditz-sail (hots, aditz jokatuaren saila) mugatua izan duela hizkuntza erro-manikoek, germanikoek eta beste askok dutenaren kontrara, baina yuroka-

ren eta Ipar Ameriketako beste zenbaiten eta, batez ere, Australia eta Ginea Berriko askoren edo gehienen antzera<sup>160</sup>.

Traski (1977)<sup>161</sup> jarraiki, Gómezek (1994)<sup>162</sup> aipatu zuen laburki euskal aditzaren garai inpersonala ongi datorrela hizkuntzaren egitura analitikoagoa eta isolatzaileagoarekin. Ikerketa berrion ondotik, are garbiago da hori: ezkerreko pertsona komunztadurak ez ziren hor “betidanik” eta eskubiko berriagoak askozaz gutxiago, jakina; orain, gainera, modua, aspektua edo denbora markatzeko afijoak ere ez direla betidaniko baizik eta multzo-aditzen gramatikalizazioaren ondorio (cf. gorago Post 2006ko aipua). Noizbait kontua zehatzago aztertu beharko da, jakina; artean, ikus bedi Hu, Pan eta Xu-ren lana txineraz aditzean burutu/burutugabe bereizkuntzarik ez dela esateko arrazoiak. Horien artean da Stassen-en “tensedness parameter” delakoa:

- a. If a language has a grammatical category of tense which
  - (i) is morphologically bound on verbs, and
  - (ii) minimally involves a distinction between past and nonpast time reference, then that language is tensed.
- b. In all other cases, a language is nontensed (Hu, Pan & Xu 2001: 1118)<sup>163</sup>.

Gertakari ezaguna da sintetikorik ez dela maileguen artean<sup>164</sup>, baina horitik abiatuaz latin-erromantzearen eraginaren bitartez azaltzea aditz sintetiko- en galera gehi perifrasiari sorrera eta hedadura guztiz zail bide dugu. Gorago esan dugunez, ez da ikusten zergatik hondatu behar zuen latin-erromantzearen eraginak euskarazko aditz sintetikoa, aurretiaz bigarrena oso aberats eta sendoa izan balitz, behintzat: gogora bedi inguruko hizkuntza guztiek, familia horretakoak eta indoeuropar zabalagoko gainerako leinuetakoek ere aditz sintetiko unibertsala izan dutela beren historian zehar, hots, aditz erro guztiei dagokiena eta euskarazko jokatu urriek izan lezaketen aspektu, denbora

<sup>160</sup> Orain gara ezin nezakeen arren, marka dezadan latin-erromantzeetatiko mailegaketan izan dugula beti, bestetara jo gabe, garai zaharragoetako sintetikoaren urritasunaren frogara, ez alderantziz. Izan ere, zerk azal lezake handik hartutako artean sintetiko bakar bat ere ez izatea? Ez formak ezin egokitzeak, ordurako bisilabo ugari behar baitzuen aditzean bertan ere; ez ote eredu horren falta edo eskasiak egin zuela guztiak \**e*-gabeko partizipio bezala hartzea? *Entzun* eta *ezagun*-ez ikus Lakarra (2009a) eta lau ohar behegaro.

<sup>161</sup> Trask (1998)-n eta (1997)-ko testuan –baina ez honen gramatikazko kapituluaren eranskinean– puntu askotan aldatzen da (ene ustez, ikuspegi atzerakoiago baterantz) 1977ko lan bikainetik.

<sup>162</sup> Gogora Postek, Donegan eta Stampek zein Amekak diotena multzo aditzez aurreko ataletan eta ikus Stassen-en orokortasunak ondoko oharrean.

<sup>163</sup> Hori guztia, morfema lotuen bitartez eta ez laguntzaile edo partikulen bitartez, noski; bidena-bar, ez du horretarako burmerak legezko futuroa/ez-futuroa bezalakorik onartzen, usuenik moduaren bitartez gauzatzen baita eta ez denboraren bitartez (1119). Stassen-en beste irizpide interesgarri bati “tensedness universals of adjective encoding” deritzo:

- a. If a language is tensed, it will have nouny adjectives. If a language has nouny adjectives, it will be tensed.
- b. If a language is nontensed, it will have verby adjectives. If a language has verby adjectives, it will be nontensed.

Ikus Lakarra (2006a) eta §5. Stassenek badu beste lan bat (cf. Lakarra 2008e) zeinetan parametro horiek lotzen dituen “X-ekin Y” (= “X eta Y”) hizkuntzekin lotzen dituen “nontensed” eta “verby adjectives” delakoak. Berreraiki genezakeen euskararik zaharrenaren kasuan hiru ezaugarrien lotura antzeman liteke, baita hiruren galera ere (kronologia ezberdinarekin) euskara berriagoan.

<sup>164</sup> *Ezagutu* eta *entzun* aipatu zituen Schuchardtek, baina *ezagun* da lehendabizikoaren forma zaharra eta gertakari horrek zail edo ezinezko egiten du latinetik edo erromantzetik ekartzea. Schuchardten *intensum* > *entzun* izan zitekeen beste *-n* aditz zahar bat aurrekoarena laguntzeko baina aspaldidanik onartezina da etimologia hori. Agian \**e-zun* (cf. *oihar-zun*) > *e-n-zun*, /n/-aren errepikarekin azalpen ekonomikoagoa izan liteke, gorago esan legez; bestearentzat aski da kontsonante metatesia eta *-g*-eranstea hiaoa hausteko: bidebatez, *eza.un* Etx.Zib-ek berak dakar, cf. Lakarra (2009a).

eta modu gehiagotako adizkiekin, gainera. Horrela ziren gauzak latinez, eta ez dira funtsean aldatu hizkuntza erromantzeetan; ez jakin, bada, zergatik eta nola hondatu behar zuen alde horretatik AE-ko aditz sintetiko unibertsal aberatsa... horrelakorik inoiz izan balitz, noski<sup>165</sup>.

Perifrasiak ez zirela lehendabizikoz eratu latinak edo erromantzeak zituena arabera argi beharko luke (eta zukeen) edozeinentzat, *pace* Gómez & Sainz (1995: 238)<sup>166</sup>. Oraintsuko hiruzpalau saio bikainetan Céline Mounolek (2006, 2007 eta 2008koetan, adib.) erakutsi du perifrasi guztiak ez direla garaikide: nekez izan zitezkeen *etor zedin* eta *etorri zen* edo *etortzen zen*. Bestalde, non da lehendabizikoaren eredu latindarra edo erromanikoa? Azkenengo, aditz izena inesiboan + copula mundu osoan zehar zabalduriko eredua dugu (cf. Anderson 2006) eta, bide batez, inguruko erdaren laguntza gutxi zuen (ezta haien behar handirik ere) euskarak horrelakorik sortzeko<sup>167</sup>.

## 7. FORMA KANONIKOA, HITZ FAMILIAK ETA

### AITZINEUSKARAREN FONOLOGIAREN BERRERAIKETA

#### 7.1. Hitz familiak

The reconstruction of Old Chinese is sometimes treated as a pure matter of phonology. (...) The central thesis of the present book is that in order to reconstruct Old Chinese phonology, a proper understanding of Old Chinese morphology and word-families is indispensable (Sagart 1999: 1)<sup>168</sup>.

Henderson-ek (1976) Asia Ekialdeko hizkuntzetan oinarrituaz –gero Sagartek txinerarekin bezala– erakutsi zuen hizkuntza isolatzaile zenbaiten ezker aldean badela lehenagoko morfologia zaharragoaren aztarnarik. Hendersonek khasi hizkuntzarentzat “covert or vestigial prefixes” –“overt prefixes” eta “prenominal and preverbal particles” delakoekin batera (481. or.)–, ikusi zituen, “interesgarrienak ikuspuntu historiko eta konparatutik” (ibid.) bere hitzetan<sup>169</sup>. Bere lanaren ondoriotzat Hendersonek eman ahal izan zuen 23 hitz-sare, hots, 23 hitz familia “with some semantic content in common, which it seems not unreasonable to suppose were also formerly linked through morphological processes of which now only fossilized traces remain” (516). Honen arabera, hizkuntza haue-tarako hitz soilak –txikiak, gainera, horrek dakartzan arrisku ezagunekin– berreraiki ordez, hitz-familiak berreraiki ahal dira, aski zabalak usu, eta, ezagun denez, “word-families are of particular importance because, more than isolated

<sup>165</sup> \**e*- aurritzia nahitaezko bazuten aditz zahar jokatuek (eta gainerako zahar joko-arrastorik gabekoek), badirudi hori erro gutxiri ezartzeaz landa, agortua edo agortzeaz zela K. ondoko III-IV. mendeetarako (ik. Lakarra 2006c).

<sup>166</sup> Cf. “Now the prefix *d-* is nearly always followed by *a*: this *a* is often taken to be a buffer vowel, but the buffer vowel in Basque is usually *e*, not *a*. Alternatively, this *a* has sometimes been taken as a characteristic of the present tense. What I propose is that *da-* is a single prefix, and that this was the original full form of the present/continuous verbal affix. It is just conceivable that this *da-* is to be identified with the verb *da* ‘he is’, and the present tense therefore has its origin in a periphrastic construction, but this possibility will not be explored here” (Trask 1977: 204-205; etzana nirea [JAL]).

<sup>167</sup> Besterik da “*-tzen izan*” arrunt eta orokorretik “*-tzen edun*” batera hedatzea edota, hobe, aldatzea iragankorretan, Céline Mounolek (2008) proposatu bezala.

<sup>168</sup> Lehenago, Baxter-en liburuaz hark egindako iruzkina ere “Future progress in OC will depend on a better understanding of OC morphology” amaitzen da (1993: 258).

<sup>169</sup> Ohar bedi aita Schmidt-ek 1904an –txineraren edo euskal tradizioetan baino askozaz lehenago– CV(C) forma kanonikoa proposatu zuela eta, areago dena, edozein CC– taldetan lehen C aurritzitaz jo ere.

words, word-families, especially well-diversified ones, may be suspected of being ancient in the language” (Sagart 1999: 14)<sup>170</sup>.

Lakarra (2009d: §11)-n ikusi dugunez, hizkuntzaren garai historikoetan, eta beharbada lehenagotik, euskaraz hitzak soilik eskubitarantz hedatzen dira: *jan* → *jale*, *jan* → *jate*, *jate* → *jatun*, etab. Beraz, historikoki bizi eta eman-  
kor ditugun hitz-familiak alde horretan dute beren morfologia eta ezkerretara lotura lexikoa: *jan - jale - jate - jatordu - janari...* Alabaina, AE-n gauzak ez bide ziren horrela eta euskara historikoan gorde ez diren bestelako bideak ziren hitz berriak sortzeko, aurrizkien edo erreduplikazioaren bitartez<sup>171</sup>, ohiko konposizioaz landa:

*gor* → *gogor*, \**nal* → \**nanal* (> *ahal*), \**der* → \**deder* (> *eder*), \**zen* → *zezen*;  
*sa-* : *sabel*, *sabai*, *sakon*, *samin*, *samur*;  
*gi-* : *gizen*, *gihar*, *gibel*, *gizon*;  
*la-* : *labar*, *labain*, *labur*, *lagun*;  
*-bel* : *harbel*, *ubel*, *goibel*, *orbel...*<sup>172</sup>

Dakigunez, aditz-jokatuek ez ezik, aditz-erroek ere ezkerretarantz dute morfologiarik zaharrena, eta alde horretarantz hedatzen dira eratorpen zaharrenak:

\**dul* → \**e-dul-gi* (> *ilki*),  
\**dul* → \**e-da-dul-gi* (> *jaulki*, *jalgi*),  
\**dul* → \**e-ra-dul-i* (> *irauli*),  
\**dul* → \**e-da-ra-dul-tza* (> *arraultza*), etab.

Beraz, txinera zaharrean bezala, euskararik zaharrenaren ikerketarako ere –hots, berreraiketaz berreskura genezakeen sistemarik zaharreneko– garrantzi handieneko dira hitz familiak ezkerretara hedatzen zirela erakusten dituzten datuok. Har ditzagun ondoko formak:

<u>E</u>	<u>ø-E</u>	<u>e-E</u>	<u>2.OS</u>	<u>ER</u>
*dan	: lan(?)	: edan	: —	: —
*dar	: lar	: jar(ri)	: in-dar	: adar
*dats	: lats	: jats(i)	: al-dats	: adats
*datz	: latz	: —	: ar-datz	: —
*den	: lehen	: edeki	: ez-ten	: —
*der	: ler	: —	: —	: eder
*din	: *lin	: jin	: gor-din	: —
*dol	: —	: —	: —	: odol
*don	: loh-i	: jo/idoki	: -do.i	: —
*dor	: lor-tu	: erori	: —	: —
*dul	: —	: ilki	: *(h)ertz-dul	: —
*dun	: —	: e(d)un	: bizar-dun	: —
*dur	: lur	: iturri	: (h)an-dur	: —
*duz	: luz(e)	: (e)utz(i)	: —	: —

*Legenda:* E = erroa; 2.OS = bigarren osagaia; ER = erreduplikazioa

<sup>170</sup> Berebereraren erro-sistemaz antzekorik ikusi nahi duenak jo lezake Galand-en 1984ko lanera.

<sup>171</sup> Honetan bada aldaketarik Gorrotxategi & Lakarra (2001)-ean genionetik. Erreduplikazioa AEZ-ean bai –*odol*, *adar* eta beste \**dVC*-ren gainean eginak dira– baina AE modernoan dagoeneko ez zela atera genezake: ez da \**IVC* > \*\**IVrVC* eta ezta \**hVC* > \*\**hVhCVC* ere.

<sup>172</sup> Aipatu lan horretan markatu legez, ilunago eta, horrenbestez, zaharragoak dira (c) eta (d), lehen bi sailak baino; bistakoa da batzuen eta besteen artean morfologiazko hazkunde-zuzenbidea aldatu egin dela eta baita hitz-familiena ere:

a. *gazi*, *atze*, *jale*; c. *gogor*, *zezen*, *adar*;  
b. *harbel*, *gordin*, *zaldun*; d. *lagun*, *gibel*, *samur*.

Bigarren zutabetik aurrera erro biluzia (aurrizki gabea), erroa aditzetako *e-* aurrizkiarekin, erroa konposatu baten bigarren osagai gisa eta erro erreduplikatua bildu ditugu, hurrenez hurren; ezkerreko zutabeak hortik berreraikitako erroak dira. Aditzen kasuan, familia osoak are zabalago dira: \**din*-enari, esaterako, *jaio*, *eriden* eta *jarrain*-ekin erantsi beharko genioke, \**dul*-enari, *irraul* eta *arraultza*, etab. Hots, \**d-* : *ø-* : \**l-* : *-d(V)* : *j-* : \**n-*, etab. dugu.

Kasu hauetan hitz-familiak berreraiketarako duten interesa areagotu egiten da hizkuntzak AE estandarra baino lehenagotik falta baitu hortzetako lenisa edo ahostuna hitz hasieran (cf. Mitxelena 1957 eta §1). Hitz-familien birtartez burututako berreraiketaren etekinak esanguratsuak dira: \**dVC* egitura batean 25 dira izan litezkeen erroak (d x 5V x 5C [l, n, R, ts, tz]) eta horietarik hamabost baten arrastoak<sup>173</sup> bildu ahal izan baititugu, horrela AE-ko hutsune hori betidanikoa ez zela erakutsiaz, batetik, eta morfologia eta lexikoaren kronologiarako ere oinarri zenbait ezarriaz, bestetik: \**han* + \**dur* > *andur* (ez \*\**hanlur* > \*\**halur*); aldiz, *haran* + \**duz* > *haraluze* (ez \*\**haranduz*); orobat, *sagardo* baina ez \*\**sagarloi*, *ardatz* (ez \*\**arlatz*), etab<sup>174</sup>.

## 7.2. Erroa, kokaguneak, fonemak

Asko dira euskal erroaren egituraren eta honen bilakabidearen azterketak aurkezten dituen galdera eta azterbideak, baita AE-ren fonologiaren aldetik. Egungo egitekoa ez den arren era horretako azterketa zabal bat egitea, berriaz monosilaboez edo fonologia hutsez ari gaitzkeen hurrengo batekoa baizik –ikus Lakarra (2008c) eta (prest.-7)–, komeni bide da soinuez eta hotsez eta horien sistema aldakorrez gogoetaren bat aurreratzea. Sagartek aitzintxinerarekin legez, hitz familien eta morfologiaren azterketa ez ondoko baizik aurreko dugula AE zaharraren fonologia (nahiz lexikoa eta sintaxia) berreraikitzeke orduan. Alabaina, han (Sagart 1999: 1) eta hemen, tradizio diakroniko gehienetan ohi legez, fonologiaren alorra izan da gehien garatu dena, ia garatu bakarra, zehatzago.

Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* eta egile beraren gainerako lan bikainen ondoren ere AE-rako morfemen fonologiaren ezagutzan zenbait zalantza, hutsune eta eskasia bagenuen eta, seguruenik, orain are gehiago dira zalantzak, hutsuneak eta eskasiak berreraiki nahi dugun AE Mitxelenarena baino zaharragoa delarik; gogora Trasken lan honen hasierako “long long before” hura. Labur esanaz, Mitxelenaren eta Martineten AE-n leherkari-sistema karratua genuen; Mitxelenaren Euskara Batu Zaharrekoa (K.o. V-VI. m.) –neutralizazioen ondokoa– erronbo-erakoa, aldiz. Batera zein bestera, ordea, hiru kokagunerekin jokatzeko dute oro har: hitz hasierakoa, barrukoa (bokalartekoa, funtsean) eta amaierakoa. Gainera, bigarrena, hitz barrukoa, anitza izan zitezkeen morfema polisilaboen kasuan, ez baitzen horren aurkako au-

<sup>173</sup> *dots*, *dits*, *duts* erroak izatez badirudi \**dVn-tz-(i)* egituretarik datozela. Beraz, 15 goikoak gehi 3 hauek 18, izan litezkeenetarik %72 dira berreraikiak. Kontu hauetarako dardarkari bakarra dugu buruan; bi balira 30era igo beharko lirakeke erro potentzialak, beti ere soilik segmentuekin jokatuz.

<sup>174</sup> Txinera arkaikoan (Sagart 2004), Cambodya eta Asia Hego-Ekialdeko zenbait hizkuntzatan (Henderson 1976) edo Afrikan (Andersen 1992-94) –lehenagoko aurrizki erorketa baten ondorio izan litekeen– erro monosilaboen ezkerreko C- txandakatzeaz funtzio sintaktikoak ere gauzatzen dira, aditz iragankor eta iragangaitzen arteko diferentziak edo diatesia, esaterako; cf. Lakarra (2004b).



rreikuspenik<sup>175</sup>. Bada, pentsa dezagun orain –beharturik baikara horretara erro monosilabikoaren teoriaren barruan– zer dakarkien sistema horiei –eta batez ere lehenari, haren aurretiko egoeraz egin behar baitugu galdera– hitzen fonologian kontsonanteentzat ez hiru kokagunerekin baizik eta bi soilekin jokatzeak, txinera zaharrean edo vietnameran eta hizkuntza austroasiatikoetan legez<sup>176</sup>, demagun. Alegia, hitz hasierakoa eta hitz amaierakoa dirateke aztergai bakarrak, monosilabo den erro batean (CVC) kontsonanteek ez baitzuketen barrenean izaterik, ezta, bidenabar eta alderantziz, bokalek ere silaba barreneko kokagune bakar horretatik landa.

Aurrerantzean (cf. Lakarra prest.-7), Martinetek (1950, 1955) leherkari soilentzat eraiki zuen fortis/lenis sistema<sup>177</sup> –Mitxelena izan baitzen ozen eta txistukarietara hedatu zuena– neutralizazio gabekoaren aurreko garaia eta horren bilakabidea ikertzea dagokigu, ene ustez<sup>178</sup>. Erro monosilabikoaren teoriatik abiatuaz, galdera ugari sortzen da, jakina: bi kokagunetako sistema honetan, bietan azaltzen ote ziren leherkariak ala soilik hasierakoan? Eta bietan azaltzekotan, nola banatzen ziren ezker eta, batez ere, eskubi? Ozenetan eta, bereziki, txistukarietan, gero fortis/lenis izatera igaroko diren fonema horiek guztiak ote genituen ala erdiak edo? Izan ere, txistukarietan ez ote genituen bi fonema –bata apikaria eta bestea bizkarkaria–, noiz alofono batez (frikari hasieran), noiz besteaz (afrikatu gibelean) gauzatzen zirenak? Alderantziz, fortis/lenis edo dena delako oposaketa fonologikoaren bitartez, txistukarietan laukoitza baldin bazen bereizkuntza morfema-hasieran, nola igaro ote hizkuntza sistemaren egoera horretatik hurrengora, batez ere kokagune horretan oposaketaren arrastorik gelditu ez zelarik ondoko sistemetan?<sup>179</sup>.

Halaber, “Mitxelena paradigmán” hitz hasieran ezinezko genituen zenbait hots (afrikatuak, *d* leherkaria, *r* eta *R* dardarkariak) aurreko garaian erro hasieran ere agertzen zaizkigu, itxuraz: hor *dira* \**e-tzan* ~ \**e-zan* edo \*(*d*)*a-dar*, demagun, eta baita \**e-ros-i*, \**e-rran* ere. Alabaina, guztiak ez dute segurantzaz bera eskeintzen: \**d-* (eta hortik, ondoren, *d-* > *ø-*, *l-*)<sup>180</sup> berre-raikitzeko oinarri hobeak direla deritzot, gainerakoak egiteko baino, batez ere hor aipatu bi aditzak eta *-r-* / *-R-* hotsekin ageri zenbait kausatiboak izanik<sup>181</sup>. Azalpen honek ez du txistukarien kasua argitzen, ordea, eta dardar-

<sup>175</sup> Mitxelenak *Fonética*-n eta bere gainerako lanetan usu hitzegiten du, bestelako gaztigurik edo oharrik gabe, hitz polisilaboez edo “hitz luzeez”, noiz edo behin hori praktikan “hirusilabakoez” dela zehaztuaz. Hor ere barneko bi posizio (edota silaba oso bat eta hainbat posizio) badira noski.

<sup>176</sup> Lehendabizikoaz ikus beste askoren artean Sagart eta Baxter-en lanak; enparatuentzat badu Ferlus-ek hainbat eta orain bada Michaud (2009) ere.

<sup>177</sup> 40. oharrean gogoratu legez, Holmerrek aldarrikatu zuen bere I. Taldeko hizkuntza gisa, euskarari (historiaurreko euskarari, zehatzago) ez zegokiola leherkarietan ahostun/ahoskabe sistema; ikus hor bertan I. taldeko hizkuntzen ezaugarri gehiagoz.

<sup>178</sup> DiCanio-ren lan argitaragabea badira hainbat gogoetagai honetarako: dela geminatuek nagusiki bisilabo eta polisilaboean agertzeko duten joera, leherkariak aurre-hasperenketa eta erabili ohi dutela luzera gauzatzeko (afrikatuek bai hori, bai itxiera- eta baita frikazio-unea), aurre-hasperenketak luzera / glotalizazio oposaketan izan lezakeen garrantzia... Hara triqui (Mexico) hizkuntzaz diharduelarik dioskuna: “Historically, this added laryngeal cue may have been reanalyzed as the primary cue to the contrast in other Trique dialects, resulting in a reinterpretation of initial length contrast as initial voicing contrast”.

<sup>179</sup> Mitxelenaren neutralizatu ondoko sistemari so egiten badiogu, badirudi erroa askoz seguruago dela –leherkariak landa– bi muturretariko batean bestean baino (Mitxelena 1977: 288-289 eta 335).

<sup>180</sup> Kontrako bilakabiderako (*l/ > d/*) tibeto-burmeraz eta handik landa, ikus Matisoff (argitaragabea).

<sup>181</sup> *Erran*-i buruz ikus Trask (1997); *erosi*-ren inguruan ez dut proposamen etimologikorik ezagutzen baina ez bide da ausartegia \**e-ra-don-tz-i-tik* edo abiatzea: cf. Borja Ariztimuñoren \**e-don-tz-i* > *josi*. Azken hau Estornesek (1967) *coser*-ekin lotzen zuen; *estekatu*, aldiz, *hertzellhertsi*-rekin (¡!).

karietan eurretan ere garai monosilabikoan bereizkuntzaren kokagune seguru bakarra hitz amaierakoa zela dirudi (cf. Lakarra 2009d).

Martinez Aretak (2006b) garai hartan ziren etimologia urri eta inoiz ahulekin bada ere, ozen eta txistukarietarako bortitzen jatorria azaldu nahi izan zuen, Mitxelenak (1957: 183-184) aukera gisa emandako C + C taldeen birtartez. Beste lan batean (Lakarra 2010d), aztertu ditut hark aipatu gabeko -R- bortitzari dagozkion hainbat adibide<sup>182</sup>: *baino* (< \**ba-dadin-no*) / *bai(n)a* (< \**ba-dadin-a*) *arrain*, *arrano* < \**e-da-ra-don-i /-no*, *arraultza* < \**e-da-ra-dul-tza*<sup>183</sup>, (*h*)*erro* < \**e-ra-don*, *jarrain* < \**e-da-ra-din*, etab. Azalpena -R- guztietara hedatu ahalko balitz (gehienetara baietz esango nuke), -R bukaeran izan den fortizio eta neutralizazio berankor eta erabat orokortu gabearan bitartez azalduaz, hitz barruko bortitz/ahul oposaketa C-talde/C-soil oposaketara eramanez ahalko litzateke dardarkarietan beste inon baino errazago eta, bidebategi, azalpen bera gainerako ozenentzat bederen oso egiantzeko eginaz: *gogora bele* < \**bel* + *-le* (cf. *erle* < \**herle* < \**hez-le*), *haraluze* < *haran* + *luze*, etab.

Ozenetan bortitz/ahul oposaketak etekin urria izateaz landa -nekez aurkituko ditugu VRV egiturako izan zitezkeen 150 kideak- bada aztarnarik berezkoa eta AEZekoa ez dela izan pentsatzeko. Badira, hasteko, zenbait hitz mailegutzat har ditzakegunak (*alu*, adibidez); horrek eta beste batzuk, behar bada, talde kontsonantiko batetik bide dute beren ozen bortitza, goraxeago ikusi dugun legez; badira, oraindik, egitura handiagoen kontrakzioak direlarik ozena atzizkian dutenak (*ile/lule*) eta ez erroan. Honi guztioni gehitu behar zaio / R / C<sub>2</sub>-an fortizio batetik datorrela eta C<sub>1</sub>-ean (non ez litzatekeen agertu behar, gainerako ozenak bezala) hainbatetan adituzko aurrizki desfuntzionalizatu bat(zu)en itxuraldaketatik: \**arran-* < \**e-da-ra-don*, *jarrain* < \**e-da-ra-din*, *arraul* < \**e-da-ra-dul*, *arbin* < \**e-da-ra-bin*, \**ardano* < \**e-da-ra-dan-o*, etab<sup>184</sup>.

AEZera gabe ere susma liteke bortitz/ahul oposaketa ozen eta txistukarietan ez zela ez ugari ez zaharregi, are bere bokalarteko gotorleku horretan ere. VCV egitura hartzen badugu *atso*, *atzo*, *atzi(tu)*, *etzi*, *etsi*, *utzi*, *otso*, *itsu*, *etse* eta *ase*, *oso*, *aza* eta isuri zaidan besteren bat baino ez dugu; dozena bat, izan zitezkeen ehunetik (5 x 4 x 5) ez da asko, baino are okerrago da VSV egiturarentzat horko asko “modernoak” izatea: -i atzizkia dute, edo -e paragogikoa, edo nolabaiteko morfologia zaharra<sup>185</sup>, eta beste zenbaitek mailegu izateko aukera. Hortaz, horko afrikatuak -jatorrizko lexemekin ari garenean- ezkerreko morfemako txistukariak dira, azken kontsonanteari zorko litzaiokeen fortizioa pairatu dutenak, alegia.

Honenbestez, bost leherkari gehi /h/, hiru ozen eta bi txistukarik hamaika kontsonante egiten duke sistema osoari dagokionez; ez da asko, baina ez pentsa

<sup>182</sup> Traskek kontsonante multzoa > soila azaltzen du, baina ez hura nondik datorren; nireak guztiak dira ezkerretako -d- bat -n- bilakatu eta hau eskubira joatean han zen -r- batekin osatutako talde-etarik.

<sup>183</sup> Mitxelenaren \**erro* + *-kuntza*-k (FHV) arazoak ditu atzizkiari dagokionez eta ez du kontuan hartzen hitz hasieran lehenagoko aurrizkien bilakabidearekin gertatua, honi eta besteri banakako atarabideak proposatuaz; ikus §§6.1-6.2.

<sup>184</sup> Ikus §6.2 bantuaren CAUS + APLIC egiturentzat.

<sup>185</sup> *otso*-k esaterako: \**hor-tz-so*; lehenago (Lakarra 2002b)-n \**hor-so* soila eman banuen ere, uste dut hortik ezin dela *otso*-ra iritsi, gehienez ere \*(h)*oso*-ra baizik.

gutxiagokorik ez denik, hawaiararen kasu famatuaz landa ere. Baliteke beste nonbaitetik C (edo V) gehiago proposatu behar izatea, segmentuz goragokoez landa, noski; nolana ere, berreraiketak lekukotasun edo aztarna aski utzi dutenekin jardun lezake, ez besterekin (cf. Mitxelena 1963).

### 7.3. Azentua eta erroa

Dakigunez, Martinetek eta Mitxelenak azentuarentzat kokagune ezberdina aurreikusituz zuten –ezkerretik 1. eta 2. silaban, hurrenez hurren–, bata eta besteak helburu ezberdinak bilatuaz, azentu demarkatiboa eta hasperenaren distribuzioa, hain zuzen ere. Bi helburuak direlarik garrantzitsu eta emankor euskarazko morfemen bilakabidea aztertzeko, interesgarri izan liteke bi teoriok uztartzea, horretarako biderik balitz.

Herts-hertsian hartuaz, Martineten teoriak ezingo luke hainbat datu garrantzitsu azaldu: bada hasperen ugari bigarren silaban (eta are hortik atzera ere inoiz), ez soilik lehendabizikoan, baina –hasperena azentuaren eskubitara ezinezko delarik– ezingo litzateke lehendabizikoan baino izan azentua hark nahi bezala ezker muturrean balitz<sup>186</sup>. Mitxelenari aski zaio azentua bigarren edo eskubirago izatea, hasperena ez soilik lehenengoan, baizik eta (bisilaboetan) bigarren eta polisilaboetan (inoiz) are eskubirago izan zedin. Ez da ahaztekoa FHV-ren bigarren argitalpenean Mitxelenak hitz hasierako /hh/-en “irregularitateez” (*hire / eure, hauzi / auzi*, etab.) gehitutakoa: “El texto parece dar a entender, erróneamente, que el número de los casos de discrepancia respecto a la aspiración es más bien pequeño” (FHV, 525), berehalakoan “añado, sin ánimo de ser exhaustivo, algunos otros razonablemente seguros en que *son siempre las formas complejas, más largas, las que carecen de h*” erantsiaz<sup>187</sup>.

Ohar bekio lehen edizioko ondokoari ere:

Hay que añadir que, dado lo confuso de la situación moderna, es difícil precisar qué consonantes desaparecidas en posición inicial dejaron como resto una aspiración ni en qué condiciones pudo después perderse ésta. Cabría admitir, para citar una sola posibilidad, que en palabras complejas, al encontrarse la inicial a mayor distancia del acento que en la simple de que procedía su primer elemento, haya desaparecido la aspiración que en éste se conservó: sul. *ardai* ‘yesca’, sin duda oxítono, cf. guip. *ardagai*, lab. *hardo* (vid. infra, 12.16) (219-220).

Martinet eta Mitxelenaren bi proposamen horiek bateratzerik bada, azentua akabuan zela proposatuaz, hau da, esaldiaren akabuan ezarriaz azentu nagusia eta baita unitate prosodiko bisilaboetan ere (ez erro bisilabikoetan)<sup>188</sup>.

<sup>186</sup> Arraroa litzateke hitzaren lehen silaba izatea berreraiketarako zailena (hor gertatzen diren asimilazio, disimilazio, gehiketa, erorketa... eta bestelako fenomenoengatik) –Mitxelenak FHV-n erakutsi eta edozeinek ikus lezakeen bezala–, baldin eta hor balitz azentua, honek silabari eman ohi dion indar eta tinkotasuna kontuan izanik.

<sup>187</sup> Etzana neurea da (J.A.L.). Lakarra (2008c)-n laburbildu ditut beste zenbait lanetan (2008d, 2009c, 2010c, 2011a, prest.-8) /h/-aren balio etimologikoaz eta hots horrek forma kanonikoaren aldatetarako duen garrantzia egindako oharrak:  $*h_3/*h_2 > h_1$ , /h/ ez da hiato-hausle eta  $Vh > Vih$  gertatu da, ez  $*Vi > Vih$ ; /h/ak euskara eta iberieraren (nahiz beste hizkuntza batzuen) arteko erkaketan aitortu zaion baino garrantzia handiagoa du eta  $*-r > -h$  Mitxelenaren lau /h/-iturriek gehitu beharrekoa da, gutxienez. Ikus hemen 185, 192, 208b eta 232. oh.

<sup>188</sup> Denborarekin hitz bisilaboak erro bisilabiko bilakatu ziren Fengek (1998) txinerarentzat azaldu bezala:  $*[sa] [bín] > [samín]$ ,  $*[[do] [dól]] > [odól]$ ,  $*[[han] [gér]] > [akhér]$ , etab., osagai morfologikoen ikonizitatea galdu eta lehen silaba higitu ondoren.

Jokabide honek, jakina (cf. Lakarra 1996), morfemen edo unitate prosodiko-koen tamainari edo forma kanonikoari kasu egitea eskatzen du, Martinetek eta Mitxelenak egin ez bezala.

Hitzen bigarren silaban –eratori edo konposatuetako azkena zen erro monosilabikoan, alegia<sup>189</sup> izanik azentua, Donegan eta Stamperen sistemaren barnean (ikus §5) ez Mitxelenak ez bestek lehenago aurreikus ezin zitzakeen ondorioak ateratzen ditugu, Martinetek eta hark bilatutako hitzen azentu demarkatiboa eta hasperenaren distribuzioaz landa. Hau da, sistema horretan bisilaboen hondar azentuak (eta esaldiaren hondarrekoak) berarekin dakartza aurrizkiak, VO ordena, etab.; kontrakoak, hitzaren lehendabizikoak eta esaldi hasierakoak, atzizki ugaritasuna, OV ordena eta beste zenbait.

#### 7.4. Morfologiaren fonologizazioaz

Ezagunenez, Givon-ek aldarrikatu zuenetik “gaurko morfologia atzoko sintaxia”, hizkuntzalari asko saiatu da –ez arazorik gabe– morfologia jakin batetik abiatuaz iraganeko sintaxia berreraikitzen. Ene aburuz, horren zabaldua ez den “gaurko fonologia atzoko (edo hereneguneko!) morfologia” antzeko zer-baiten alde ere egin bide liteke zenbait hizkuntzatan, gurea barne<sup>190</sup>. Saiatuko naiz adibide pare ematen dagoeneko ikusi fenomenoetarik abiatuaz<sup>191</sup>.

Lehena aditz-erroetako diptongo ugaritasuna genuke (cf. §§6.1, 8.4). Ikusi legez, nozbait aditz erroetako enborrak CVC ~ (CV)(CV)CVC ziren arren, hots aldaketek –batez ere erroko nahiz aurrizkietako bokalarteko ahos-tunen erorketek– hiato eta diptongoak ekarri zituzten, morfologiazko oposaketa zena (erroa ~ aurrizki + erroa) fonologiko (V ~ D) bihurtuaz. Sagartek txinera zaharraz dioen bezala, fonologia azaltzeko morfologia zaharra ezagutu beharra dugu; alderantziz, fonologia azterketa sinkronikoak morfologia diakronikoa argitzera eraman gaitzake.

Bigarrena erro hasierako dardarkariei dagokie. Aditz-erroei edo enborrei aurrizkiak (\**e-*, \**e-da-*) ezabatzean, usu /r/ edo /R/ gelditzen zaigu C<sub>1</sub> kokagunean: *e-rosi*, *e-rein*, *e-raso*, *ja-rraiki*, *ja-rdun*, *ja-rdetsi*, *ja-rrugi*, etab. Lehen taldekoen artean zenbait, *-ra-*aditzak dirateke, *eroan/eraman* bezala, ez guztiak, ordea. Hauentzat *r-* hori ezinbestean *l-* batetik datorke *-r-/R-* ezinezko direlarik erro eta hitzetan, areago aurrizki/atzizkietan–, baina ikusi dugunez, *l-* ere ez da \**l-* (etorkiz), \**d-* baizik. Hortaz, \**dVC* erro zenbaitek bai *d-* alo-

<sup>189</sup> Erroan eraman ohi du hitzak azentu nagusia eta ez hizkietan (cf. Donegan 1993: 5). Modu “teknikoago” batean Duanmu-k (1999: 15) “In a syntactic head-nonhead relation, the syntactic non-head is assigned greater stress than the syntactic head” dio.

Holmerrek 1970ean bazuen –Donegan eta Stamperen lana baino askoz lehenago, beraz– azentua, erroa eta sistema morfologikoaren arteko erlazioaren aditzerik:

It may thus be stated that Basque originally follows the pattern of so many languages pertaining to Type I, e.g., in America, in having the second syllable from the beginning of a word (or phonetic unit) stressed, a tendency which may possibly have a connection with the prefix character of these languages (1970a: 9).

Honen ondotik dator hizkuntza eransletan (Holmerren II. Sailekoak) erroa lehen silaban (eta, beraz, atzizkiak) aurkitzen dugun bitartean, i.ko hauetan bigarrean doala; ikus 119. oharra ere Holmerren ustez euskara hizkuntza eransletarik bereizten duten gainerako ezaugarriez.

<sup>190</sup> Sagarten txinera zaharri buruzko liburu osoa (1999) edo gehiena izan bide liteke horren adibide berak –eta, dakidala, beste inork– beren-beregi horrelako esaldirik ez dakarren arren.

<sup>191</sup> Gogora (ikus §6.1) Mitxelenak *jardun* eta gainerakoetan “*jar* izenki ezezaguna” ikusi uste zuela eta horren ezintasunaren zergatia: *FHV*-n azaldu bezala, *j-* euskal altxor zaharrean aditz aurrizkietako \**e-* batetik dator.

morfoarekin (\**edin*, adib.), bai *l*-alomorfoarekin, *d* > *l*-bilakabideaz geroz sortu dituzte aditzak: \**din* > \**lin* → \**elin(o)* [> \**eriho* > *herio*] - \**e-da-lin(o)* > *jario* [ez \*\**edariho* eta ez \*\**hedario*], etab<sup>192</sup>.

Txinera historikoaren hitz hasierako talde kontsonantikoak bezala (cf. Sagart 1999) euskarazko /R/ horien oinarrian diren -CC- horiek “morfologikoak” dira, hots, ezkerrekoa aurrizki batetik dator eta soilik bigarren C hori dagokio erroari. Oraintsu arte, sinologoen hitz hasierako kontsonante taldeak “fonologiko” -IE eta kartvelikoaren muta cum liquida gisakoak- eta “morfologikoen” -CVC erro bat, C- aurrizki batekin- artean bereizten zituzten edo berezi nahi zituzten, bederen, lana ez baitzen batere erraza.

Euskaraz, txinerako horien paralelo garbiena, halere, -eta, beraz, zalantza gutxiarekin, aurrekoa baino modernoagoa- erro amaierakoa bide dugu: *hortz*, *bart*, *beltz* eta gainerakoetan -CC horiek “kontsonante multzo morfologikoak” dira, ez fonologikoak, soilik lehen C- baitagokio erroari eta -C atzizki ezaguna (cf. *bor-tz*, *ahan-tz*, etab.) edo hurrengo morfema higatua (*dut* < \**du-da-*) baitugu<sup>193</sup>.

Goiko R- horietara bihurtuz, talde horretan (eta horren jarraipen den bortitzean) fonologizatu egin da bereizkuntza morfologikoa<sup>194</sup>, urrats bat gehiago AE monosilabikotik euskara bisilabiko edo polisilabikorako bidean<sup>195</sup>.

## 7.5. Fonosinbolismoak eta forma kanonikoa<sup>195b</sup>

Non-canonical phonological characteristics. Here follow non-canonical phonological characteristics of ideophonic adverbs that distinguish them from non-ideophonic words. a) different morpheme structures; b) different tone patterns; c) reduplication; d) different distribution of consonants and words, different consonant and vowel qualities (Elders 2001: 98).

“Usuenik hots sinbolismoaren zeregina baztergarrizat hartu ohi da hizkuntzalaritzaren barruan”<sup>196</sup>, horrela hasten du bere liburu bikaina Hamanok (1998: 1). Alabaina, bere lanak eta besterenak<sup>197</sup> erakutsi du sistema fonosinbolikoak ba duela autonomia eta lege propiorik, berariazko azterketak zilegi eginaz:

<sup>192</sup> \**d*-aditzak Mitxelenaren AE baino lehenagokoak dira, noski; \**l*-aditzak AE-ko edo berandu-  
xeagoko, baina ez asko (ez da \*\**ehorri*, \*\**eharri*, *ethorri*, *ekbarri*, baizik); ikus Lakarra (2006c) \**e*-gehi-  
ketaren bitartez sortu aditz-sailaren agorketaren datazioaz izanenezakeen informaziorako.

<sup>193</sup> Artiagoitiak (1990) “metrikaz atetikotzat” jo zuen azken -C.

<sup>194</sup> Bidenabar, gertakari honek azal lezake itxuraz kokagune berean eta mugimendu aukera berdi-  
nekin sortutako hirugarren silabako /h/ batzuk hitz hasierara igarotzea eta beste batzuk ez: *herio*, *ha-  
rea*, *hodei*, *heuragi*... baina \*\**hard(a)o*, \*\**harrain*, etab.; zehatzago begiratzen baditugu gauzak, bigarren  
taldekoetan \**n*- ez da hirugarren silabaren buruan, laugarrenarenean baizik, *jaiio* (< \**e-da-din-o*) edo  
*jario* (\**e-da-lin-o*)-ren antzera.

<sup>195</sup> Bilakabide berbera izan ez arren, talde > bortitz aldaketa dugu /L/ eta /N/-rekin ere eta, neu-  
rri batean, morfologia → fonologia aldaketa, lehen bi morfemetako azken eta lehen hotsak zirenak tal-  
de egin eta bakarra bihurtzean; ondorioz, forma kanonikoaren aldaketa dugu: [erro + atzizki] > [erro  
polisilabo]. Asimilaziora eta, ondorioz, bortitzera iritsi ez diren kasuetan ere hizkiaren edo erroaren  
nahiz bien egitura fonetikoa ilundu eta bataren eta bestearen arteko hasierako etena beratzen edo eza-  
batzen ahal da: cf. *erle*, adibidez.

<sup>195b</sup> Atal hau zabalago Lakarra (prest.-5)-en.

<sup>196</sup> Ikertzaileen ezaxolaz nahi adina aipu bildu ahalko litzateke; cf., pare baterako Diffloth (1994:  
107) eta Childs (1994: 199).

<sup>197</sup> Cf. Hinton *et al.* (1994) eta Voeltz & Kilian-Hatz (2001) bildumetan adibide anitz eta habo-  
roren erreferentzia ugari.



I will describe two more phonological properties of the sound-symbolic system which only a rigorous, systematic approach has revealed. They are (i) the stringent distributional constraint of palatalization, and (ii) the skewed distributions of /p, b, h, w/. These properties are interesting not only from a synchronic perspective but also from a diachronic perspective (Hamano 1998: 175).

Gainerako hizkuntzetan bezala, gurean ere nekez esan liteke fonosinbolismoaren azterketa (bustiduraz Oñederrak egindako lanaz kanpo) ikerketalaror landuegia denik hizkuntzalarien artean<sup>198</sup>. Haatik, ezin mantentzeko fonosinbolismoa hizkuntzalariaren ikergaia ez baina soilik sikologo, antropologo edo pedagogoena dela ere. Begibistakoa da hizkuntzen zatiren bat –zabala edo meharra ikusi egin behar, baina usuenik uste baino garrantzitsuagoa– ez dela Martinet eta besteren “artikulazio bikoitzean” sartzen. Horrela ez balitz ere (arazoa gure oraingo kontura ekarriaz) atzerriko –japonierazko, dravidierazko, beste hainbateko) kasuetara jo beharrik ez dugu ohartzeko fonosinbolismoak fonologia “nagusiaren” edo “arruntaren” bilakabidea aztertzeko izan lezakeen garrantziaz; euskaraz, bustidura automatikoa enparatuetan baino gehiago ugaltzeak ez ote zer ikusirik mendebaldean fenomeno horrek adierazkortasun osoa aspaldi galtzearekin? Alderantziz, bustidurak hainbat ugaltzeak ez diren –edota are jatorrizkoak (maileguetan) desegin diren– lurraldeetan hots sabaikariek aspaldiko balio adierazkorra gordea ere ez da halabehar hutsa, jakina.

Bada oraindik fonosinbolismoaren azterketaren eta fonologia (eta morfologia) diakronikoaren artean interes partekaturik. Hots, palatalak berretu eta forma adierazkorrekin beren lotura galduaz “normaldu” direnean eta lexiko “arruntean” hedatu, orduan hartu dute oinarriko inbentarioan beren tokia, fonema ez-sinbolikoek lehenik zutenaren antzekoa: hori da /l/, /r/, /š/ eta /č/-ren kasua, demagun. Beste hizkuntza askotan bezala, euskaraz edo euskararen garai eta dialekto zenbaitetan gehitu diren fonema mordoa bagenekien fonosinbolismoari lotutako aldaketen bitartez gehitu direla.

Haatik, horiek ote bakarrak? /m/, /f/ eta hitz hasierako ahoskabeak ez dira AE-ko berreraiketa estandarrean sartzen. /m/-ri buruz Mitxelena “goizetik” hedatu zela diosku (*FHV* 267hh); baina eta zerk erakarri zuen? Mailegaketak soilik? Horrelako asko da, noski, baina *FHV*-n aipatzen diren aurizki zaharkituen artean bakarrak edo dira *ma-*, *mo-*, *mu-* fonosinbolikoak (cf. §13.8)<sup>199</sup>. Lakarra (2008b)-ko taulak eta ereduak bildu hitz zerrendak (batez ere beren-be-regi osatutako Eranskinean) miatzea aski da ohartzeko /m/-ren hedadura fonosinbolismoaren bitartekoa ere izan dela –eta are, agian, batez ere bide ho-

<sup>198</sup> Arestian agertu da Ibarretxe (2006) eta egilearen beste zenbait lan eta Martínez Areta (2008c); ez da hain aspaldikoa Coyos (2000) ere; lehenagokoen artean Azkue eta bere ikasle Zamarridak eta beste zenbaitek dituzten bilketa lanez kanpo, ez da azterketa lan erabilgarririk hizkuntzalariarentzat. Alabaina, Hamano (1998), Hinton *et al.* (1994) eta Voeltz & Kilian-Hatz (2001)-eko hainbat ekarpenek guri axola zaigun hitzen eta morfemen alderdi formaletik ere zer ikusirik badela erakusten digute.

<sup>199</sup> Eta bigarren argitalpeneko eranskinak. Ikus De Rijkek (1963) liburuari egindako iruzkin interresgarrian “adierazkortasunaren” inguruan azaldutako zalantzak eta egindako galderak.

<sup>200</sup> Cf. “As shown elsewhere (see, for example, Hinton 1986), sounds often enter a language by means of sound-symbolic words. Scholars from Grassmann on have shown that sound changes often do not affect sound-symbolism words, so that phonemes which have otherwise disappeared or become restricted to certain environments are often found thriving in the sound-symbolic vocabulary. This same tendency is shown in this volume (...)” (Hinton, Nichols & Ohala 1994: 9).

rretan barrena dela hedatu<sup>200</sup>; /f/-ren aipatu berankortasunak eta esparru fonosinbolikoan ere bestearen aurrean duen urritasunak badukete loturarik.

Ezin aipatzeke utzi CVC egitura hertsian sartzen ez diren monosilaboetako onomatopeia ugariak:

*aup, aurt, ausk, bal-bal, biz-biz, blau, blink, blist-blast, bol-bol, bon-bon, brast, brau, bri, brist, but, dank, dart, din-din, dist, drak, drank, drausk, drin, dsast, dzanp, dzart, dzast, dzaust, dzist, eit, ep, et, eup, eurt, fa, fast, fu, furts, fut, futz, glask, grask, ja-ja, jau, jaurt, ink, hint, irt, jua, jui, izt, kask, kausk, ker-ker, kik, kink, klak, klask, klausk, klik, klin, klisk, kluk, kok, kosk, krak, krask, krik, krisk, kutz, ma, man, mir-mor, mist, mitx, miz, mox, mu, murt, mus, must, mut, ñi, ñir, ño, ñu, oi, ok, op, ox, osk, otx, pa, panp, part, pik, pil-pil, pipi, pipir, pis, pit, pizt, pla, plai, plast, plau, plaust, plox, plost, plot, plust, pol-pol, pot, potx, prizt, pu, pul-pul, punp, sast, sitx, sost, xixt, xo, xut, tan, tank, tar, tast, taup, taust, teink, tenk, ter-ter, tilit, tink, to, tot, tou-tou, trast, tunk, tunt, tut, tta, ttat, ttik, ttit, tto, ttok-ttok, ttu, ttur-ttur, ttut, txa, txak, txart, txar-txar, txat, txau, txi, txil, txil-txil, txin, txint, txintx, txintz, txirtxir, txist, txit, txitxi, txiz, txo, txortxor, txost, txut, ul, hup, ut, zart, zauk, zaust, zintz, zirt, zizt, zo, zunp, zurt, zut* (186).

Begirada arinenean ere hitz hasierako leherkari ahoskabeen, *d-*, *f-* edo *m-* fonemen ugaritasuna beste erro eredu gutxitan adinako dugu; egia esan, antzeko gertakariez ohartu gara TVTV eredu aztertzerakoan ere eta mailegaketaz landa nola eta zeren bitartez hedatuaz joan diren aspaldi lortu zuten fonematasunera iristeko azterbide interesgarria izan litekeela frogatzen digute<sup>201</sup>.

Aipatu *T-* ahoskabeez, *d-* edo *f-* eta *m-* ezagunez landa, diptongoak ugarri, *muta cum liquida* taldeak nahi adina, leherkariak (soilik edo beste kontsonantez lagundurik) hitz amaieran, *C-* gabeko forma asko, erreduplikazioak bokalak eta kontsonanteak mantenduaz zein aldatuaz...<sup>202</sup> Labur, fonosinbolismoaren “goren gradoa” morfofonologia hedatuenerako forma kanoniko arruntaren “ispilu irudia” balitz, aurkeztutako datuetan horren aztarna nabarmenik litzateke; CCVVCC, CV, VVC... CVC-tik ihes egiteko “asmoa”, alegia. Horretan biltzen dira, sakoneko egituran monosilaboetan aurkitu ditugun onomatopeia ugari eta auzi-abarza itxurako horiek. Eginkizun dugu horien eta gainerako eredu bisilaboen azterketa erkatua eta baita oinarri horietarik abiatuak erroaren sinkronia ezberdinez eta diakroniaz egin

<sup>201</sup> Ikus Lakarra (prest.-2). Emeneau eta Hals-ek (1993) erakusten dutenez, tamilez gauzak justu alderantziz dira: hitz hasierako leherkariak ahoskabeak dira salbu eta onomatopeia eta antzekoetan, non ahostunak aurkitzen diren.

<sup>202</sup> Cf. azken ezaugarriko Watson (2001) mon-khmer eta tibeto-burma hizkuntzetan. Usu ezaugarri horietarik bat baino gehiago aurki liteke aldi berean; bestalde, lexiko geruza honek baditu hots bereziak eta bestetan agertzen ez direnak; esaterako, bestela ere fonologia arruntaren ikuspegitik hain markagarria –baina fonosinbolismoarenetik ohikoa– den *dzaust*-en edo *dzanga*-ren hasierako afrikatua bezala.

<sup>203</sup> Cf. “As a final note, I would like to stress that I think it is impossible for general or universal claims about the effects of sound symbolism on the lexicon of any language to be properly evaluated without a clear understanding of the language-specific facts of the lexicon of particular languages in the contexts of their genetic origins and foreign contacts. To the extent that sound symbolism manifests itself in the lexicon of a particular language, some traits will be inherited from near and remote ancestors, some will be language-specific and relatively recent, and some will be borrowed (or the result of borrowing) – and this does not exhaust the particularistic possibilities” (Kaufman 1974: 74).

ditzagun aurreikuspenena; geroak berretsiko ahal du fonosinbolismoaren azterbide<sup>203</sup> honetan badukegula erroaren forma kanonikoaren egitura eta aldatetaren azterketarako laguntza baliosik.

### 7.6. Erroa eta beste aztergai fonologiko zenbait

Erro eta morfemen egiturari kasu egitea hotsen distribuzio eta historia argitzeko berebizikoa dugu: sistema estandarrean –hotsak funtsean banaka hartuaz– antzeman ez diren erregulartasunak erdietsi ahal dira; orobat, tipologia holistikoaren barnean, fonologiaren eta hizkuntzaren gainerako alderdien arteko erlazioak errazago bistaritzen. Nago badela bietariko adibiderik aurreko ataletan.

Beharbada, aipatu behar genukeen beste kasu bat erro teoria monosilabikoaren pizgarria litzateke: \*\*TVTV (ikus §1). Erroen fonotaktika bere osoan –kodak eta koda-falta, C- edo V- hasieran...– ez miatuaz 1995 aurreko fonologian ez da hertsapen horren berririk: bai leherkari ahostunak zirela bakarrik hasieran hitz zaharretan, baina ez hortik eskubitara zerekin kombina zitezkeen edo zerekin ez. Halere, ikusi dugu ez dela halabeharra izan zitezkeen 900 erroetarik (are 300etarik, *p-*, *t-*, *k-* eta *d-* kanpo utziaz) hain gutxi lekukotzea eta, batez ere, diren guztiak eratorri, konposatu edo mailegu izatea.

Hitz hasierako V-ugaritasuna ere aipatua izan da aspaldidanik; alabaina, zehaztasunak ez bilatzeaz landa, horren azalpena eta garrantzia ez dira behar bezala plazaratu. Datuak astiroago azalduaz, markatu genuen (ik. Lakarra 1996) V- horiek ez zirela hainbeste jatorrizko lexikoan eta hainbat (zenbait lehen ohartu gabeak) maileguak direla. Alabaina, hitzen eta erroen forma kanonikoa gure egitekoaren guntzat hartuaz, hori ez zen aski eta V- guztiak behar ziren azaldu, AE-rako erro monosilabikoa eta, zehazki, C-z hasi eta -C-z amaitua proposatu baikenuen. Hortik, besteren artean, V- aurrizkiak (\**e-* aditzetako, demagun) lehen baino errazago dira kokatzen ikuspegi orokorrean: hiztegi-tako *e-*, *i-* (eta *j-*) letretan altxor zaharreko sarrera gehienak ez dira etimologikoki V-z hasitako erroak, lehenagoko CVC aditz-erro aurrizkidunak baizik. Bestalde, aurretiaz ezagutzen genituen baino erro (eta aurrizkietako) C- > *ø-* gehiago aurkitu dugu (Lakarra 2009b), bai jatorrizko lexikoan (\**borgen* > \**ogehi* > *hoge*) eta baita mailegatueta ere: *caninu* > \**â.î.û* >... > *hagin*, \**ceru-oin* > \**er(u)oin* > *orein*, etab. Azkenik, V- ugalketa hizkuntza eransleen eboluzioan jazotako fenomeno delako ikasi dugu, hizkuntza dravidikoak begiratzean, esaterako (cf. Rao 1992).

Ezpainetako fonema ahoko bortitzean (eta sudurkarian) duen inbentario hutsuneaz kanpo, Mitxelenaren AE-ko sistemak hortzetako hotsetan du, beharbada, arazorik larri edo ezagunena (ikus Lakarra 2006c). Oraingoan ez da hutsuneengatik, ongi hornitua baita bortitza, ahula, sudurkaria eta are frikari eta afrikatuekin. Daturik ezagunena zera da, *d-* historikoki soilik orainaldiko forma jokatuetan agertzen dela, ez izen, adjektibo eta adberbioetan, non Mitxelenak dioskunez, *l-* bilakatu den zenbait kasutan. Kategoriatan diren *d-* guztiak mailegu eta fonosinbolismoei dagozkie (*dollor*, *damu*,

<sup>204</sup> Honek ez du kentzen, jakina, zenbait mailegu zaharrek ere *d-* > *l-* izatea; askozaz beranduago (eta soilik ekialdeko mailegu modernoetan) errepikatzen da erregela bera: *lizifrina*, *lanjerra*, etab.

etab.)<sup>204</sup>. Bestalde, *n-* gutxi dela esaten zaigu *FHV*-n, zenbait monosilabo (*ni*, *nor*) eta beren eratorriez landara.

Hortzetakoentzat berreraiki litekeen egoerarik zaharrenarentzat ezinbesteko da forma kanonikoei so egitea. Lehen eta behin, “\**d-* > *l-* (salbu aditz jokatua)” bezalako erregela bitxirik nahi ez badugu<sup>205</sup>, behar genuke ikusi zerk oztopatu duen \**d-* > *l-* bilakabide hori “orainaldiko” formetan; beharbada, forma horiek lehenago ez biluzik baizik eta partikularen baten ondotik (*ba*, *ez*, *ahal*...) kokatu izana litzateke erantzuna. Bestalde, aldaketa hori gauzatu da altxor zaharreko gainerako hitzetan, hitz-familien bitartez berreskuratu baititugu lehengo \**dVC* erroak (ik §7.1), izan zitezkeen 25etarik erdiak bai behintzat.

*l-* < \**d-* ez bada aldian behingo kontu huts, orokorra baino, orduan *l-* Mitxelenaren sistematik (hobe, haren aurrekotik) kendu beharko genuke eta orain arteko saioek horretarantz bultzatzen gaituzte, *l-* horietarik gehienak mailegu edo hortzetako zaharragoetarik atereak (nahiz biak batera) baititugu (ikus Lakarra 2010a): §7.1-eko hitz familiez landa, hor dira *letagin* (< \**deta*-*gin* < \**beta*-*gin*), *ledania* (< \**dedania* < \**pedania*), *leka* (< \**teca*), *legen* (< \**dengue*), *leher* (< \**tremere*), *luze* (< \**duz*, cf. (*e*)*utzi*), *lur* (< \**dur*, cf. *andur*), etab.

Hasierako *n*-arekikoek kontraesana dirudite: batetik, markatu dut bisilabo eta polisilabo zenbaitetako *n-* ez dela AE-raino iristen (*neska*, *nagusi*, *negu*, *negar*), dela hitz mailegatuak direlako (gehienak), dela *n-* eskubiko sudurkari baten asimilaziotik datorren bestelako hotsa. Baina garai zaharragoetara, erroaren aro monosilabikora jotzen badugu, aski da *-h-* < \**-n-* eta sudurkari (eta hortzetako) erreduplikazioa konbinatzea hainbat \**nVC* ateratzeko eta azaltzeko: *ahal* < \**anal* < \*(*n*)*a-nal*, *ohol* < \**onol* < \*(*n*)*o-nol*, *ihintz* < \**inintz* < \*(*n*)*i-nin-tz*, etab<sup>206</sup>. Leherkariak silabaren eta erroaren buruan, txistukariak buruan eta buztanean eta ozenak soilik buztanean espero badi-tugu ere, badirudi AE-n /n/ bai *n-* eta bai *-n* gisa genuela<sup>207</sup>.

Lehen (Lakarra 1995)-en ikertu gabe gelditu ziren kontsonante “berriak” (*p-*, *t-*, *k-*, *j-*, *m-*, *f-*)<sup>208</sup> eta bokal “morfologikoak” (*e-*, *i-*) beharko dira miatu, hots horiek fonema gisa bertakotzeko euskal lexikoan ugaldtu diren hitzen jatorria eta kronologiaz jabetzeko. Orain arte dakigunetik susma dezakegunez, ez da zer itxaron soilik maileguak aurkitzea hiztegieta letra horiei dagozkien sarreretan: horiekin batera, inoiz maileguak adina, fonosinbolismoak ere badira, aldaera, eratorri-konposatu eta –kasu hauetan inoiz baino urriago– etimologia ezezagunekoek landa.

Morfemen forma kanonikoan oinarritutako azterketa-lerroa hasikinetan ez bada ere, urruti da agortzetik. Fonologia eta morfologiaren hainbat esparrutan (urrutiagotik syntaxian) bere eragina berebizikoa izan bide liteke, artean baino larri eta emankorragoa nolana ere. Dagoeneko (Lakarra 2008d,

<sup>205</sup> Blevinsek baditu zenbait saio horrelako azalpenen aurka; ikus, esaterako, Blevins & Lynch (2009).

<sup>206</sup> Azkenengoarentzat cf. *indazu*, etab. (ikus Lakarra 2006c); ohar bedi kate etimologikoetan lehen pausuak (\**VhVC* tankerakoak) dagoeneko Mitxelenarenak direla.

<sup>207</sup> *d-*, *t-*, *l-* eta *n-* hitzen ugaritasun erlatiboaz eta beren jatorriaz lexikoi modernoan ikus Lakarra (2010a); markagarria da, noski, *l-*z hasitakoen nagusigoa, azken finean fonemaren antzinasunaren lekuko. Gogoan izan bedi *d-* nahiz *t-* hiztegioko letretan den mailegu berantiar eta onomatopeien portzentaia, horiek baitira askorekin fonemok kokagune horretan bertakotzeko dituzten bide nagusiak.

<sup>208</sup> Cf. Lakarra (2006c), (2010a) eta (prest.-2).

<sup>208b</sup> 187. oharrean aipatu /h/-ren jatorri etimologikoei, seguruenik, gehitu behar zaizkie hainbat *h-* gaskoitik hartu maileguetan (*hedatu*, *hein*, *hobi*, *hodi*, *alhatu*, *arhin*, *elhe*, *olha*, *orhoitu*, *unhatu*, etab.); ikusten denez, horietako nahiz altxor zaharragoko zenbaitek (*ilhaun*, *anhoa*, *erbi*, *arhan*, *erho*...) hVR- > VRh- pairatzen dute (cf. Lakarra prest.-8).

2009d) antzeman dugu ezkerreko partearen azterketa ezinbestekoa dugula, hainbat gertakari kateatzen baitira bertan: Mitxelenak aipatu kontsonante-erorketak, hark eta bestek susmo txarrekotzat zituzten zenbait hasperen<sup>208b</sup>, 2010 –ikus orain Martinez Egurcegui 2010–, yod ugariren garapena, lehenagoko aurrizkien eta silaba egituren higapena... Hainbat eta hainbatetarik, oraintsu arte uste baino fenomeno gehiago eta orotan forma kanonikoak badu zeresanik<sup>209</sup>.

## 8. FORMA KANONIKOAREN ALDAKETAZ<sup>210</sup>

### 8.1. Erro ereduaren aldaketak beste hizkuntza batzuetan

Hizkuntza eta hizkuntza familia eransle ezagunak –uralikoa, turkikoa, mongolikoa, Australiakoak, etab.– bisilabiko hutsak dira erro egiturari dago-kionez; cf. Lakarra (2006a) eta hemen §5. Uralikoan, esaterako (cf. Bakrò-Nagy 1992), morfemen ia %100 dira CV(C)CV, salbuespen urriak ez lexe-mak baizik eta partikula gramatikalak direlarik; izan ere, gainerako familietan legez (ikus Gamkrelidze-Ivanov 1995 I Eraiko) partikula haiek egitura fonotaktiko zeharo ezberdina baitute –usu erabateko ispilu-irudia– izen eta aditzen erro-egiturarekiko, salbuespen baino froga erantsi bilakatzen dira aipatu morfema lexikoen egitura kanoniko bisilabikoari dagokionez.

Kontrakoa esan ohi bada ere, euskara oso urruti dugu uralikotik eta erro bisilabikoko gainerako hizkuntzetarik, hainbat eta urrutiago zenbat eta gorago jo berreraiki litezkeen garaietan: batetik, euskara historikoan *gar*, *gor*, *hor*, *hots*, *hotz*, *sal*, *sar*, *sor*, *zur*, eta antzeko hainbat monosilabo ditugu bere historia eta eremu guztian;<sup>211</sup> bestalde, bisilaboak historikoki nagusi izan arren, haien artean errazki dakuskigu mailegu eta eratorri-konposatuak (ikus §8.5 eta I. Eranskinetako taulak). Azkenik, bisilaboetarik gehienak ez dira gai iragazki geografikorik behinenak gainditzeko eta, horrenbestez, haien zahartasuna oso zalantzarria da.

AE berreraikira jotzen badugu, are haren garairik modernoenera –Mitxelenaren paradigma estandarrena, demagun– erro-monosilabismoa nagusi ez eze ia bakar ageri da arestiko hainbat lanetan dagoeneko erakutsi legez; antzeko zerbait aurkitzen dugu oraindik, milurteko bat beranduago edo, dialektalizazio modernoa baino lehenagoko EBZ-ean. Eta aurrekoa are garbiago bilakatzen da gogoan izanik garai hartako lexikoa osatzeko euskara historikoan lekukotutako erro askeez landa, berreraiketarik datozkigun enparatuak –seguruetara joaz ere ez haiek baino urriago– gehitu behar ditugula orobat: h.d., *\*bel*, *\*dats* (cf. *adats*, *lats*), *\*den* (cf. *atseden*, *eteten*, *edeki*), *\*der* (cf. *eder*, *ler*), *\*din* (cf. *jin*, *dadin*,

<sup>209</sup> Monosilaboetako fonosinbolismoez, §7.5-en esanez gainera, ikus Lakarra (prest.-5) fonosinbolismoen azterketak forma kanonikoaren egitura eta bilakabiderako dituen ondorio eta onurez.

<sup>210</sup> Honetaz ikus Lakarra (2009b).

<sup>211</sup> CDC (*haur*, *laur* edo *gain*) ez aipatzearen. Alabaina, arazoak franko dira (cf. *sei* edo *gau* kodaga-beak) hauetan. Horrenbestez, monosilabo diptongodunak oro eratorri-konposatu edo mailegutzat hartu behar direla deritzot, fonosinbolismoak ez diren heinean, jakina; ikus Lakarra (prest.-3), (prest.-6). Ez dirudi beharrezko, beraz, AE zaharreneko bisilaborik proposatzea eta ez dute hortik gorako erkaketarik –kognatu nahiz mailegu– laguntzen (cf. Lakarra 2010c eta 2011a iberierarekin egindako zenbaitez).

<sup>212</sup> Gertakari honek alde batetik adjektibo eta izenak biltzen ditu eta bestetik aditzak, Asia Hego-Ekialdean tipologikoki ohiko denaren aurka: Adj-V / I; ikus §5ean eta lehenago Lakarra (2006a)-n esanak.



etab.), \**dol* (cf. *odol*), \**don* (cf. *idoki*, *hedoi*, *hidoi*), \**dul* (cf. *ilki*, *jaulki*), \**han* (cf. *ahuntz*), \**nol* (cf. *ohol*), \**zen* (cf. *zezen*), etab.

Euskarak bere iraganean pairatu bide duen [monosilabo] > [bisilabo] erro eredu aldaketaren<sup>212</sup> antzekoari buruzko bibliografia ugariena ez dugu aurkitzen historia ezaguneko hizkuntza eta hizkuntza familietan. Alabaina, interes handienekoa litzatekeen arren, uralikoaren<sup>213</sup>, japonieraren, turkikoaren, mongolikoaren... bisilabismoaren historiaurrea ezagutzea, ezin uka beste hizkuntza oraintsu arte ezezagunago edo tipologikoki urrunago batzuen kasuez egindako ikerketek ere argi egin diezaguketela, Australiako hizkuntzeki-koek, txinerarekikoek edota tanierarekikoek, esaterako.

Monosilabo > bisilabo eredu aldaketa ez da, noski, ezezaguna Australia-ko hizkuntzetan: “Most Australian languages have no monosyllabic words at all (outside interjections)” dio Dixonek (2002: 553), haientzat forma kanonikotzat CVC(C)V(C) eredu aldarrikatzen duelarik. Egile berak erro monosilabo lotuak (batez ere aditzean) badirela diosku, baina jokaturako hitz orok bi silaba dituelarik<sup>214</sup>.

Asia Ekialdeko hizkuntzetan ere bisilaboak konposizioz sortuaz doaz baina erroak argiro monosilaboak –are monosilabo higtuak– direlarik:

Asian languages reveal a continuum from quasi-disyllables [“sesquisyllables”] to highly eroded monosyllables. These variegated states are now understood to be different stages along a common evolutionary path. An overview is proposed, beginning with the earliest stages of monosyllabicization, before the generalization of a strictly monosyllabic phonological structure. The well-documented processes of consonantal depletion which lead to the development of phonation-type registers and tones are set out within a general model. Lastly, phonological evolutions observed at advanced stages of segmental depletion are discussed. The concluding note concerns the aftermath of segmental depletion: the recreation of polysyllables (Michaud 2009: laburpena).

Alabaina, prozesuak noizbait aurrerago ere jo lezake:

<sup>213</sup> Bibliografia zabalduenean horrelakorik gutxitan agertzen denez, komeni bide da jakitea bereziki finougrioren bisilabismoaren historiaurrearen zenbait aztarna aurkitu dutela; hara, esaterako, Bakrò-Nagy-k aitzinfinougrioa hizkuntza eransle gisa berreraiki ohi dela esan ondoren dakarrena (cf. 111. oh.):

On the other hand, there are some clear traces of an earlier stage of PFU that must have been more analytical, i.e. closer to the isolating type. This can be exemplified by the VXS word order (characteristic of the language prior to the stage in which SOV became predominant), the cliticization of personal and possessive pronouns (followed by their agglutination), and so forth (cf. Korhonen 1980, Radics 1985).

Eta forma kanonikoaren aldaketari dagokionez are garrantzitsuago diren hitz hauek datoz ondoren:

Especially the history of the latter paradigms, as well as a number of root morphemes that can be reconstructed together with a (derivational) suffix suggest quite forcefully that some of the ‘root’ morphemes (as reconstructible by traditional methods) may include agglutinated suffixes that might have been free morphemes in an earlier period. As a subsidiary argument, (...) there are PFU roots whose intervocalic consonant corresponds to the first member of an intervocalic cluster in a parallel root (of similar or identical meaning), i.e. //CVC<sub>1</sub>V// + //CVC<sub>1</sub>C<sub>2</sub>V// (...) The C<sub>2</sub> of such clusters may not have belonged to the root in an earlier period but may have been part of a suffix (earlier still, a free morpheme) that had agglutinated to the root (Bakrò-Nagy 1992: 152).

<sup>214</sup> “70en hasieratik uste da bisilabismo orokortuaren aurretik monosilabismoa zela nagusi, hainbat bilakabideren eraginez aldatu zelarik: Dixonek “silaba azentuduna” – “sil. azentugabea” erritmoa eta “erro monosilabikoa + flexio monosilabikoa” > “erro bisilabikoa” (tarteko morfema etena ezabatuz) aipatzen ditu arrazoien artean (1980: 173-174).

The newly created disyllables are at first no more than an occasional association of two monosyllables; as their association becomes more frequent, the speakers' awareness of their compound status decreases, up to the point where the disyllable is no longer perceived as a combination of two identifiable components (Michaud 2009: 13).

Txinerarena bide da erroaren forma kanonikoaren aldaketaz eztabaida eta bibliografia aberatsena sortu duen kasua: garai urrunetan monosilabo nagusien aldamenen bisilaboak ere baziren eztabaidatu da eta baita bisilaboak eratzeko izan zitezkeen arrazoiak, direla soziolinguistikoak, direla bestelakoak, kontzeptu berriak –mailegu eta eratorri-konposatu berrien bitartez– adierazteko beharra, zein bestelako arrazoi fonetiko, morfologiko, sintaktiko edo semantikoez.

Duanmu-k (1997, 1999) erakutsi zuen ezin nahas litekeela erro monosilabikoen nagusigoa eta aspalditik hitz bisilabikoak izatea, are nagusi direlarik garai modernoetan. Hauen gorakada hiztegi berrikuntzatik letorke, mailegu polisilabikoak, itzulpen / kalko polisilabikoak eta sorkuntza polisilabikoetarik hain zuzen<sup>215</sup>. Harentzat hitzen kategoriak –lexikoan bisilabismoa nagusi, gramatikaletan monosilabismoa– eta oin disilabikoa dira hitz luzeraren aldaketarako arrazoiak (ikus 1999: §5).

Feng-ek (1997) bisilabismoaren jatorriaren azterketa lexikoi osora hedatu du<sup>216</sup>. Haren ustez Han dinastiaren garaian lekukotzen dira lehendabizikoz modu masiboan hitz konposatu bisilaboak txineraz, oin prosodikoa horrela bihurtu eta gero, lehengo erro monosilabiko bimoraikoak<sup>217</sup> amaierako kontsonanteak eta kontsonante taldeak galdu ondoren (CVC > CV) ezin baitzion eutsi oin bimoraikoari. Ohiko azalpen teleologikoak alde batera utzirik –usu bisilaboak aldaketa fonetikoek zekartzaten homofonia fenomenoak saihesteko eratu zirela aldarrikatu izan da<sup>218</sup> Fengek fonologia prosodikoa baliatu zuen azalpena bilatzeko orduan<sup>219</sup>:

Given all the analyses above, the origin of compounding can now be described as follows: the phonological change of Old Chinese resulted in a disyllabic foot, the disyllabic foot, in turn, resulted in disyllabic PrWds, disyllabic PrWds are formed by two-syllable phrases given the monosyllabic property of the language, and the two-syllable phrases are idiomatized in

<sup>215</sup> Txinera garaikidean 3000 hitz erabilienetarik %27,0 (809) dira monosilabikoak, %69,8 (2094) bisilabikoak eta %3,3 (98) hiru edo lau silabatakoak (Duanmu 1999: 5).

<sup>216</sup> Lehenago Dai-k (1990) test sintaktiko eta morfologiko zenbaiten bitartez txinera klasikoko aditz bisilabikoak txinera zaharreko aditz askeen morfologizazioak zirela erakutsi zuen. Morfologizazio hori ez zetorkeen aldaketa fonetikoetarik soilik –amaierako leherkariak eta tonu lexikoen murrizketatik– baizik eta galera semantikoetarik eta forma kanonikoaren orokortzetik. Haren ustez, morfologizazio prozesua sintagma bisilabiko koordinatu batetik abiatuko litzateke, sintagma hori konposatu gisa eratuaz, lehenik, eta hizki bilakatuaz, gero.

<sup>217</sup> Rotuman hizkuntzan oin bimoraikoak azentu ezarpenean, erreduplikazioan eta hitzaren tamaina txikienean, konposizioan eta bestetan duen garrantziaz ikus Blevins (1994).

<sup>218</sup> Antzeko argudioa zerabilen bere lanetan Jucquois-ek (1960, 1970-72) Benvenisteren teoriaren aurka; esan gabe doa haren datuak benetakoak ez izateaz gainera, argudio horiek berreraikitzaileek Benvenisteren teoriaran duten fedean ez zutela zimikorik egitea lortu.

<sup>219</sup> Cf. "Note that compound words in Classical Chinese are syntactic words because they historically originated from disyllabic phrases. Compound words are prosodic words also, because they are lexicalized PrWds. This entails that not every phrase can develop into a compound, but only those which meet the prosodic requirements. Neither can any foot be identified as being a compound, but only those that represent an independent syntactic unit, i.e., a phrase. By prosody, only phrases that fit the description of being one foot are eligible to become compounds. By syntax, only feet that represent independent phrases are qualified to be compounds" (Feng 1997: 238-239).

<sup>220</sup> Ikus 238. oh. eta aurreko orrialdeko Michauden azken aipua.

usage, becoming Idiomatized PrWds. When Idiomatized PrWds are lexicalized, they become an  $x^{\circ}$  level category item, i.e., a compound word in the lexicon (...) (Feng 1997: 238-239)<sup>220</sup>.

Mark Postek (2006, 2007b) erakutsi du tanierak –Bangladesheko, Tibet eta Birmania bitarteko tani tibeto-burmera taldeak– bisilabifikazio bilakabideak jasan duela, aitzintanierako monosilaboak konposatu gisa lexikalizatuaz:

The resulting “mismatch” between “phonological words” and “grammatical words” in Galo is argued to be theoretically non-trivial, in that its existence is capable of explaining a variety of otherwise seemingly disparate facts in the synchronic and diachronic organization of Galo grammar (...) Although there might be said to exist a very generalized functional pressure towards “unification” of “phonological words” and “grammatical words”, such a pressure would not be expressible as a formal constraint on language grammar (Post 2007b: 1).

(...) in Galo at least, the driving force behind the diachronic innovation of new word structures may be primarily prosodic, and that the grammar may subsequently restructure itself to accommodate the now-prevailing whord shapes (Post 2007b: 27).

Aitzintaniera Sun-ek berreraiki bezala hizkuntza “morfosilabikoa” genuen (ikus §5), Asia Hego-Ekialdeko hainbat eta txinera zaharra (cf. Sagart 1999) legez; tani hizkuntza modernoak, aldiz, sintetikoak eta eransleak dira hein batean. Hizkuntza horien morfologiaren deriba tipologikoak lexikoi monosilabiko zaharra berregituratu du bisilabismo orokortura eramanez, lehenagoko “kolokazioen” (erro konposatuen edo aurrizki-erroen eraketan) bitartez.

Postek dioenez, tani modernoan ia erro monosilabiko guztiak lotuak dira eta konposatuak eratu edo hizkiak hartu beharra dute (atzizkiak gehienbat) hitz gramatikal gisa jarduteko; alderantziz zen, ordea, aitzintanieran, non erroak askeak izan zitezkeen<sup>221</sup>. Honenbestez, taniera modernoan erraz antzematen dira polisilaboetako lehengo kolokazioen atal monosilabikoak eta, oro har, ez da zail morfologia berreraikitzen antzinako erro lexikoetarik abiatuaz, ez baita gramatikalizatu egia; azkenik, bere iraganeko egitura monosilabikoa tonu lexikoek eta silaba nahiz segmentu egitura sinpleek ere salatzen dute. Ondorio orokor bezala, monosilabo → bisilabo bilakabidearen alderdi fonologikoei dagokienez, hitza hizkuntzaren unitate prosodiko oinarrizko bilakatzen dela markatzen du Postek lehengo silabaren ordean eta, batez ere:

(...) while early sound changes introduced opacity between languages, they preserved the phonological integrity of monosyllabic roots within a given language. However, later changes began to introduce opacity among instantiations of the same root within a given language, which reflected an increase in the basic status of complex polysyllables over simple monosyllables in the Tani lexicon (Post 2006: 45).

## 8.2. Hasperena eta erroa

<sup>221</sup> §5.ean aurreratu legez (ikus 130. oh.), Postek (2006: 43) argudiatzen du –azken 40-50 urteotan inguruko hizkuntza indoeuroparren eragina areagotu arren– eragin zaharren aieru eta aztarna urriak direla eta “sinosfera” zein “indosferako” deriba morfologikoa nekez azal litekeela hizkuntza kontaktu hutsaren bitartez (cf. zabalago Post 2009).

Ikusi dugunez (§5), erro-teoriaren garapenak azken urteotan euskararen historiaurrean erro-ereduen eta hizkuntzaren beraren sakoneko aldaketa orokorra (*drift*) izan dela aldarrikatzen eraman gaitu. Inoiz, txineraren kasuan demagun, zio metafisikoak edo gizartearen behar eta aldaketak aipatu izan dira deribaren arrazoi bezala<sup>222</sup>; alabaina, badirudi (cf. Feng 1997) hizkuntzaren beraren barneko arrazoiak direla nonahi –forma kanonikoaren eta azentuaren aldaketak aipatuki– deribaren funtsezko azalpena eman ahal dutenak. AE-ko erroak, monosilabismo hertsitik, bisilabikoa historikoki nagusi izatera eraman dituzten aldaketak aztertu gogo ditugu, horretarako txineran, munda eta tani hizkuntzetan, Australiakoetan eta bestetan izan diren antzeko kasuez baliatuaz (ik. Sagart 1999; Donegan & Stampe 1983, 2004; Post 2006, 2007b).

Duela urte batzuk Iván Igartuak (2002) hasperena eta erro monosilabikoaren arteko lotura oinarri hartuta egindako saioa berebizikoa da era hone-tako ikerketetarako. Ikuspegi diakronikotik hasperenak euskararen bilakabide aurrehistorikoan bete zuen funtzio demarkatzaile eta prosodikoan eta hasperenaren eta erroaren arteko loturan oinarrituaz, Igartuak (2002: 387) desaspirazioaren prozesua euskal erroak monosilabikotasunetik polisilabikotasunera daraman eboluzioaren epifenomeno gisa aztertu zuen<sup>223</sup>.

Egile berak erakutsi zuen badela euskarriren bat edo beste erro monosilabikoaren aroa, bigarren silabako azentu demarkatzailea eta egungo hizkeren azentua elkarrekin era diakronikoan uztartzeko. Aitzineuskararen morfologiaren bilakaera kronologiko erlatiboa urratsez urrats ordenan jartzeko orduan, ondokoak, bederen, aipagarri beharko genituzke (cf. Igartua 2002: 385-386):

*I. garaia* (AE I): CVR/S egiturako erroak, bestelako egitura ez kanonikoak, hitz gramatikaletan soilik islatuaz (cf. Lakarra 1995). CVRS egituretan -S atzizki. Enparatuko kontsonantez hasten ez ziren erroek nahitaezko zuten hitz hasierako *h-* (*har*, *hel*, *hil*): ez zen V-z hasi ez amai zitekeen errorik. Hasperen batzuk antzinako (baita euskararen aurretiko) herskari *forte*-en bilakabidearen ondorio eta hasperena garai honetan erroari lotua (silabaren *onset*-ean) eta ez azentuaren menpe. Hurrengo garaie-tan ere /h-/ ez da beti azentuaren ondorio.

*II. garaia-a*: Erreduplikazioaren bitartez CVR/S-CVR/S itxurako zenbait erro bisilabiko agertzen; CV egiturako posposizioek eta -(C)V egiturako atzizkiek CVR(C)V eta CVS(C)V multzoak sortzen. Ordurako 2. silabako azentua (Mitxelenaren hipotesia) garatua, horrek esplikatuz 1.

<sup>222</sup> Bitxia da G. Rebuschiren iruzkina AE-ko monosilabismoaren inguruan:

Je me sens par contre un peu moins en accord avec l'auteur [Lakarra 1997b] lorsqu'il tente de reconstruire systématiquement des racines proto-basques monosyllabiques, comme si le basque d'il y a 5000 ou 8000 ans avait été inventé par des esprits simples, au lieu d'avoir probablement une bien longue histoire déjà (2004: 269).

Ez dut antzeko iruzkinik ezagutzen IE zaharren monosilabismoaz edo txinerarenaz, demagun, haiek ere “des esprits simples” liratekeen arren (ala ez?); bestalde, “argudiaketa”-ren akabuko hitzen araberai jabeak oraindik glotogoniaren bat edo –ez dakit “il y a 5000 ou 8000 ans” ala noiz– (?) suposatzen duela dirudi. Zail egingo bide litzaioke inori ofizioko hizkuntzalari historikoen artean hone-lako ezer aurkitzea.

<sup>223</sup> Cf. “Ikuspegi hau bere ondorio logikoetara eramanez gero, aipatutako eta hain ezaguna den desaspirazioaren prozesua euskal erroa monosilabikotasunetik polisilabikotasunera daraman eboluzioaren epifenomeno besterik ez litzateke izango (erroa aldatuz doa, baina ez hasperenari ezartzen zaizkion murriztapenak, erregela bera baita: hasperen bakarra erro bakoitzeko). Proposatutako irakurketak beste hainbat alderdi ditu, jakina, batez ere hasperena eta azentuaren arteko erlazioari dagokiona” (Igartua 2002: 387).

<sup>224</sup> “Hala ere, erreduplikazio osotik ez dago nahitaez abiatu beharrik, hain zuzen ere lehenbiziko momentutik partziala izan zitekeelako” aitortzen du Igartuak hortxe bertan; cf. Lakarra (1995hh).

saileko egitura horien bilakaera: CV-CVR/S (\*goRgór > \*gogór; \*zenzén > zezén; \*dasdás > \*dadás) edo hV-hVR (agian akit. \*hanhan- > HAHAN-NI)<sup>224</sup>. Garai honen hasieran ere erroak ezin ziren V-z hasi: *akher*, *artho* edo *alhor* formak zaharrak badira, \**ha(n)keR*, \**harto*, \**haloR* berreraiki behar. 2. silabako azentuaren garapenak silaba markatua hasperendu: \**ha(n)khéR*, \**harthó*, \**halhóR* (bi hasperendun, silaba ezberdinetan, zilegiak lirateke oraindik akitanieran).

II. *garaia-b*: Erreduplikazioaren ondorioz, CVCVR/S egituretan horzkarien arteko disimilazioa. Emaitzek 2. silabako azentuaren hipotesia bermatzen: \**dedéR* > *edér*, \**dodól* > *odól*, \**dadás* > *adás*, \**dadáR* > *adár*. Horzkariz hasten diren hitz zahar bakarrak aditzaren orainaldiko formak.

\**ha(n)khéR*, \**harthó*, \**halhóR* bezalako formek desaspirazio prozesu bat pairatuko zuten, ordurako erro bisilaboen hedapen indartsuak erro kanonikoa bisilabikotasunarekin lotuko baitzuen: hortik zub. *akher*, *artho*, *alhor*. Aldaketa hauek, agian, aditz aurrizkien sorrerarekin batera, egoera berria sortu zuten, zilegi eginez bokalez hasten ziren hitzak: *akhér* bezalako formak berriagoak badira, ez litzateke arazorik haien agerraldia garai honekin lotzeko (*abar*, *atal*, *elur* eta antzekoekin bezala)<sup>225</sup>. Martineten hipotesia aintzat hartzen bada, 1. silaban kokatutako azentuak –maileguek zekarten azentu motaren eraginaren pean– izan zezakeen agian zeresanik momentu hartan.

III. *garaia*: Lehenagoko zatiketa morfologikoa ilundu ahala, erro polisilabikoak agertzen: *andere* eta *alhaba* (baina cf. Lakarra 2008b 1.az). Euskal erroaren taxonomian aurki daitezkeen egitura guztiak hedatuak hirugarren garai honen une batetik aurrera<sup>226</sup>.

Honaino Igartua (2002)-ko eskemaren laburpena<sup>227</sup>. Gogoan izanik CVC baino erro txikiagorik (morfema gramatikalez landa) ez dugula oraingoz kausitu, eskema horretatik berorren hedadurak diren gainerakoetarako bidea genuke AE zaharretik modernorantz hizkuntzak izan duen bilakabidea.

Zerbait esatekotan zera litzateke, aurrizkirik gabeko edo ia gabeko (aditzekoak bai aipatzen dira) AE du Igartuak buruan, oraintsu arte horretaz aritutako gehienek bezala, ni neu barne (cf. Lakarra 1998a, Gorrotxategi & Lakarra 2001). Aurrizkiak (eta ez bakarrik aditz jokatueta *e*-ezaguna eta bere aldaerak) onartzen baditugu lehen garaietarako –aditz jokatuetik kanpoko–<sup>228</sup> erreduplikazioarekin batera (ikus §3), errazago dateke, beharbada, euskara modernoko V- anitz azaltzea. Horrezaz landa, agian aski litzateke bi garairekin, edo, bestela esan, ez naiz segur oinarri aski den horiek baino gehiago bereizteko. Alabaina, periodizazioan baino kronologian ikusten dut arazo gehiago eta, hemen berton beherago markatuko dugunez (ikus §§8.3-8.4 eta, bereziki, §8.5) erro monosilabikoa ez soilik AE zaharrenean baizik eta oso be-

<sup>225</sup> *hartu* eta *heltu* bezalako formak esplikatzeko geratzen direla iruditzen zaio Igartuari (2002: 386) baina berak ikusten duenez, *-tu* atzikia berria da eta “ordurako, agian, bigarren silabako azentua ez zen hain finkoa izango (maileguen estratu ezberdinek adierazten diguten bezala, erk. *bikbe* vs. *phike* eta baita, akaso, *bake*)”; hortik ez izatea \*\**arthu* (cf. halaber Etx. *har-i-tu*) eta \*\**elthu*.

<sup>226</sup> (edo bisilaboetan lehenengo) silabako azentua era nahikoa sinplean berrinterpretatu zen azkenurreko azentu gisa (Erronkarin eta Zuberoan)” (Igartua 2002: 386).

<sup>227</sup> Beste periodizazio proposamen baterako ikus beherago (§8,5) iruzkindu Martínez (2008a)-koa.

<sup>228</sup> Honegatik ere modernoago dirudite forma jokatuak; erreduplikazioa hedatuago bide da aditzean izenean baino; cf. Moravšic (1977) eta Hurch (arg., 2005). Euskaraz, ordea, arrasto garbiak dira izenean baina ez da horren zantzurik aditz jokatueta, bai aditz izenetan, ordea (cf. *ahal*, *ahantzi*, *ihintza*, etab.); bidenabar, gertakari honek esangurarik izatekotan aditz jokatuaren izaera (erlatiboki) berrigoaren alde egingo luke; ikus §6.3.



randu arte ere izan zela erakusten digute, hain berankor diren euskalkiek ere oraindik horren lekukotasunik baitute; forma kanoniko bisilabikoak, aldiz, AE eta EBZ-erako aukera gutxi dute eta are –esan bezala– hain modernoak diruditen euskalkietan ere (ikus Lakarra 2011b eta Lakarra & Urgell 2008).

### 8.3. Forma kanonikoaren aldaketaren azterna fonologikoak

Erro-ereduen bilakabidean zer ikertu frango den arren, esan liteke forma kanoniko bisilabikorako bidean hizki eta konposatuaren fosilizazioa edota mailagaketa bezalako fenomeno orokorrez landa, izan dela bilakabide espezifikogorik ere, hala nola zenbait kontsonante-metatesi, hasperenketaren ezkerre-ratzea, /n/ eta /R/ batzuen eskubiratzea, bokal asimilazioak edota kontsonante homorganikoen aurkako hertsapenak... Horiek guztiek, bistan da, bisilabo berriaren barneko mugak ezabatzen eta kanpoko ertz berriak indartzen lagundu dute, erro bisilaboen barneko batasunera eta unitate berriaren autonomiaren bidean. Hara forma kanonikoaren aldaketaren zenbait azterna<sup>229</sup>:

- a) Hasierako kontsonante erorketak:  
 .b- > -ø : \**borgeni* > \**ogeni* (> *hogei*), \**bernazur* > \**e(r)nazur* > *hezur*  
 .k- > ø- : \**ceruu-oin* > \**er(u)oin* > *orein*, *caninu* > *hagin* [ikus d])  
 .w- > ø-: *uertere* > *ateri*, *uescor* > *eskatu*, *uoster* > *esker*, *uexanu*  
 > *ezain*<sup>229b</sup>
- b) Heskari metatesiak<sup>230</sup>:  
 .g-n > n-g: \*(*la*)*grima* > \**girma* > \**girna* > \**nirga* > *nigar*  
 .d-p > p-d: *turpe* > \**durpe* > \**burde* > *urde*  
 .d-b > b-d: *timor* >... \**dirbur* > \**birdur* > *bildur*  
 .d-z > z-d: \**edazun* > \**ezadun* > *eza.un* > *ezagun*  
 .p-k > k-p: *bokadu* > \**bokau* > \**poku* > *kopu*<sup>231</sup>
- c) Bokal metatesiak:  
 .a-au > au-a: \**ha(t)s-la(b)ur* > \**haslaur* > \**hasnaur* > *hausnar*  
 .e-au > eu-a: \**e-radun-egi* > \**erauhegi* > \**herauegi* > *heuraegi* > *heura-*  
*gi/-regi*  
 .e-oi > o-ei: \**e-don-i* > \**edohi* > *hedoi* > *hodei*; \**er(u)oin* > *orein*

<sup>229</sup> Orain ez dut zehaztasunik ematerik; ikus Lakarra (prest.-1), (prest.-2) eta (prest.-5), gehi hemengo II. Eranskina. Inori ez zaio ezkututzen aldaketa horien kronologia erlatibo batek lukeen interesa; badirudi, adibidez, *-rm-* > *-r-* “r eskubira” eta *-n-* > *-b-* baino lehenagokoa dela. Orobat, *w-* > *ø-* bilakabideak zaharra behar duela, beharbada latinetik euskarara igarotako hitzek pairatutako lehena eta aitzinerromantzeko *w-* > *b-* baino lehenagokoa.

<sup>229b</sup> *Alu*-rentzat ikus II. Eranskina; han esandakoari erants bekio *-b-* > *-ø-* bilakabideak berankorra izan behar duela, bestela \*\**aru* baikenukeen.

<sup>230</sup> Hemen esandakoa zehazteko eta zabaltzeko ez zen artean metatesiaz monografia edo lan on ez txarrik, alorra landu gabe baitzen ia erabat; orain Ander Martínez Egurceguiren (2010) master tesi bikainera jo liteke.

<sup>231</sup> Lakarra (2009b)-n *gidal* eman nuen *d.g.* > *g...d...* metatesiaren adibidetzat; ez da, ordea, horrelakorik: cf. gazt. *guedeja*.

<sup>232</sup> Ikus 187. oharra eta dagokion testuan. Han aipatzen den lan batean (Lakarra prest.-8) zabalago miatzen da Mitxelenak behin baino gehiagotan aldarrikatu zubereraren monosilaboetako ustezko *b-* gehiketa. Bada, batetik, horrelako *b-*rik *Z-tik* landa (Etxeparek baditu *hon* eta *hur*, bigarrena Luzaiden ere ezaguna da...); bestalde, \**r* > *-h* aldaketa \**b...h...* > *ø...h...* ezagunarekin eta aldaera luzeen *b-*galtzeko joerarekin –cf. §7.3-ko Mitxelenaren beraren aipuak– batera hartuaz, zahartzat eman genitza ke hVC monosilaboak eta berankortzat VC aldaerak.

Honi guztiari, noski, erro eredu zaharraren CVC egitura gehitu beharko genioke, dagoeneko 1995ean azaldu bezala, hori baita erro lexiko zaharrek duten tamaina gutxienekoa, \*\*VC zein \*\*CV ezinezko zirelarik AE-n. Nolanahi ere, argudio askeak dira aurrekoak eta hau, elkarren osagarri zuberezko (eta BN-ko) *b-* horiek zahartzat emateko orduan.

- d)  $*h_3 / *h_2 > h_1$ : *hagin* < *\*hain* < *\*ahiun* < *\*abinu* < *caninu*, *harea* < *\*areha* < *arena*, *herio* < *\*eriho* < *\*e-lin-o*, *heuskara* < *\*ehuskara* < *\*e-nus-kara*, *hezur* < *\*ehazur* < *\*enazur*, *hibai* < *\*ibahi* < *\*hu(r)bani*, *hidoi* < *\*idohi* < *\*hu(r)doni*, *hodei* < *\*edohi* < *\*e-don-i*, *hoge* < *\*ogehi* < *\*(b)o(r)gehi* < *\*bor-gen-i*<sup>232</sup>.
- e) *r* eskubira:  
*presepre* > *\*barz(e)per* > ... > *bazter*; *\*craine* > *\*airne* > *aiher*; *tremere* > *\*derme(tu)* > *\*lernetu* > *lehertu*; *\*nirga* > *nigar*; *\*hatz-zarpa* > *atzapar*.
- f) *-n* kodan:  
*deffendere* > *\*bende(tu)* > *\*beden(du)* > ... > *geben(du)*; *offende(re)* > *\*obeden* > *\*oben* > *\*obehe* > *hoben/hogen*, *etab*.
- g) Kontsonante homorganikoen aurka<sup>233</sup>:  
*sazón* > *sasoi*, *solaz* > *solas*, *zin-hets-i* > *sinhetsi*, *so-egotzi* > *sorotsi*, *\*buru-bar* > *burar* > *bular*, *berar* > *belar/bedar*, *\*erardun* > *inardun*, *\*irarrosi* > *inarrosi*.
- h) Bokal asimilazioa:  
*(h)azkar* < *hazi-kor*, *zahar* < *\*zan-or* (?), *zuhur* < *\*zun-or* (?), *bete* < *\*bada* + *-te*.
- i) /g/-ren gehiketa hiatuetan:  
*hagin* < *\*ha.in* < *caninu*, *hogen* < *\*ho.en* < *offende(re)*, *nagusi* < *na.us-i* < *\*da-dun-tz-i*, *geben(du)* < *\*be.en(du)* < *(de)ffende(re)*, *bigun* < *\*bi.un* < *finu*, *igerrri* < *\*eu.erri* < *\*edun-berri*, *jagon* < *\*ja.on* < *\*e-da-don*, *ugatz* < *\*u.atz* < *\*edo(n)-hatz*.
- j) trisilabo eta polisilaboen kontrakzioak:  
*aulki* < *\*abedulki*, *hogen* < *\*ho.en* < *offende(re)*, *jabe* < *\*e-da-dun-e*, *bazter* < *presepre*, *zemai* < *menaza*, *hezur* < *\*enazur*, *gurdi* < *\*egur-gi*, *jagon* < *\*e-da-don*, *hagin* < *\*ha.in* < *caninu*<sup>234</sup>.
- k) lehen osagai amaierako bokalen neutralizazio eta erorketa:  
*ogi* > *ot-*, *aza* > *aza-*, *idi* > *it-*, *larre* > *larra-*, *buru* > *bur-*, *lore* > *lora*, *errege* > *erret-*, *baso* > *basa-*, *iturri* > *itur-*, *asto* > *asta-*, *eliza* > *eliz-*.

<sup>233</sup> Mitxelenak markatu ez arren –zein bere aldetik tratatzen baititu ozen disimilazioak eta txistukari asimilazioak–, oso garrantzitsua da fenomeno hau, hertsapena erro-mailakoa delarik, erroen hedadura eta muga berriak erakusten baitzizkigu.

<sup>234</sup> Mitxelenak FHV-n *saiets*, *oier*, *aien*, *ciar*, *oian*, *etab.*, *saihets*, *oiber*, *aihen*, *eihar*, *oihan* eta enparatuak baino zaharragoztat eta *b*-ren diptongo ondoko hedaturatzat eman arren, Lakarra (2009c)-n erakutsi uste dugu ez dela horretarako arrazoirik. Hasteko, Mitxelenak ez du hitzotaririk bakar baten etimologiarik ez azalpen konkreturik ematen eta, aldiz, seguruenetan (adib. *saihets* < *\*sa-* [cf. *samin*, *sabai*, *sabel*, *etab.*] + *hets* [< *herts*], *oiber* [< *brogne*], *eihar* [< *cremare*], *aibotz* [< *afodz*, cf. *gazt. hoz*]... /h/ da etimologikoa eta *-i-* gehitua, inoiz lehenagoko sudurkari sabaikari baten berranalasiar [\*VñV > \*VinV > VihV]. Bestalde, baliteke gainerakoetan *-i-* horren gehiketa hitz eraketan ematen diren *-i-*ren erorketen erregelaren bihurtzea izatea (cf. *Ibaeta* < *hibai* + *-eta*), *haundi* (cf. *arkitu*, *alki*) edo *lora*, *-la* (*-ea* < *\*-e* + *-a* / *\*-a* + *-a*) bezalatsu.

<sup>235</sup> Ez dira bakarrak: a) C disimilazioa: *duzti* > *guzti*, *\*(e)gurgi* > *gurdi*; b)  $\emptyset > z / T_1-T_1$ : *\*duti* > *duzti*; *\*bibar* [< *\*goi-bar*] > *bizkar* (cf. *dituzte*), *etab*.

Ozanne-Rivierre (1995)-en aurkitu ahal dira hainbat egitura aldaketa Kaledonia Berriko hizkuntzen erro-kanonikoetan: “1. Retention of P[roto] Oc[eanic] final consonants”, “2. Nonetymological final consonants”, “3. Final POC vowels: retention or loss”, “4. Prothetic *y-* before initial *\*a*”, gehi beste hainbat kontsonante aldaketa; ikus Ozanne-Rivierre eta Rivierre (2004) ere. Halaber, Sneddon (1993)-ren titulua ezin adierazgarriagoa da: “The drift towards final open syllables in Sulawesi languages”.

Sanskritotiko hitzek kanbodieraren forma kanonikora egokitzeke dituzten aldaketek ikus Martini (1954).

Esan gabe doa, aurreko bilakabide gehienak<sup>235</sup> ez direla soilik bisilaboetan gertatzen baina hauetan ditugu polisilaboetan baino ugariago; bestalde, bada beste zenbait bilakabide ere *–voluntate > ... \*ololde > olde* haplogogia bezala– erro soil bisilabo (eta V-...-V !) berrien sortzaile.

#### 8.4. Forma kanonikoaren aldaketaren azterna morfologikoak

Fengek txinerazko hitz disilabikoen historiaurrean oinarriturik (ik. 219. oh.) eta Postek tani hizkuntzen aldaketaz mintzo (§8.1) dioskutenez, morfologia analitikoaren higadura eta opakotasuna dakar forma kanonikoaren eraberritzeak; horrekin batera, baita polisilabismoaren estatusaren gotortzearen aldeko bilakabideen areagotzea ere. Forma kanoniko monosilabikoaren aldaketak euskaraz utzi dituen aztarnak bilatzeko lehen saioetan, §7.4-n ukitu ditugun morfologiaren fonologizazioetara jo gabe *–argudiaketa zirkularraz* edo aitzakiarik izan ez dadin– bestelako gogoetaren bat egin nahi nuke<sup>236</sup>.

AE zaharrea hitz eraketa aurrizkietan, erreduplikazioan eta *–jakin egin behar zein neurritan–* konposizioan oinarritzen bide zen funtsean (ik. §§3.2 eta 7.1.), atzizkiren batzuk ere izan zitezkeelarik, hauetakoak are aurrizkidun hizkuntzetan ere baitira Bybeek, Hymanek eta bestek erakutsi dutenez (ikus adibidez, Bybee *et al.* 1990 eta Hyman 2005). Erreduplikazioa itxura guztien arabera amaitua zen (ez zen dagoeneko prozesu emankorra) AE modernorako: ez dugu, esaterako, garai horretarako C<sub>1</sub> gisa sortua eta zabaldua zen *l-* fonemari legokiokoen *\*\*V<sub>1</sub>rV<sub>1</sub>C* gisakorik, horren aurretik zen *\*d-* batek dituen *\*(d)V<sub>1</sub>dV<sub>1</sub>C* aski ugarien *–baina zaharragoen–* aurrean: *adar, adats, eder, odol*. Hortaz, AEBaren aurretikoak bide ditugu *zezen, gogor, ahantz, okots* eta beste eta CVC erro soilen aldamenen bagenituen segurki hainbat (C)VCVC ere, lehen enbor [AURRIZKI-ERROA] eta gero erro soil analisaezinak.

Orobat, seguruenik aurrizkiak agortuak bide ziren AE modernoan, IS-n bederen, eta beraz *sabel, samin, gizen, gibel, labur, labar* eta antzeko gehiago ez ziratekeen sortu ahalko engoitik (ikus 188. oh.); aditzean, *\*e-* erantsiaz sortuen azken garaietan bide ginen, K.o.ko III-IV. mendeetarako baitirudi horrela gauzatutako haboro ez zela: hori erakusten digu *\*\*hVC* aditz errorik ez izateak eta bai, aldiz, ThVC erroak (cf. 165. oh.).

Erreduplikazioetarik zein aurrizkietarik sortutako enborrak (C)VCVC genituen, bada, eta AEZe funtzionalak ziren bi prozesuak agortzerakoan hiztunak ez bide zuen horien barne analisia antzemango dagoeneko. Horrenbestez, AEBan lehengo CVC erro (ez enbor) bakarrari CVCVC *–eta VCVC hein laburragoan–* gehitu bide zitzaizkion orduan.

Bilakabide honen ondorioak erraz antzeman litezke erro-ereduak analisatzeko egin lanetan (ikus Lakarra 2002a, 2004a eta hh.); hara, esaterako, Lakarra (2010a) hortzetako kontsonanteekin hasi erro-ereduez: hor ikus genezakeenez, *l-* erro ereduak hornituagoak dira (5) atalari (“etimologiagabeak”)

<sup>236</sup> Egia esan, etimologia berriek delako zirkularitate hori edo beste edozein konpondu ohi dutela deritzot; horrenbestez, han aztertu *j-* zein erro/enbor hasierako *R-* eraketa edo aurreko ataleko zenbait diptongo (*–doi*) edo hiatorenak (*–ri.o*) erakusten digute morfologia monosilabikoa eta horren fonotaktika suntsituaz eta polisilabikoa indartuaz zihoala.

Halaber, *erle* eta *ezti* familiakotzat ematean Sabinok *–behingoz–* asmatu zuela dirudielarik, begibistakoa da lehendabizikoan *–le* atzizkia nekez *egi–legile, begira–begirale* eta gainerakoetan baino zailagoa dela isolatzen aurreko hotsak pairatu aldaketagatik. Antzeko zerbaite esan bide genezake *bele-*ko *\*–le-ri* buruz (cf. 195. oh.): honetan *erle* ere lagungarri bilakatzen da, noski.

eta (3).ari (“eratorri-konposatuak”) dagokienez, *d-*, *t-* eta *n-* erduetakoak baino; gainerakoak emankorrakoak, aldiz (1).ean (“maileguak”) eta (4).ean (“fonosinbolismoak”). Bestalde, *l-* erduen artean IVCVC da enparatuak baino ugariago (5) eta (3) sailetan; halaber, IVCV da askorekin ugariena maileguetan *l-z* hasitakoen artean eta dVCCV, tVVCV eta IVCV orobat gainerako letratan. Horrenbestez, gehiegizko ausardiarik gabe esan genezake CVCVC genukeela erdurik zaharrena *l-* hotsa duten bisilaboen artean eta *l-*dunak lireratekeela zaharrenak hortzetako hasiera guztiak kontuan izanik. Aurrekoari eranstekoa dirudi (3) saileko eratorri-konposatuen emaitzek ere bide berean garamatzatela: IVCVC dugu nagusi *l-z* hasi erro erduen artean eta *l-z* hasiak ditugu gehien hortzetakoak oro gogoan harturik. Bada, IVCVC erduaren antzintasuna *d-* > *l-* bilakatu baino lehenagoko aurrizkiei zor zaizelarik hein handi batean, berretsirik gelditzen da erdu bisilabiko zaharrenak aurreko aurrizkien fosilizaziotik sortuak direla<sup>237</sup>.

Beraz, badira zenbait erro bisilabo –hots, lehenagoko beste hainbat enbor bisilabo– AE berrian; alabaina, erro erdu bisilabikoenak zatirik txikiena dirudi enbor guztiak buruan, eta, gainera, enparatuko bisilaboei berankor dirudite: *gorri*, *zuri*, *hori*, etab., zatigarri ditugu askozaz beranduago ere *gor*, *zur*, *hor* bizirik ditugun bitartean. *Alu* (VCV < VCCV), *eske* (VCCV < CVCCV), *esker* (VCCVC < CVCCVC) mailegatuak ditugu eta *otso* edo *etse* (VCV) ondare zaharrekoak baina (eskubiranzko!) eratorpena aldean daramatela: *\*hor-tz-so*, *\*her-tz-C* (< CVCCCV); ez litzateke harritzeko, bada, horiek pairatutako zenbait aldaketa –*\*hVr-* > *\*hVh-* > *\*∅Vh-* > *\*∅V∅-C-* seguruenik Erdiarotik gertuago izatea (Erdiari berankorretik, zehatzago) akitaniera edo EBZ-etik baino; cf. Lakarra (2009b) eta (prest.-9).

### 8.5. Bisilabismoaren berritasunaz<sup>238</sup>

Bisilabismoa ez soilik garai historikoan baizik eta are aurreko AE zaharraz geroztiko orotan ere (AE modernoan, akitaniera, EBZ, Erdiaroko euskara) hizkuntzak bere izan duela aldarrikatu arren Martínez Aretak (2008) –eta lehenago Igartuak, ikus §8.2–, esango nuke forma kanonikoak askozaz beranduago pairatu zuela monosilabo > bisilabiko bilakabide orokorra. Goian (§5) tipologia-aldaketaren lekuko gisa aipatu ditugun ezaugarrien kronologia mia

<sup>237</sup> Testuan argitu arrazoiengatik hemen ezin da \*IVC-ren erreduplikaziorik erabili, bai, ordea, beste kontsonante batzuen. AE modernoan edo hortik hurbil aurrizkiak fosildurik zirela beste bide batez ere antzeman ahal izan da, Lakarra (2006c, 2009d)-n erakutsi bezala. Alegia, aurrizki → atzizki bilakabide zenbait ere izan da; ez da, soilik, aurrizkiek funtzionaltasuna galdu eta horien ordezko funtzional gisa nahiz aurrizkiekin inongo loturarik gabeko atzizkiak garatzea. Hori da zenbaitekin, –gehienekin seguruenik–, gertatu dena, baina badira zenbait ezkerretik eskubira materialki igaro direnak ere:

*Gi-* → *-gi*: *gibel*, *gihar*, *gizen*; cf. *haragi*, *arraiki*, *ahariki*...

*Za-* → *-z(a)*: *zabal*, *zakar*; *zabar*; cf. *hondartza*, *datoz*, *dabiltza*...

*\*Da-/la-* → *-dal-/l-/la-/ra-*: *\*e-da-don* (> *jagon*), *\*da-bur* (> *labur*); cf. *bezala*, *etxera*, *mendirat*,

*\*De-/le-* → *-de-/te-/le-*: *lekarke*, *letorke*; cf. *date*, *elurte*, *egile*.

Aitzin-munda eta aitzin-austroasiatikotik mundara bidean (ikus Donegan 1993) eta somalian (ikus Biber 1984) ere bada, gutxienez, fenomeno itxuraz bitxi honentzat bibliografian deskribaturiko paralelorik.

<sup>238</sup> Ikus Feng (1997) berebizikoa txinera zaharren bisilaboen irakurketa sintetikoaz eta analitikoaz eta monosilabo > bisilabo bilakabideaz. Neurri batean ideia horiek Martínez Aretak (2008a) euskararen bilakabideari ezarri zizkion baina bada oraindik sakondu eta zehaztu beharrekorik.

bageneza, ohartuko ginatke eransletasunarekin edo SOV ordenarekin gainerako hizkuntzetan lotu ohi direnak akitaniera-ondokoak edo Erdiarokoak bide direla antzeman ditzakegun neurrian: leherkari ahoskabeak hasieran, bokal sudurkariak, izenaren ezkerreko esaldi erlatiboak, atzizki urriak... Beste zenbait ezaugarri harrapagaitz ere (ergatibo marka eta gainerako postposizioak, aditz-multzoa, adjektibo kategoria hornitua (antzinako aditz estatibo, eratorri eta maileguen bitartez ugaldua)..., ez dira nahita nahi ez akitaniera baino askozaz aurreragokoak eta, beraz, Mitxelenaren AE edo goragokotzat jo behar liratekeenak. Hortaz, baliteke deriba ez izatea AE-ko, funtsean, akitanieratik Erdiarora bitartekoa baizik, eta are modernoago zenbait puntutan<sup>239</sup>.

Nolanahi ere, orain arte ikusitakoa ez bide da aspaldi hasitako prozesuaren amaiera edo gailurra baizik. Hots, Donegan eta Stamperi kasu egiten badiogu milurtekotan neurtzen diren prozesuak ditugu hauek eta akitaniera eta Erdiaroaren bitartean burutu edo burutu-itxurara iritsia askozaz lehenago hasia bide zen, AEZ-eko morfologia zaharraren fosilizazioarekin (cf. §8.4), esaterako:

Reversals of rhythm and word order, as in Indo-European and in Munda, are not very common in the world's languages. Niger-Congo (Givón 1975) had a progressive shift like Indo-European –falling to rising and head-last to head-first. Tibeto-Burman, given the prefixing character of Proto-Sino-Tibetan (Benedict 1972), may have had a regressive shift like Munda –rising to falling and head-first to head-last. *A regressive shift entails the construction of an inflectional system (section 3.3), and surely takes far longer than a progressive shift. Judging from the time depth of the far less complete reversal of the type in Indo-European, Munda must have a time depth of several millenia* (Donegan & Stampe 2004: 16; etzana neurea [J.A.L.]).

Bestelakotan sartu baino lehen, aipatu monosilabo eta bisilabo soilen hedadura geografikoa bisilabismoaren antzinatasunaren aurka doa: erro monosilaboak zatiketa dialektala baino (askoz) lehenagokoak dira eta bisilaboak (gehienak), aldiz, hori baino beranduago sartu edo sortu dira eta, batez ere, EBZa baino beranduago ugalduta dira, diren baino arrunt orokorrago baitziratekeen bestela. Mitxelenak (1981) EBZa K.o. V-VI. mendeetan jarri zuelarrik EBZ hori eta X. mendean dialektalizazio arrasto zaharrenak, bisilabismo orokortua (hots, benetako forma kanoniko bisilabikoa) gutxienez lehen data baino beranduagokoa litzateke, eta, beharbada, baita bigarrena baino ere<sup>240</sup>.

Argudio geografikoei bestelakoak ere erantsi ahal zaizkie. Batetik, bisilabo modernoetan bada hainbat aldaketaren arrastorik; aldaketa horiek (lehen osagaiaren amaierakoak bereziki) ez AE zaharra zein berriaz geroztiko soilik, are akitaniera baino beranduagoko dira. Lekukotasun zuzenen (eta Straka

<sup>239</sup> Ezaguna da IS-ko postposizioak modernoak direla eta gramatikalizazio eskasekoak egungo egunean ere; kasu-markak eta enparatuak ere berankorrek dira, batez ere pluralekoak. Artikuluaren gramatikalizazioa bera x. mendea baino askozaz lehenagokoa ez dela erakutsi du Manterolak (ik. 2006 eta 2008); Hispaniako erromantzeetan VIII.az geroztikoa dela ezaguna genuen dagoeneko 1961eko Lapasaren lanaz geroz. Eratorpen marken berankortasunaz ikus Lakarra (1997a), Sarasola (1997) edo Bueno (2004).

<sup>240</sup> Lakarra & Urgell (2008)-n eta Lakarra (2011b)-n erakutsi dugu bi dialekto –eta honek ezinbestean balio du euskararen dialektoentzat ere– halabeharrez baino ezin izan litezkeela garaikide eta (beti isoglosa berberak kontuan harturik ere) beren mugak Adam eta Ebarengandik mantentzea sinistezina dela.

<sup>241</sup> Ikus Guitier (1989) eta orain Reguero (2010).



edo Pensadok egin bezalako kronologia erlatiboan) faltaz<sup>241</sup>, ezin zehaz genezake oraingoz III eta X. mendeen artean “akitaniara ondoko”-k noizko esan nahi duen, baina baliteke EBZeko edo are geroztiko izatea.

Har ditzagun TVTV, TVRV, zVCCV, TVSV eta mVVCV, bost erro eredu bisilabiko ugariak. Horien garrantzia ulertzeko, esan dezagun bosten artean I. Eranskinako 48 erro-eredu bisilaboetakoetan<sup>242</sup> gauzatuen %33,35 direla (467 / 1400). Bada, gauzatu bisilaboon %64,28 maileguak dira, zalantzarik gabe –eta horrek gora baino ezin egin lezake–, eta erro eredu horien zahartasunaz susmoak lehen ere bagenituen; ohar bekie bigarren silabetan falta dituzten kodei: nekez sines genezake horrelakorik zenik euskara zaharrean, AEZ zein AEB-n (ikus §4.4.).

Atera, CVCV erro berriren bat atera liteke eratorpenez CVC + -V atzizki-egituratik eta hori gertatzen bide da eredu horietan lekukotutako zenbaitekin (*barru, gazi...* adib.); alabaina, neke da eratorri horien zahartasuna defendatzea gehien gardenentasuna (*bage, bako, batzu, gorri, larri, peko...*) eta askoren hedadura dialektal eskasa kontuan izanik. Bestalde, eratorrien kopurua ez da soilik maileguena baino laburrago (1/3 eta 1/15 bitartekoa!) baizik eta baita fonosinbolismoena bainoago; horrenbestez, erro-ereduarentzako hau ere hedadura-bide –eratorri-konposatuena baino garrantzitsuagoa– dugu (cf. §7.5 monosilaboentzat)<sup>243</sup>.

Bada oraindik beste hirugarren argudio-bide bat erro-eredu bisilaboen zahartasunaren aurka. Zentzuzkoa dirudi soilik eratorri eta konposatu trisilabo eta kuadrilaboak hedatu ondoren baino ez segurutzat ematea oinarri bisilaboak, edota, gutxienez forma kanoniko bisilaboak zabalak zirenetik aitzina. Trisilabo eta kuadrilabo horiek hain garden eta berri dira –eta hain agerikoak horietan Erdiaroko hitz-eraketako erregelak– non hizkuntzaren bilakabidean oso modernoak diren funtsean<sup>244</sup>, (are berankorrako erro soil gisa) eta nekez gonbara litezkeen monosilaboen antzeko bilakabideekin.

Aztergai hau itxiztat emateko goizegi den arren, askozaz frogatuta eta aukera gehiago aurkitzen dut forma kanoniko bisilabikoaren data berankorraren ezen ez goiztarraren alde; erdiarokoa antzinate zaharrekoa baino areago, ez

<sup>242</sup> Hots, lekukotuei (2) “aldaerak” eta (3) “konposatu-eratorriak” kendu ondoren.

<sup>243</sup> Zehaztasun handiagoak hurrengo baterako utzia, so egin diezaiozun erro-ereduetako maileguen geografari: ugariak (TVTV, TVRV, TVSV) har bagenitza, bertan 220 bat mailegu aurkitzen dugu, horietarik erdiak baino gehiago orokor izatera iristen ez direlarik. Eredu horien artean forma kanonikoa izatera iritsi zen lehena TVTV izan zela pentsa genezake eta gero gainerakoak (beti ere maileguetan beste ezertan baino gehiago oinarrituaz). Ondorio hau egiantzekoa da baina ohar bedi maileguen geografian oinarritutako kronologiak baduela ahuldaderik: jatorrizko lexikoan “orokor” sailkapenak “batasun dialektala hautsi aurreko azken aitzinhizkuntzako” esan nahi du funtsean (berrikuntza amankomunak alde batera utzia orain). Hori ezinezko da mailegaketarekin, erraz baita azken ordukoak zaharragoak baino eremu zabalagoetara hedatzea edota, elkarren aldamenen ez diren dialektotara hedatuaz AE-ko edo EBZ-ekotzat hartu beharra mekanikoki arituaz ikertzailea.

Ez da, jakina, *baba, bago* edo *bake*-ren kasua, ezta, seguruenik, *butzu* eta *gozo*-rena ere; ez naiz horren seguru *bila, bilo, dallu, dorre, gona* edo *kisu*-rekin eta, (ez) noski, *pare, tira, koba, paga, thorra, ke-xa, petxa* edo *totxo*-rekin.

<sup>244</sup> Ikus Azkarate (1990) ikuspuntu sinkroniko (eta, neurri batean, pankroniko) batetik.

<sup>245</sup> Uler bedi data hori prozesu luze baten amaiera gisa; izan ere, -L-, -N-, -R- bortitzak -CC- talde heterosilabiko eta –erro monosilabikoaren teoriaren barnean–, hetero-morfemikoetarik badatoz, kontsonante bortitzak (edo lehenagoko talde geminatuak) amaitzen du erroa eta beste morfemaren (2. erro bat, aurrizkia, atzizkia) arteko etena, hortik aurrera erro bakar bisilabikoa dugularik. Noiz hasiko fenomeno hau? AE klasikoaren aurretik, jakina; hortaz, FK monosilabiko > bisilabiko bilakabideak milturteko bat eta erdi edo gehiago izan lezake bere osotasunean betetzeko.

milurteko bat edo milurteko t'erdi lehenagokoa; kronologia hori, gainera, egoki lotzen da hizkuntzaren deriba orokorrarekin ere<sup>245</sup>.

Atal honetan (§8.1) erro monosilabo hertsia nagusiki bisilabo bilakatze-ko jasan dituen aldaketak zirriboratu nahi izan ditugu, txinera, munda edo tania gogoan harturik. Aurrizki- eta atzizki-fosilizazioaz eta konposaketa-ete-  
nen ezabaketaz landa edota mailegu bidez hartu diren erro ereduez gainera, bilakabide espezifikagoak ere erakutsi ditugu, hala nola hainbat kontsonante meta-  
tesi, hasperenketaren ezkereratzea eta sudurkari eta dardarkarien eskubiratzea, bokal asimilazioak zein kontsonante homorganikoen aurkako hertsapenak (§8.3). Honek guztiak bisilabo berrien barneko muga zaharrak ezabatu eta on-  
dorioz ateratako erro berrien uniformetasunaren alde egiten du; itxuraz ezberdi-  
na dirudien hiatuotako /g/-ren garapen (moderno) ere zuzenbide bereko –for-  
ma kanoniko berriaren aldeko– bilakabidearen partetzat hartu behar ditugu<sup>246</sup>.

Erro monosilabikoaren teoriaren eta, zehatzago, forma kanonikoaren al-  
daketa inguruko ikerketaren emaitzen artean badira euskararen berreraik-  
eta diakroniarentzako garrantzitsu izan litezkeen zenbait:

1) itxuraz anabasan edo zein bere aldetik diharduten –eta erroen forma kanonikoa monosilabo izatetik bisilabara daramaten– hainbat aldaketa fo-  
nologiko (segmental eta prosodiko) nahiz morfologiko modu sakon eta lo-  
tuagoan ulertzea. Noizbait, hala biz, ikerketa bide honek hizkuntzaren histo-  
riaurrearen kronologia eta periodizazio egokiagoa erdiesten lagun bide gaitzake.

2) Lafonentzat eta besterentzat hain nabar zen aditz-enborra zehaztea, polimorfismo historikoa CVC erroa eta, hala dagokionean, \**e*-orokorraz gai-  
nera, \**da-*, \**ra-* eta are \**da-ra* aurrizkiak isolatuaz (cf. §6).

3) forma kanonikoaren aldaketaz ohartzeak laguntzen gaitu ehundaka eti-  
mologia eskuratzen, beren artean dozenaka mailegu ezezagun edo aurretiaz gaiz-  
ki azaldutakoak<sup>247</sup>, aspaldi fosildutako aditz eta izen eratorri ugariarekin batera.

4) maileguek –erro eredu bisilabo ugarienetan lekukotutako hitz soilen ia 2/3 dira– bisilabismoaren hedaduran eskuahartze larria izan dute, eskas, urri,  
argi eta, beraz, berankor, diren eratorri eta konposatuek baino askoz larria-  
goa, noski (cf. §4.3).

5) Aurreko datu eta gogoetek dioskutenez, bisilabismoa forma kanonikotzat  
soilik aitzineuskara ondolik nagusitu bide zen, Erdiaroan edo hortik gertu<sup>248</sup>.

## 9. ONDORIOAK ETA EGITEKOAK

Noan, ez itxita baizik eta zirriboraturik plazaratua, edo hoberenean ere etorkizun hurbileko ikerketentzako aurkeztua (hala itxaroten dugu, bederen)

<sup>246</sup> Baita desaspirazioa eta azentuaren kokapen aldaketa ere, noski. Azkenaz besteren batean aritu nahi nuke zehatzago, baina artean ikus §7.3 eta hango erreferentziak. Bidenabar, esan dezadan gure azentologoek ez dutela beti bilatu Benvenistaren ustez konparatistaren, –hots, hizkuntzalari historiko-aren– ardura nagusi izan beharko zukeena, kronologia eraikitzea, alegia.

<sup>247</sup> Bistakoa denez, mailegu asko hain ongi egokitu dira euskarazko forma kanoniko moderno-  
goetara non jatorrizkotzat jo izan dituzten hitzunik zein hizkuntzalariek; ikus Lakarra (2011c).

<sup>248</sup> Lan honetan zein 1995az geroztiko guztietan, beti ere forma kanoniko zabalduenez aritu gara, ukatu gabe kopuru ia baztergarrian (ikus I. Eranskinetako taulak) –eta soilik gure analisiaren eskasiaga-  
tik, ez berez horrela direlako– bisilabo edo polisilaborek badela. Alabaina, azken hamar urteotan ho-  
rrelako analisi-hondarrak esponenzialki jaitsi dira eta ez dut ikusten zergatik gelditzen diren urriak ez  
zaizkion bide berari jarraituko; cf. Lakarra (prest.-3) eta (prest.-4). Orobat, gogotan dugu lexikalizatu ga-  
beko bisilaboen “irakurketa sintagmatikoa” (cf. Feng 1997 txinera arkaikoarentzat).

gelditu den erro monosilabikoaren teorian oinarrituriko gure hurbilketa honen puntu batzuk bilbatzera. Ezer baino lehen –dagoeneko Lakarra (1998a)-n markatu genuen legez–, badirudi hizkuntzalaritza historiko eta konparatuak, berreraiketaz zein diakronia hutsaz interesatua delarik, ezin duela bere ikergaietarik erroarena baztertu. Uhlenbeck austronesistak (1995) zioenez –eta edozeinek dakikeenez– egitura morfologikorik gabeko hizkuntzarik ez delarik, edota fonemen kokagune eta konbinaketa hizkuntzaren garai orotan hitzen tasun berezko izanik, erroarena ez da, morfologo edo fonologo edo are tipologo sinkronikoaren jabego hutseko, horiek guztiak erroaz arduratu arren, eta damukizun larria da, izan ere, euskal erroaz eta horri lotutako hainbat gaiez euskalariak merezi eta behar baino gutxiago aritu izana.

Tipologoen eta bestelako ikertzaileen (sintaxilarien, morfologoen...) lan teorikoetan eta analisietan kausi litezkeen erroaren azterketaren aldeko akui-luez landa, konparatzaileak eta berreraikitzaileak arrazoi bereziak (edota berezilari diren partetikoa) ditu erroa aztertzeko. Tradizio diakroniko garatutako hainbat hizkuntzatan dakusagunaren aurka, euskal linguistika diakronikoan ez dira morfemen eta, bereziki, erroen egitura kanonikoa, horren aldaketak eta ondorioak sistematikoki aztertu. Horren ondorioz, ez dira erabili aitzineuskararen eta hizkuntzaren historiaurrearen berreraiketaren eta etimologiagintzan, –euskararen izaera isolatua eta haren corpusaren ezaugarriak eta tamaina kontuan izanik– komeni zen bezala (ikus Lakarra 2008b).

AE-ren erro monosilabikoaren teoriak hurbilketa berria aldezen duten hainbat fruitu eta era askotakoak erdietsi ditu: funtsean a) erro berriak eta lehendik ezagutzen genituen familia lexikoak isolatzea eta zabaltzea, erro-ereduetarik abiaturiko etimologia formularen oinarriak ezarriaz; b) gramatika zaharren (zaharren) osagai berriak (aurrizki eta erreduplikazioak) isolatu eta hizkuntzaren deribarako beren garrantzia zirriborratzea eta c) (aitzin)euskara eta beste edozein hizkuntza edo hizkuntza familia genetikoki erkatzeko iragazki erantsiak prestatzea.

Aurreko orrialdeotan AE-ren eta euskararen historiaurrearen azterketaz gure alorrean azken mende erdian estandarra den Koldo Mitxelenaren teoria osatzeko –labur esateko, *FHV* baina baita *Lenguas y protolenguas* ere– zenbait ideia, datu eta lanabes ekarri nahi izan dugu, azken hamabost urteotan burutu ditudan eta abian diren ikerketetan oinarrituaz. Ikusi dugunez, Teoria estandarrek aitzinamendu larria ekarri zuen euskararen azterketa diakronikoan (§1): batez ere sistema fonologiko zaharra eta baita ehundaka hitzen etimologia argitu zuen eta haren oinarriek eta are hainbat zertzelada eta zehaztasunek tinko dirau, ezinbesteko direlarik bai euskara beste hizkuntza batzuekin (asmo genetikoeekin) erkatzeko, bai latinarekin kontaktuan sartu aurretik zuen fonologiaz bestelako alderdi batzuk argitzeko; orobat, azkenik, gugandik urrunago (urrunen) diren garaietako hizkuntz egoera –aitzineuskara zaharra– eskuratzen saiatzeko.

Erroaren forma kanoniko askotarikoa proposatzea hizkuntza jakin baten garai guztietarako azaleko aniztasun hori aurreko garairen bateko bakartasunetik erakartzen saiatu gabe, ez da ikerbide emankor gertatu hainbat hizkuntza eta hizkuntz familia historia ezagunekoetan edota euskararena baino ezagunagoetan –IE (§2.1), semitikoz (§2.2)– eta ez dugu eskubide apartekorik sinisteko euskararekin emankorrago izan daitekeenik hurbilketa oker hori, are gutxiago, AE-ren berreraiketa estandarra berrikusteko diren zenbait arrazoi bildu ondoren (§2.3). Hortaz, Uhlenbeckek eta ondorengoek aurkeztutako erro-eredu aniztasuna

(§2.4) gutxitzen duen zeinahi analisik, aurkez litzakeen oztopo eta arriskuekin, abantaila metodologiko, teoriko eta praktikoak ditu bertan-goxo egin nahi luke-  
 tenen aurrean: taxonomia hutsak sinkronian bedeinkapenak aspaldi galdu zitue-  
 larik, ezin horrelakorik gorde diakronian ere.

Lan honek eta honi lotutako enparatuek bi helburu dituzte: batetik eus-  
 kal morfema zaharren egitura (gehi egituraren bilakabidea) ezagutzea eta bai-  
 ta horren inplikazioak AE-ko hitz familiak eta, oro har, euskal lexiko zaha-  
 rraren azterketarako; bestetik, morfema zaharren egituraren ezagutzaren  
 bidez AE zaharragoa berreraikitzea. 1995ean erro monosilabikoaren teoria zi-  
 rriborratzen hasi ginen \*\*TVTV eta beste zenbait hertsapen argitu asmoz  
 (§3.1). Hurbilketa honek emaitza interesgarriak izan zituen hasiera-hasieratik:  
 hainbat mailegu eta erro zahar ezezagun isolatu, eta beste ezagun batzuen  
 alomorfo eta agerraldi gehiago bildu<sup>249</sup>; AE-ko gramatikaren hainbat ezauga-  
 rri oinarritzko –aurrizkiak (aditzean zein IS-n) eta erreduplikazioak izenean  
 (baina ez aditz jokatuan)– azaleratu (§3.2); azkenik, markatu genuen hiz-  
 kuntzalaritza konparatuak ezin duela bere ikergaietarik erroa baztertu (§3.3).

Uhlenbecken 1942ko erro-ereduen azterketaren aldarrikapena geure eginaz,  
 CVC monosilaboen eta hainbat dozena azpi-eredu bisilabikoren sailkapena izan  
 da gure lan neketsuena 1995 ondoko urteotan (§4.1): maileguak, aldaera mo-  
 dernoak, eratorri eta konposatuak, fonosinbolismoak... bildu ditugu horietan,  
 etimologia gabekoetarik bereziaz, soilik hauek baitira euskara zaharrekoztat  
 hartzeko (azter)gai. Hautagaitza hori, ordea, ahula eta ia hutsaren hurrengoa  
 bihurtu da edozein bisilaborentzat irizpide fonotaktikoak... eta geografikoak  
 (§4.4) ezarri ondoren: izan zitezkeenetarik ia erdiak lekukotzen diren –eta haie-  
 tarik %15 iragazki guztiak gaingitu eta dialektoen aitzineko garaiko errotzat izan  
 ditzakegun– CVC erako monosilaboak (§4.2) ez bezala, bisilabo gehienak, al-  
 diz, izan zitezkeenetarik oso ehuneko txikietan lekukotu eta –batez ere– %0,00  
 eta %1,50-2,00 bitartean dira ia guztietako hondarrak –eta engoitik are apala-  
 go–; garai zaharretarako hautagai kaxkar, noski (§4.3)<sup>250</sup>.

Azken urteotako zenbait lanetan morfemen forma kanonikoan oinarritu  
 eta tipologia holistiko diakronikoak gidatutako AE-ren berreraiketa izan dut  
 ikergai nagusi (§5). Monosilabismoak eraman ninduen egitura isolatzaileagora  
 eta, horrenbestez, euskara modernoarentzako onartu ohi den egitura “jatorre-  
 tik” urrutira: ez SOV, ez atzizki sistema aberats, ez aditz-joko ugari amaitezi-

<sup>249</sup> Ikus I. Eranskina eta erka bedi Postek taniaz dioenarekin:

Almost all of the forms reconstructed by Sun (1993) represent monosyllabic roots. While roots are usually bound in modern Tani languages (either in the sense of being compound elements or in the sense of requiring an affix to occur as a grammatical word), there is evidence that Proto-Tani roots were potentially free. (...) In addition, polysyllabic lexemes and grammatical morphemes are almost always easily analysable as earlier collocation of monosyllabic morphemes, and while the patterns underlying their composition are generally unproductive in modern Tani languages, cross-language variation suggests proto-compositionality, productivity and variability (2006: 44).

<sup>250</sup> Etorkizunean, artean bezala, bisilabo-hondarrak beheraka –dirautenak analisi amaitugabearen ondorio dira– eta monosilaboak dutenari eutsi eta goraka ikusiko ditugu: testuan behin baino gehia-  
 gotan markatu legez, CVC hautagaietan ez ditut sartu *-thor-*, *-khar-*, *-bil-*, *-khus-*, eta beste hainbat,  
 erro biluzi gisa (cf. *huts*, *sar* edo *gor*) ageri ez direlako; orobat gertatzen da azken urteotan isolatu gai-  
 nerako erro monosilabikoekin (*\*han*, *\*ger*, *\*dul*, *\*zen*...). Honenbestez, ez da zail iragartzen –eredu bi-  
 silaboek %0 absolutorako bidaian etenik gabe aurrerantz egiten duten bitartean– CVC-ren emaitzak  
 %15etik %25-30era edo igoko direla.

nik, ez erro jokatuak ehundaka, ez ergatiborik, ez enparatukorik... Alderantziko ezaugarriak (aurrizkiak, VO, atzizki urritasuna, multzo aditzak...) eta horiekin fonologian, morfologian eta sintaxian bateragarri diren anitz lotzen eta azaltzen lagundu gaitu tipologia holistiko diakronikoak eta baita –mende luzeetako deriba orokor etengabearen ondorioz (cf. Lakarra 2005a, 2006a)– hizkuntza egoera batetik beste urrunagoko batera igarotzen ere<sup>251</sup>.

§6-n laburtu ditugu erroaren forma kanonikoaren eta tipologia holistiko diakronikoaren elkarlanak AE-ren aditz morfologiaren berreraiketaren dakartzen laguntzaren hainbat erakusgarri. Lafonen ustez hain nabar eta euskaraz atetiko laguntzarik gabe ulertezin omen zen aditz-erroaren egitura zaharra eta jatorria erakutsi digute, erro-eredu ugaritasuna CVC bakarrera eramanaz garai zaharreneko, –kontsonante erorketaz eta diptongo berrien sorreraz landa– gero fosildu eta erroaren zati bilakatu diren *\*ra-* eta *\*da-* aurrizkiak (gehi *\*da-ra* horien konbinaketa) isolatuaz (§6.1; cf. Lakarra 2006b, 2006c eta 2010d). Aditz joko sintetiko oinarritzkoenak noizbait jokatu eta komunztaduraz hornituak ez baizik eta –Erroma eta besteren eragina baino lehenago–, *\*dar* eta *\*den* erroen gainean perifrastikoak eta inongo markagabeak zirela aldarrikatzeko (multzo aditz asimetrikoak, zehatzago) zenbait froga aurkeztu dugu honetan (§6.2) eta Lakarra (2008a)-n. Halaber, *\*nin* ‘give’ gurean ere gramatikalizazio ugariaren bidez IS-n nahiz AS-n aurrizki, atzizki zein aditz laguntzaile dugu. Arestiko zenbait lanetan ikusi izan da aditz sintetikoa betidanik urria eta (sistema gisa) aspaldidanik agorra zela, gure gramatikari zaharrek eta euskaltzale sutsuek famatu dituzten dozenaka hizki eta komunztadura markak ez direlarik betiereko (§6.3); are gehiago, artean baino aditz “inpersonalaren” froga gehiago dugu.

§7.ean erroaren forma kanonikoaren ikerketak AE-ren sistema fonologikoarentzat eta horren bilakabidearentzat duen garrantzia gogoratu nahi izan dugu, alderdi zenbait markatuaz: hitz familiek beste hainbat hizkuntzatan legez hots-txandaketaren bitartez AE-ko hots-sistema zaharraren berri ematen digu (§7.1); sistema zaharrago hori ikertzeko ezinbesteko gertatzen da CC-ek eta VV-ek erro polisilaboetan eta monosilaboetan duten kokagune kopuru ezberdinaren eragina ukitu dugu gero (§7.2). Azentuak eta erroak hitz fonologikoaren bitartez duten lotura gogoratu dugu, eta baita lotura horrek beste hainbat fenomeno fonologiko eta morfologiko ezagun eta ezezagunentzat (hasperenaren distribuzioa, hitzaren autonomia, aurrizkien garapena...) dakartzen ondorioak ere (§7.3). “Gaurko fonologia, atzoko morfologia” ikerbidearen emaitza zenbait bildu dugu §7.4.ean, eta §7.5.ean fonosinbolismoen hots konbinaketa nabarmen askoak –*a contrario* baino ez bada ere, erro lexi-koekiko oso bestelakoa delarik hizkuntza gehienetan bezala– erro kanonikoaren azterketarako eskeintzen digun laguntzaren esku-erakutsi bat. Azkenik, §7.6.ean erroaren egiturak argi litzakeen fenomeno fonologiko batzuk aipatu ditut, hitz hasierakoak gehienak, ilunen genuen kokagunekoak, hain zuzen

<sup>251</sup> Cf. “Pese a los drásticos cambios que han hecho pasar al Indoeuropeo de una lengua monosilábica cuyos morfemas fundamentales eran orden de palabras, tono y alternancias, a otra polisilábica cuyos morfemas fundamentales eran los flexionales, ha quedado todavía bastante del antiguo sistema operante dentro del nuevo, aunque siempre con tendencia a quedar relegado y desaparecer finalmente” (Adrados 1972: 81). Esango nuke hein batean –zehaztu beharko zenbatean– antzekoa ikus litekeela aitzineuskararen bilakabidean.



ere. Badira (ikus bibliografia) atal honen inguruan abian diren lanak eta itxaroten dugu aurrerapen esanguratsuak izatea epe laburrean.

§8-n forma kanonikoaren bilakabidearen aztarnak eta bisilabismorako bidean izan diren arrunt urrats aztertzeko oinarriak jarri nahi izan ditugu: erro-aldaketaren ikerketak beste zenbait hizkuntzatan, Ekialde Urrunekoetan, bereziki (§8.1); hasperenaren eta erroaren ikerketa bateratuak FKaren bilakabidez dakarzkigun emendioak (§8.2); FK-ren aldaketaren aztarna fonologikoak (§8.3) eta morfologikoak (§8.4) eta FK bisilabikoaren berritasunaz (§8.5) arituaz. Aitzineuskara zaharrenean erro eredu monosilabikoa zela (1995ean egindako aldarrikapena) berretsi ez eze, orain (cf. Lakarra 2009b) erants genezake –hurrengo urteotarako aztergai ugari eta zehaztasun franko bide diratekeen arren aldaketaren kronologia<sup>252</sup> zabal hori lantzeko– monosilabismoa AEZ ondoko garaietan ere nagusi izan zela, AE modernoan eta beranduago Erdiarora arte edo beharbada.

Lan honen eta besteren ondoriorik larriena forma kanonikoak AE-ren berreraiketan eta hizkuntzaren bilakabide orokorrean duen betebeharraren aldarrikapena dugu. Esango nuke horren egitekoa eta laguntza, ez soilik teorian eta beste hizkuntzetan burutuari so eginaz eta mekanikoki gurera ekarriaz, baizik eta euskararen datu eta argudiaketa berrien bitartez hornitua aurkeztu dugula. Hainbat eta nabarmenago iruditzen zaigu zenbat eta zehatz, zabal eta sakonago aritu forma kanonikoaren azterketan eta honen bidez AE-renean, hurbil eta argitzenago dugula artean zirriborroan ere ezagutzen ez genuen AE-ren sistemaren hainbat alderdi<sup>253</sup>. Kontrara, hitz eta forma solteen azterketa atomista edo anekdota-zalea –inoiz honako edo harako hizkuntzatatik txikikeriaren bat bertaratua zein euskarak besteri emana dela frogatzeko– ez zaigu orain lehen baino erakargarriago begitantzen hizkuntzalari nahiz euskalari gisa, AE-ren egituran sakondu gura dugun neurrian; ez ahantz (gogora goiko Benvenistaren aipua) AEB, AEZ eta gainerakoak benetako hizkuntzak edo hizkuntz-egoerak zirela, 2011ekoa edo 1596koa bezalakoxeak, funtsean.

AEZ-aren teoria monosilabikoak zenbait galdera zahar erantzuteko edo beste zenbait erantzun-bidean jartzeko eta, batez ere, beste hainbat eta hainbat berri, lehen axolako ez zirenak edo asma ere ezin zitezkeenak, sortzeko eta

<sup>252</sup> Kronologia zen, 246. oharrean ikusi dugunez, konparatistari –berreraikitzaileari, zehatzago, bi eginkizun horiek guztiz lotuak baitira harentzat– Benvenistek ezartzen zion egiteko nagusia. Lan honetan eta honi lotutako beste batzuetan bada horren inguruan zenbait ohar (ikus 194b, esaterako), 2007ko txosten bat berrikustean bildu nahi nituzkeenak.

Hein batean bada loturirik apaitu 194. oharrean hasperen falta azaltzeko erabilitakoaren eta Lakarra (2010c)-n *hoge*i eta *sei*-k dituzten diptongoen iraupena egiterakoan aurkeztuaren artean: Orduñak (2005) eta Ferrer i Janék (2009) diptongo horiei 2500 urte edo gehiago ematen dizkiete, iberikotik horrelaxe mailegatutzat edota hitzok kognadotzat jotzean. Kontua da aipatu lanean azaltzen den bezala /ej/ diptongo aldakorrenetarik dugula, bestela ere aldakor eta suntsikor diren euskarazko diptongoen artean. Nahita nahiezkoa genuen, beraz, diptongoa oso modernoa izatea, –bestelako bidetik azaltzen den *hogo*i-renaz landa– aldaerarik ere gabe irauteko zenbaki batak eta besteak. Izan ere, aski berankor ditugu biak, kasu batean eta bestean *-b-* bat izan baita /ej/-ko hotsok bereiziaz Erdiarora arte. Lan berean horrelatsu azaltzen da *-r(t)z-* taldea nonahi gorde izana *zor(t)zi*-n, baita *beste* edo *uso*-n aldatzen duten dialektoetan ere.

<sup>253</sup> Ez dakit guztiz desgoki ote litzatekeen hona ekartzea Poteten laneko azken ahapaldia:

Thus, there are two sets of Austronesian words available for comparison: those which have a root in common, and those which have a radical in common. I am convinced that the former are much anterior to the latter. So far, Austronesian studies have mainly dealt with radicals. For roots to have become the new trend is a welcome development (1995: 370).

Uler bedi horko “comparison” AE-ren barne-berreraiketa gisa eta ez (emaitzei begiratzen badiegu, bederen!) orain arte ahaidetzakotzat jo hizkuntzekin erabili izan diren metodoen bitartez.

etorkizunerako ikergai bilakatzeko ahalmenik izan du eta oraingoz zati baterako ere badukeela esan bide genezake, sortzen eta garatzen doan edozein paradigma berriri eska dakiokkeen eran.

\* \* \* \*

Zilegi bekit Watkinsek Benvenisteren erro teoriari buruz egindako iruzkinetik hartutako aipu luze bezain gogobeteko batez amaitzea jardun hau; segur naiz bi ikertzaile argi horien zale izan zen Koldo Mitxelena ere bat letorkeela horko gehienarekin eta, batez ere, azken esaldiekin:

L'espérance engendrée par l'ouverture des *Origines* n'allait pas être déçue. C'est bel et bien un livre qui a fait époque, selon le mot de son camarade aîné P. Chantraine ; un livre qui a modifié la face de l'indo-européen, non moins qu'il a modifié la façon de le voir et de le penser. C'est un accomplissement bien rare dans l'histoire de la linguistique, indo-européen ou autre, et cela reste un accomplissement qui dure et qui durera.

Mais il est complètement déplacé de se demander si tel ou tel énoncé ou telle ou telle doctrine, ou telle ou telle théorie –le mot est choisi à dessein– sont corrects. C'est la manière de voir les choses qui peut être correcte, non les choses elles-mêmes. Prétendre le contraire, c'est oublier la nature même d'une hypothèse scientifique : elle se modifie obligatoirement à la suite d'une nouvelle découverte ou d'une meilleure interprétation des données existantes. Cela ne déroge en rien à la "grandeur", à la "noblesse" d'une théorie scientifique qu'elle puisse être améliorée, voir remplacé par la suite avec le passage du temps. Benveniste, en 1935 a proposé "une théorie de la racine"; il l'a appelé "notre théorie de la racine", je me permets de suggérer qu'il aurait été un peu étonné de l'entendre appeler après presque 50 ans "la théorie de la racine". Comme si elle avait été surgelée.

(...) Après un si long délai il est facile de trouver à corriger, à redire, à reformuler dans les *Origines*. Presque tout ce que Benveniste dit au sujet précisément de la formation des noms en indo-européen est pour moi inacceptable. Mais cela ne change en rien mon appréciation sur ce livre, une oeuvre séminale dans l'histoire de la linguistique moderne. On ne s'attend pas à ce que la physique atomique de 1935 soit celle de 1983. Au contraire tous les étudiants de physique actuelle sont présumés savoir, et sont examinés sur des choses totalement inconnues aux plus grands physiciens du monde il y a 50 ans. Ce n'est que naturel, et il en est de même en linguistique. L'indo-européen actuel n'est pas à puisser aux livres, même ceux qui ont fait époque et dont la connaissance parfaite est indispensable, obligatoire. L'indo-européen actuel est dans les esprits de nos étudiants et nos auditeurs. Espérons seulement qu'il voie le jour, pour que nous puissions en profiter (Watkins 1984: 294).

## 10. BIBLIOGRAFIA

- ADRADOS, F. R., 1972, "Ensayo sobre la estructura del IE preflexional", *Revista de la Sociedad Española de Lingüística* 2, 45-81.  
—, 1988, *Nuevos estudios de lingüística indoeuropea*. Madril, Gredos.

- AGUD, M. & TOVAR, A., 1988-95, *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca (A-Orloi)*. ASJU-ren Gehigarriak, Donostia: 7 lib.
- AIKHENVALD, A. Y., 2006, "Serial verb constructions in typological perspective" in Aikhenvald & Dixon (arg.), 1-68.
- & R. M. W. DIXON, (arg.), 2006, *Serial verb constructions. A cross-linguistic typology*. Oxford U. P.
- ALIEVA, N., 1991, "Morphemes in contemporary spoken Cham: qualitative and quantitative alternations", *Cahiers de Linguistique-Asie Orientale* 20: 2, 219-229.
- ALONSO DE, A., 2007, "Noticias sobre lingüística histórica (i)", *ASJU* 41, 377-395. (350-361 = Jan Braun (2001), *Sumerian and Tibeto-Burman* [iruzkina]; 362-373 = Jan Braun (1998), *Euskaro Caucásica. Historical and comparative studies on Kartvelian and Basque* [iruzkina]).
- AMEKA, F. K., argitaragabea, "Multiverb constructions in a West African areal typological perspective". Leidengo Unibertsitateko eskuizkribua.
- ANDERSEN, T., 1992-94, "Morphological stratification in Dinka: on the alternations of vowel length and tone in the morphology of transitive verbal roots in a monosyllabic language", *Studies in African Languages* 23, 1-63.
- ANDERSON, G. D. S., 2006, *Auxiliary Verb Constructions*. Oxford U. P.
- ANDRONOV, M. S., 2003, *A comparative grammar of the Dravidian languages*. Harrassowitz Verlag, Wiesbaden.
- APPLEYARD, D. L., 1979, "A statistical survey of the Amharic lexicon", *Journal of Semitic Studies* 24: 1, 71-97.
- ARBELAIZ, J. J., 1978, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Tolosa, Kardaberatz.
- ARIZTIMUÑO, B., 2010, "The Basque partitive". "Societas Linguistica Europaea - 43rd Annual Meeting. Vilnius, 2-5 September 2010". Biltzarraren Aktetan argitaratuko da.
- & A. MARTÍNEZ EGURCEGUI, 2011, "*\*eLanal\*eNala*-ren inguruan". UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- ARTIAGOITIA, X., 1990, "Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos", *ASJU* 24: 2, 327-349.
- , P. GOENAGA & J. A. LAKARRA (arg.), 2002, *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, *ASJU*-ren Gehigarriak XLIV, UPV / EHU, Bilbo.
- & J. A. LAKARRA (arg.), 2008, *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagari Omenaldia*. *ASJU*-ren Gehigarriak LI, Bilbo.
- AUSTERLITZ, R., [1970] 1976, "L'agglutination dans les langues de l'Eurasie septentrionale", *Études Finno-Ougriennes* 13, 7-12.
- , 1990, "Typology in the service of internal reconstruction: Saxalin Nivx" in W. P. Lehmann (arg.) *Language typology 1987. Systematic balance in language*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 17-34.
- , 1994, "Finnish and Gilyak sound symbolism – the interplay between system and history" in Hinton, Nichols & Ohala (arg.), 249-260.
- AUSTIN, P. K., 2005, "Causative and applicative constructions in Australian Aboriginal languages". School of Oriental and African Studies-eko eskuizkribu argitaragabea.
- AZKARATE, M., 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*. Deustuko Unibertsitatea-EUTG, Donostia.
- & P. ALTUNA, 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Elkarlanean, Donostia.
- AZKUE, R. M<sup>a</sup>, 1905-6, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo, 2. arg. eranskin batekin: 1969, LGEV.
- , 1923-25, *Morfología vasca (gramática básica dialectal del euskera)*, Bilbo, 2. arg. 1969, LGEV.
- BAKRÒ-NAGY, M. Sz., 1992, *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system*. Harrassowitz Verlag, Wiesbaden.
- BALDI, Ph., 1990, (arg.), *Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- & B. R. PAGE, 2006, "[Iruzkina] Theo Vennemann, *Europa Vasconica-Europa Semitica*", *Lingua* 117, 2183-2220.
- BAXTER, W. H. III eta L. SAGART, 1997, "Word formation in Old Chinese" in Packard (arg.), 35-76.
- BENVENISTE, É., 1935, *Origines de la formation des noms en indo-européen*. Paris: Maisonneuve.

- , 1939, “Répartition des consonnes et phonologie du mot”, *Travaux du Cercle Linguistique de Prague* 8, 27-35.
- , 1969, *Le vocabulaire des institutions indo-européennes. I. Économie, parenté, société; II. Pouvoir, droit, religion*. Les Éditions de Minuit, Paris.
- , 1974, *Problemas de lingüística general*, Siglo XXI, México. Frantsesez 1966an.
- BHAT, D. N. S., 2000, “Dravidian and Tibeto-Burman: a typological comparison”, *International Journal of Dravidian Linguistics* 29, 9-40.
- BLAŽEK, J., 2007, “From August Schleicher to Sergei Starostin: On the development of the tree-diagram models of the Indo-European languages”, *Journal of Indo-European Studies* 35, 82-110.
- BLEVINS, J., 1994, “The bimoraic foot in Rotuman phonology and morphology”, *Oceanic Linguistics* 33, 491-516.
- & J. LYNCH, 2009, “Morphological Conditions on Regular Sound Change? A Reanalysis of \*Hloss in Paamese and Southeast Ambrym”, *Oceanic Linguistics* 48, 253-272.
- BLUST, R. A., 1988, *Austronesian root theory: an essay on the limits of morphology*, Amsterdam, John Benjamins.
- , 1995, *Austronesian Comparative Dictionary*. Univ. of Hawaii.
- , 2007, “Disyllabic attractors and anti-antigeminatio in Austronesian sound change”, *Phonology* 24, 1-36.
- BOHAS, G., 1997, *Matrices, étymons, racines. Éléments d'une théorie lexicologique du vocabulaire arabe*. “Orbis Supplementa”, Peeters, Leuven-Paris.
- BOUDA, Ch., 1950, “Leuskaro caucasique”, in ZZEE, *Homenaje a Julio de Urquijo*, Donostia, 3, 207-232.
- , 1950-56, “Étymologies basques”, *Eusko-Jakintza* 4, 51-70, 317-336; 5 (1951), 57-62, 217-222; 6 (1952), 30-33; *Euskera* 1 (1956), 132-136.
- BOWERN, C. & H. KOCH (arg.), 2004, *Australian languages. Classification and the comparative method*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- BRANDSTETTER, R., 1910, “Root and word in the Indonesian languages” in id 1916, *An introduction to Indonesian linguistics*. (C. O. Blagden-en ingelesezko itzulpena) London, The Royal Asiatic Society, 5-65.
- BYBEE, J. L., W. PAGLIUCA & R. D. PERKINS, 1990, «On the asymmetries in the affixation of grammatical material» in Croft, W., K. Denning & S. Kemmer, (arg.), *Studies in typology and diachrony for J. H. Greenberg*. John Benjamins: Amsterdam-Philadelphia, 1-42.
- , R. D. PERKINS & W. PAGLIUCA, 1994, *The evolution of grammar. Tense, aspect and modality in the languages of the world*. U. of Chicago P.
- BUENO, A., 2004, “Nominalizazio atzizki deitutakoen azterketa historikoa eta morfologikoa”. Doktoregoko DEA (argitaragabea). UPV/EHU-Gasteiz.
- CAMPBELL, L., 1997, *American Indian languages*. Oxford U. P., New York-Oxford.
- , 1998, *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh U. P.
- , 2007, “La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?”. Inprimategian in Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg.).
- CASAGRANDE, J. B., 1954-55, «Comanche linguistic aculturation: I-III», *International Journal of American Linguistics* 20, 140-151, 217-237 eta 21, 8-25.
- CHAKER, S., 1984, *Textes en linguistique berbère*. CNRS, Paris.
- , 1995, *Linguistique berbère. Études de syntaxe et de diachronie*. Peeters, Paris-Louvain.
- CHRÉTIEN, C. D., 1965, “The statistical structure of the Proto-Austronesian morph”, *Lingua* 14, 243-270.
- COMRIE, B., 1989, *Universales del lenguaje y tipología lingüística*. Gredos, Madril. Ingelesezko originala 1981koa da.
- COROMINES, J. & PASCUAL, J. A., 1980-91, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos: 6 lib.
- COYOS, J. B., 2000, “Les onomatopées rédupliquées en basque souletin”, *Lapurdum* 5, 13-98.
- DELANCEY, S., 1991, «Chronological strata of suffix classes in the Klamath verb», *International Journal of American Linguistics* 57, 426-445.
- , 1989, «Verb agreement in Proto-Tibeto-Burman», *Bulletin of the School of Oriental and African Studies* 52, 315-333.

- DIKONOFF, I. M., 1970, "Problems of root structure in Proto-Semitic", *Archiv Orientalni* 38, 453-480.
- , 1975, "On root structure in Proto-Semitic" in J. Bynon & T. Bynon (arg.), *Hamito-Semitic*. The Hague, Mouton, 133-153.
- DICANIO, CH. T., argitaragabea, "Consonant length in monosyllables: Typology, diachrony, and phonetics". Lyongo Unibertsitateko eskuizkribua.
- DIFFLOTH, G., 1974, "i : big, a : small" in Hinton, Nichols & Ohala (arg.), 107-114.
- DIXON, R. M. W., 1982, "Where have all adjectives gone?". In *Where have all adjectives gone? And other essays in semantics and syntax*. Berlin: Mouton, 1-62. 1977ko lanaren bertsiio zuzendua.
- , 2002, *Australian languages*. "Cambridge language surveys", Cambridge.
- DONEGAN, P., 1993, "Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer", *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 16, 1-43.
- & D. STAMPE, 1983, "Rhythm and the holistic organization of language structure" in J. Richardson et al. (arg.), *Papers from the Parasession of phonology, morphology and syntax*. Chicago Linguistic Society, 337-353.
- & —, 2004, "Rhythm and the synthetic drift of Munda", *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*, de Gruyter (Berlin-NY), 3-36.
- DONOHUE, M., 2003, "Morphological templates, headness and applicatives in Barupu", *Oceanic Linguistics* 42, 111-143.
- DOWNING, C., 2006, *Canonical forms in Prosodic Morphology*. Oxford U. P.
- DUANMU, S., 1997, "Wordhood in Chinese" in Packard (arg.), 135-196.
- , 1999, "Stress and the development of disyllabic words in Chinese", *Diachronica* 16, 1-35.
- DURIE, M., 1988, "'Verb serialisation' and 'verbal prepositions' in Oceanic languages", *Oceanic Linguistics* 27, 1-23.
- & ROSS, M., 1996a, (arg.), *The comparative method revisited. Regularity and irregularity in language change*. Oxford, Oxford U. P.
- & —, 1996b, "Introduction" in Durie & Ross (arg.), 3-38.
- ELDERS, St., 2001, "Defining ideophones in Mundang", in Voeltz & Kilian-Hatz (arg.), 97-110.
- ELMENDORF, W. W., 1997, "A preliminary analysis of Yukian root structure", *Anthropological Linguistics* 39, 74-91.
- ENFIELD, N. J., 2002, "Semantics and combinatorics of 'sit', 'stand' and 'lie' in Lao" in Newman (arg.), 25-41.
- ELORDIETA, G., 2008, Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarreko txostena; inprimategian.
- EMENEAU, M., 1969, "Onomatopoeics in the Indian linguistic area", *Language* 45, 274-299.
- & K. HALS, 1993, "Tamil expressives with initial voiced stops", *Bulletin of the Society of Oriental and African Studies* 56, 75-86.
- ERNOU, A., & MEILLET, A., 1979, *Dictionnaire étymologique de la langue latine*. 4. arg., Paris, Klincksieck.
- ESTORNES, B., 1967, *Sobre historia y orígenes de la lengua vasca*. Donostia, Auñamendi.
- FENG, SH., 1997, "Prosodic structure and compound words in Classical Chinese" in Packard (arg.), 197-260.
- FENK-OCZLON, G. & A. FENK, 2004, "Systemic typology and crosslinguistic regularities". In V. SOLOVYEV & V. POLIAKOV (arg.), *Text Processing and cognitive technologies*, Moscow, Mina: 229-234.
- FERLUS, M., 1971a, "La langue souei: mutations consonantiques et bipartition du système vocalique", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 66, 378-388.
- , 1971b, "Simplification des groupes consonantiques dans deux dialectes austroasiens du Sud-Laos", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 66, 389-403.
- , 1979, "Formation des registres et mutations consonantiques dans les langues mon-khmer", *Mon-Khmer Studies* 8, 1-76.
- , 1982, "Spirantisation des obstruantes médiales et formation du système consonantique du vietnamien", *Cahiers de linguistique - Asie Orientale* 11, 83-106.
- , 1997, "Compte rendu d'exposé: Evolution vers le monosyllabisme dans quelques langues de l'Asie du Sud-Est", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 92, XVII-XVIII.
- , 2009, "What were the four divisions of Middle Chinese?", *Diachronica* 26, 184-213.



- FERNÁNDEZ, F. & I. LAKA (arg.), 2006, *Andolin Eguzkitza gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, Bilbo, UPV/EHU.
- FERRER I JANÉ, J., 2009, "El sistema de numerales ibérico: avances en su conocimiento", *Palaeohispanica* 9, 451-479.
- FORTESCUE, M., 2006, "Drift and the grammaticalization divide between Northern and Southern Wakashan", *International Journal of American Linguistics* 72, 295-324.
- FRAJZYNGIER, Z., 1979, "Notes on the R<sub>1</sub>R<sub>2</sub>R<sub>2</sub> stems in Semitic", *Journal of Semitic Studies* 24: 1, 1-12.
- GALAND, L., 1984, "Le comportement des schèmes et des racines dans l'évolution de la langue: exemples touaregs" in J. Bynon (arg.), *Current Progress in Afro-Asiatic Linguistics: Papers from the Third International Hamito-Semitic Congress* (Amsterdam: J. Benjamins): 305-315.
- GAMKRELIDZE, T. V., 1966, "A typology of Common Kartvelian", *Language* 42, 69-83.
- & IVANOV, V. V., 1995, *Indo-European and the Indo-Europeans*. Mouton de Gruyter, Berlin & New York. 1. edizioa, errusierazkoa, 1984koa da eta itzulpena J. Nichols-ena.
- GARRETT, A., 2004, "The evolution of Algic verbal stem structure: new evidence from Yurok", eskuiz., UC Berkeley.
- GAVEL, H., 1920, *Éléments de phonétique basque* (= RIEV 12). Paris.
- GÓMEZ, R., 1989, «Bonaparteren garaiko hizkuntz eztabaidak», *ASJU* 23: 2, 355-392.
- , 1994, "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra" in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Izpegi, Baigorri, 93-114.
- , 2008, "Berriz Aizkibelen Euskera eskuizkribuaz: edizio eta iturriak", *ASJU* 42, 333-379.
- & K. SAINZ, 1995, "On the origin of the finite forms of the Basque verb", in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 235-274.
- GONDA, J., 1947-48, "The comparative method as applied to Indonesian languages", *Lingua* 1, 86-101.
- , 1949-51, "The functions of word duplication in Indonesian languages", *Lingua* 2, 170-197.
- , 1949/51-52, "Indonesian linguistics and general linguistics (I and II)", *Lingua* 2, 308-339; 3, 17-51.
- GOOD, J., 2005, "Reconstructing morpheme order in Bantu. The case of causativization and applicativization", *Diachronica* 22, 3-57.
- GORROCHATÉGUI, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo, UPV/EHU.
- , 2001, "Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara", *Eusko-Ikaskuntzaren xv. Biltzarra*, Donostia: 103-114.
- , 2007, "Las armas de la filología". Argitaratzeko in Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg.).
- , 2007-2008, "Lenguas y genes: aplicaciones a la prehistoria de la lengua vasca", *Veleia* 24-25 (= J. Fdez Eraso & J. Santos, arg., *Homenaje a Ignacio Barandiaran Maestu*), 1185-1202.
- , 2008a, "Dictamen de Joaquín Gorrochategui a la Comisión Asesora de la Diputación Foral de Alava sobre los hallazgos epigráficos de Iruña-Veleia (Campañas 2005 y 2006)". Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratua.
SVRV:	200	71	35,50	05	07,04	02,50	01	01,40	<b>00,50</b>
hVCV:	425	54	12,47	18	33,33	04,23	02	03,70	<b>00,47</b>
uCVC:	425	54	12,70	05	09,25	01,17	01	01,85	<b>00,23</b>
RVTV:	300	69	23,00	09	13,04	03,00	01	01,44	<b>00,03</b>
mVCV:	425	94	22,10	12	12,76	02,82	00	00,00	<b>00,00</b>
TVT	900	190	21,11	16	08,42	01,77	00	00,00	<b>00,00</b>
uCCV	215	45	20,93	06	13,33	02,78	00	00,00	<b>00,00</b>
RVRV:	200	41	20,50	02	04,87	01,00	00	00,00	<b>00,00</b>
CVmV:	325	49	15,07	09	18,35	02,76	00	00,00	<b>00,00</b>
RVS	200	24	12,00	00	00,00	00,00	00	00,00	<b>00,00</b>

M-%10 Taula

<u>EE</u>	<u>IZ</u>	<u>L</u>	<u>%</u>	<u>M</u>	<u>%-1</u>	<u>%-2</u>	<u>O</u>	<u>%-1</u>	<u>%-2</u>
CVC	325	152	46,76	12	<b>07,89</b>	03,69	30	19,73	09,23
uCVC:	425	54	12,70	05	<b>09,25</b>	01,17	01	01,85	00,23
oCVC:	425	47	11,05	06	<b>12,76</b>	01,41	01	02,12	00,23
hVCV:	425	54	12,47	07	<b>12,96</b>	01,64	04	09,25	00,94
aCVC:	425	110	25,85	16	<b>14,54</b>	03,76	06	05,45	01,41
uCV:	85	44	51,75	07	<b>15,90</b>	08,23	08	18,18	09,41
uCCV	215	45	20,93	08	<b>17,77</b>	03,72	03	06,66	01,39
aCCV	215	82	38,13	15	<b>18,30</b>	06,97	03	03,65	01,39
aCV:	85	64	75,29	14	<b>21,87</b>	16,46	10	15,62	11,70
oCV:	85	29	34,11	07	<b>24,13</b>	08,23	03	10,34	03,52
oCCV:	215	39	18,13	10	<b>25,63</b>	04,65	00	00,00	00,00
RVRV:	200	41	20,50	14	<b>34,14</b>	07,00	06	14,63	03,00
SVTV:	300	75	25,00	28	<b>37,33</b>	09,33	03	04,00	01,00
SVRV:	200	71	35,50	27	<b>38,02</b>	13,50	03	04,22	01,50
TVT	900	190	21,11	80	<b>42,10</b>	08,88	36	18,94	04,00
CVmV:	325	49	15,07	22	<b>44,88</b>	06,77	07	14,24	02,15
TVRV:	600	195	32,50	95	<b>48,71</b>	15,83	16	08,20	02,66
TVSV:	600	95	15,85	47	<b>49,47</b>	07,83	02	02,10	00,33
mVCV:	425	94	22,10	47	<b>50,00</b>	11,05	16	17,02	03,76
RVTV:	300	69	23,00	36	<b>52,17</b>	12,00	00	00,00	00,00
RVS	200	24	12,00	15	<b>62,50</b>	07,50	00	00,00	00,00



## II. Eranskina – 111 etimologia berri

Ondoren aurreko lanetarik eta Lakarra (prest.-1)-tik jasorik ematen ditugu, –labur eta zehaztasunetan sartu gabe— 111 etimologia-proposamen, berreraiketa berriaren eta erro-teoriaren emaitza gisa, eta baita haien azalpen-boterearen test-bide legez ere.

1. *adar*: \**dar* > \**da-dar*; cf. *gogor*, *zezen* erreduplikazioarentzat eta *adats*, *eder*, *odol*, *ahal*, *ihin-tz*, *ohol*... \**C* – *C* >  $\emptyset$  – *C* bilakabidearentzat.

2. *afari*: \**gau* + *hari*; cf. *ba(ra)zkari* eta *janhari* -*hari*-rentzat. -*f*-arentzat ikus *ifini*.

3. *agiri*: \**aho-iri* > \**a.iri* > *agiri*.  $V\emptyset V$  >  $VgV$ -rentzat ikus *bagin*, *bigun*, etab. Cf. *Agirre*, -*ir*- > -*er*- dute *ageri*, *agertu*-k. Antzera *bertute*, *Bergara* eta *nigar/negar* (\**nirga* [>... *nigar*] gero metatesiarekin); metatesi bera *aterri*, *dollor* eta *nigar*-en.

4. *ahal*: Mitxelenak \**anal*-etik; *ohol* \**no-nol*-era eta *ihintz* \**ni-nin-tz*-era bezala, hau \**na-nal*-eraino eramán liteke; cf. *adar*.

5. *alu*: Hasiera batean (Lakarra 2009b) lat. \**ualuu*-tik eratorri nuen baina hitz hori singular eta maskulinoan ez bide da ia batere erabili, inoiz izan bada ere. Askozaz erraz eta egokiago *aluu* “ventre ou plutôt cavité intestinale (...) Se dit aussi pour uterus” (Ernout-Meillet). Ikus *bular*, *labur* eta *orein* -*b*- > - $\emptyset$ -rentzat.

6. \**ardano*: \**e-da-ra-dan-o*. Azentudun silabaren aurrekoaren bokala erortzen delarik (\**edardano*, cf. *bazter*) eta ohiko -*d*- > - $\emptyset$ - ondoren, \**ear*- > *ar*-. Amaierako -*n*- > - $\emptyset$ - ere ezaguna da; hemen ez da -*n*- > -*h*-rik, edota ez behintzat -*h*- > *h*-, 4. silaban izanik hasperenaren sorlekua, ez 3.ean, *herio* (*jarío*) edo *hodei*-n (baina *jaio* < \**edadino*) legez. Cf., Lakarra (2010d) eta orobat, *arrain*, etab.

7. *arrain*: \**e-da-ra-don-i*, cf. *arrano* < \**e-da-ra-don-no*, biak \**arran* (< \**earnan*) batetik igaro ondoren. Ohar bedi *a* – *o* > *o* – *a* metatesia (cf. *unain*, *urgatzi*, *joan*). *aR*- < \**edara*-rentzat gogora *arbin*, *ardano*, *arraultza*, etab.

8. *arraultza*: Boudak eta Mitxelenak \**erro* + -*kuntza*-tik; alabaina, ez da ikusten zergatik atzizki horrek -*k*- galdu behar duen, ez eta hitz honen -*tze* aldaeraren zergatia, atzizki horrek ez baitu horrelakorik edo ez bederen hedadura berean. \**e-da-ra-dul* (\**dul*-en eratorria, cf. *ilki*, *iltze*, *irauli*, *jalgiljaulki*, (*h*)*eztul*, etab.) + -*tzal-tze* nominalizazio atzizkia. *Ar*-rentzat cf. *arbin*, \**ardano*, etab.

9. *arriba*: \**e-da-ra-de(n)-ba*. Cf. *arrain*, *arraultza*, *arbin*, \**ardano*, lehen zatiarentzat (*ar*-) eta \**den* (*lehen*, *atseden*, *etete*-, *edeki*) erroarentzat (ikus Lakarra 2008a). *Errain*-en (< \**e-ra-din-i*) antonimoa da, bata “jin, etorri arazia” (gogora Benvenistek “IE-ko emazteaz” dioena) eta “kendu eta eramana” bestea; agian, hobe litzateke esatea ekintza beraren —emazte berria senarraren etxera eramatearen— bi ikuspuntuak ditugula, senarraren familiarena (hartzaileena) eta emaztearen beraren etxeoena (hura galdu dutenena).

10. *aspaldi*: \**asko-aldi* > \**askwaldi* > \_\_\_ Cf. *azpi* eta *berandu*, *bizkar*.

11. *aterri*: Lat. *uertere* > \**uarte* > \**arte* > *ater(i)*. *w*- >  $\emptyset$ -rentzat ikus *eske*, *esker*, *ezain*, etab.; -*r* bigarren kodara baita *dollor* eta *nigar*-en. *Beldur*-en -*rm*- > -*rb*-.

12. *atzamar*: Ezin da \*\**hatz-hamar* izan Moglek eta bestek nahi izan duen bezala *bat* eta *bi* zenbakiaz atetikoak izenaren aitzin baitoaz (cf. *hama*-

rratz). Bada aldaera interesgarria, *atzapar*, \**hatz-zarpa*-tik atera litekeena *-r*-lehen kodatik bigarreneira igaroaz, *aterri*, *dollor*, *nigar* eta enparauetan legez. *Hatzamar* herri etimologia bide da, *deihadar* bezala, Mitxelenak *dei* + *h* + *adar* azaldu arren *FHV*-n; kasu *OEH*-n 'turuta' esanahi 'etimologikoaren' kronologia hain berantiarrari eta hedadura faltari.

13. *auben*: Erromantzezko *anuere*-ren familiatik; \**âhû.e* eta, bokal metatesiaren bitartez (cf. *hodei* eta *hausnar*), *auben*. Bada *hauen* ere, dirudienez.

14. *aulki*: \**abedulki* > \**abeulki* > \**abulki* > *aulki*; cf. *esne*-ko *-e* (< \**edabe*) bokalarteko leherkari ahostunen galarentzat. Orobat, *alu*, *hogen*, *laur*, *orein*, *-b-* > *-ø-*rentzat.

15. *aztarna*: \**hatz-barne*. *FHV*-n lehen zatia isolatzen da baina ez bigarrena; kontuan izanik *aztarren* aldaera eta hor bertan *barnel/barren*-i buruz esaten dena ezin da besterik izan. Cf. *azpi berandu*-pean.

16. *baino*: \**ba-da-din-no*; cf. *bai(n)a* (< \**ba-da-din-a*), *arrain* (< \**arrani*) / *arrano* (< \**arran-no*). *Ba-* gabe *laino* (< \**da-din-o*, *e-* batekin *jaio*) dugu; cf. *jaun* (< \**e-da-dun*) : *lagun* (< \**da-dun*) eta *nagusi* (< \**da-dun-tz-i*).

17. *baraur*: \**abari-aurr(e)*. Cf. Mitxelenaren \**abari-bagako-egun* > *baria-ku* ezaguna; *-i* > *-ø-*rentzat konposizioan adibideak kontaezinak lirateke (batez ere hirugarren silaban), hemen bertan *esne*.

18. *bazter*: Lat. *praesepe*, baina gazt.zah.eko *presepre*-tik igaroaz. Azken silabako CrV > CVr-arentzat ikus *dollor*, *leher*, *nigar*, etab.; horrek balio du lehendabizikorako ere. Gero bigarren silabako *-e-* (azentudun silaba aurrekoa) erori zenean (cf. \**ardano*, *esne*, *ezta* < *ez eta*) \**berz-* > \**barz-* atera zen eta dardarkari disimilazioz, *baz-* (cf. *ezker*, *oker*, *aker*). Azkenik, \**bazper* > *bazter*.

19. *begi*: \**goi-hegi* > \**gwi-egi* > \**biegi* > *begi*. Cf. *berandu*, *azpi*, *bizkar*, etab.

20. *beilegi*: \**behi* + *ledi* > \**beile.i* > *beilegi*; *-ø-* > *-g-*rentzat cf. *bigun* eta han bilduak. Horren aurreko bokalarteko ahostunaren galera arruntegia da adibide beharrik izateko.

21. *beldur*: Lat. *timor* > \**tirmor* > \**dirmor* > \**dirbor* > \**birdor* > \**birdur*/\**berdur* > *bildur*/*beldur*. *-rm-* > *-rn-* *nigar*-en.

22. *berandu*: \**gero-an-du* > \**gerwandu* > \**gwerandu* (*-w-* metatesiarekin) > *berandu* (cf. *burdi* s.u. *gurdi*); *gw* > *b* edo *kw* > *pw*-rentzat cf. *azpi* (< \**hatz-goi* → \**azgwi* > *azpi*), *aspaldi*, *bizkar*, etab.

23. *bigun*: lat. *fīnu*, cf. *f-* > *b-* *bago*, *berme-n*; VnV > VVn-rako *lukainka*, *artzain*, *hagin*, etab. *-ø-* > *-g-*rentzat *zagar*, *ligor*, *hogen* (s.u. *hoben*), *beilegi*, *ezagutu*, *nagusi*, *ugatz*, etab.

24. *bizkar*: \**goi-bar* > \**gwibar* > \**bi-z-bar*; cf. *azpi* eta *bular*, hurrenez hurren, zati bakoitzarentzat; orobat, cf. *egu-z-gi* (vs. *eki* < \**egu-gi*), *guzti* edo *ditu-z-te-z-* horrentzat.

25. *bortz*: \**bor-tz*, cf. *hor-tz*, *bel-tz* eta, seguruenik, *har-tz*. Erroarentzat, *hamar* (< \**han-bor*), *hoge* (< \**bor-gen-i*), etab.

26. *bular*: \**buru-bar*; cf. *burhezur* eta *barrul/barren*, *bizkar*, *-garren*, hurrenez hurren. *-b-* > *-ø-*rako cf. goian *alu* eta han bilduak.

27. *buztan*: \**butz* + *gan-i*; cf. *buztain* eta *puzker*.

28. *dollor*: cf. galizierazko *trollo*, Corominas-Pascual, s.u. *trollo-II*. *-r* lehen silabako kodatik bigarreneira *leher*, *aterri* edo *bazter*-en eta CrV > CVr-arent-

zat *leher*, *bazter*. Ez da *d-* > *l*-rik (cf. *labur*), seguruenik berankorra delako; halere, cf. *legen*, *leher* eta *leka* gehi *lehen*, *ller*.

29. *edo*: \**e-don*. “X zein Y” = “jar X, jar Y”. *-n* > *-ø* aditz zaharretan: *ediro* (< \**eradin*), *eramo* (< *eraman/leroan*), *iramo*. *e-* (eta *-n*) gabe (cf. *lagun* / *jaun*, biak s.u. *baino*) *jo*, *lo*.

30. *eihar*: Lat. *cremare*-tik; CrV > CVr-rentzat ikus *leher*, *nigar*, etab. eta *amaña*, *hagin*, *orein* *c-* > *ø*-rentzat. *-i* gehiketarentzat ikus *saihets*-en bilduak.

31. *ekix*: Mitxelenak \**egu-kiz*, *gaurkiz*-en eredura. Alabaina, RS-eko ha-pax hau gaztelaniazko *equis* ‘mozkorra’-tik dator.

32. \**enazur*: \**berna-zur* > \**ernazur* (cf. *hoge*, *itsaso* \**b-* > *ø*- bilakabide-arentzat) > \**enazur* (disimilazioz: cf. \**hertz-ger* > *ezker*) eta hemendik *hezur* / *azur* Mitxelenak erakutsi zuen bezala. \**h<sub>2</sub>* > *h<sub>1</sub>* *heuskara*-n eta Ax. *haiotz*, Harriet *hauen*-en legez.

33. *errain*: \**e-ra-din-i*-tik \**edirani* (cf. *ediren*, *ediro*) > \**enirani* > \**einrain* > \**eirrain* > *errain*, cf. *jarraitu* baina *arrain* [<\**don*]) *-da-* bat gehiagorekin.

34. *eske*: Lat. *uescor* > *eskatu* eta hortik *eske*, *merkatu*-tik *merke* edo *neka-tu*-tik *neke* bezala. *u-* > *ø*-rentzat *aterri*, *esker*, *ezain*, etab.

35. *esne*: \**behi-seni-edabe* > \*(*b*)*eh(i)-s(e)n(i)-e(d)a(b)e* > \**e(h)sn-eae* > *esne*. Cf. *baraur*-en aipatu \**abari-bagako-egun* > *bariku*. *b-* > *ø*-rentzat \**enazur*, *hoge* eta *itsaso*; *-b-* > *-ø-* eta *-d-* > *-ø-*rentzat cf. *aulki* eta, hurrenez hurren, *orein* eta *jaun*, *beilegi* eta *nagusi*. *-i* > *-ø*-rentzako adibideak ugari eta ezagun dira (*ogi* > *otordu*, *idi* > *itaurren*, etab.) eta ia beste hainbeste *a - e* > *e* eta *e - e* > *e*-rentzat.

36. *etse*: \**her-tz-(te)*. *Herts*, *itxi*, *herztel/heste*-ren erro berekoa. *-e atze*, *aurre* edo *Parise*-k bezala deklinabide kontsonantikoko epentesiaren berranalistik du. Ikus *ogi* eta *otso* \**h-* horren galerarako, \**h...h* > *ø...h* (gehi \*\**hC*) bitartez.

37. *euskara*: Irigoyenek \**enautsi*-tik. Alabaina, erroko diptongo hori eta amaierako *-tsi* sekundarioak dira seguruenik. \**e-da-non-tz-i*-k balioko luke; cf. *inotsi* < \**e-i-non-tz-i*. *Heuskara* aldaera zaharrak \**h<sub>2</sub>* < *h<sub>1</sub>* du *hezur*-ek legez.

38. *ezagutu*: Schuchardtek erromantzezko *sabut*-etik; ezinezko (*-n* da zaharra eta jokatu da, gainera). \**e-da-zun* > \**ezadun* > *eza.un* (EtxZib.) > *ezagun*, etab. *-ø-* > *-g-*rentzat ikus *bigun* eta han aipatuak.

39. *ezain*: lat. *uexanu*. *w-* > *ø*-arentzat ikus *aterri* eta hor aipatuak; VnV > VV-n-rentzat cf. *artzain*, *hagin*, *bigun*, *sei*, etab.

40. *ezker*: \**her-tz-gu-ger*. Lakarra (2002)-n \**ez-ger* proposatu nuen baina hori ezin liteke ongi izan, ezeztapena \**eze* baitzen. *-r*-ren disimilaziorako ikus *oker*, *aker*. Beste eskuarentzat \**hertz-gu(n)-hon* genuke (> \**erskuon* > \**eskwo-ne* > \**eskonefeskune* > \**eskoeleskubelekubi*). *Esku* soila \**hertz-gu(n)* > \**hersku* > *esku*; *-rzT-* taldearentzat cf. *hesi*. Hauek ere (*ezker* nahiz *esku*) *h-* gabe, *etse*, *ogi* eta *otso* legez.

41. *-garren*: \**bar-en*; bokalarteko *-b-* > *-ø-*rako ikus *alu*, *labur*, *orein*, etab.; VøV > VgV-rako *bigun*, *hagin*, *hogen* (s.u. *hoben*), etab. Esanahiaz eta \*\**batgarren*-en ezintasunaz ikus Lakarra (2010c).

42. *gau*: < \**gadu* < lat. *cado*; cf. *gudu* < *cuudere* amaierarentzat eta aurreko sarreran bildu adibideak bokalarteko ahostunaren galerarentzat.

43. *giltzurdin*: \**gantz-uridin*; cf. *guntzurdin*, *guntzurrun*, etab. eta *ile* / *ule* gehi *iltze* / *ultze* / *untze* *i/u* eta *l/n* aldaeretarako.

44. *gizen*: \**gi-zen*; *gi-*rentzat cf. *gihar*, *gibel*, *gizon*; *-zen-*entzat, cf. *zezen*.

45. **gurdi**: \**egurgi* > \**gurgi* > *gurdi* eta hortik *burdi*; honentzat, cf. *berandu*.
46. **guzti**: \**guz* (?) + *ti* (?) zatitzeak ez luke ezer konponduko, eta hitz honek euskararen barneko azalpenik ez du, dakidanez; bestalde, bada B-ko *duzti* aldaera ere, hortik atera nahi izan dena. Aldiz, lat. *totiu* > \**doti* > \**duti* > *duzti* (cf. *bizkar*, *eguzki*, *dituzte* -z- horrentzat) ongi letorke bai formaren, bai esanahiaren eta baita joskeraren aldetik ere.
47. **hagin**: lat. *caninu*; *c-* > *ø-* *amaña* edo *eihar* eta *orein*. \**h<sub>3/2</sub>* > *h<sub>1</sub>*-rentzat ikus \**enazur*, *euskara*, *herio*, *hoben*, *hodei*, *haitz*, etab. VnV > VVn-rako *lukainka*, *artzain*, *bigun*, etab. -*ø-* > -*g-*rentzat *beilegi*, *bigun*, etab. -*iu-* > -*i-*rentzat cf. *martiu* > *marti* eta **guzti**. Orotara: *caninu* > \**aninu* > \**âhîhû* > \**a.îhû* > \**agîhun* (ala \**ha.î.û?*) > \**hagiun* > *hagin*.
48. **handi**: \**han-di*; cf. *andots*, *ahuntz*, *ahari*, *ahardi* eta *aker* \**han*-entzat eta *ardi*, *idi*, *lodi*, *zaldi*, etab., -*dî*-rentzat.
49. **hausnar**: \**hats-labur* > \**hasna(b)ur* > \**hasnaur* (eta -*w-* metatesiarekin, cf. *auben*, *heuragi*) > *hausnar*.
50. **herio**: \**e-lin-o*. Erroarentzat cf. \**edin* eta \**edunlelun* (*irudi*-z Lakarra 2010d). \**h<sub>3/2</sub>* > *h<sub>1</sub>*-rentzat ikus **hagin** eta hor aipatu beste hainbat. Ez da hone-lakorik [\**hedario*] erro bereko \**e-da-lin-o* > *jario*-n (baina hemen -*h-* 4. silabaren hasieran dago) ez eta gainerako \**e-da-ra-CVC*-etan: \**hardao*, \**harrain*, etab.
51. **heuragi**: Mitxelenak (*FHV*) amaierarentzat *ugari* / *jori* eta hemen -*egi*. \**e-ra-dun-egi*-tik \**e.rau.ne.gi* > \**erauhegi* > \**herauegi* > \**heuraegi* (metatesiz) eta hortik *heuragi* nahiz *heuregi*. Beharbada *jori*-k bestelako jatorria du (cf. *odol*).
52. **hibai**: \**hur-ban-i*. *hur*-ek *h-* historikoki ekialdean izan arren soilik, Lakarra (2010c)-en erakutsi dut berezkoa duela -*hon* edo *hor*-ek legez- eta ez gero gehitua Z-n, *FHV*-n defendatuaren aurka. Horrela, une batez konposatu honek hiru /h/ izan ditu (\**hub-bahi*), bigarrenak lehena disimilatzen duelarik ohi bezala (cf. *ilherri*, *ilhotz*, etab.). Kontsonante-aurrekoak, ordea, ez zuen luzaz irauterik eta hirugarrena izan da hainbat hizkeratan gorde dena hitz hasieran [\**h<sub>3</sub>* > *h<sub>1</sub>*], cf. **hagin**, **herio**. Erro berekoak diren eta, hortaz, noizbait guztiek \**h-* izan duten *hidoi*, *ibar* eta *idor*-en soilik lehenak du *h-*, *hibai*-ren arrazoi berarengatik; ez, aldiz, *ibar* eta *idor*-ek, hauek bigarren erroan ez baitute -*n*-rik ez, beraz, -*h*-rik. Batek ere ez du gorde, bada, \**h-* baina diren *h-* horiek etimologikoak dira, halere, kokagune horretan sortuak izan ez arren.
53. **hidoi**: \**hur-don-i* > \**hub-dohi* > \**uhdohi* > \**udohi* > \_\_; cf. **hibai** eta *lohi*, *hodei* bigarren zatirako. Hemen bertan hainbat \**h<sub>3</sub>* > *h<sub>1</sub>* eta \**h...h...* > *ø...h...*; *etse*, *ogi* eta *otso* \**-r* > -*h* bilakabidearentzat (cf. *uharte*, *ohalano*)
54. **hiri**: \**her-i* (eta, disimilazioz, *hiri* > *huri*; cf. *iperdi/ipirdi/ipurdi*) eta *etse*, *hesi*, *herztelheste* gehi *hirur*, *heren* erroari dagokionez. Egun ekialdean gordetzen den -(*h*)*iri* 'hurbil, gertu' (espazioan lehen eta denboran gero, historikoki), orokorra zen toponimiak eta konposatu fosilduek dioskutenez: cf. *arrastirian*, *goiztirian*, *Zufiria*, *errekarian* (Zeberio), etab., baita *agiri* ere, noski. Izenaren eta adizlagunaren jatorri bera dugu erromantzez: ikus Corominas-Pascual s.u. *cerca*. Zabalago Lakarra (2010c).
55. **hoben**: Lat. *offendere* Mitxelenak ikusi bezala; alabaina, hark bakarrik -*ff-* > -*b-* azaltzen du baina ez *h-* eta ezta -*de*-ren falta ere. Suposatzen badugu \**obende* > \**obeden* metatesia (cf. *legen*) eta hortik \**oben* asimilazioa, \**obe*hen > \**hobe*en > *hoben* (eta hemendik \**ho.en* > *hogen*), bi akats horiek gaudituko genituzke.



56. *bodei*: \**e-don-i*, *e - o* > *o - e* metatesiarekin (cf. *orein* eta beste bokal batzuekin *joan*) eta \**h<sub>3/2</sub>* > *h<sub>1</sub>*-rekin (honetaz ikus *hagin*). Mitxelenak *FHV*-n \**-e* suposatzen du; horrela balitz \**e-don-e*-tik abiatu beharko genuke, *-e* horri *atze*, *aurre* edo *Parise*-koa erka lekiokelarik.

57. *hoge*: \**bor-gen-i* > \**ohgehi* > \**ogehi* > *hoge*. *b-* > *ø*-rentzat *itsaso*, etab. *h<sub>3</sub>* > *h<sub>1</sub>*-entzat *bodei*, *herio*, *hibai*, etab. \**-r* > \**-h* > *-ø* *etse*, *ezker*, *hibai* eta horietan aipatu hainbatetan.

58. *hortz*: \**hor-tz*; cf. *beltz*, *ahan-tz-i*, *arrotz* (< \**arron-tz*), *har-tz*, *euskara*, *nagusi*, etab. atzizkiarentzat eta gazt. *can-ino* eraketarentzat.

59. *ibar*: \**hur-bar*: cf. *hibai* eta *barrul/barren* gehi *bular*, *bizkar* bigarren zatiarentzat. Lehendabizikoarentzat *idor* (*h-* gabe hau ere) baina *hidoi* eta *-dor* honentzat *agor* (< \**ha(n)-dor* → \**ador* > \**a.or* > *agor*).

60. *ifini*: \**edun-heben-i* > \**ewhebeni* > \**efe.eni* > *efini*, *ibeni*, *imini*, *ipini*, etab. *-b-* > *-ø*-rentzat ikus *alu*, *aulki*, etab. Hualdek (1997a) ikusi \**wh* > *f* bilakabidez cf. *afari*.

61. *igerri*: \**edu(n)-berri* > \**euberri* > \**eu.erri* > \**eigerri* > *igerri*; jatorri berekoa da, orobat, *ulertu*: \**edu(n)-berri* > \**euberri* > \**eu.erri* > \**eugertu* > \**urertu* > *ulertu*. *VøV* > *VgV*-rentzat *bigun*, *hagin*, *hogen* (*hoben*), etab; *-g-* > *-r*-rako, cf. *sorotsi* (< \**so-egotzi*, Mitxelenak Boudarekin erakutsi legez), *zauri*, etab. *u-/i-* bikoiztasunaz ikus *ile*, *iltze*, *intsaur*, etab. *r - R* > *l - R* disimilazioaz ikus *belar/bedar*, *elur/ledur*, etab.

62. *ile*: \**eno(n)-le*. Cf. *edo -n* galerarentzat eta *bele*, *erle* bigarren zatiarentzat. *Ule* eta *elle-z* landa, ez da ahaztekoa *ilhe* aldaera, \**h<sub>2</sub>* > *h<sub>1</sub>* eta \**hVR-* > *VRh*-aldaketekin; cf. *euskara* eta *alba*, *elhe*, *olho...* (ikus Lakarra prest.-8) eta *unai(n)*.

63. *inardun*: *jardun* aldaerarekin duen lotura eta *-dun* erroa ikusi zituen Mitxelenak (1977b) baina ez jatorria, \**jar* izenki ezezagun bat proposatu baitzuen benetako aurrizki multzoa (\**e-da-ra-*) beharrean: \**e-da-ra-dun*; cf. *inaurri*, *inardetsi*, *inarrosi*, etab., *iñartxi* RS-eko hapaxa (< *inardetsi*, haplogiaz), tarteko. Ikus \**ardano*, *arrain*, *jarraitu* eta horietan aipatuak, \**e-da-ra-CVC* “erro hedadura” beraren emaitza ezberdin zenbaitetarako (cf. Lakarra 2010d).

64. *inarrosi*: \**e-da-ra-non-tz-i* (cf. *-ino-* eta *inotsi* erroaz). Morfologiarentzat, cf. *inardun* (< \**e-da-ra-dun*), (*tx*)*inaurri* (< \**e-da-ra-durr-i*), *inardetsi* (< \**e-da-ra-din-tz-i*), etab. *tx-* txikigarria hartu dute hizkera batzutan (cf. *txilar*, etab.); *-au-* > *-u-* B *indurri*-n. \**dur* errotikoak dira *lur* (\**d-* > *l*-rentzat ikus *labur*), (*h*)*andur*, etab.

65. *intsaur*: \**eun-tze-hur*. Lehen zatia (eta horren aldaerak: *Beunza*, etab.) *fenu*-tik zetorrela ikusi zuen Mitxelenak (*FHV*, 2. arg.). Cf. *untxaur*, *eltzaur*, etab., diptongo beraren emaitza ezberdinarekin (cf. *ile*, *iltze*).

66. *ipurdi*: \**ibi-erdi* > *iperdi* > *ipirdi/eperdi*\_\_. Bokalismorako, cf. *hiri/huri*.

67. *itsaso*: \**bits-baso*; *b-* > *ø*-rako ikus \**enazur*, *esne* eta *hoge*, bokalartean *alu*. Lakarra (2002b)-n oso bestelako proposamena, guztiz desbideratua.

68. *itzuli*: \**hatz-eduli* > \**atzeuli* > \**etzauli* > \**etzuli* > *itzuli*; bigarren zatiarentzat cf. *ilki*, *iltze*, (*h*)*esztul*, etab. Lehenengoarentzat *atxiki*, *itxeki*, etab. < \*(*h*)*atz(e)* + *eduki*.

69. *jabe*: \**e-da-dun-e* (cf. *jaun*); *-e* horrentzat cf. *hon* > *hobe*. Gogora *utzi* erroko *-d-* > *-ø*-arentzat; aurrizkikoa askozabalduegoa da: *joan* (metatesiarekin), *jakin*, *jazarri*, etab.



70. **jaio**: \**e-da-din-o*; cf. \**e-ra-lin-o* (*herio*-ren kausatiboa) > \**erari(h)o* > *arerio*, \**e-da-lin-o* > *jario* eta —aurrizkirik gabe— \**edin* > *jin*. Cf. \**ardano* \**h<sub>4</sub>* > *h<sub>1</sub>* bilakabidearen faltarako.

71. **jarein**: \**e-da-len-i*, ez \**jar-egin* Mitxelena (1977b) ulertu bezala. Ohar bedi *jardun* (*inardun*) eta *jardetsil inardetsi* izanik Mitxelena *jarein*-ekin batera aztertuak, honek ere \*\**jargin* beharko zukeela, erro aurreko *-e* hori gabe. Ikus *urretx* erro beraren beste eratorri batentzat. Arrazoi bertsuengatik ezin onar liteke *jaramon* < \**jar*-edo *txara* + *emon* etik (cf. Lakarra 2010d).

72. **jarraitu**: \**e-da-ra-din*, *jarrain*, *jarraiki*, etab. bezala. Cf. *inarrosi* eta *jardun* (*inardun*). Balentzia bat gutxiagorekin (\**e-ra-*) *eriden*, *ediro* (< \**e-ra-din*) eta *errain*.

73. **jin**: \**e-din*; cf. *jaio*, *jario*, *herio*, etab. eta *dadin*, *zedin*, etab. Erromantzez erro berekoak dira *venir* ‘jin’ eta *devenir* ‘bilakatu, \**edin*’, cf. *RS Lotsaga nindin*, *ogiz ase nindin*, etab. Lakarra (2006b)-n.

74. **joan**: \**e-da-non*. Gogoan izan badela *johan* aldaera eta, batez ere, markagarriago baita, *doha*, *zihoan*, etab. Metatesi bera *unai(n)*-en eta erro beraren eratorrietan: *eran* < \**e-ra-non* → \**erahon* > *hara-gi* eta *eroan/leraman* (\**e-da-ra-non* → \**eranoan* > \**eraoan* [-*h-* > *h*-rik ez (edo \**-h-* > -*ø-*), \**-n* 4. silaban baita \*\**hardao* eta beste legez]).

75. **kokots**: \**kots*-en erreduplikazioa; cf. *ahal*, *akats*, *ihintz* eta *atal* \**C*-... *C*... > *ø*-... *C*... bilakabidearentzat.

76. **labain**: \**da-ban-i*, cf. *hebain* < \**e-ban-i* eta *lubaki* < \**dur-ban-gi*; \**d*- > *l*-rentzat ikus *lats* eta ondokoak. Aurrizkiarentzat ikus *labar*, *labur*, etab.

77. **labur**: \**da-bur*; *la*-rentzat cf. *labain*, *labar*, *lagun*, etab. *-bur*-entzat *samur*, *apur*; *zimir* eta, agian, *urri* < \**e-burr-i*. *l*- < \**d*-rentzat cf. *lehen*. *Labur*-etik *laur*; cf. *alu*, *bular*, *-b-* > -*ø*-rekin. Lakarra (2010c)-en azaldu bezala, hatzekin kontaketa zaharra ez zen behatz txikitik edo loditik hasten, lodihurrengotik baizik, horrela 4.a txikia (“laburra”) zelarik; agian, hobe *hirur* < \**her(i)-bur* ‘hatz txiki’ eta *laur* < \**da-bur* ‘txikiaren aldameneko’.

78. **lats**: < \**dats* (eta hortik *jatsi* < \**e-datsi*); cf. *aldats* (< *alde* + \**dats*), *adats* (< \**da-dats*, erreduplikazioa: cf. *adar*, *odol*), *laster* (*ur* \_\_\_), etab. \**d*- > *l*-ren adibideentzat ikus *labur* eta ondokoak. \**Ardano*, *arrain*, *arraultza* eta gainerakoetan ikusitakoaren arabera, galde liteke *arrats*-ek ez ote duen haien morfologia bera erro honen gainean; cf. ing. *fall* ‘erori, udazken’.

79. **ledania**: Gazt. *pedania* > \**bedania* > \**dedania* > *ledania*; cf. *letagin*. Azken aldaketarentzat ikus aurrekoak eta atzekoak.

80. **legen**: Gazt. *dengue*. *-n* lehen silabako kodatik —ez bokalartetik, cf. *bigun*, *artzain*, etab.— bigarrena, *hoben*-en bezala.

81. **lehen**: \**den-en*; cf. *eteten* eta *atseden* erroarentzat, gehi *-en* lehenaldiko aditz jokatueta. Zabalago, Lakarra (2008a).

82. **leher**: lat. *tremere* > \**terme* > \**lerme* > \**lerne* > \**lener* > *leher*. *t*- > *d*- > *l*-rentzat cf. *leka*, *letagin* (< \**detagin* < \**betagin*). *CrV* > *CVr*-rentzat cf. *dollar* eta *izter*, *bazter*, *maizter*; *-r* 1. silabako kodatik bigarrena *aterri*, *dollar*, *nigar*.

83. **lerro**: lat. *numeru*-ren oinordeko erromantzeren batetik, cf. *lembrar*, *lombrar*. *-nr-* > *-R-*rentzat *jarraitu*, *arrain*, *arraultza*, etab.

84. **ller**: \**der* > *ler* eta sabaikaritze adierazkorra (cf. *llillura*, etab.).

85. **lur**: \**dur*; cf. *andur* eta *inaurri*; ikus s.u. *inarrosi*.

86. *mahai(n)*: \*goi-*\*dodani* ‘gainean jarri’ > \*gwi(d)odani > \*bionani > \*bonani > \*banani > \*bâhâhî > mahain. \*gw- > b-*rentzat berandu* eta han aipatuak; bigarren zatiarentzat *unai(n)*.

87. *mikatz*: \*bini-gaitz; cf. *lokatz* (< *lohi-gaitz*), etc.

88. *nagusi*: \*da-dun-tz-i; cf. *jauntzi* < \*e-da-dun-tz-i. Antzeko bikote batentzat cf. *laino* (< \*da-din-o) : *jaio* (< \*e-da-din-o). AE-ko ez diren beste *n-* batzuetarako ikus *neska, nigar, narru*.

89. *neska*: Seguruena mailegua (cf. NISKA); *n-* horrezaz landa, ohar CVCCV egiturari, eta ez CVC-k (\*nes) eta ez CV-k (ka) ez dutela funtzio edo esanahi ezagunik.

90. *nigar*: Cf. *negar* eta honentzat *agiri/ageri, birtute/bertute*, etab.; horrenbestez, *-ir-* behar zuen lehenago (\*nirga). \*nir eta \*ga zatitzerik ez dugunez, mailegaketaren aukera gogoan izan beharra dugu; \*nirga < \*girna < \*girma < \*grima da, nire ustez, biderik egokiena, urrats horietariko bakoitzarentzat paraleloak baitira: *-Cri-* > *-Cir-*rentzat cf. *treme-* > \*terme [*leher*] eta *-rm-* > *-rn-*rentzat (\*girma > \*girna) horretan bertan, \*terme- > \*terne edo termo- > \*terno >... *lehor*. Nahiz eta *arma, berme, horma* eta enparatuetan taldea gorde den, beharbada *-rm-* > *-rn-* aldaketadunak besteak baino zaharrago ditugu, horietan gero *-r* bigarren kodara igarotzen baita, kontrakoetan ez bezala (*harma* /\*\**hamar*, *bermel*/\*\**bemer*, *hormal*/\*\**homar*).

91. *odol*: \*dol > \*do-dol (erreduplikazioa; cf. *adar, adats, eder*, etab.). \*C – C > ø – C erorketarentzat, *adar* eta gainerakooz kanpo), cf. *ahal, ihintz, ohol*, etab. \*dol erroarentzat cf. *ozkol* (< \*zotz-dol), *jori* (< \*e-dol-i) eta *erori* (< \*e-ra-dol-i).

92. *ogi*: \*hor-gi > \*hohgi > \*ohgi > *ogi* baina \*hor-di > *hordi*. Gogora RS-eko *Ogiagaz ura, oragaz eroen elikatura*. Ikus *etse* eta *otso* \**-r* > \**-h* eta ondoko hasperen galeraren adibide gehiagotarako (cf. Lakarra prest.-8).

93. *oker*: \*oin-ger > \*orker; cf. *orpo*: (< \*oin-bo : albo (-alde). *-in* > *-r* gehiagorentzat ikus *sorbald* (< *soin*) eta baita *ohorgo* (Mitxelena *ohingo*); orobat, cf. *ezker* dardarkari disimilazioarentzat. Ekialdean *hoin* dugunez, halere, ezin bazter liteke \*hor- > \*hoh- > \*oh- > *o-* ere.

94. *olde*: Lat. *uoluntate* > \*olondade > \*ololda(d)e > \*ololde > *olde*. \*w- > ø-*rentzat aterri, eske, ezain*, etab. *-dade* > *-e-*rentzat, cf. *esne*.

95. *orein*: \*cer(u)u-oin > \*er(u)-oin > \*or-ein > *orein*. Bokal metatesiaz ikus *hodei*; *-u* > ø-*rentzat* ikus *bular, burhezur*, etab. eta *-b-* > ø-*rako* ikus *alu, labur* [*laur*], *-garren*. 2. zatiarentzat (*-oin*), gogora *kirten*, etab. (FHV 508-509).

96. *otso*: \*hor-tz-so; cf. *amaso, aitaso* eta *hortz*. Taldearentzat (*rtzC* > *ts*), cf. *etse* eta *ezker* -*esku* (dardarkari erorketarekin hirurak). Guztietan \*h- > ø-*ere*; ikus honetaz *etse* eta *ogi*.

97. *puzker*: \*butz-ger; cf. *oker, ezker, aker* (< \*han-ger), etab. *butz-*entzat cf. *buztan*.

98. *sabel*: \*sa-bel; *sa-*rentzat, cf. *sabai, saihets, sakon, samin, samur*. *-bel-*entzat *harbel, orbel, ubel, gibel*, etab.

99. *saihets*: \*sa-hets; aurritzkiarentzat ikus *sabel* eta erroarentzat *hertze, hertsu, etse*, etab. *-i-* erantsi horrentzat, cf. *aihotz, eiho, eihar, oihan, oiher*, etab. Ikus Lakarra (2009c).

100. *sei*: Mailegaketa proposamenek (erromanikoez nahiz iberikoez) ez dute oinarriarik. \*seni-tik Amazoniako hizkuntza zenbaitetan bezala; *-b-*a (cf. *sehi*) zenbakien izaera enklitikoarengatik galdu bide zen eta gero hiatoa gorde beharrean

(cf. *segi*, *se.i*, *se.in*), diptongo bihurtu. Diptongoa zaharra balitz *\*\*si* genuke euskalki gehienetan edo guztietan baina ez da horrelakorik inon lekukotzen.

101. *ugatz*: *\*edo(n) + (h)atz*, *-g-* hiato-hauslearekin (ikus *bigun*-en pean); cf. *edoski* (< *\*edon + -tz + -gi*). Ikus *urgatzi u-* bokalarentzat.

102. *unai(n)*: *\*e-da-don-i > \*edodani* (metatesiarekin, cf. *joan*) > *\*edonani > \*eunani > unai(n)*. Cf. *ulain* (disimilazioz) eta *urdain* (< *\*urde- \*edodani*) amaierarentzat, gehi *urgatzi* hasierako *u-* horrezaz. *Mabai(n)* aditz honen beste eratorri batentzat. Garrantzirik handienekoak dira *unh-* zein *ulh-* aldaerak; *\*h<sub>3</sub> > h<sub>1</sub>*, eta *hVR- > VRh-* gehiagotarako, cf. *anho*, *ilhain* eta *ile*.

103. *urgatzi*: *\*e-da-ra-gotz-i*; cf. *joan* eta *unai(n)* *a - o > o - a* metatesia-  
rentzat eta *arraultza*, *\*ardano*, etab. *-R-*arentzat: *ugatz*, *unai(n)* eta *urten* *\*e(C)o- > u-*rentzat.

104. *urretx*: *\*huR-e-len-i-tz > \*hurrerehitz > \*hurre(r)e(h)itz > hurreitz > hurritz*, *urretx*, etab. Cf. *\*e-len-i-tz > \*erehitz > \*hereitz > hareitz*, *aretx*, etab. Azkenik, *\*len-i-zahar > \*lehizahar > \*leizahar > leizar*, *lexar*, *errexal*, etab. Lehendabiziko erroarentzat cf. *hur* eta *intsaur*; bigarrenarentzat ('landatu') cf. *jarein* < *\*e-da-len-i*. Atzizkiarentzat, *ihin-tz*, *arro(n)-tz*, *jaun-tz-i*, etab. *Her- > har-* aldaketa gehiagotarako, cf. *haragi* < *hero-* eta *haran* < *\*heran* < *\*erahon* < *\*eranon* < *\*e-ra-don*.

105. *utzi*: *\*edutzi*; cf. Gzah. *eutzi*, Zzah. *eitzi*, Bzah. *etxi*, Bmod. *itxi*. *-d-*arentzat cf. *\*edin*, *\*edun*, etab.

106. *zabar*: *\*zan(i)-or > \*zahor > zabar*, cf. *azkar* < *(h)azkor* < *\*hazi + -kor* (FHV). Cf. *zale* < *\*zan(i)-le*, *zaindu* (< *\*zani-tu*), *Zaitegi* (< *\*zani-tegi*), etab.

107. *zaldi*: *\*zal-di*, cf. *idi* (*\*di-*ren erreduplikazioa, Borja Ariztimuñoren ustez: zehatzago, *\*din* errotik *\*(d)idin* eta *-n > ø* *lo*, *jo*, *idoro*, *iramo*, etab. legez), *ardi*, *ahardi*, *hordi*. Lehen zatiarentzat, *azal* (< *\*za-zal* < *\*zal-*en erreduplikazioa) eta *zail* (B *zal*, cf. *zan*, biak monoptongazioarekin, *gain* > *gane-n* bezala), *\*zali-tik*.

108. *zauri*: lat. *sanguine* > *\*zaungine* [cf. *auben* metatesia-arentzat] > *\*zau-gihe* > *\*zaugii* > *zauri*. Cf. *sorotsi* (< *so-egotzi*) eta *ulertu* (< *\*urertu* < *\*ugertu* [s.u. *igerrri*]) *-g- > -r-*rentzat. Belare aurreko sudurkariaren erorketarako, cf. *iguzulindazu*, *ukitu* < *unkitu*, etab.

109. *zemai*: Gazt. *menaza* > *\*mezana* > *\*zemana* > *\*zema* > *\*zema* > *zemai*. Jatorri bereko *beaza* eta *mehatxu* ez dira hizkera berean lekukotzen, bai, aldiz, *a-menazu*, etab.

110. *zezen*: *\*zen > ze-zen* (erreduplikazioa: cf. *adar*, *zozo*); cf. *zekor* < *\*zen-gor* eta *gizen*.

111. *zortzi*: *zorrotzi-tik* (ekialdean lekukotua, ikus *OEH*, s.u.); azentudun silaba aurreko bokala *-berandu-* erortzean (ikus *bazter*, *esne*, etab.) gelditu da talde hori, bestela *-st-* behar baitzuen erdi-mendebalean eta *Z-E-n* (cf. *beste*). Lakarra (2010c)-en erakusten denez, '8' eta 'zorrotz'-en artean bada loturarik hainbat hizkuntzatan, kontaktan erabilitako bi ukabiletako lau gehi lau "muinotxoengatik".

## LABURPENA

*Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio*

Lakarra (1995) eta ondoko lanetan eman ditut frogak esateko euskararen berreraiketari dagokionez Mitxelenak '50eko hamarkadako lan bikainetan lortu eta oraindik estandar den aitzineuskararen eredu heda eta sakon litekeela eta hizkuntza egoera zaharrago baterantz eraman ahal dela erroaren azterketaren bitartez. Erro teoriak eta honen barnean erroaren forma kanonikoak eta horren bilakabideak edozein berreraiketa eta konparaketatan zein hizkuntzaren –bere sistemaren muineko hainbat ezaugarri larriren– eboluzioan duen bete-behar garrantzitsuen aldarrikapenean datza nire lan honetako eta enparatuetako gogoeten oinarria. Gainetik, aurreko berreraiketa-paradigman tiratu ez ziren hariak eta haiei kanpotik erantsiek soka lodia egiten dute, eta erroaren egitura eta bilakabidearen azterketak bide honetan barrena lehen baino urrutiago jotzea ahalmentzen eta zilegiztatzen digu. Hara lanaren laburpena: §1. AE-ren berreraiketa estandarraz; §2. Arrazoiak eta bideak berreraiketaredua aldatzeko; §3. Teoria berri bat Aitzineuskararen berreraiketarako: Erro teoria monosilabikoa; §4. Erro teoria eta euskal lexikoiaen etimologia formalak; §5. Forma kanonikotik tipologia holistikoa diakronikorantz; §6. Forma kanonikoa eta tipologia: euskal aditzaren berreraiketa; §7. Forma kanonikoa, hitz familiak eta Aitzin-Euskara Zaharraren fonologiaren berreraiketa; §8. Forma kanonikoaren aldaketak; §9. Ondorioak eta egitekoak; §10. Bibliografia; §11. Eranskinak (I. CVC eta 48 erro eredu bisilabikoren azterketa taulen bidez; II. Hainbat etimologia berri).

AEZ-aren teoria monosilabikoa zenbait galdera zahar erantzuteko edo beste zenbait erantzun-bidean jartzeko eta, batez ere, hainbat eta hainbat berri, lehen axolako ez zirenak edo asma ere ezin zitezkeenak, sortzeko eta etorkizunerako ikergai bilakatzeko ahalmenik izan du eta oraingoz zati baterako ere badukeela esan bide genezake, sortzen eta garatzen doan edozein paradigma berriri eska dakiokkeen eran.

**Gako hitzak:** aitzineuskara, berreraiketa, erroa, forma kanonikoa, etimologia, morfologia, tipologia holistikoa, lexikoa.

## RESUMEN

*Teoría de la raíz monosilábica y reconstrucción del protovasco: algunos aspectos y consecuencias*

En Lakarra (1995) y trabajos posteriores creemos haber dado pruebas de que la reconstrucción del protovasco (PV) efectuada por Michelena en sus fundamentales trabajos de los '50 puede ser ampliada y profundizada, alcanzando mediante la teoría de la raíz etapas anteriores al PV reconstruido por él y actualmente estándar.

El principal fundamento y objetivo de esta síntesis y de otros trabajos anteriores o en preparación relacionados con él, reside en la explicitación y reivindicación del papel fundamental que la teoría de la raíz –y dentro de ella el análisis de la estructura y evolución de la forma canónica– tiene tanto en la reconstrucción de como en la comparación con cualquier lengua, así como en la evolución de múltiples y fundamentales rasgos del sistema de tales lenguas; hemos dado pruebas de que tal vía de análisis es aplicable y rentable también en la nuestra. Por otro lado, tanto determinadas vías que quedaron sin desarrollar en el paradigma rector anterior como otras adicionales proporcionadas por paralelos provinientes de otras tradiciones nos dan la posibilidad de acceder mediante la teoría de la raíz monosilábica a etapas anteriores de la prehistoria de la lengua vasca. Nuestro trabajo está organizado como sigue:

§1. Sobre la reconstrucción estándar del PV; §2. Razones y vías para cambiar el modelo reconstructivo; §3. Una nueva teoría para la reconstrucción del PV;

§4. Teoría de la raíz y etimología formal en el lexicon vasco; §5. De la forma canónica a la tipología holística diacrónica; §6. Forma canónica y tipología: reconstrucción del verbo vasco; §7. Forma canónica, familias léxicas y reconstrucción de la fonología del PV antiguo; §8. Sobre el cambio de la forma canónica; §9. Conclusiones y temas pendientes; §10. Bibliografía; §11. Apéndices (I. Análisis del modelo radical CVC y de 48 modelos radicales bisilábicos; II. Nuevas etimologías).

Creo que podemos afirmar que la teoría monosilábica de la raíz en PV antiguo es capaz de responder algunas viejas preguntas o de poner otros problemas en vías de solución. Además, y sobre todo, nos proporciona –como cabe esperar de cualquier nueva teoría en proceso de desarrollo– nuevas cuestiones antes no observadas o consideradas irrelevantes y las convierte en temas de necesaria investigación para el futuro de la reconstrucción de la prehistoria de la lengua vasca.

**Palabras clave:** protovasco, reconstrucción, raíz, forma canónica, etimología, morfología, tipología holística, léxico.

## RÉSUMÉ

*Théorie de la racine monosyllabique et reconstruction du proto-basque: quelques aspects et conséquences*

Dans Lakarra (1995) et autres travaux ultérieurs nous croyons avoir démontré que la reconstruction du proto-basque (PB) effectuée par Michelena dans ses travaux fondamentaux des '50, peut être agrandie et approfondie, parvenant, à travers la théorie de la racine, aux étapes antérieures au PB, reconstruit par lui et actuellement standard.

Le fondement principal et le but de cette synthèse et d'autres travaux précédents ou en préparation relatifs à celle-ci, se trouve dans l'explication et la revendication du rôle essentiel que la théorie de la racine –et dans celle-ci l'analyse de la structure et l'évolution de la forme canonique– joue aussi bien dans la reconstruction que dans la comparaison avec n'importe quelle langue, ainsi que dans l'évolution de multiples et fondamentaux traits du système de ces langues ; nous avons démontré que ceci peut aussi s'appliquer à la nôtre. D'autre part, aussi bien certaines voies qui n'ont pas été développées dans le paradigme reconstruteur précédent que d'autres apportés par parallèles provenant d'autres traditions, nous donnent la possibilité d'accéder, au moyen de la théorie de la racine monosyllabique, de des étapes antérieures de la préhistoire de la langue basque. Notre travail est organisé de la façon suivante :

§1. Sur la reconstruction standard du PB; §2. Raisons et voies pour changer le modèle restructuratif; §3. Une nouvelle théorie pour la reconstruction du PB; §4. Théorie de la racine et étymologie formelle dans le lexique basque; §5. De la forme canonique à la typologie holistique diachronique; §6. Forme canonique et typologie: reconstruction du verbe basque; §7. Forme canonique, familles lexiques et reconstruction de la phonologie du PB ancien; §8. Sur le changement de la forme canonique; §9. Conclusions et thèmes pour l'avenir; §10. Bibliographie; §11. Appendices (I. Analyse du modèle radical CVC et de 48 modèles radicaux bi-syllabiques; II. Nouvelles étymologies).

Nous pouvons probablement affirmer que la théorie monosyllabique de la racine en PB ancien est en mesure de répondre à certaines questions anciennes ou d'apporter une solution à d'autres problèmes. En outre, et surtout, elle suscite –comme toute autre théorie en voie de développement– de nouvelles questions jusqu'ici passées inaperçues ou considérées comme peu importantes et en fait des thèmes à étudier nécessairement pour la reconstruction future de la préhistoire de la langue basque.

**Mots clé:** proto-basque, reconstruction, racine, forme canonique, étymologie, morphologie, typologie holistique, lexique.



## ABSTRACT

*Monosyllabic root theory and reconstruction of Proto-Basque: Some aspects and consequences*

In Lakarra (1995) and later works, I have provided some evidence to prove that the model of Proto-Basque that Mitxelena proposed in the 1950s in his excellent works, a model that is still considered as standard, can be expanded and studied in more depth, and that it is possible to trace an older linguistic situation working on more recent theories about root monosyllabic structure in Proto-Basque. The core of the reflections in this and other works of mine is based on the claim of the important function that the root theory and, more specifically, the canonical form of the root and its development performs in any reconstruction and comparison or in the evolution of language – of certain important characteristics of the core of its system. Moreover, the threads that remained loose in the previous reconstruction paradigm, together with others added from outside, form a thick rope, so that the study of the evolution of the root allows and legitimizes going further than ever.

This is the summary of the present work:

§1. On the standard reconstruction of Proto-Basque; §2. Reasons and ways to change the reconstruction model; §3. A new theory for the reconstruction of Proto-Basque: the monosyllabic root; §4. Root theory and the formal etymology of the Basque lexis; §5. From canonical form to diachronic holistic typology; §6. Canonical form and typology: reconstruction of the Basque verb; §7. Canonical form, word families and reconstruction of Old Proto-Basque; §8. On the change of canonical form; §9. Conclusions and tasks; §10. Bibliography; §11. Annexes (I. The study of CVC and 48 bisyllabic root models in tables; II. Some new etymologies).

It could be said that the monosyllabic theory of Old Proto-Basque has allowed us to answer some old questions or to come closer to some other enigmas, and first and foremost to raise some new questions, which were until now unimportant or even unthinkable. The monosyllabic theory has had and will still have the capacity to become an object of study for the future, as is to be expected from any new paradigm that is being developed.

**Key words:** Proto-Basque, reconstruction, root, canonical form, etymology, morphology, holistic typology, lexicon.